

Gasteizko haurren eta nerabeen egoerari buruzko azterlan diagnostikoa

2021



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Siis Servicio de
Información e
Investigación Social
Gizarte Informazio
eta Ikerketa
Zerbitzua
Fundación Eguía-Careaga Fundazioa

Aurkibidea

I. BLOKEA. AZTERLANAREN EZAUGARRIAK ETA TESTUINGURUA	5
1. kapitulua. Atarikoa, helburuak eta metodologia	6
1.1. Atarikoa	6
1.2. Helburuak	6
1.3. Metodologia	7
1.4. Txostenaren egitura	12
2. kapitulua. Esku-hartzearen esparrua	14
2.1. Atarikoa	14
2.2. Haurrak eta nerabeak pandemiak sorturiko agertoki berriaren eta haren ondorioen aurrean	15
2.3. Haurren eta nerabeen alorreko politika publikoak eta udal-ekintza	26
2.3.1. Arau- eta eskumen-esparrua	26
2.3.2. Haurrak eta nerabeak Gasteizko agenda politikoan	29
2.3.3. Haurtzaroen eta nerabezaroen eginiko inbertsio sozialaren paradigma	29
3. kapitulua. Esku-hartzearen testuingurua	31
3.1. Aurrekariak	31
3.2. Metodologia	34
3.3. Haur eta Nerabeentzako II. Udal Planaren indarguneak eta ahuleziak	35
3.4. Plana prestatzeko prozesuaren balorazioa	36
3.5. Koordinazio-prozesuaren balorazioa	37
3.6. Gauzatze-prozesuaren balorazioa eta pandemiaren inpaktua	37
3.7. Zerbitzuen funtzionamendua etxeko konfinamendu-garaian eta jardueren murrizketek izaniko balizko inpaktua	39
3.8. Zerbitzuen funtzionamendua <i>normaltasun berrian</i>	40
II. BLOKEA. HAURREN ETA NERABEEN EGOERA GASTEIZEN	42
4. kapitulua. Hiriaren egitura soziodemografikoa	43
4.1. Gasteiz da azken 5 urteetan gehien hazi den 40.000 biztanletik gorako euskal udalerrria	43
4.2. Biztanleriak gora egin ondoren, zerotik gertuko saldo begetatiboa eta hazten ari den migrazio-saldoa, 2008ko krisiaren aurreko aldiaren baino handiagoa	45
4.3. Haurrak eta nerabeak Gasteizko populazioaren % 17,4 dira	47
4.4. Jaiotza- eta ugalkortasun-tasek behera egin dute	49
4.5. Haur eta nerabeen osaera soziodemografikoa: sexua, adina eta jatorria	51
4.6. Atzerrian jaiotako 18 urtetik beherako biztanleriak gora egiten jarraitzen du	53
4.7. Biztanleriaren banaketa, auzoen arabera	55
5. kapitulua. Familiak: osaera, familia-harremanak eta zailtasun nagusiak	57
5.1. Gasteizko lau familia-etxetatik batean haur edo nerabe bat bizi da	57
5.2. Lau haur eta nerabetatik bat familia ez-tradizional batean bizi da	59
5.3. Familia-harremanak eta gurasotasun positiboa	61
5.4. Enpleguaren prekaritatea, diru-sarrera nahikorik ez izatea eta seme-alaben etorkizunaren gaineko kezka, seme-alabak dituzten familien arazo nagusien artean	63
5.5. Lana eta familia bateragarri egitearekin lotutako arazoak	65

6. kapitulua. Pobrezia, prekaritatea eta gizarte-bazterkeria	67
6.1. Arabako benetako pobrezia % 10,4tik % 7,3ra jaitsi da 2016 eta 2020 artean.....	68
6.2. Benetako pobrezia-egoerak murriztu egin dira 18 urtetik beherakoen artean, baina haien prebalentzia bikoitza da oraindik ere orokorrarekin alderatuta	71
6.3. Desparekotasuna areagotu egin da haurtzaroan	73
6.4. 16 urtetik beherako 1.500 haur inguruk gabezia material oso larriak dituzte hirian	74
6.5. Gasteizko haur eta nerabeen % 18k uste duenez, etxeko egoera ekonomikoak okerrera egin du pandemiarekin	76
6.6. 2019tik 2020ra bitartean, Gasteizko seme-alabak dituzten familientzako gizarte-larrialdietako laguntzak (GLLak) eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) % 6 eta % 10 igo dira, hurrenez hurren, eta hautsi egin dute 2017tik zuten beheranzko joera	78
6.7. Familia migratzaileen eta pobretuen ikuspegia	80
6.8. Gizarte-bazterkeriako beste prozesu batzuk: dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeak.....	81
7. kapitulua. Hezkuntza haurtzaroan eta nerabezaroan.....	83
7.1. Hiriko haur eta nerabeen % 53 sare publikoan daude matrikulatuta eta % 50 D ereduan.....	83
7.2. Atzerriko nazionalitatea duten ikasleak % 11,6 dira eta ia % 80 sare publikoan ari dira ikasten	84
7.3. Eskolatzeta-tasa altuak Haur Hezkuntzan eta eskola-uztearen jaitsiera	86
7.4. Sare publikoko eta pribatu itunduko ikasleen desparekotasun sozioekonomikoak gero eta handiagoak dira Gasteizen.....	88
7.5. Ikastetxeen sarearen titulartasunak emaitza diagnostikoetan duen inpaktua.....	90
7.6. Ikaskideen arteko harremana da hobekien baloratutako alderdia, eta etxeko lanak, aldiz, okerren balioetsia	92
7.7. % 10ek soilik uste dute COVID-19ak ikaskideen arteko edo irakasleekiko harremana okertu duela, baina % 23k uste du behera egin duela beren errendimendu akademikoak	92
7.8. Ikaskideen arteko tratatu txarren prebalentziak behera egin du apur bat; Gasteizen 3.000 ikasle ingururi eragingo lieke	94
7.9. Dibertsitate funtzionala duten ikasleak gizartean eta hezkuntzan txertatzeko oztopo nagusiak	97
7.10. Hautemandako beste arazo batzuk: hezkuntza-baliabiderik eza, elebitasunaren erronka eta eskola-jolastokiak	98
8. kapitulua. Osasun-egoera, bizi-gogobetetasuna, bizimoduak eta arriskuak.....	100
8.1. Gasteizko 10 haur eta nerabetik 9k uste dute osasun ona edo bikaina daukatela	100
8.2. % 25 eta % 30 inguruk gogo-aldarte baxua, suminkortasuna edo urduritasuna izaten dute gutxienez astean behin.....	101
8.3. Bizitzaren hasierako hilkortasun-adierazleen egonkortasuna eta istripuen prebalentzia txikiagoa da Euskadi osoan baino	103
8.4. 18 urtetik beherakoen ia % 1,5ek dauka desgaitasuna aitortuta	104
8.5. Bizitzarekiko gogobetetze-mailak altua izaten jarraitzen du, baina apur bat jaitsi da 4 urte hauetan	105
8.6. Pandemiaren inpaktua: 10 haur eta nerabetik 2k uste dute okerrera egin duela haien osasun fisikoak, eta % 35,2k aldarte okerragoa dutela pandemiaren aurretik baino	107
8.7. Haurren obesitate-tasak gora egin du, baina elikadura-ohiturek hobera egin dute	111
8.8. Jarduera fisikoa eta kirola haien lehentasunen artean daude, baina neurri handiagan mutiletan nesketan baino	112
8.9. % 35,8k egin du kale-edana, eta 4tik 1ek probatu du tabakoa	112
8.10. % 15,3k mutil-laguna edo neska-laguna du, eta % 17,5ek sexu-harremanak izan ditu.....	116
8.11. Gabezia handiak ageri dira sexu-hezkuntzan: dibertsitate funtzionala duten haurren eta nerabeen kasua.....	118
8.12. Nerabeen sexu-osasunaren arrisku-gune nagusiak	118
8.13. Behera egin du genero-indarkeriako kasuen kopuruak, bere horretan jarraitu dute nerabeen sexu-askatasunaren aurkako delituek, baina gora egin du familia barruko indarkeriak	120
8.14. Legearekin gatazkan dauden adingabeen tasa ez da handitu, baina Euskadi osokoa baino handiagoa da.....	123
8.15. Auzoan, ikastetxean edo etxean indarkeria-egoeren eraginpean maiz edo modu erregularrean egoteak % 7 eta % 16 ingururi eragiten die	123

9. kapitulua. Aisialdia eta denbora librea.....	125
9.1. Aisialdiko jarduerarik gogokoenak 2017ko berak dira (lagunekin denbora pasatzea, musika entzutea, telesailak eta filmak ikustea, taldean kirola egitea eta sare sozialak erabiltzea), baina tokia irabazten ari dira topaketa fisikorik behar ez dutenak.....	125
9.2. Etxeak, norberarenak edo adiskide batenak, tokia kentzen dio kaleari, aisialdiaz gozatzeko gehien aukeratzen den toki moduan.....	126
9.3. Haur eta nerabe gehienek lagunak eta familiaren artean banatzen dute aisialdia, neurri handi batean adinaren arabera zehazten den nolabaiteko orekaren barruan	126
9.4. Gutxi gorabehera 10 haur eta nerabetik 4k adierazi dute pandemiaren aurretik baino denbora gehiago pasatzen dutela pantailen aurrean eta sare sozialak erabiltzen	130
9.5. Aisialdiarekiko gogobetetze-maila nabarmen jaitsi da 2017arekin alderatuta	132
9.6. Aisialdiko udal-eskaintza partizipatiboago eta inklusiboago baterantz, kirolari arreta berezia eskainiko diona eta gizarte-harremanak sustatuko dituen.....	134
9.7. Aisialdia hobetzeko alderdiak	136
10. kapitulua. Hiri-ingurunea eta partaidetza soziala.....	137
10.1. Haurrek eta nerabeek oso modu positiboan baloratzen dituzte beren bizitegi-ingurune hiri-espazioak eta -instalazioak, baina alde nabarmenak daude auzoen arabera.....	137
10.2. Segurtasuna, garbitasuna, irisgarritasun unibertuala eta ingurumen-arazoak dira hiri-ingurunean garrantzitsuentzat jotzen diren alderdiak, baina haiek dira, orobat, gehien hobetu daitezkeenak	140
10.3. Haurrek eta nerabeek uste dute gaitasun eta ahalmen handia dutela hiriko gaietan parte hartzeko, baina uste dute ez zaiela entzuten.....	142
10.4. Haur eta nerabeen parte-hartzearen mugak eta erronkak Gasteizen.....	145
11. kapitulua. Haurren eta nerabeen zaugarritasun-egoerei eta babesgabetasun-arriskuari emaniko arreta	146
11.	
2017 eta 2020 artean, nahiko egonkorra izan da 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jaso duten familien kopurua	146
11.2. Urtero, udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako familien % 15 berriak dira	149
11.3. Babesgabetasun arineko, neurritsuko edo larriko arazoak dituzten haur eta nerabeen kopurua % 40 areagotu da 2017 eta 2020 artean.....	151
11.4. Babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeen % 57 mutilak dira, % 52k 12 urte edo gehiago dituzte eta % 63 bertakoak dira	153
11.5. Familiagandik banantzeko neurriak dituzten haurren eta nerabeen kopuruak behera egin du azken urteetan	155
11.6. Zaugarritasun- eta babesgabetasun-egoeren eta haien arretaren inguruko zenbait erronka eta joera.....	157
III. BLOKEA. ONDORIOAK	161
12. kapitulua. Laburpena eta gomendioak	162
13. kapitulua. Erreferentzia bibliografikoak.....	177
Eranskinak	
I. eranskina. Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haurrei eta nerabeei zuzendutako inkestaren laginaren ezaugarri nagusiak	182
II. eranskina. Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkestaren galde-sorta	184
III. eranskina. Udal-teknikariei zuzendutako galde-sorta, II. HANUP planaren balorazioari eta ekarritako agertoki berriari buruz.....	197

I. BLOKEA.

Azterlanaren ezaugarriak eta testuingurua



1. kapitulua.

Atarikoa, helburuak eta metodologia

1.1. Atarikoa

Haur eta Nerabeentzako II. Udal Plana (II. HANUP plana) Gasteizko Udalak bultzaturiko erreminta estrategiko bat da, zeinaren xede nagusia baita haurren eta nerabeen eskubideak bermatzeko eta haien ongizatea sustatzeko aginduari erantzutea. Lehenengo edizioan bezala, udal-administrazioak zeregin horretan duen berriazko eginkizunean eta erantzukizunean oinarrituta diseinatu da II. HANUP plana, eta, haren jatorrian, nabarmentzekoak dira, batetik, udalaren eskumenak eta komunitatearekiko hurbiltasuna, eta, bestetik, haien arazoekiko kezka, haien gaitasunak aintzatestea eta komunitateari zuzendutako zerbitzu eta programak kudeatzea.

II. HANUP planaren indarraldiaren erdi-erdian egin da azterlan hau, eta, zehazki, Gasteizko haur eta nerabeen egoeraren berri emango duen azterlan diagnostiko bat aurreikusteko premiatik sortu da. Izan ere, gogorarazi behar da II. HANUP plan honek berriaz jasotzen duela diagnostikoari planaren indarraldia amaitu baino lehen ekiteko aukera, amaierako ebaluazio-txostena eta azterlan diagnostikoa amaitu ondoren has daitezkeen planaren hurrengo bertsioa idazteko lanak. Ildo horretan, II. HANUP planak jasota dauka bere inpaktu soziala balioesten laguntzeko eginkizun osagarria ere.

1.2. Helburuak

Aurrekari horietatik abiatuta, proposamen honen helburua da Gasteizko **haurren, nerabeen eta haien familien premiei buruzko diagnostikoa egitea**, xede hauek lortzeko:

- Haurrek, nerabeek eta haien familiek gizarte-bizitzako hainbat esparrutan zer egoera bizi duten jakitea, hala nola osasunean, hezkuntzan, gizarte-harremanetan, aisialdian, egoera sozioekonomikoan eta abarretan.
- II. HANUP planaren inpaktu sozialaren balorazioa erraztea, eta egindako ekintzen balizko ondorioei edo emaitzei buruzko informazioa gehitzea azterlanean.
- 2017ko alde aurreko azterketa diagnostikoan proposatutako adierazle nagusiekin segitzea, haien aldi baterako jarraipena egiteko eta azken urte hauetan izandako aldaketa nagusiak identifikatzeko.

- Haur eta Nerabeentzako III. Udal Planak etorkizunean izango dituen erronka nagusiak adieraztea eta jardun-ildoak proposatzea.

Lan honen azken helburua, beraz, hauxe da: txosten bat egitea, Gasteizko Udalak II. HANUP planaren ondorengo faseetarako antolatuko dituen parte hartzeko eta erabaki politikoko prozesuetan oinarritzko dokumentu gisa erabiltzeko.

1.3. Metodologia

Metodologiaren ikuspegitik, gizarte-ikerketako teknika hauek baliatu dira azterlan hau egiteko:

- **II. HANUP planari buruzko eta Gasteizko haur eta nerabeen egoerari eta premiei buruzko udal-teknikariei egindako balorazio-inkesta.**

Inkesta bat egin da Haur eta Nerabeentzako Udal Planean jasotako ekintzetan nolabaiteko inplikazioa duten udal-teknikarien talde bati zuzenduta, bi helbururekin: alde batetik, udal-teknikariek II. HANUP planari (2018-2022) lotutako hainbat alderdiren gainean egiten duten balorazioaren berri izatea eta, bestetik, jakitea zer pertzepzio duten haurrek eta nerabeek bizitza sozial eta komunitarioko hainbat esparrutan bizi duten egoerari buruz —eta, bereziki, COVID-19ak eragindako agertoki berriari dagokionez—. Galde-sorta hori *ad hoc* diseinatua azterlan honetarako, eta Internet bidez euskaraz zein gaztelaniaz erantzuteko prestatu da, SurveyMonkey plataforma baliatuz — dokumentu honen [III. eranskinean](#) kontsulta daiteke—. 18 galdera biltzen ditu, bi bloke handitan antolatuta.

- Lehenengo blokea hamaika galdera kuantitatibok eta kualitatibok osatzen zuten, eta indarrean dagoen Haur eta Nerabeentzako II. Udal Planarekin lotutako hainbat alderdiri egiten zien erreferentzia.
- Bigarren multzoa, berriz, zazpi galdera irekik osatzen zuten, guztiak ere Gasteizko haurren eta nerabeen arazo eta premia nagusiekin eta Udalak emandako erantzunarekin lotuak. Galde-sorta eremu espezifiko hauen inguruko arazoak eta beharrak jasotzeko dago diseinatuta:
 - Aldaketa demografikoak.
 - Familia (aniztasuna, genero-rolak, gurasotasuna, gatazka...).
 - Osasuna eta ongizate emozionala (ohitura osasungarriak, kirola egitea, elikadura, desgaitasuna, arrisku-jarrerak, sexualitatea...).
 - Bizimoduak (aisialdia, kontsumoa, teknologia berrien erabilera...).
 - Ingurunea eta mugikortasuna (segurtasuna, garraioa, hiri-plangintza, ingurumena...).
 - Parte-hartzea eta eskubide sozialak.
 - Egoera sozioekonomikoa, oinarritzko premiak eta etxebizitza.
 - Zaurgarritasuna eta babesgabetasun-arriskua.
 - Beste esparru batzuk.

Guztira, Gasteizko Udaleko zerbitzu edo arloetako hogeit hamar teknikariek erantzun zioten galde-sortari.

Saila	Zerbitzua	Teknikariak
Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila	Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzua	Oscar Domínguez
	Gizarte Inklusioaren Zerbitzua	Zuriñe González
		Loli García
		Yanira San Vicente
	Hautzaro eta Senitarte Zerbitzua	Mónica Aceves Silvia Sánchez Susana García Belen Ceberio
	Komunitate Jardueren Zerbitzua	Antonio Ruiz Elena Redondo
	Garapenean Laguntzeko Zerbitzua	Juan José Estévez
Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila	Bizikidetzaren eta Aniztasun Zerbitzua	Estela Salazar
	Berdintasun Zerbitzua	Ana Soto
	Gazteria Zerbitzua	Mila Urtaran
	Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzua	Olga Oteiza
Kirol eta Osasun Saila	Osasun Publikoaren Zerbitzua	Blanca Naveros
	Kirol Zerbitzua	Joseba Bujanda
Giza Baliabideen Saila	Giza Baliabideen Zerbitzua	Azucena Alonso
Herritarren Seguratasunaren Saila	Udaltzaingo Zerbitzua	Juanma García
Hezkuntza eta Kultura Saila	Kultura Zerbitzua	M ^a Carmen Agüero Nati Ruiz de Eguino
	Hezkuntza Zerbitzua	Marije Portillo
Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte-etxeen Saila	Gizarte-etxeen Zerbitzua	Esther Montoya
	Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua	Marian Egido
Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Saila	Landa Eremuaren Zerbitzua	Amaia Busteros
	Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua	Aitziber Elorrieta
Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saila	Espazio Publikoa eta Natur Ingurunearen Zerbitzua	Jesús Barbero
Udal-enpresak	TUVISA	Argiñe Erkiaga
Erakunde autonomoak	Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI/CEA)	Jesús Mesanza
	Musika Eskola	José Ramón Gutiérrez

- **Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haurrei eta nerabeei zuzendutako inkesta**

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako iritzi-azterketaren bidez, informazio erabilgarria bildu nahi da Gasteizko Udalaren haur- eta nerabe-politikak antolatzearen inguruan, eta, horren bidez, bi helburu lortu nahi dira: hainbat eremutan zer egoera bizi duten jakitea eta gai horien gainean duten iritziaren berri jasotzea.

Helburu nagusi horretatik abiatuta, hauek izan ziren inkesta horren inguruan ezarritako xede espezifikoak: a) Gasteizko haur eta nerabeen iritziak, pertzepzioak eta jarrerak ezagutzea bost eremu zehatzen inguruan (familia-harremanak, aisia eta denbora libre, osasuna eta segurtasuna, parte-hartzea, eta egoera sozioekonomikoa eta ingurunea); b) COVID-19ak sortutako pandemiak goian aipatutako eremuetan izan duen inpaktu espezifikoa aztertzea, eta haurrek eta nerabeek hirian pandemiaren eraginez hartutako neurri zehatz horiei buruz zer iritzi duten jakitea; eta c) Gasteizko haurrek eta nerabeek esparru horietan dituzten premia jakinetako batzuk identifikatzea.

Hauek izan ziren inkesta horren ezaugarri tekniko eta metodologiko nagusiak:

a) Inkestaren eremua

- **Eremu geografikoa:** inkesta Gasteizen egin da; emaitzak, beraz, eremu horretarako dira adierazgarriak.
- **Biztanleria-eremua:** 2020-2021 ikasturtean Gasteizko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako azken zikloa (5. eta 6. mailak), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1. eta 4. mailak), Batxilergoa (1. eta 2. mailak) eta Erdi Mailako eta Oinarrizko LHko 1. zikloa ikasten ari diren ikasleak dira azterlan honen unibertsoa.
- **Denbora-eremua:** informazioa biltzeko epea 2021eko apirilaren 12tik ekainaren 6ra izan da.

b) Laginaren diseinua eta ezaugarriak¹

- **Lagin-esparrua:** lagina hautatzeko erabili den esparrua 2020-2021 ikasturtean matrikulatutako ikasleena izan da; zehazki, Lehen Hezkuntzako azken zikloan (5. eta 6. mailatan), DBHko 1. eta 4. mailen artean, Batxilergoan eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako lehen mailan matrikulatutako ikasleena. Adierazi behar da, orobat, lagina diseinatzeko erreferentziazko datuak —ikasturte, sare eta hizkuntza-eredu bakoitzeko ikasleen banaketari dagokionez— Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren unibertsitatez kanpoko [hezkuntza-sistemaren estatistiketatik](#) lortuak direla, eta, zehazki, 2021eko azaroaren 23an eskuragarri zituzten matrikula-datuetatik hartuak.
- **Laginketa-prozedura:** laginketa-esparru horretatik abiatuta, konglomeratu bidezko bi etapako laginketa egin zen; lehenik eta behin, ikastetxeak hautatu ziren ausaz, eta, bigarrenik, taldeak, hiru aldagaitan oinarritutako estratifikaziotik abiatuta (ikasturtea, sarea eta hizkuntza-eredua).
- **Laginaren neurria:** baliozko 1.094 galde-sorta, 25 ikastetxetako 52 ikasgelatan.
- **Laginketa-errorea:** ausazko laginketa sinplearen kasuan, % 95eko konfiantza-tarterako eta gehieneko bariantzarako ($P = Q$), laginketa-errorea $\pm\%$ 2,96koa da lagin osorako.
- **Haztapena:** haztatu egin da lagina, landa-lanean sortutako desorekak zuzentzeko — adierazi behar da pandemiak bereziki baldintzatutako egoera zailen mende egon dela landa-lana, eta zenbait ikastetxetan ezeztatze-tasa handia erregistratu dela.

c) Landa-lana

Emaiker-Ikerketa Soziologikoen Kabineteak garatu zuen landa-lana. Eginkizun horretarako, landa-langile bat izendatu zen, zeina azterketa honetan parte hartu duten ikastetxeetara joan baitzen. Aldez aurretik, Gasteizko Udalak gutun bat bidali zien laginean hautatutako ikastetxe guztiei, galde-sorta egitearen inguruan informatzeko eta haien lankidetzak eskatzeko. Izendatutako landa-langilea ikasgelan egon zen galde-sortak betetzeko prozesu osoan.

¹ Laginaren ezaugarriei buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, azterlan honen [I. eranskina](#) kontsulta daiteke.

d) Galde-sorta

Informazioa biltzeko, onlineko galde-sorta bat erabili zen, anonimoa eta «auto-administratua», orotara 41 galderaz osatua. Ia kasu guztietan, aukeratutako egunean ikasgelan zeuden ikasleek bete zituzten galde-sortak ikasgelan bertan. Hura betetzeko, batez beste 23 minutu behar izan zituzten. SurveyMonkey erremintaren bidez diseinatu zen galde-sorta. Osagarri gisa, paperean inprimatzeko aukera ere diseinatu zen, ikasle guztientzako ekipamendurik ez zuten edo Internetera konektatzeko bestelako arazoren bat izan zezaketen ikastetxeak egon zitezkeelakoan. Euskaraz eta gaztelaniaz egon ziren eskuragarri, bai onlineko galde-sorta, bai paper-formatukoa. Dokumentu honen [II. eranskinean](#) kontsulta daiteke.

Parte hartu duten ikastetxeak

Gasteizko 25 ikastetxek hartu dute parte azterlan honetan; hauek izan dira, hain justu:

- CEIP Adurza Ikastola HLHI
- CEIP Divino Maestro-María De Maeztu HLHI
- CEIP Mariturri HLHI
- CEIP Sta. María De Vitoria HLHI
- CEIP Toki Eder Ikastola HLHI
- CEPA Ntra. Sra. Del Carmen HHI
- CIFP Ciudad Jardín LHII
- CPEIPS Armentia Ikastola HLBHIP
- CPEIPS Ceu Virgen Niña HLBHIP
- CPEIPS Hogar San Jose HLBHIP
- CPEIPS Inmaculada Concepción HLBHIP
- CPEIPS Nazareth HLBHIP
- CPEIPS Ntra. Sra. De Las Mercedes HLBHIP
- CPEIPS Paula Montal HLBHIP
- CPEIPS Presentación De María HLBHIP
- CPEIPS San Viator HLBHIP
- CPEIPS Urkide HLBHIP
- CPI Sansomendi IPI
- CPIFP Egibide LHPI
- IES Federico Baraibar BHI
- IES Koldo Mitxelena BHI
- IES Lakua BHI
- IES Mendebaldea BHI
- IES Miguel De Unamuno BHI
- IES Zabalgana BHI

• **Elkarrizketa erdi-egituratuak Gasteizko hirugarren sektoreko hainbat eremutako erakundeekin**

Diagnostiko horri hiriko elkarte-sarearen ikuspegia eta iritziak eransteko asmoz, guztira zazpi elkarrizketa egin ziren —taldeka edota banaka, haien prestasunaren arabera—, hirugarren sektoreko hamalau erakundetako ordezkariekin. 2021eko apiriletik martxora bitartean egin ziren elkarrizketa horiek. Guztiak ere bideodeien bidez izan ziren, osasun-inguruabarrak zirela medio, eta grabatu egin ziren.

Aniztasun funtzionalaren eta hezkuntza-premia berezien esparruko erakundeen kasuan, bi talde-elkarrizketa egin ziren hurrenez hurren hiru eta lau erakunderekin, bai eta banakako elkarrizketa bat ere. Familia-aniztasunari dagokionez, taldeko elkarrizketa bakarra egin zen hiru erakunderekin, eta, kultura-aniztasunaren kasuan, banakako bi elkarrizketa. Azkenik, haurren eskubideak sustatzearen alorrean, elkarrizketa bakarra egin zen. Jarraian, azterlan honetan parte hartu duten erakundeak eta pertsonak jaso ditugu.

Esparrua	Erakundeak	Ordezkariek
Aniztasun funtzionala eta hezkuntza-premia bereziak	ARABARNEE. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren familien Arabako elkarteak.	Lupe Muñoz Silvia Herrero
	Arabako ASPACE. Garun-paralisiaren eta antzeko alterazioen Elkarteak.	Ainhoa Gamarra Andrea Jiménez
	Eginaren Eginez. Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Arabako Elkarteak.	Elena Ávalos Víctor Carmona
	Itxaropena. Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen Arabako Elkarteak.	Estíbaliz Miñana Itziar Ochoa de Aspuru
	TEL Euskadi. Hizkuntzaren nahaste espezifikoak duten haurren familien Euskadiko elkarteak	Alicia Solavera
	ASPASOR. Arabako Gorren Guraso eta Lagunen Elkarteak	Blanca Martínez
	Down Araba — Isabel Orbe Elkarteak	María Briñas
	Izanez. Sexualitate Anitzak Zaintzeko eta Lantzeko Euskal Elkarteak	Igor Nabarro
Familia-aniztasuna	AMAPASE. Arabako Guraso Bananduen Elkarteak	Amaya Gómez
	Hirukide. Euskadiko Familia Ugarien Elkartearen Federazioa	Ibai Arberas
	AGLE Arabako Gizarte Laneko Elkarteak	Raquel Ruiz de Apodaca
Aniztasun kulturala	Goian. Gasteizko Alde Zaharreko Hezkuntza Proiektua	Aitor Barriocanal
	Berakah programa	Fidel Molina
Haurren eskubideak sustatzea	UNICEF Euskadi	Elsa Fuente Marga Morán

• Eztabaida-taldeak gurasoekin

Maiatzean, bi eztabaida-talde egin ziren gurasoekin aurrez aurre, eta familien egoerari eta seme-alaben premiei buruzko alderdi espezifikoak aztertu zituzten. Talde bakoitzerako hautatutako eremuak eta gaiak hiru izan ziren: familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak, familia migratzaileek aurrez aurre izan ohi dituzten arazo espezifikoak eta, hirugarrenik, aniztasun funtzionalak eragindako arazoak.

Normalean, zailtasunak izaten dira horrelako azterlanetan parte hartzeko prest dauden gurasoak topatzeko, eta, oraingo honetan, pandemiaren inguruabar bereziak gehitu zitzaizkien. Beraz, espero zena baino askoz partaidetza-maila txikiagoa izan zen prozesu horretan.

Kontziliazio-arazoei buruzko eztabaida-taldearen kasuan, Gasteizko Udaleko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuak egindako deialdia kontuan hartuta, bi amak eta aita batek hartu zuten parte, 2 eta 12 urte bitarteko seme-alaben gurasoak hirurak ere. Familia migratzaileen zailtasunei buruzko taldeetan, berriz, magrebtar jatorriko, Saharaz hegoaldeko eta herrialde latinoetako bost gurasok hartu zuten parte; 0 eta 13 urte bitarteko seme-alabak zituzten guztiek ere. Era berean, aniztasun funtzionala duten haurren guraso-talde bati deitzeko ezintasuna kontuan izanik —aurreikusita bazegoen ere—, sakoneko elkarrizketa egin zitzaion kolektibo horretako familia bati.

• Haurren eta nerabeen premiei buruzko literatura berrikustea eta udalen esku-hartzea

Ikerketa honen barruko lan-prozesuan, haurren eta nerabeen egoerari, haien premiei eta arazoei buruzko askotariko dokumentuak berrikusi dira, eta udal-esparrutik zer-nola heltzen zaien ere aztertu da. Zehaztu behar da lehentasuna eman zaiela haurrei eta nerabeei eragiten dieten joera, aldaketa eta arazo nagusiekin zerikusia duten dokumentuei, eta, ildo horretan, bereziki nabarmentzekoak dira

COVID-19aren pandemiaren eragin espezifikuari heltzen dioten agiririk berrienak, bai eta eremu horretako politika publikoei buruzko orientabideak dituzten dokumentuak ere —askoz ere urriagoak badira ere azken horiek—. Azterlan honen azken kapituluan, txostena egiteko erabilitako bibliografia osoa kontsulta daiteke.

• **Udalak eta kanpoko iturriek egindako inkestak, administrazio-iturriak eta azterlanak erabiltzea**

Azterlan horren zati handi bat kanpoko estatistika-iturrietan oinarritu da. Hori horrela, estatistika-eragiketa ugari eta askotarikoak baliatu dira, eta lehentasuna eman zaie udalerrian edo, dagokionean, eskualdean informazioa emateko gai diren inkesta edo administrazio-iturriei. Erabilitako kanpoko iturri estatistikoekin batera —gehien-gehienak erakunde publikoetakoak, hala nola Eustat, EIN eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politika eta Enplegu Saileko Organo Espezifikoa—, beste informazio-iturri administratibo batzuk ere erabili dira, Gasteizko Udalak zein kanpoko beste erakunde batzuek emandakoak.

Ildo horretan, berariaz aipatu behar dira biztanleen udal-errodan eta Gizarte Politiketako Sailaren jarduerari buruzko datu-basean (GESIS) oinarrituta lan horretarako egindako ustiaketa-lanak. Era berean, diagnostikoa egiteko, udalaren datu irekien katalogoan dagoen informazioa ez ezik toki-erakunde horrek azken urteetan argitaratutako azterlanak ere baliatu dira.

Horren harira garrantzitsua da adieraztea txostenean jasotako kanpoko datu guztiak ez direla Gasteiz hiriri buruzkoak, nahiz eta, logikoa denez, lehentasuna eman zaien Arabako hiriburuko biztanleriari buruzko azterlanei. Edonola ere, udalerrian edo, gutxienez, eskualdearen inguruko daturik ez zegoenean, erabaki da Arabako lurralde historiko osoari buruzko datuak jasotzea, eta, kasuren batean, EAE osoari buruzkoak ere bai.

1.4. Txostenaren egitura

Aurrez deskribatutako helburuei erantzuteko, txostena 13 kapitulutan egituratu da, hiru zati edo multzo ongi bereizitan antolatuz.

Txostenaren lehen blokea atariko aurkezpen bat da, eta azterlana dagokion testuinguruan kokatzen du. Hiru kapitulak osatzen dute.

- Lehenengo kapituluak, sarrera gisa, txostena aurkezten du, haren helburuak zerrendatzen ditu eta zehatz-mehatz jasotzen ditu hura egiteko erabilitako metodologia eta gizarte-ikerketako teknikak. Halaber, txostenaren egituraketa jasotzen du.
- Bigarren kapituluak haurren eta nerabeen arloko udalaren esku-hartzearen esparrua du ardatz, bai EAEko arauen eta eskumenen esparruan duten kokapenaren ikuspegitik, bai ikuspegi kontzeptualago batetik. Azken horretarako, abiapuntu gisa hartu da haurren eta nerabeen egoeraren berrikuspena, gaur egungo testuinguru sozioekonomikoari egokiturik, betiere gure inguruko herrialdeetan haurren errealitatea eraldatzen ari diren faktoreak aintzakotzat harturik —batez ere pandemia-agertoki berriaren aurrean, COVID-19ak ekarri dituen ondorioak eta erronkak kontuan izanik eta haurtzaroko inbertsio sozialaren paradigmatik abiatuta—.
- Hirugarren kapituluak esku-hartzearen testuingurua jorratzen du. Kapitulu horretan jaso den informazioak ezagutarazi nahi du, alde batetik, Gasteizko Udaleko teknikariek zer balioespen egiten duten Haur eta Nerabeentzako II. Udal Planarekin (2018-2022) lotutako hainbat alderdiri buruz, eta, bestetik, zer pertzepzio duten COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko etxeko konfinamendu-aldiko zerbitzuen funtzionamenduari buruz eta egoera horrek haurren eta nerabeen artean izan duen balizko inpaktuz.

Bigarren multzoan, Gasteizko haurren eta nerabeen egoera aztertzen da, zortzi esparru bereizitan. Esparru horietako bakoitzak kapitulu espezifiko bat osatzen du. Kapitulu bakoitza hainbat gaitan oinarritzen da, zeinak ikuspegi kuantitatibotik —administrazio- eta estatistika-iturrietatik— nahiz ikuspegi kualitatibotik aztertzen baitira —funtsean, erabilitako ikerketa sozialeko tekniketarik *ad hoc* ateratako informazioaren bidez—.

Ikerketa honetako laugarren kapitulutik hamaikagarrenera bitartekoak, berriz, gai hauei buruzkoak dira:

- Hiriaren egitura soziodemografikoa
- Familiak: osaera, familia-harremanak eta arazo nagusiak
- Pobrezia, prekaritatea eta gizarte-bazterkeria
- Hezkuntza haurtzaroan eta nerabezaroan
- Osasun-egoera, bizi-estiloen gogobetetasuna eta arriskuak
- Aisialdia eta denbora librea
- Hiri-ingurunearen balorazioa eta partaidetza soziala
- Haurren eta nerabeen zaurgarritasun-egoerei eta babesgabetasun-arriskuari emaniko arreta

Azterlan hau amaitzeko, ondorioak biltzen dituen hirugarren bloke bat jaso da: agiri honetako emaitza nagusien laburpena eskaintzen du. Horretaz gainera, diagnostiko honen azpian argien ageri diren elementuen gaineko oinarritzko gomendioak ere aurkezten dira.

Azkenik, 13. kapitulan, txostenean erabilitako erreferentzia bibliografikoak zerrendatu dira. Era berean, hiru eranskin ere jaso dira: lehenik eta behin, Gasteizko haur eta nerabeei zuzendutako inkestaren laginaren ezaugarri nagusiak kontsulta daitezke ([I. eranskina](#)); bigarrenik, haur eta nerabeei zuzendutako galde-sorta ([II. eranskina](#)), eta, hirugarrenik, udal-teknikariei zuzendutako galde-sorta ([III. eranskina](#)).

2. kapitulua.

Esku-hartzearen esparrua

2.1. Atarikoak

Bigarren kapitulu honen helburua da deskribatzea eta aztertzea zein esparrutan txertatzen den Gasteizko haurren egoerari buruzko diagnostikoa, eta, bereziki, definitzea zer esparrutan jarri behar diren martxan haurtzaroari, nerabezaroari eta familiari buruzko hiriko udal-politikak.

Kapitulua bi atal handitan dago antolatuta:

- Lehenbizikoan, haurren egoera eta errealitatea eraldatzen ari diren faktoreak berrikusten dira, bereziki egungo testuinguru sozioekonomikoan eta gure inguruko herrialdeetan, batez ere COVID-19 gaixotasunaren ondoriozko pandemiak ekarri duen agertoki berriaren eta haren ondorioen aurrean, baina baita populazio-talde horretan osasun-krisiaren aurretik ageri ziren erronken aurrean ere. Pandemiaren hasierako inpaktua izango da, batez ere, berrikuspen horren ardatza, oraindik goiz baita bizi izandako egoerak haur eta nerabeengan epe ertain edo luzera zer ondorio ekarriko dituen jakiteko. Nolanahi ere den, haurren eta nerabeen egoera, premiak eta/edo aukerak aldatzen edo birdefinitzen ari diren joerak zein diren adierazi nahi da berrikuspen honen bidez, eta, horiek zehaztu ostean, Gasteizko haurren egoerari buruzko datu askoz zehatzagoak baliatu ahal izango dira, haren ostean egingo den analisiaren inguruabarrak finkatzeko.
- Kapitulu honetako bigarren epigrafean, hausnarketa labur bat planteatzen da gertatzen ari diren aldaketen inguruan, neurri batean arestian deskribatutako egoerei erantzunez eta familiei eta haurrei zuzendutako politika publikoei dagokienez, bereziki inbertsio sozialaren paradigmaren ikuspegitik. Puntu horretan, Euskadin haurtzaroaren alorreko politikekin loturik ezarritako arau- eta eskumen-esparrua ere aztertzen da, eta, zehazkiago, toki-administrazioek arau- eta eskumen-testuinguru horretan izan dezaketen eta izan behar duten zeregina ere bai.

2.2. Haurrak eta nerabeak pandemiak sorturiko agertoki berriaren eta haren ondorioen aurrean

COVID-19aren pandemiak eragindako egoerak aurrekaririk gabeko testuingurua sortu du mundu zabalean, eta hainbat dimentsiotan izan ditu ondorioak, hala nola ekonomian, gizartean, hezkuntzan edo osasun fisiko eta mentalean, besteak beste. Orain arte izan duen eraginaz haratago, espero izatekoa da haren ondorio negatiboek luzaroan iraungo dutela pandemia amaitu eta gero ere (Pérez Moreno, S. & Bárcena Martín, E., 2021), eta oso litekeena da, orobat, hurrengo belaunaldietako askoren etorkizuna baldintzatzea ere (Espinosa Bayal, M.A. & Pérez Moreno, S., 2021).

Egia da orain arte haurrak eta nerabeak ez direla izan COVID-19ak eragindako kutsatze-kopuruak gehien astindu dituen populazio-taldea, eta ez dituzte erregistratu, orobat, gaixotasunaren ondoriozko konplikazio-kopururik handienak edo gaixotasunari lotutako hilkortasunik handienak ere. Nolanahi ere, nazioarteko hainbat erakundek adierazi dutenez, baliteke haur zaugarrienen jasatea inguruabar horren kalterik handienetako batzuk, dela epe laburrera, dela luzera (Save the Children, 2020; UNICEF, 2020b; Nazio Batuak, 2020).

Hain zuzen ere, COVID-19aren krisia ondorio larriak ari da eragiten haur eta nerabeengan. Osasun-sistemen saturazioak, biztanleriaren konfinamendu zorrotza eragin zuten neurriek, jarduera ekonomikoaren geldialdiak eta ikastetxeen itxierak inpaktu zuzena izan dute haurren eta nerabeen ongizatean, bai eta haien etorkizuneko aukeretan ere. Ildo horretan, orain arte egindako ikerketek agerian utzi dute zer ondorio izango dituen pandemiak haur eta nerabeengan, besteak beste, haur-pobrezia areagotzeko arriskuari, prestakuntza-prozesuei jarraitzeko zailtasunei, osasun fisikoko eta mentaleko arazoei eta desparekotasun ekonomiko eta edukatiboak ugaritzeari dagokienez (Save the Children, 2021a; UNICEF, 2020b). Horretarako arrazoi dira, alde batetik, garai horretan sortu diren zailtasun berriak, eta, bestetik, haurrek eta nerabeek pandemia baino lehen zituzten erronkak —kontuan izanik oso litekeena dela erronka horiek guztiak areagotu izana, pandemiaren eraginez— (Espinosa Bayal, M.A. & Pérez Moreno, S., 2021).

2008ko finantza-krisiarekin gertatu zen bezala, makina bat adituk adierazten dute haurrak eta nerabeak izan daitezkeela krisi honek gehien astinduriko adin-taldea (Gaitán, L. et al., 2020), eta, orain arte abiarazitako ikerketa-ildoetan oinarrituta, espero izatekoa da, gainera, nabarmen areagotuko direla desparekotasun sozioekonomikoak haurren eta nerabeen kolektiboaren barruan. Ildo horretan, krisiak haurtzaroan izan duen inpaktuari buruzko UNICEFen txostenak adierazten duenez (UNICEF, 2020b), pandemiak adingabe guztien bizi-baldintzetan izan badu ere eragin negatiboa, inpaktuak are larriagoak dira adingaberik zaugarrienen artean, eta lehendik ere ageri ziren desparekotasunen efektu anplifikatzailea ari da sortzen (Pérez Moreno, S. & Bárcena Martín, E., 2021). Desberdintasun horien artean aipatzekoak dira premiarik funtsezkoenak asetzeko baldintza materialak, baina baita osasunaren, hezkuntzaren eta/edo gizarte-babesaren arloko desabantailak ere.

Egoera horrek, beraz, ziurgabetasun handiagoa eranstean dio osasun-krisiaren aurretik erronka handiak zituen etorkizunari (Espinosa Bayal, M.A. & Pérez Moreno, S., 2021), dela haurrak eta nerabeak dituzten familien premien ikuspegitik, dela bizi diren gizarte-, ekonomia- eta lan-testuinguruaren ikuspegitik, dela pandemiaren osteko egoera berrian Administrazio Publikoek behar horiei emango dieten erantzunaren ikuspegitik.

Jarraian, labor-labor azalduko ditugu aztertu beharreko hainbat alderdi, haurrek eta nerabeek gaur egun bizi duten errealitatea eta aurrez aurre dituzten baldintza espezifikoak ulertu ahal izateko.

- **Haurren pobrezia, desparekotasuna eta gizarte-bazterkeria**

Haurrei eta nerabeei zuzendutako politika publikoek aspaldidanik definitu dituzten erronken artean, pobrezia-egoeran dauden familietako haurrek eta nerabeek bizi duten egoera da nagusietakoa. Hain zuzen ere, haurtzaroaren zaugarritasuna —etxeko diru-sarreraren eskasiaren bidez neurtua eta 2008a baino lehenagotik ere maila handiak hartzen ari zena— larriagotu egin zen finantza-krisiarekin, eta, auzi horri buruzko ebidentzia zientifiko gero eta handiagoaren arabera, baliteke datozen urteetan are gehiago azeleratzea COVID-19aren pandemiaren eraginez (Cantó, O. & Ayala, L., 2021).

Gure testuinguruan, Mendebaldeko gizarterik gehienetan bezala, berdintasunik ezari eta gizarte-bazterkeriari estu lotutako errealitatea da haur-pobrezia (Mari-Klose, P., 2019). Izan ere, 2008ko krisi ekonomikoak familia-talde jakin batzuetan izan zuen inpaktu handiagoak agerian utzi zuen familia-mota horien zaugarritasun handiagoa, haien erresilientzia-maila beste gizarte-talde batzuen baino nabarmen txikiagoa baita krisi-egoeren aurrean (Pérez Moreno, S. & Bárcena Martín, E., 2021). Zehazki, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EINen) 2019ko Bizi Baldintzei buruzko Inkestatik eskuratutako haur-pobrezia buruzko datuek familia-eredu hauek identifikatzen zituzten profil kalteberenen artean —eta, beraz, krisiaren ondorioak sakonago jasateko joera handiagoa zutenen artean—: guraso bakarreko familiak, ardurapean seme-alaba gehiago dituzten familiak, 35 urtetik beherako pertsona baten ardurapeko familiak, emakumeak buru dituztenak, etorkinez osaturiko familiak, gaixotasun kronikoren bat duten pertsonak buru dituztenak edo hezkuntza-maila baxua duten pertsonak gidatuak, eta, oro har, lan-intentsitate apala duten familiak —hau da, lan-prekaritate handiagoa dutenak edo lanpostu-txandakatze handia dutenak— (EIN, 2019).

Lan-arloko inpaktuari dagokionez, pandemiaren lehen fasean hartutako neurrien ondorioz ekonomiaren zati handi bat gelditzeak aurrekaririk gabeko langabezia-hazkundera ekarri zuen 2020ko lehen bi hiruhilekoetan (Cantó, O. & Ayala, L., 2021), bai gure inguruan, bai Europan (Nazio Batuak, 2020). Hala ere, inpaktu hori desberdina izan zen osasun-egoeraren eta herrialde bakoitzeko konfinamenduaren iraupenaren arabera (Palomino, J.C. et al., 2020). Hartutako konfinamendu-neurriek, gainera, ez dute izan eragin bera lurralde bakoitzeko lan-merkatuan. Egindako azterketen arabera, Europa hegoaldeko herrialdeek eta, bereziki, Espainiak baliabide telematikoen bidez egin daitezkeen enplegu gutxiago dituzte oro har, eta trebakuntza eta soldata handiagoko langileek eskura ditzakete bereziki halako lanak. Era berean, Europa hegoaldeko herrialdeek trebakuntza ertain eta baxuko enpleguen proportzio handiagoa dute, eta baliteke horrek konfinamenduaren inpaktu nabarmen handiagoa eragin izana errenta-mailarik baxueneko biztanleengan. Aurreikuspen hori berresten dute pandemiaren hasieran Caritasek eta halako erakundeek egin zituzten ikerketek. Azterlan horietan agerian geratu zen langabeziaren gorakadaren eragina areagotu egin zela familiarik ahulenen artean, batez ere enplegua eremu informaletik zetorrenean (Espainiako Caritaseko Ikasketen Taldea, 2020, 2021a, 2021b).

Era berean, argi ikusi denez, COVID-19aren ondoriozko krisia oso eragin desberdina ari da izaten jarduera-sektoreen arabera; gehien zigorturiko sektoreen artean ageri dira, esaterako, ostalaritza eta jatetxeak, etxeko lanak eta merkataritza (Palomino, J.C. et al., 2020). Oro har, pertsonen kontaktu fisikoa behar duten eta telelanaren bidez gauzatu ezin diren jarduera ekonomikoak dira; hau da, oro har trebakuntza-maila txikiagoa eskatzen duten lanbideak eta egoera horren aurretik ere pobrezia-tasa handiagoak zituztenak (Pérez Moreno, S. & Bárcena Martín, E., 2021).

Ildo horretan, frogaturik geratu da tresna baliagarriak izan direla Administrazio Publikoek osasun-krisiaren ondoriozko larrialdi-egoerei aurre egiteko hartutako neurriak —adibidez, oinarrizko horniduren bermea; hipotekak eta alokairuak ordaintzeko laguntzak; pertsona zaugarrien etxegabetzeak etetea, alarma-egoera amaitu arte; ordaindutako baimen berreskuragarria; jantokiko bekak zabaltzea; uraren, energia elektrikoaren eta gas naturalaren hornidura bermatzeko neurriak; bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGla) onartzea; aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei (ABEEE-ei) babes publikoa ematea, kaleratzeak saihesteko, eta, Euskadiren kasuan, *Inor Atzean Utzi Gabe* funtsa onartzea, pobrezia-eragin aurka borrokatzeko eta familia zaugarriei laguntzeko—. Baina horiek guztiak ez dira nahikoa izan haurren pobrezia- eta desparekotasun-egoerari etengabeko erantzuna emateko, ez eta adingabeen gizarte-bazterkeriaren errealitate estrukturalari buelta emateko ere.

Izan ere, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren azken edizioaren arabera, EAEn gainerako familia-motetan pobreziak behera egin duen arren, haurren pobreziak gora egin du, 2014-2018 aldiko bilakaera positiboarekin alderatuta (15 urtetik beherako biztanleriaren adin-tartean), eta, 2008tik aurrera, 2020an erregistratu ditu goren mailak (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa, 2021).

Haur-pobreziaren hazkundeaz eta kolektibo horren barruko desberdinkeriaz gainera, hauek dira datozen urteetarako pobreziaren eta desparekotasunaren gorakadak familia-politiken ikuspegitik izan dezakeen ondorioz garrantzitsuenetako batzuk: herentzia sozialaren gaia (berriro) sortzea eta goranzko mugikortasun soziala gertatzeko aukera txikiagoa izatea. 2017ko azterketa diagnostikoan aipatzen zenez (SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2017), diru-sarreretan desparekotasun handiagoa agerienez, familiaren testuinguruak gero eta zeresan handiagoa izan dezake gazteen bizi-maila eta etorkizuna zehazteko orduan. Izan ere, lehen esan bezala, gurasoek seme-alabei utziko dieten kapital ekonomiko, erlazional, kultural eta hezitzaileak gero eta inpaktu handiagoa izango du datozen urteetan. Haurtzarotik sorturiko desparekotasunek pertsonen bizi-ziklo osoan dituzten ondorioak, eta pobrezia eta gizarte-bazterkeria belaunaldiz belaunaldi areagotzea edo transmititzea eragiten dute (Haur-pobreziaren aurkako goi-komisarioa. Espainiako Gobernua, 2020).

Era berean, eta osasun-krisiaren ondorioz haurren pobrezia-egoerak okerrera egiteaz harago, pandemia honek beste pobrezia-mota batzuk ere ekar ditzake, besteak beste, eten digitaletik, energia-pobreziatik eta abarretik eratorritakoak (Moreno, D., 2020; Save the Children, 2021a). Egoera horren aurrean, toki-administrazioek rol estrategikoa dute egoerarik ahulenean dauden herritarrei zerbitzuak eta laguntzak eskaintzeko orduan, eta horien artean ageri dira haurrak (Moreno, D., 2020).

- ***Hezkuntza: pandemia-garaian ikastetxeak ixtearen kostua eta hezkuntza-desberdinkeriak areagotzea ikasleen artean***

COVID-19ak eragindako pandemiaren hasieran ikastetxeak ixteak eta 2020ko martxoaren 14an osasun-larrialdiko egoera ezarri ondoren aurrez aurreko eskola-jarduera oro geldiarazteak (463/2020 ED, 2020) eztabaida handia piztu du gure ingurunean —baita neurri hori ezarri zuten herrialderik gehienetan ere—, erabaki horrek ekarritako ondorioak direla eta: hezkuntzaren alorrekoak, gizarte-kostuekin lotuak eta haien ondotik sorturiko desparekotasunak areagotzearekin lotuak (Abellán, A. et al., 2020).

Ikerketa batzuen arabera, ikastetxe guztiak ixteko eta aurrez aurreko prestakuntza-jarduera bertan behera uzteko erabakia, neurri handi batean, arrazoi hauengatik hartu zen: alde batetik, ez zegoelako informaziorik gaixotasun berri hori adingabeen artean kutsatzeko eta hedatzeko arriskuari buruz —gripearekin eta halako beste arnas gaixotasun ezagunago batzuekin alderatuta— eta, bestetik, uste zelako haurren artean birusa transmititzeko probabilitatea nabarmen handiagoa zela helduen artean baino. Izan ere, pandemia hasi zenetik, zabaltzen joan zen «superkutsatzaile handiak» terminoaren erabilera, adingabeen kutsatzeko potentzial handiagoari erreferentzia egiteko. Hala ere, orduan aurrera egindako azterketa epidemiologikoen emaitzek zalantzan ipini zituzten baieztapen horiek, eta ildo horretan lagungarriak izan ziren eskolak itxi ez zituzten herrialdeetako esperientziak ere —Suedia eta Islandia, esate baterako—. Orobat, ikastetxeak berriro irekitzeko erabakiak izan zuen polemikarik eta arriskurik. Israelen, adibidez, ikastetxeak berriro ireki ondoren, itxi egin behar izan zituzten asko eta asko, eta Erresuma Batuan, baztertu egin behar izan zuten uda baino lehen eskolak berriro irekitzeko proiektua, segurtasunez zabaltzeko behar ziren baliabideak falta zirelako (Abellán, A. et al., 2020).

Hezkuntzaren eremuan ixteko neurriak hartzearen egokitasunari buruzko zalantzez gainera, adostasun handia nabari da erabaki horrek ikasleengan eragiten dituen ondorio eta kostu sozial negatiboen inguruan. Horren haritik, gogoratu behar da hezkuntza oinarritzko eskubidea dela, eta, Garapen Jasangarriko Helburuek (GJHek) zehazten duten bezala, hezkuntza jasotzeko eskubidea ez ezik, barne hartzen duela ikasteko eskubidea ere. Gainera, gogoratu behar da eskola ez dela irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak gauzatzeko espazioa bakarrik, baizik eta lotura estua duela gaitasunen, balioen eta abilezien garapenarekin Era berean, lotura estua du elkartzeko, harremanetarako eta sozializatzeko gune bat sortzearekin ere, eta gizarte-desparekotasunak konpentsatzeko tresna eta babes-testuinguru gisa ere definitu da, bereziki egoerarik zaugarrienetan bizi diren neskatilen kasuan (Espinosa, M.A., 2020).

Pandemiak eragindako egoerak, hala ere, Europako Batzordearen berreraikuntza sozial eta ekonomikorako irizpenean jasotzen denez (Diputatuen Kongresua, 2020), nabarmen aldatu ditu hezkuntza-sistemako dinamikak eta interakzioak, eskola-jardueren ohiko funtzionamendua arriskuan jarritz eta eskubide horiek bermatzeko aukera tenkatuz. Egoera horren emaitza dira pandemiak eragindako ondorioak: desparekotasunak areagotzea —besteak beste, eten digitalari, eskola-bereizkeriako arazoei eta hezkuntza-laguntzako desparekotasunei dagokienez— (Diputatuen Kongresua, 2020) eta hezkuntza-sistemaren beraren ohiko ahulezietatik eratorritako arazoak (Rey Martínez, F., 2021).

Hain justu ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak agerian utzi ditu, berriz ere, hezkuntza-sistemak lehendik zituen ahuleziak. Espainiako haur-pobreziaren aurkako goi-komisarioaren 2020ko azken txostenean oinarrituta (Haur-pobreziaren aurkako goi-komisarioa, 2020), aukera-berdintasunari eta hezkuntza-inklusioari eragiten zioten arazo nagusien artean, honako hauek ageri ziren pandemiaren aurretik, zeinak areagotu egin diren haren eraginez: eskolaurreko kalitatezko hezkuntza-programetan parte-hartze txikia izatea, errepikapen-tasa handiak, hezkuntza-uzte goiztiarra eta eskola-segregazioa —azken horren neurritz kanpo eragiten die desabantaila sozial eta ekonomikoan dauden ikasleei—. Deskribatu den bezala, hezkuntzaren esparruan (zehazki, eskola-errendimenduan, porrotean eta abandonuan) desparekotasun sozioekonomiko, kultural eta digital nabarmenak zituen gizarte batean sartu zen pandemia (Rujas, J. & Feito, R., 2021).

Itxiera horrek ikasleengan izandako eraginari begira, alderdi hauek nabarmendu behar dira: lehenik eta behin, horri buruz egindako ikerketek agerian utzi dute ikastetxeak ixtea kaltegarria izan dela hezkuntza-sistemaren kalitaterako, oro har (Rey Martínez, F., 2021), eta areagotu egin direla hezkuntza-desparekotasunak, «ikaskuntza-galera» posible baten ondorioz, eta horrek ondorioak izan ditzakeela gazteen etorkizuneko aukeretan (Rujas, J. & Feito, R., 2021). Izan ere, ikastetxeak itxi izanak iraupen luzeko ondorioak ekar ditzake, bai eta epe luzeko emaitza akademikoetan ere, bereziki egoerarik ahulenetik abiatzen ziren haur eta nerabeen kasuan (Asociación de enseñantes con gitanos, 2021; Save the Children, 2021a). Egoera horrek areagotu egin ditzake pandemia baino lehen ageri ziren hezkuntza-ekitatearen alorreko desparekotasunak (Rey Martínez, F., 2021), eta, ondorioz, datorren urteei begira handitu egin daiteke eskola-porrota izateko, eskola uzteko eta irakaskuntzatik deskonektatzeko beste modu batzuen arriskua (Rujas, J. & Feito, R., 2021; Save the Children, 2021a).

Bigarrenik, pandemiaren ondorioz, urruneko hezkuntzarako trantsizio behartu eta ustekabeko bat egin behar izan da, eta, horrekin batera, oso litekeena da desparekotasunak larriki areagotu izana jatorri eta maila sozioekonomikoen artean lehendik zeuden desparekotasunak, hala nola ordenagailua edo Interneteko konexioa ez izatea etxean, familien gaitasun digitalik eza, gurasoek ikasketetan laguntzeko eta babesteko ezintasuna, etxean ikasteko espaziorik ez edukitzea eta hiri-inguruneen eta landa-inguruneen arteko arrakala (Abellán, A. et al., 2020; Save the Children, 2021b; UNICEF, 2020b, 2020b).

Hirugarrenik, ezin dugu ahaztu zer-nolako eragina izan duen ikastetxeak eskaini ohi dituen beste zerbitzu batzuk bertan behera uzteak, esate baterako, eskola-otorduak —hau da, haurrek egunean gutxienez otordu osasungarri eta orekatu bat jasotzeko aukera— (Borkowski, A. et al., 2021), garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak, eskolarekiko eta berdinekiko lotura emozionala eta laguntza psikopedagogikoa, besteak beste (Rey Martínez, F., 2021; Save the Children, 2021b).

Era berean, eskolak ixtearen ondorioz, hezkuntza-sistemak utzi egin zion (osorik zein partzialki) bere funtzio sozialetako batzuk betetzeari. Hain zuzen ere, aurrez aurreko hezkuntza desagertzean, gurasoek eta seme-alabek etxeko espazioa partekatu behar izan zuten, ohi baino ordu gehiagoz gainera. Gauzak horrela, gurasoek beren gain hartu eta uztartu egin behar izan zituzten urrutiko lan-zereginak —telelanaren kasuan—, etxeko lanak, ohiko orduetan egindako heziketa-lana eta,aldi berean, hezkuntza-laguntza eta etxeko irakaskuntza (Rujas, J. & Feito, R., 2021), eta horrek zailtasunak ekarri zituen lana eta familia bateragarri egiteko eta lan-karga handiagoa ekarri zien emakumeei etxeko lanetan eta zainketetan (NBE Emakumeak, 2020). Itxurazko «eskolagabetzea», hainbat egilek dioten moduan, «familia-espazioko eskolatzeko» bilakatu zen (Thin, D., 2020).

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Hezkuntza Sailak Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundearen bidez egindako azken Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoaren Azterlanak (ISEI-IVEI, 2021) berariazko atal bat jasotzen du, zehazteko zenbateraino eragin dioten ikasleei pandemiak eta hark ekarritako ondorioek —hala nola aurrez aurreko eskolak eteteak 2019-2020 ikasturteko azken hilabeteetan—. Lortutako emaitzen artean, azpimarratzekoa da Euskadiko hamar ikasletik zazpi ikasteko motibazio txikiagoa sentitu dutela pandemiaren ondorioz ezarritako etxeko konfinamendu-aldian (% 72,3); hirutik bik adierazi dute beren maila akademikoa jaitsi egin dela (% 65,4); eta lau ikasletik batek baino gehixeagok adierazi dute antsietate edo estres handiagoa dutela pandemiaren aurretik baino (ISEI-IVEI, 2021). Ildo beretik, Euskadiko Save The Children erakundearen urteurreneko txostenak ere antzeman zuen haurrek ez zeukatela ikasteko motibaziorik, pandemia hasi zenetik urtebete igaro ondoren (Save the Children, 2021b). Interes faltarako balizko azalpenen artean, elkarrizketatutako gurasoek honako hauek aipatu zituzten: konfinamendu-hilabetei lotutako nekea, berrogeialdiak, ikaskideekin sozializatzeko murrizketak, urruntze-arauak, kutsatzeko beldurra edo maskara nahitaez erabili beharra (Save the Children, 2021b).

- ***Haurren eta nerabeen pandemia-garaiko osasun fisiko eta mentala, ongizate emozionala, eta osasunaren arloko desparekotasunen gorakada***

COVID-19ak eragindako pandemia globalak kolokan jarri ditu mundu osoko osasun- eta zaintza-sistemak. Herrialde askotan ezarritako neurriei esker —etxeko konfinamendu jarraitua, urruntze fisikoa, isolamendu soziala eta segurtasuneko eta norbera babesteko ekipamenduak—, geldiarazi egin ahal izan dira kutsatze-katea eta birusaren pertsonatik pertsonarako transmisioa. Hala ere, neurri horiek guztiek ondorio kaltegarriak izan dituzte biztanleriaren osasun-egoeran, bai fisikoan eta bai burukoan, eta, bereziki, biztanlerik zaugarrienen artean —besteak beste, adineko pertsonak eta haur zein nerabeak—.

Espainiako Estatuan, 2020ko martxoaren 14an iragarri zen osasun-larrialdiko egoeraren ondoriozko konfinamendu orokortua (463/2020 ED, 2020), eta Euskal Autonomia Erkidegoan 2020ko martxoaren 13an aktibatu zen larrialdiei aurre egiteko bidea (LABI) izeneko Babes Zibileko Plana (EHAA, 2020). Ezohiko egoera horren ondorioz, herritarrok etxean konfinatuta egon behar izan genuen ustekabearen mugikortasun fisikoa izugarri murriztu zen eta isolamendua ekarri zuen gizarte-, lan- eta eskola-inguruneetara.

Adingabeei dagokienez, denbora horretan eten egin ziren eskolako jarduerak, eta zigitatuta geratu ziren haur eta gazteen aire zabaleko parkeak eta aisialdirako tokiak. Bertan behera utzi ziren, orobat, eskola-kirola eta bestelako kirol-jarduerak eta haurren aisialdiko aktibitateak, eta, beldurrak eta ziurgabetasun orokorrak harturiko egoera hartan, haurrek eta nerabeek mugatu egin behar izan zituzten gizarte- eta familia-harremanak. Adierazi dugunez, helduei etxeetatik irteten utzi zitzaizen funtsezko jarduera jakin batzuk egiteko; baina, 14 urtetik beherakoen kasuan, murriztaileagoa izan zen itxialdia. Egoera horrek

sei astez iraun zuen, apirilaren 25era arte, eta, orduan, beste legedi bat onetsi zen, zeinak uzten baitzuen adingabeak kalera irtetea eguneko ordu jakin batzuetan, nahiz eta artean murrizketa handiak izan. Horretaz gainera, Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, badirudi Espainiako Estatuan hartutako neurriak murriztaileagoak izan direla haur eta nerabeentzat, gizarte-isolamenduari, mugikortasun-murrizketei eta ikastetxe guztietako aurrez aurreko jarduerak eteteari loturik, eta horrek, zalantzarik gabe, inpaktu negatiboa izan du haien osasun-egoera psikosozialean (González-Rábago, Y. & Cabezas-Rodríguez, A., 2021; Valero Alzaga, E. et al., 2020).

Aukeren ikuspegitik, esan daiteke etxeko konfinamendua testuinguru egokia izan dela gurasoen eta seme-alaben arteko elkarrekintza hobetzeko, familia-loturak sendotzeko eta haurren eta nerabeen premia psikologikoak etxe barruan asetzeko, kontuan izanik egoera horrek, kasu batzuetan, heziketa-eredu egokia hartzeko aukera ekarri duela. Horrenbestez, zenbait kasutan haurrak eta nerabeak inplikatu egin dira familia-jardueretan, eta hobetu egin dira haien autonomia-gaitasunak (Díaz Rodríguez, M., 2021; Domínguez Álvarez, B. et al., 2020). Hala ere, adingabeekin egindako ikerketa gehienak bat datoz, eta adierazten dute hartutako neurrien ondorioak ez direla positiboak, bereziki, pandemiaren lehen fasean ezarritako konfinamenduarenak.

Krisiak osasun fisikoan izaniko ondorioei dagokienez, honako hauek izan dira alderdi aipatuenetakoak: konfinamendu-garaian haurrek eta nerabeek ariketa fisikorik ez egitea, dieta eskasak eragindako elikadura-arazoak eta osasungarriak ez diren produktuen gehiegizko kontsumoa. Era berean, loaren nahasmenduen gorakada, gomendatutako orduetan lo egiteko zailtasuna eta arreta medikoa jasotzeko zailtasunak ere erregistratu dira, baita haurren eta nerabeen nahiz helduen osasun fisikoa oker dezaketen bestelako hainbat elementu ere (UNICEF, 2020b).

Osasun psikologiko eta mentalaren alorreko ondorioei dagokienez, azterketek agerian utzi dute konfinamenduak beldurra eta antsietate kolektibo orokorra eragin dituela helduen artean, eta horrek,aldi berean, inpaktu negatiboa izan duela haurren eta nerabeen egoera mental eta emozionala (Gómez-Becerra, I. et al., 2020), besteak beste, estresa, urduritasuna, antsietatea eta beldurra areagotzea (Save the Children, 2021b) eta, halaber, depresio-sintomatologia, insomnia, suminkortasuna eta akidura emozionala (Erades, N. & Morales, A., 2020; González-Rábago, Y. & Cabezas-Rodríguez, A., 2021; Lacomba-Trejo, L. et al., 2020; Tamarit, A. et al., 2020; Valero Alzaga, E. et al., 2020), portaera-aldaketak eta etxean izaniko eztabaidak areagotzea (Morgül, E. et al., 2020). Bizi izandako egoerak haur eta nerabeen osasun psikologiko eta mentalean izaniko inpaktua, gainera, larritu egin zen baten bat gaixo edo kutsatuta izaniko familietan, baita hildakoren bat izanikoetan ere.

Ohiz kanpoko da pandemiak eragindako egoera, bai gure inguruan, bai mundu zabalean (Nazio Batuak, 2020), eta ez dago erantzun erabakigarriarik epe labur, ertain eta luzean haur eta nerabeengan izango duen eraginari buruz (UNICEF Espainia, 2020). Hala ere, beste krisi humanitario eta konfinamendu-egoera batzuetan izaniko esperientziak eta orain arte hainbat herrialdetan egin diren ikerketek agerian utzi dute haurrek eta nerabeek zaurgarritasun berezia dutela eta osasun-arazoen detekzioa eta prebentzioa indartzeko beharra dagoela (Balluerka, N. et al., 2020; Espada, J.P. et al., 2020; OECD, 2021; Orgilés, M. et al., 2020). Txinan etxeko konfinamenduak haur eta nerabeen osasunean izaniko inpaktuari buruz egin zituzten lehen ikerketek adierazten dutenez, gehien eragindako alderdiak ohiturak eta errutinak galtzea izan zen, baita estres psikosoziala ere (Wang, G. et al., 2020). Izan ere, deskribatu denez, osasunerako oso egokiak ez diren jokabideak ekar ditzakete egoera horiek; adibidez, sedentarisinoa, espazio itxietan emaniko ordu-kopurua, pantailen etengabeko erabilera areagotzea, lo-ohitura irregularrak hartzea eta osasungarriak ez diren dietak —eta, horren ondorioz, pisua hartzea eta bihotz-biriketako gaitasuna galtzea— (Abellán, A. et al., 2020; Brazendale, K. et al., 2017; Save the Children, 2021b).

Emaitza horiek berretsita geratu ziren gure testuinguruan egindako ikerketetan (Balluerka, N. et al., 2020; Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila & SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2020; Díaz Rodríguez, M., 2021). Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako azterlan batek agerian utzi zituen etxeko konfinamendu-garaiko desperekotasun sozialak, dela etxebizitzaren baldintzekin loturik, dela haurren osasun-portaerekin loturik. Azterlan horren emaitzen arabera, hezkuntza-maila baxua eta zailtasun ekonomikoak zituzten familietako haurrak, etxebizitza-baldintza okerragoetan bizitzeaz gainera, osasun-determinatzaile negatiboen eraginpean zeuden: tabakoaren kea eta zarata. Orobat, bistaratu zuen haur horiek ariketa fisiko gutxiago egiten zutela, dieta osasungaitzagoa zutela, denbora gehiago ematen zutela pantailen aurrean eta kontaktu sozial txikiagoa zutela (González-Rábago, Y. & Cabezas-Rodríguez, A., 2021). Zehazki, haurren laurdenek sei ordu edo gehiago eman zituzten pantailen aurrean etxeko konfinamendu-garaian, % 20k ez zuen ariketa fisikorik egin eta ia hiru laurdenek ez zuten kontsumitu barazkirik. Ildo horretan, lotura argia ikusi dute gurasoen hezkuntza-mailaren eta konfinamendu-aldi horretako osasun-ohituren artean (González-Rábago, Y. & Cabezas-Rodríguez, A., 2021; Valero Alzaga, E. et al., 2020). Jokabide mendekotasun-sortzaileen alorrean, Euskadin adikzioak prebenitzeko udal-teknikariekin egindako azterlan baten arabera, teknikari horiek permisibitate handiagoa hauteman zuten etxeetan 18 urtetik beherakoen artean, pantailen aurreko esposizioari eta bideo-jokoen praktikari dagokienez (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila & SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2020). Era berean, konfinamendu-fasean izaniko tabako- eta kalamu-kontsumoarekin loturik, teknikariek nolabaiteko bipolarizazioa hauteman zuten familiek emaniko erantzunetan: alde batetik, familia batzuetan ohikoa baino permisibitate handiagoa izan zutela — nerabeekin eta gazteekin gatazkak edo eztabaidak saihestearren— eta, bestetik, familia batzuek zuzenean debekatu edo murriztu egin zutela kontsumo hori. Azterlanaren arabera, egoera hori positiboa izan zen gazteentzat, bai konfinamendu-fasean kontsumoa murrizteko edo batere ez kontsumitzeko, bai gazteok beren mendekotasun-mailaz jabetzeko.

Haurrak eta nerabeak bi hilabetez baino gehiagoz etxeratuta egon izanak agerian utzi ditu bizi diren baldintzetan dauden aldeak ere, hau da, itxialdia igarotzeko izan duten biziokiaren baldintzetako desperekotasunak. Kasu horretan ere, errenta-mailarik txikiena duten familietako adingabeek jasan dituzte gehien pobrezia energetikoarekin loturiko egoerak, hala nola argi naturalaren urritasun-arazoak, itoginak, hezetasunak eta usteldurak. Kontuan hartzekoa da, inondik ere, egoera horiek ondorio negatiboak izan ditzaketela haurren garapenean eta osasun fisiko eta mentalean (UNICEF, 2020b).

- **Familia-harremanak, gurasotasuna eta kontziliazioa**

Gaur egun, familia-motak eta familia-harremanen ereduak biderkatu eta dibertsifikatu izana da familien bereizgarri nagusietako bat. Oraindik ere nagusi da gure inguruan familia tradizionalaren eredu — senar-emazte ezkonduak eta haien seme-alabek osatua—, baina ezin da alde batera utzi beste familia-harreman batzuk ere sortu direla; besteak beste, guraso bakarreko familiak, sexu bereko gurasoak dituzten familiak, bananduak, familia berrerratuak eta abar.

Familien osieran izandako aldaketek gainera, aipatzekoak dira familia-egituraren bertan eta ugalketa-ereduetan izandako aldaketak ere; bereziki, ugalkortasunaren jaitsiera, jaiotza-kopurua eta ama izateko batez besteko adinaren hazkundea, betiere aurreko urteekin alderatuta. Era berean, 2017ko aurreko diagnostikoaren txostenak adierazten zuenez (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, 2017), ahuldu egin dira familia gehienetako elkartasun-loturak eta familia-sareak, neurri batean ugaritu egin direlako bikote-hausturak, dibortzioak eta banantze-prozesuak. Horren ondorioz, posible da arrisku ekonomiko eta pobrezia-arrisku handiagoa izatea seme-alabak dituzten familietan.

Azkenik, ezin ditugu aipatu gabe utzi gurasoek lana bateragarri egiteko izaniko arazoak, ikastetxeak itxita egon izanaren ondorioz, eta ez da ahaztu behar, orobat, genero-desperekotasunak ere areagotu egin direla zainketen eta etxeko lanen esparruan, emakumeen artean lan-karga handiagoa izan den heinean. Hain zuzen ere, NBE Emakumeak erakundearen azken txostenak islatzen duen moduan, COVID-19aren krisiaren testuinguruan zaintza-eskariaren gorakadak eta horri emandako erantzunak, ziurrenik, areagotu egingo dituzte lanaren eta zaintzaren banaketan alorrean diren genero-desperekotasunak, eta horrek proportziorik gabeko zama ekarriko die emakume eta neskatilei (NBE

Emakumeak, 2020). Era berean, zainketei dagokienez, orain arteko argitalpenek agerian utzi dituzte osasun-ondorio kaltegarriak babeska eskaintzen duten senideentzat (Abellán, A. et al., 2020). Zehazki, deskribatu da birusarekin kontaktu handiagoa —eta, beraz, kutsatzeko arrisku handiagoa— izan dutela aitona-amona zaintzaileek, konfinamendu zorrotzik izan ez den garaian ikastetxeak itxita edukitzearen ondorioz (Abellán, A. et al., 2020).

Ikuspegi prospektibotik erreparatuta profesional batzuek adierazten dutenez, seme-alaba adingabeak dituzten familia gazteen kasuan, pandemiaren ondorioz lan-baldintzek okerrera egiteko aurreikuspenak eta lanbide-aukerarik ez izateak izan dezake eraginik belaunaldi gazteen artean: alegia, gizartetik baztertuta senti daitezke, gizarte-kohesioari dagokionez (Cantó, O. & Ayala, L., 2021). Era berean, demografiaren ikuspegitik, gerta liteke emantzipatzeko eta ugalkortasunerako probabilitatea murriztea datozen urteetara begira, hainbat faktoreren eraginez, hala nola biztanleriaren zahartze gero eta handiagoak sorturiko erronkak, ugalketa-patroien aldaketak, enplegua lortzeko zailtasunak eta lan-prekaritatea areagotzea (Cantó, O. & Ayala, L., 2021).

- **Talde bereziki zaurgarrietan duen inpaktua**

COVID-19ak eragindako krisiak haurrik zaurgarrietan duen inpaktuari buruz UNICEFek eginiko azterketaren arabera, krisiaren ondorio negatiboen ugaritasuna bereziki garrantzitsua da kolektibo jakin batzuetan. Zehazki, txostenak eskubide espezifikoaren urraketak eta bizi-baldintzen gabezia larriak identifikatzen ditu, batez ere kolektibo hauetan: estatuaren tutoretzapeko haurrak, inoren kargura ez dauden migratzaileak barne; nazioarteko babeska eskatzen dutenak; ijito-komunitateko haurrak; indarkeria-egoerak bizi dituztenak; desgaitasuna dutenak, eta pobrezia eta gizarte-bazterkeriako egoerak bizi dituztenak (UNICEF, 2020b). Pandemiak biztanleria osoaren bizitza nahastu du eta, bereziki, haur eta nerabeena, baina inpaktu hori are handiagoa izan da bereziki zaurgarriak diren taldeetan, kontuan izanik pandemiaren aurretik ere jasaten zutela zailtasun-, desabantaila- eta diskriminazio-egoerarik. Jarraian, pandemiak talde bereziki zaurgarri horietako batzuetan izan dituen ondorioetako batzuk aipatuko dira.

Pandemiak gehien astindutako kolektiboetako bat desgaitasuna duten adingabeena izan da. COVID-19ak ekarritako pandemian egin diren eta desgaitasuna duten adingabeei zuzendu zaizkien inkestek erakusten dutenez, Europar Batasuneko herrialderik gehienetako gobernuak harturiko neurriak eragin nabarmena izan zuten haur eta nerabeengan (Uldry, M. & Leenknecht, A.S., 2021), eta ez ziren behar adina neurri hartu desgaitasuna duten adingabeak zituzten familiei laguntza eta babeska emateko: konparazio baterako, talde hori ez zen sartu pertsona zaurgarri kolektiboan (Moran, T. et al., 2020). Azterlan horien arabera, pandemia-garaian haur eta nerabeek diskriminazio-mota ugari jasan zituzten desgaitasunagatik eta adinagatik (Brennan, C.S., 2020). Europar Batasuneko hainbat herrialdetan egindako azterlan batek islatzen zuenez, adibidez, ezinegon orokorra sumatzen zen aldi horretan desgaitasuna duten haurrek funtsezko hornidurak eta zerbitzuak jasotzeko aukerarik ez izatearen inguruan, hala nola oinarritzko arreta medikoa, zainketak, errehabilitazioa edo hezkuntza (Brennan, C.S., 2020).

Desgaitasunen bat duten kolektiboaren barruan, arreta berezia merezi dute autismoaren espektroko nahasmendun haur eta nerabeek (Moran, T. et al., 2020), hainbat arrazoi tarteko: irteera terapeutikoetan jasan ahal izan duten «estigmatizazioa» dela-eta, mugikortasun-murrizketen ondorioz arrisku handiagoa dutelako haien egoerak okerrera egiteko, konfinamendu-hilabeteetan aukera gutxiago izan dituztelako beharrezko arreta terapeutikoa jasotzeko eta zaintzaileek zaintza-erantzukizun handiagoa dutelako.

Babes-sistemaren barruan dauden haur eta nerabeek osatzen dute bereziki zaugarria den beste talde bat. Pandemiak adingabeen artean izaniko inpaktua aztertzen duen UNICEFen azken txostenak erakusten duenez, babes-zentroetako bizi-baldintzek nabarmen egin dute okerrera, hainbat arrazoi direla eta, adibidez: inguruko pertsonekin kontakturik ez izatea eta eten digitala, egoera pertsonalak sortutako ziurgabetasuna, zaugarritasun handiagoko egoerari erantzuteko esku-hartzerik ez izatea, isolamendu egokirako tokirik eta gailurik ez edukitzea, material teknologikorik ez izatea eskura eta osasun mentalaren edo substantzia-abusuaren alorretako arazoak dituzten tutoretzapeko haur eta nerabeen egoeren konplexutasuna (UNICEF, 2020b).

Era berean, eskolak itxi izana ez da egokia izan gutxiengo etnikoen (ijitoak eta etorkinak) egoerari begira (Rey Martínez, F., 2021). Pandemiak atzerakada handia eragin zuen kolektibo horien eskola-egoeran, arrakala sozial eta akademikoari dagokionez, eta desparekotasunak areagotu zituen talde sozial nagusiekin alderaturik (Asociación de enseñantes con gitanos, 2021).

- **Migrazioak: haur migratzaileen desparekotasuna**

Gasteizko haurren eta nerabeen egoeraren gaineko aurreko diagnostikoaren txostenak erakusten zuen moduan (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, 2017), heterogeneotasuna eta barne-aniztasuna dira azken urteotan haur eta nerabeen populazioaren ezaugarri nagusiak. Horrek esan nahi du, praktikan, kolektibo askotarikoagoa dela hainbat ikuspegitik, hala nola ama-hizkuntza, kultura- eta erlijio-erreferenteak, bizi-esperientziak, itxaropenak eta familia-balioak kontuan harturik; baina, aldi berean, arrisku-talde eta -faktore berriak ere sortzen dira, gizarte-arrisku berriak agertu ahala (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, 2017). Hain justu ere, adingabe asko gizarte-zaugarritasunak jota zeuden pandemiaren aurretik ere, eta, COVID-19a agertu ondoren, litekeena da beste askok eta askok ere arazo handiak izatea oinarrizko premiei aurre egiteko —hezkuntza, segurtasuna, aisialdia eta osasuna— eta garapen soziokognitiboko beharrak asetzeko (Fuentes Lara, C., 2021). Espero izatekoa da, gainera, ondorioek (ekonomikoak, hezkuntzakoak, lanekoak eta abar) eragin handiagoa izatea haiengan.

Pandemiak lurraldearen eta desplazamenduen gainean ezarritako kontrolak eguneroko bizitzarako elementu presente eta kontzienteki ezinbesteko bihurtu du espazioa, eta haren dimentsioetatik hiruri eragin die: lehenik eta behin, espazio pertsonal eta intimoari, zeina familia-unitatera ere zabal baitaiteke; bigarrenik, espazio sozialari, zeina familia zabalagoak, lagunek eta bizilagunek osatzen baitute, eta, hirugarrenik, espazio komunitarioari, zeinaren barruan sartzten baitira auzoa, udalerrria eta estatu-nazioa (Domingo i Coll, J. & Lapresta Rey, C., 2021). Pandemiak hiru dimentsiootan eragin die migrazio-mugimenduei, eta ageri-agerian utzi du migrazioa bizi-aukera gisa beharrezkoa duten pertsonen zaugarritasuna (Domingo i Coll, J. & Lapresta Rey, C., 2021).

Hain zuzen ere, lekualdaturik dauden haur eta nerabeak edo migrazioaren nolabaiteko eragina bizi dutenak bildu dira Europako talderik zaugarrienen artean, batez ere zailtasunak dauzkatelako justizia, hezkuntza edo gizarte- eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko (Europako Kontseilua, 2021). Migratzaileen kolektibo horren barruan, garrantzi berezia du bidaidetik gabeko haur eta nerabe migratzaileen egoera bereziki prekarioak, bai eta haur eta nerabe asilo-eskatzaileen egoera zailak ere.

Azken hilabeteetan egin diren azterketetan oinarrituta, pandemia-garaian areagotu egin dira bidaidetik gabeko haur eta nerabe migratzaileek izan ohi dituzten berariazko problematikak, eten egin baitira atzerriarekiko gizarte-harremanak edo isolatu egin behar izan baitira. Arazo horiek, kalte psikologikoak eragiteaz gainera, zailtasunak ekarri dituzte, kasu askotan, hizkuntzak ikasteko prozesuan —faktore erabakigarria da hori trebetasunak eskuratzeko—, bai eta gizarteratzeko prozesuan ere. Iritsitako herrialdean bizi duten egoera horri beste eragozpen bat gehitu behar zaio: jatorrizko herrialdeko sendideen egoerarekiko duten kezka eta beren dokumentazioari buruzko izapideak gelditzeak pizturiko ziurgabetasun juridikoa (UNICEF, 2020b).

Asiloa eskatzen duten adingabeei dagokienez, aipatzekoa da Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeak Gasteizen egindako diagnostikoa (CEAR Euskadi, 2020). Azterlan horrek agerian utzi du pandemia-egoeraren ondoriozko gizarte-afektuaren gabeziak —familiarik eta eskolatik kanpoko harremanekin zerikusia dutenak— zer-nolako eragina izan duen asiloa eskatzen duten adingabeen kasuan, osasun fisikoaren, eremu kognitiboaren, emozionalaren eta harremanaren esparruetan (CEAR Euskadi, 2020).

Laburbilduz, litekeena da haur eta nerabe migratzaileetako askok, egoera horren aurrean, beren etorkizuna eraikitzeko aukerak kolokan ikusi izana, dela erregularizatu gabe egoteagatik, dela krisiaren ondorioz lan-aukerak murriztuta edukitzeagatik, dela haiengana bideraturiko politika espezifikorik ezagatik (UNICEF, 2020b). Ildo horretan, pandemiaren aurretik ere UNICEFek azpimarratzen zuenez, tokiko gobernuen egitekoa berebizikoa da, haur migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak bermatzeko eta kolektibo horrek dituen beharrei eta erronkei erantzuteko; esate baterako, indarkeriatik, abusutik eta esplotaziotik babestea; atxiloketak geldiaraztea; familiak berrelkartzea; eskolatzea eta oinarrizko zerbitzuak eskura ipintzea, eta deserrotzea eragiten duten kausei heltzea (UNICEF, 2019).

- **Indarkeria, arrazakeria, gorrotoa bultzatzen duten diskurtsoak eta erradikalizazioa**

Haur eta nerabeen aurkako indarkeriak haien eskubideak urratzen ditu, haien garapen soziala eragozten du eta zuzenean eragiten du haien gainerako eskubideetan. Arlo horretan egin diren ikerketek erakusten dutenez, indarkeriak ondorio suntsitzaileak izan ohi ditu osasun fisikoan eta mentalean, bai epe laburrera, bai epe luzera, eta litekeena da batzuetan belaunaldietan zehar irautea ondorio horiek (Europako Kontseilua, 2021).

Haurrak eta nerabeak indarkeria-mota guztietatik babestea oinarrizko eskubidea da, eta bermaturik dago Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan eta giza eskubideei buruzko nazioarteko beste itun eta arau batzuetan ere (Nazio Batuak, 1989). Onartu berri den *2021eko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babestekoak* (BOE, 2021), jasota duenez, haurren indarkeriaren aurkako borroka giza eskubideen eskakizuna da eta adingabeak babestea botere publikoen lehentasunezko betebeharra da. Hala ere, adingabeen inguruabar ekonomiko, sozial, kultural, erlijioso edo etnikoak alde batera utzita, oraindik ere indarkeria ageri da adingabe horietako askoren eta askoren bizitzetan (UNICEF, 2012). Izan ere, haur eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko aurrerapauso handiak izan diren arren, indarkeria-arriskua ingurunerik gehienetan dago oraindik ere, baita eremu digitalean eta haurrek eta nerabeek seguruago eta babestuago egon beharko luketen tokietan ere —horien artean ageri dira, besteak beste, ikastetxeak, harrera-zentroak, erakunde judizialak, aisialdiko eta kiroleko jarduerak egiten dituzten gunek, eta etxeak berak—.

Nazioarteko zenbait erakundek diotenez, COVID-19aren osasun-krisian faktore batzuek areagotu egin dute haurren, nerabeen eta emakumeen zaurgarritasuna, bai eta indarkeriarekiko esposizioa ere —horien artean daude jarduera ekonomikoaren mugak, eskolen itxiera, osasun-zerbitzuetarako sarbide murriztua eta urruntze fisikoa—. Baina, horiez gain, haurren eta nerabeen beste mota bateko eskubideak ere urratu dira (UNICEF, 2020a). Hain justu ere, aurreko epidemietako ebidentziek eta beste testuinguru batzuetan hartutako mugikortasun-murrizketek ohartarazten zuten areagotu egin zitekeela hainbat indarkeria-mota jasateko arriskua (sexuala, fisikoa, emozionala eta abar), bai eta gurasoen zaintzarik gabe geratzeko arriskua eta gurasoen arteko genero-indarkerien egoera gehiago bizitzeko aukera ere (UNICEF, 2020a). Ildo horretan, ebidentzia zientifikoak erakutsi du emakumeen eta haur eta nerabeen aurkako familia barruko indarkeria areagotu egiten dela bizi izan dugunaren tankerako larrialdi-egoeretan (Peterman, A. et al., 2020).

Arlo horri buruz egindako azterketetan oinarrituta, adingabeen indarkeria-arriskurik handiena honako hauekin dago lotuta: estres ekonomikoa; pandemiaren ondoriozko lan-ezegonkortasuna; gizarte-isolamendua; segurtasun-sareekiko, gizarte-laguntzako sareekiko eta parekoekiko etengabeko eta gertuko kontakturik eza; egoera larriekiko esposizio handiagoa, eta laguntza jasotzeko aukera murriztea (UNICEF, 2020a).

Pandemiak agerian utzi duen beste ondorio bat Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera areagotzea izan da (Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila & SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2020). Osasunari buruzko atalean aipatu denez, igoera horrek jokabide-adikzioak garatzeko arriskua ekar dezake, bai helduen artean, bai haur eta nerabeen artean. Hain zuzen ere, ordenagailuak, bideo-jokoak, tabletak, smartphoneak eta abar erabiltzeak abantaila eta aukera ugari ditu. Alde batetik, gero eta gehiago dira Interneterako sarbidea eta alfabetatze digitala haurren eskubideen dimentsiotzat hartzen duten profesionalak, adierazpen-askatasunari, parte-hartzeari eta hezkuntzari dagokienez (Europako Kontseilua, 2021). Bestalde, ingurune digitalak arriskuak ere baditu adingabeentzat, gehiegizko esposizioa izan baitezakete eduki arriskutsuekiko, horrek ekar ditzakeen arazoekin, hala nola ziberjazarpena, pribatutasun-arazoak, datuen babesa urratzea, onlineko sexu-abusuak eta irudi sexualizatuen gehiegizko esposizioa, besteak beste.

Era berean, zenbait egilek azpimarratu dutenez, COVID-19ak eragindako pandemiak inpaktu nabarmena izan du herrialde askotako gizarte-kohesioan. Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak, adibidez, talde zaurgarrien aurkako gorrotoa eta indarkeria arrazista bultzatzeko diskurtsoaren gorakada aipatzen du. Era berean, haurren eta nerabeen erradikalizazioa ageri da kezka pizten duten beste hainbat alderdiren artean.

- **Adingabeen eskubideak**

Giza eskubideen ikuspegitik, talderik ahulenak eta baztertuenak tratatzeko moduaren arabera neur daiteke gizarte baten kalitatea (Europako Kontseilua, 2021).

2008an hasi zen krisi ekonomikoaren ondoren egindako ikerketek agerian utzi zuten, konpromiso-maila apala zuten haur eta nerabeen eskubideak eraikitzekeo gizarte-babeseko politikek (Picornell-Lucas, A., 2016). Izan ere, garai hartan jada kritikitzen zen esku-hartze publikoak haurrak pobrezia-egoeren, tratu txarren edo indarkeriaren aurrean babestera bideratzen zirela, eta ez, ordea, haurren eta nerabeen interesik gorenaren aldeko jardunera (Picornell-Lucas, A., 2016).

Zenbait adituk COVID-19ak eragindako egoerari erreparaturik adierazi dutenez, 2008ko finantza-krisiaren inpaktua bizi izan zuten haur eta nerabeek, beste behin ere, mugatuta ikusi dute babes-zerbitzuetarako sarbidea pandemia-garaian (Picornell-Lucas, A., 2020). Hezkuntza, osasuna, aisialdia edo parte-hartzea, besteak beste, mugatuta egon dira etxeko konfinamendu-aldian eta konfinamendua arintzeko prozesuan, eta muga horiek izan dute eraginik haien segurtasunean eta ongizatean (Picornell-Lucas, A., 2020).

Hain zuzen ere, pandemiaren hasieran lehen alarma-egoera aldarrikatu ondoren konfinamenduaren lehen fasean hartutako neurriek eragin handia izan zuten adingabeengan (463/2020 ED, 2020), eta mugatuta geratu ziren haur eta nerabe horien hezkuntzarako, aisialdirako eta denbora liberako eskubideak —baita ezabatuta ere, ordenagailurik eta Interneterako sarbiderik ez zutenen kasuetan— (Cardona Llorens, J., 2021). Herritar guztiengana bideratutako etxeko konfinamendua izan zen, eta, hainbat egilek diotenez, «helduetan zentratutako ikuspegia» hartu zen (Balsells Baion, M.A. et al., 2021; Cardona Llorens, J., 2021; Picornell-Lucas, A., 2016, 2020). Aipatu bezala, haurren populazioa ez zen gaixotasunak larrien erasandako adin-taldea, baina esan daiteke hartutako neurriek kolektibo hartantxe izan zituela eraginik handienak.

Egia da, gerora, espektro autistaren diagnostikoa eta jokabide disruptiboak zituzten adingabeei baimena eman zitzaizela pertsona batekin erabilera publikoko bideetatik zirkulatzeko —«irteera terapeutiko» ere deitzen zitzaien—, baina desgaitasuna duten pertsona batzuek eta haien senideek jendaurrean salatu zuten diskriminazio-jarrerak jasan zituztela auzokideen aldetik (SIIS Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua, 2020), eta, zenbait kasutan eta ingurutan, besoko bat edo kolore urdineko jantziak baliatu behar izaten zituzten, irteteko baimena zeukaten populazio-taldeetako bat zela nabarmentzeko. Azterlan batzuek agerian utzi dituzte funtsezko zerbitzuak eskuratzeko mugak ere, batik bat desgaitasuna duten adingabeen artean (Brennan, C.S., 2020).

Nerabeen kasuak garrantzi berezia du. Zenbait egilek adierazi dutenez, ez daude ados aldi horretan populazio-talde horrek jaso duen tratamenduarekin eta balizko «estigmatizazioarekin». Profesional horien arabera, nerabeak «lehertzearen dauden bonbatzat» hartu dira, eta ez da aintzat hartu hainbat alorretan laguntzeko izango luketen gaitasuna, hala nola krisiaren eguneroko kudeaketan, familia-bizitzan, gaitasun digitaletan, autonomiarako eta ekimenerako gaitasunean edo sare sozialen ezagutzan (Balsells Baion, M.A. et al., 2021; Cardona Llorens, J., 2021).

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak (Nazio Batuak, 1989) paradigma-aldaketa ekarri zuen, agenda politikoetarako gida gisa. Lehenik eta behin, aurrerapausoa izan zen haurra eta nerabea zuzenbideko subjektu gisa aitortzeko bidean, ez baitzuen hartzen babestu beharreko subjektu huts gisa; hala, identifikaturik geratu zen Estatuak eta gizarteak tratatu horretan aitortutako eskubide sozioekonomiko eta kulturalak betetzeko duten erantzukizuna. Bigarrenik, haurren eta nerabeen parte-hartzeari dagokionez, haurren herritartasun aktiboa proposatzen zuen artikuluetan, eta politika publikoei egozten zien horiek egitearen erantzukizuna (12. artikulutik 17.era bitartekoak). Haurren eskubide espezifikoei buruzko nazioarteko ituna (Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa) Milurtekoko Garapen Helburuek indartu zuten, eta, ondoren, Garapen Jasangarriko Helburuek (NBGP, 2016). Munduko ekintza-plan horretan, haurren babes integrala eta haien ikusgarritasun politikoa ere azpimarratzen ziren.

Hala ere, haurrei eta nerabeei begiratu ez izana da pandemia kontrolatzeko eta kudeatzeko hartutako neurriei egin zaien kritika nagusietako bat. Hau da, ez dira hartu inguruan eragiteko adinako gaitasunak dituzten eskubide aktibodun subjektutzat, eta ez zaio erreparatu eragiten dieten gauza guztiei buruz iritzia emateko duten gaitasunari (Cardona Llorens, J., 2021). Izan ere, badirudi haur eta nerabeen eskubideek eta haien parte-hartzeak ez dutela izan aurreikusitako errekonozimendu sozial eta politikoa, ez pandemia hasi zenetik, ez lehenagotik. Era berean, ez dirudi lehentasunezkoztat jotzen denik haur eta nerabeen interes gorena, eta, itxura guztien arabera, ez da espero zen moduan gauzatzen ari.

2.3. Haurren eta nerabeen alorreko politika publikoak eta udal-ekintza

2.3.1. Arau- eta eskumen-esparrua

Atal honetan haurrak eta nerabeak nazioartean, estatuan eta autonomia-erkidegoan babesteari buruzko arau- eta eskumen-esparruaren laburpena aurkezten da.

Nazioartean, honako hauek aipatu behar dira:

- [Genevako Adierazpena](#) (Nazioen Elkarteak, 1924). Nazioen Elkarteak 1924an onartutako Genevako Adierazpena testu historikotzat hartzen da, lehen aldiz onartzen eta baieztatzen baitu badirela eskubide espezifikoak haur eta gazteentzat, eta, ildo horretan, bereziki aitortzen baitu helduek duten erantzukizuna haur eta gazteen aurrean.

- [Haurren Eskubideen Aldarrikapena](#) (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1959). Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1959ko azaroaren 20an onartu zuen adierazpen hori —haurrak babesteko funtsezko piezatzat hartu da—. Eskubideen dekalogo bat ezarri zuen, eta pixkanaka-pixkanaka txertatuz joan da estatu kideen legerian.
- [Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa](#) (Nazio Batuak, 1989). Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideen Aldarrikapenaren ondoren onartutako itun horrek 54 artikulutan jasotzen ditu haurren eta nerabeen eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1959). Agiri horretan nabarmentzen denez, adingabeak subjektu eskubidedunak dira, eta haurraren interes gorena ezartzen du, erakundeek hartzen dituzten neurri guztietan kontuan hartu beharko den printzipio gisa.
- [Espainiako Estatuak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa berrestea](#) (BOE Estatuak Aldizkari Ofiziala, 1990).
- [Europako Erkidegoen Batzordearen komunikazioa](#) (Europako Erkidegoen Batzordea, 2006) Nazioarteko esparruaren barruan, nabarmentzekoa da Europako Batzordeak haurren eskubideei buruzko estrategia komun bat sortzeko egindako proposamena. Komunikazio horretan zehazten denez, beharrezkoa da estrategia bat definitzea, haur guztiak barnean hartuko dituen —eta bereziki egoera ahulean daudenak—, haiengan eragina duten erabakietan parte hartzeko duten eskubidea sustatzeko eta babesteko. Zehazki, Kontseilu Europarrak 2006an eskatu zien estatu kideei har zitzatela «*beharrezko neurriak, haurren pobrezia azkar eta nabarmen murrizteko, haur guztiei aukera berberak eskainiz, edozein izanik ere haien gizarte-egoera*».
- [2005-2009 aldirako helburu estrategikoak](#) (Europako Erkidegoen Batzordea, 2005), zeinetan haurraren eskubideak ezarri baitziren lehentasun nagusien artean.

Estatuari dagokionez, izan da lege-aurrerapenik haurtzaroaren alorrean azken urteotan, eta, horien artean, hauek nabarmentzen dira nagusiki:

- [Espainiako Konstituzioak](#) (BOE, 1978) ezartzen du haurrek nazioarteko hitzarmenetan aurreikusitako babesa izango dutela, eta, ildo horretan, babes berezia ematen die familiei zein haurrei, arlo sozial, ekonomiko eta juridikoan.
- [Kode Zibilak](#) (Gaceta de Madrid, 1889) eta [1996ko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoak, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldan dituenak](#), (BOE, 1996) adingabeen interes gorena babesten eta bermatzen dute, adingabeen jarduera publiko zein pribatu guztien printzipio gidari gisa.
- [8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko](#) (BOE, 2021). Duela gutxi onarturiko lege horren xedea da haurrek eta nerabeek edozein indarkeria-motaren aurrean beren osotasun fisiko, psikiko eta moralerako dituzten oinarriko eskubideak bermatzea, haien nortasunaren garapen askea bermatuz eta babes integraleko neurriak ezarriz. Neurri horien artean daude sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa eta kaltearen erreparazioa, haien bizitza garatzeko eremu guztietan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, hauek aipatu behar dira:

- [12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa](#) (EHAA, 2008a). Lege horren bidez, udalen esku uzten dira herritarren eta, beraz, haur eta nerabeen premiei erantzuteko eskumenak, bai eta babesgabetasun- eta babesgabezia-arriskuko egoerei buruzko eskumen espezifikoak ere.
- [185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa](#) (EHAA, 2015). Nabarmentzekoak dira herritar guztiei zuzendutako informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua (1.1), etxeko laguntza-zerbitzua (1.2) eta, bereziki, Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1.3).
- [13/2008 Legea, Familiei Laguntzekoa](#) (EHAA, 2008b). Lege horrek esku hartzeko eremu espezifiko bakoitzean garatu beharreko zerbitzuei egiten die erreferentzia; esate baterako, eskola-bitartekaritza, familiei hezkuntza-eremutik zuzendutako orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua, eta gizarte-zerbitzuek seme-alaben ongizatea sustatzearekin zuzenean lotutako hainbat zerbitzu —hala nola familia-orientazioa eta arreta psikosoziala, familia-bitartekaritza eta elkarguneak, beste hainbaten artean—.
- [3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskadiko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko](#) (EHAA, 2005). Lege horrek osotasunean jorratzen ditu haurren eta nerabeen eskubideak. Zehazki, zioen azalpenean, alderdi hauek aipatzen ditu xedean: alde batetik, haurraren figurak azken urteetan izan duen bilakaera eta, bestetik, berariazko legeria artikulatzeko beharra, hezkuntzaz edo osasunaz haratago doan eta kolektibo bereziki zaurgarri gisa dituen eskubideak sustatzeko eta babesteko funtsezko beste esparru batzuk barnean hartzen dituenak.
- [2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa](#) (EHAA, 2016). Lege horrek udalei esleitzen dizkie haurrak eta nerabeak zaintzeko eskumen espezifikoak, Gizarte Zerbitzuen sistemaren barruan. Udal-eskumenei dagokienez, legeak ezartzen du udalerriek jarduera, zerbitzu edo prestazioak garatu ahal izango dituztela, baldin eta jarduera, zerbitzu edo prestazio horiek —eskumen propioen, transferituen edo eskuordetuen esparruaren barruan egon gabe— herritarren bizi-kalitatea hobetzea dakarren edozein jarduera-eremu antolatu eta kudeatzera bideratuta badaude eta erkidegoaren edozein motatako beharrak edo interesak asetzen badituzte.
- Esparru autonomikoan, azpimarratzekoa da, alde batetik, [Gazteen Euskal Legearen proiektua \(Gobernu Kontseilua, 2020\)](#), zeinaren helburua baita gazteek beren eskubideak erabiltzeko aukera babestea eta erraztea —12 eta 30 urte bitarteko pertsonak hartzen dira gaztetzat—, haien izaera edo tasunak edozein izanik ere, eta, bestetik, gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, jasangarri eta kulturalen parte-hartze aktiboa sustatzea, eta haien autonomia eta emantzipazioa ahalbidetuko duten baldintzak sortzea, hasitako etengabeko prozesu baten amaiera gisa. Bestalde, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila lantzen ari den [Haur eta Nerabeen Eskubideei buruzko Lege Proiektua \(Eusko Jaurlaritza, 2020\)](#), haurrak eta nerabeak babesteko eta haien prebentzioa eta sustapena garatzeko sistema bat sortu eta arautu duena, arreta berezia ipiniz prebentzioan eta zaurgarritasun- edo babesgabetasun-egoeretan.

2.3.2. Haurrak eta nerabeak Gasteizko tokiko agenda politikoan

Funtsezkoa da toki-administrazioek haurren eta nerabeen eremuan duten zeregina, batez ere tamaina ertaineko hirien kasuan. Hala ere, ez da ahaztu behar dimentsio anitzeko fenomenoak, hala nola pobrezia, desparekotasuna eta desabantaila soziala —eta horrek haurren eta nerabeen kolektiboan duen eragina— ez direla administrazioaren inolako maila edo organismoren eskumen espezifikoak, eta, beraz, askotan modu zatikatu eta sektorizatuan eta partzialki heltzeko joera izaten dutela. Hau da, jarduera-eremu bakoitzak (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak eta abar) erantzun partzialak ematen ditu askotan, kolektibo espezifikoaren beharretara egokitutako erantzun globalak eta integralak eman beharrean, haurren, nerabeen eta familiaren zeharkako politiken bidez.

Gasteizek ibilbide luzea egin du haur eta nerabeekin duen konpromisoari eta inplikazioari dagokienez. Herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa den aldetik —eta, beraz, espaziorik egokiena den heinean haurtzaroko eta nerabezaroko politikak lantzeko eta gauzatzeko—, Gasteizko Udalak ibilbide luzea gauzatu du haurren eta nerabeen beharrei erantzuten, hirian bertan, sentsibilizazioaren bidez eta beste erakunde batzuekin lan eginez, guztia ere haur eta nerabeen mesederako izango diren helburu komunetan eraginez eta haien familiei babesa eskainiz.

Espainiako UNICEFen Batzordeak zuzentzen duen *Haurren Lagun diren Hiriak Programa* da hiriek eta tokiko administrazioak haurren eremuan izan dezaketen eginkizunaren adibide bat, eta Gasteiz partaide du. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (Nazio Batuak, 1989) udalean aplikatzea du xede. Programa horren lan-ekintzen artean, hauek nabarmentzen dira:

- Haur eta nerabeentzako tokiko planak sor daitezen sustatzea.
- Haurrek udal-bizitzan parte har dezaten sustatzea.
- Era guztietako udal-politikak bultzatzea, haurren eta nerabeen eskubideak garatzen laguntzeko.
- Herritarren lankidetzaren eta erakundeen arteko koordinazioa dinamizatzea, politika horien etengabeko hobekuntza eta garapena errazteko bide gisa.

Era berean, azken urteotan Gasteizen haur eta nerabeentzat abian jarritako ekimenen artean, [Haur eta Nerabeen Elkargunea](#) nabarmendu behar da, Udalaren Osoko Bilkurak 2017ko ekainaren 23an onetsi zuena. Gainerako elkarguneekin batera, Gasteizko Udalak sustatutako Gizarte Kontseilua osatzen du. Haurrek eta nerabeek (8 eta 14 urte bitartekoek) parte hartzeko udal-organo bat da, eta Haurren Partaidetzarako Aktiba(tu) Programaren barruan dago. Udalaren eta haur-nerabeen arteko zuzeneko kanala da, hiriko gaiei buruz hitz egiteko aukera ematen duena. Hain justu ere, gune horretan, haurrek eta nerabeek beren iritziak, itxaropenak eta proposamenak adierazi eta partekatuta ahal izaten dituzte interesatzen zaizkien gaiei buruz edo hirirako garrantzitsuak eta beharrezkoak iruditzen zaizkien auzien gainean, alderdi aktibo eta arduratsu gisa (adibidez, ingurumenari, haurren pobrezia, bizikidetzari eta abarri dagokienez).

2.3.3. Haurtzaroko eta nerabezaroko eginiko inbertsio sozialaren paradigma

Haurrei zuzendutako gizarte-babeseko politikei dagokienez, aipatzekoa da kontzeptu-ikuspegia aldatu izana edo paradigma berria sortu eta sendotu izana (Inza, A., 2012). «Inbertsio Sozialaren Paradigma» deritzenaren garapena eta finkapena gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen mundu zabalean, haurrei zuzendutako gizarte-babeseko politiketan (Deeming, C. & Smyth, P., 2017). Funtsean, ikuspegi kontzeptual berri horrek ideia honi egiten dio erreferentzia: ongizate-estatuek inbertsio sozialaren alde egin behar dute, eta herritarren trebetasunak eta gaitasunak indartu behar dituzte bizitzako lehen urteetatik. Inbertsio soziala, beraz, herritarren gaitasunak (produktiboak) garatzea eta bultzatzea helburu duten politikei eta esku-hartzei buruzkoa da (Deeming, C. & Smyth, P., 2017); konparazio baterako, lan-merkatua aktibatuz, edo lehen haurtzaroko hezkuntzan eta zaintzan inbertituz (Hemerijck, A., 2017). Haurrei zuzendutako inbertsio publiko proaktiboaren proposamenak esan nahi du adin-talde

horretan inbertitzea gizartearen etorkizunean inbertitzea dela. Planteamendu horretan oinarrituta, gizarte-politikak dinamismo ekonomikoa sortzen lagundu behar du, eta gizabanakoak gaitu egin behar dituzte bizitzan zehar agertzen zaizkien lan-aukerak aprobetxatzeko.

Europako Batzordeak aipatzen duenez, «*inbertsio sozialeko politikek babesera bideratutako politika sozialak indartzen dituzte, desabantaila sozialen arrazoietako batzuk jorratzen dituzten heinean eta pertsonen beren egoera soziala hobetzeko tresnak eskaintzen dizkieten neurrian*» (Europako Batzordea, 2013). Izan ere, gaur egun, Europako erakundeek ongizate-estatuaren zailtasunen aurrean erantzun ofiziala emateko ereduak Inbertsio Sozialaren Paradigma, Europako Batzordearen gomendioak jasotzen duenez (Europako Batzordea, 2013). Alde horretatik, Batzordeak berretsi du, batetik, belaunaldien arteko desabantailen transmisioa saihestea funtsezko inbertsioa dela etorkizunerako; bigarrenik, esku-hartze goiztiarra eta prebentzioa ezinbestekoak direla politika eraginkorragoak eta efizienteagoak egiteko, eta, azkenik, bizitzako lehen urteetako desabantailak zuzentzea garrantzitsua dela pobreziari eta, oro har, gizarte-bazterketari aurre egiteko ahaleginak areagotzeko.

Inbertsio Sozialaren Paradigmak arreta berezia ipintzen du hezkuntza goiztiarrean eta haurren aktibazioan eta inklusioan (Baines, S. et al., 2020). Ildo horretan, haurtzaindegiak eta eskolaurreko hezkuntza dira haurtzaroko inbertsio sozialaren parte garrantzitsu bat; izan ere, zenbait egileren arabera (Kvist, J., 2013), hezkuntzako lehen urte horietan eskuratutako trebetasun kognitiboetan oinarritzen da politiken arrakasta. Era horretako neurriak, gainera, lagungarriak izan daitezke gizarte-desparekotasunak nolabait leuntzeko, ingurune sozioekonomiko behartsuagoetan bizi diren familietako adingabeek ere beren parekoen hein berean eskura ditzaten. Paradigma horren ezaugarri nagusietako bat enfasi-aldaketa da; hau da, erreparaziora bideratutako politiketatik prestakuntzara bideratutako politiketara igarotzea, familia-, hezkuntza- eta genero-politiken bidez (Zalakain, J. & Barragué B., 2017). Ikuspegi horretatik, proposamen kontzeptual horrek arreta berezia ipintzen du zerbitzu jakin batzuetan, hala nola haurtzaroan inbertitzea, aukera-berdintasunaren eta gizarte-mugikortasunaren maila jakin bat ahalbidetuko duten baldintzak sortzea, seme-alabak dituzten familiei laguntzea eta emakumeei ordaindutako enplegua lortzen laguntzea ahalbidetzen dutenetan (Zalakain, J. & Barragué B., 2017).

Ikuspegi praktikoago batetik, Inbertsio Sozialaren Paradigma egungo egoerara aplikatzekotan, Marí-Klosek jaso duen modura (Marí-Klose, P., 2019), haurrik behartsuenen bizitza eta aukerak hobetzea ahalbidetu beharko luketen estrategiak eta jarduerak ezarri behar dira. Egile horrek garatutako proposamenak hiru multzo handitan biltzen ditu ekimenak, eta, aldi berean, hainbat ildo estrategikotan banatzen ditu, baina ahaztu gabe haurren pobreziaren fenomenoaren egitura-erroak (Marí-Klose, P., 2019). Hauek dira multzook, zehazki: a) desparekotasunak areagotzeari uzteko estrategiak; b) haurtzaroko gabezien dimentsio materialak zuzentzeko estrategiak, dela gurasoen lan-partaidetza sustatzera eta laneko diru-sarrerak osatzera bideratutako neurrien bidez, dela etxerik kalteberenetan baliabide ekonomikoak injektatuz, dela hazkuntza-kostuak desfamiliarizatuz, eta c) gizarte-bazterkeria zuzentzeko estrategiak, haurrengan, familietan, ikastetxeetan eta komunitatean oinarritutako esku-hartzeen bidez (Marí-Klose, P., 2019).

3. kapitulua.

Esku-hartzearen testuingurua

3.1. Aurrekariak

[Haur eta Nerabeentzako 2018-2022 aldirako II. Udal Plana](#) (aurrerantzean, II. HANUP plana) Gasteizko Udalak sustatutako estrategia da, zeinaren asmoa baita hiriko haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea bermatzeko aginduari erantzutea. Lehenengo edizioan bezala, udal-administrazioak zeregin horretan duen berariazko eginkizunean eta erantzukizunean oinarrituta diseinatu da II. HANUP plana, eta haren jatorrian udalaren eskumenak eta komunitatearekiko hurbiltasuna ez ezik, nabarmentzekoak dira arazoekiko kezka, gaitasunak aintzatestea eta komunitateari zuzendutako zerbitzu eta programen kudeaketaren bidez entregatzeko funtzioa ere. Horretarako, II. HANUP planak ikuspegi erkide bat ezartzen du haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten udal-sail guztien jardueretan, eta, eginkizun horretarako, esparru-tresna hauek hartzen ditu erreferentzia gisa: [Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Ituna](#) (2018), [Udal Gobernuaren Taldearen Plan Estrategikoa](#) (2015-2019) eta Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren [Gizarte Politiken Plan Estrategikoa](#) (2016-2020).

Sailarteko plana bada ere, udal-sail bakoitzari esleitutako erantzukizunaren ikuspegitik, aipatzekoa da garai hartako Gizarte Politiketako eta Osasun Publikoko Sailak eta gaur egungo Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailak izan duten eginkizun nabarmena².

II. HANUP plan horren ezaugarri nagusien artean, ezinbestekoa da haren partaidetzarako tasuna aipatzea, eta, zehazki, hura lantzeko prozesuan hiriko haur eta nerabeek izan duten protagonismo zabala, baina baita Udalak erakunde barruan eta hiriko beste funtsezko eragile batzuek (elkarte-sarea,

² Horiek errazago ulertzeko, sailek gaur egun duten izena erabiltzen da, [2019ko urriaren 10eko Alkatetza Dekretuaren](#) organigrama orokorraren arabera, zeina 2021eko maiatzaren 21ean eguneratu baitzen.

Hiriaren Gizarte Kontseilua...) izaniko parte-hartzea ere. Era berean, funtsezkoa da aipatzea plan hau aurrekoa baino neurritsuagoa dela, ekintza gutxiagorekin (neurri berriak edo, lehendik martxan egonik, aldatu behar izan ziren neurriak bakarrik biltzen ditu). Orobat, ikuspegi ekonomikotik zenbatetsi daitezkeen ekintzak biltzen ditu, bai eta egitasmo zorrotz bat ere, hala plana koordinatzeko eta bultzatzeko, nola II. HANUP plana ebaluatzeko, indarrean dagoen bitartean.

Diseinuaren eta egituraren ikuspegitik, aipatzekoa da, halaber, II. HANUP planak 100 ekintza biltzen dituela guztira, hurrengo bost ildo estrategikoen inguruan antolatuta, eta, aldi berean, 18 helburu orokorretatik abiatuak antolatuta.

Ildo estrategikoak	Helburu orokorrak	Ekintzak
1. Haurrei, nerabeei eta haien familiei begirako ekintzetan ekitatea indartzea	1. Seme-alabak dituzten familiak babestea, haurtzaroko desorekak gutxitzeko [1]	6
	2. Familia, bizitza pertsonala eta lana uztartzen laguntzea [2]	7
	3. Aita-amen gurasotasun positiboa sustatzea seme-alaben hazkuntzan [3]	5
	4. Ohitura osasungarriak sustatzea (aisia, kirola, jokoa, osasuna, elikadura, kontsumoa, kultura, irakaspen artistikoak) [4]	7
	5. Haurren eta nerabeen heziketa bultzatzea, eskolarekin eta familiarekin elkarlanean [5]	4
2. Haur eta nerabeen partaidetza bultzatzea. herritar aktibo izan daitezkeen eta hiriko bizimoduan haien eragin baikorra nabaritu dadin	1. Haur eta nerabeen eskubideak eta betebeharrak sustatzea eta horien gainean sentsibilizatzea, herritartasun aktibo eta ardurazko bat sustatuta [6]	7
	2. Haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzea arlo guztietan, haien alderdi onuragarriak agerrarazita [7]	9
3. Hirian izaera inklusiboa, berdintasuna, segurtasuna eta iraunkortasuna sustatzea haurrentzat eta nerabeentzat	1. Hiri atsegino eta solidarioago baterantz egitea, bizikidetzarako espazioak sortuko dituen eta hazkundera ekarriko duena [8]	7
	2. Hiria espazio seguru bat dela erakustea eta haur eta nerabeek hirian mugitzeko eta hartaz gozatzeko autonomia izan dezaten sustatzea [9]	3
	3. Ohitura onak sustatzea, gure ondarearen eta ingurumenaren aldeko errespetua eta kontserbazioa sendotzeko [10]	4
4. Erresilientzia- eta ahalduntze-eredua sustatzea, haurrak eta nerabeak zaurgarri eta babesik gabe diren egoeretan	1. Haurtzaroan eta nerabezeroan direnek jasaten dituzten tratatu txarrak eta babesgabatasuna goiz detektatzearan alde egitea eta gizarteko eragile eta herritar guztien inplikazioa bilatzea [11]	9
	2. Familien bigarren mailako prebentzioarako, haiei laguntzeko eta zaintzeko programak indartzea, horien indarguneak sustatuta [12]	11
	3. Haur, nerabe eta gazteei babesgabatasunaren ondorioak gainditzeko lagunduko dieten programak eta baliabideak garatzea [13]	5
5. Gasteizko Udalaren jardunbidea hobetzea, haurren, nerabeen eta familien arloan	1. Haur eta nerabeen egoera ezagutzea eta analizatzea [14]	3
	2. Zeharkakotasunerantz jotzea, eta sailen arteko eta erakundeen arteko antolamendua bultzatzea [15]	8
	3. Haurrei eta nerabeei aplikatutako programak ebaluatzea eta hobetzea ebidentziaren paradigmatik [16]	2
	4. Giza baliabideak premietara hobeto egokitzea, hala nola horien antolamendua, prestakuntza, gaitasuna eta kudeaketa hobetuta [17]	2
	5. Udalak haurrekin eta nerabeekin lantzen dituen ekimenak hedatzea [18]	1
Guztira		100

II. HANUP planean bezalaxe, jasotako ekintzen erdiak baino gehixeago (aurreikusitako 100 ekintzetatik 54) Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren ardura dira, eta sail horretako Haurtzaro eta Familia Zerbitzuari dagokio II. HANUP planeko 54 ekintzetatik 31. Gainerako ekintzen erantzukizuna honako hauen artean banatzen da: Hezkuntza eta Kultura Saila (10 ekintza); Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte-etxeen Saila (9 ekintza); Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saila (7 ekintza); Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Saila (4 ekintza), Mugikortasunaren eta

Espazio Publikoaren Saila (4 ekintza); Kirol eta Osasun Saila (3 ekintza); Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila (2 ekintza), eta Herritarren Segurtasunaren Saila (2 ekintza). Amaitzeko, gainerako 4 ekintzak TUVISA udal-enpresari (2 ekintza) eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI/CEA) erakunde autonomoari dagozkie.

Orain arte argitaratutako urteko ebaluazioen emaitzei begiratu azkar bat emanez gero, agerian geratzen da nahiko zabala dela II. HANUP planaren urte bakoitzerako ekintzen betetze-maila. 2018an, urte horretarako aurreikusitako 72 ekintzetatik 55 gauzatu ziren (% 77,8), eta 2019an, berriz, planak jasotako 85 ekintzetatik 63 (% 74,1).

	2018		2019	
	Gauzaturako ekintzak	Planifikaturako %a	Gauzaturako ekintzak	Planifikaturako %a
1. Haurrei, nerabeei eta haien familiei begirako ekintzetan ekitatea indartzea	13	72,2	20	80,0
2. Haur eta nerabeen partaidetza bultzatzea, herritar aktibo izan daitezen eta hiriko bizimoduan haien eragin baikorra nabaritu dadin	9	75,0	11	78,6
3. Hirian izaera inklusiboa, berdintasuna, segurtasuna eta iraunkortasuna sustatzea haurrentzat eta nerabeentzat	13	92,9	11	84,6
4. Erresilientzia- eta ahalduntze-eredua sustatzea, haurrak eta nerabeak zaurgarri eta babesik gabe diren egoeretan	10	71,4	10	58,8
5. Gasteizko Udalaren jardunbidea hobetzea, haurren, nerabeen eta familien arloan	11	78,6	11	68,8
Guztira	55	77,8	63	74,1

Iturriak: Ebaluazio-txostenak: [2018](#) eta [2019](#).

2018-2019 aldian aurreikusita zeuden ekintzen aldean gauzaturakoak kontuan hartuta, ikus daiteke hirugarrena («Hirian izaera inklusiboa, berdintasuna, segurtasuna eta iraunkortasuna sustatzea haurrentzat eta nerabeentzat») dela (% 89) kuantitatiboki betetze-mailarik handiena duen ildo estrategikoa; txikiena duena (% 65), berriz, laugarrena («Erresilientzia- eta ahalduntze-eredua sustatzea, haurrak eta nerabeak zaurgarri eta babesik gabe diren egoeretan») da.

Egindako gastuaren ikuspegitik, orain arte argitaratutako urteko ebaluazioen emaitzek erakusten dutenez, 2018an ia 5,3 milioi eurokoa izan zen II. HANUP planarekin egikaritutako gastua, planean bildutako ekintza guztiak kontuan hartuta —hau da, 2017an baino ia 1,9 milioi handiagoa—. 2019an, ostera, 3,6 milioikoa izan zen gastua, hau da, 2018koa baino ia 1,7 milioi txikiagoa. 2018an egindako inbertsio puntualek eragin zuten murrizketa nabarmen hori, neurri handi batean: batetik, Gasteiz Hobetuz auzotarren partaidetzarako programaren esparruan haurren eta gazteen espazioak pixkanaka dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen beharretara egokitzeko lanek (3.1.03 ekintza) eta, bestetik, landaguneko bi kirol-pistak egokitzeko lanek (3.1.06 ekintza). Bi ekintzok 1,7 milioi euro pasatxoko kostua izan zuten.

II. HANUP planaren jarraipen- eta ebaluazio-txostenak ekarriko dituen emaitzen zain, eta, batez ere, COVID-19aren pandemiak 2020aren hasieran eragindako ustekabeko egoera kontuan izanik, kapitulu honek planeko ekintzetan erantzukizun zuzena duten udal-teknikarien talde mardul batek eginiko balioespenaren panoramika eskaini nahi du, kontuan izanik teknikari horiek guztiek erantzukizun zuzena izan dutela planeko ekintzetan, dela hura abiarazteko unean, dela haren funtzionamenduari loturik.

3.2. Metodologia

Kapitulu honetan jasotzen den informazioak helburu bikoitza du: alde batetik, Gasteizko Udaleko teknikariek II. HANUP planarekin (2018-2022) lotutako hainbat alderdiri buruz egindako balorazioa ezagutaraztea eta, bestetik, etxeko konfinamendu-garaian zerbitzuek izaniko funtzionamenduz duten pertzepzioaren eta egoera horrek haurren eta nerabeen artean eraginiko balizko inpaktuaren berri ematea.

II. HANUP planean jasotako ekintzetan nolabaiteko inplikazioa duten udal-agente horien ikuspegia eskuratzeko, azterlan honetarako *ad hoc* diseinatutako galde-sorta bat baliatu zen. Orotara 18 galdera zituen, eta SurveyMonkey plataformaren bidez diseinatu zen, Internet bidez erantzun ahal izateko moduan, euskaraz zein gaztelaniaz. Txosten honen [III. eranskinean](#) kontsulta daiteke.

2021eko otsailean eta martxoan egin ziren bai funtsezko informatzaile profesionalen identifikazioa, bai inkestaren beraren diseinua, betiere Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Saileko Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuaren jarraibideen arabera. Landa-lana 2021eko martxoaren 15ean hasi zen; amaitu, berriz, 2021eko apirilaren 26an.

Haur eta Nerabeen arloaz arduratzen den Udalaren Koordinazio Organo Teknikoko teknikari guztiei helarazi zitzaizkien galde-sorta. Txosten honen sarrerako kapituluko metodologian dago jasota prozesu horretan parte hartu zuten pertsonen zerrenda (1.3 kapitulua). Guztira, Gasteizko Udalak dituen hogei udal-zerbitzu edo -arlotako 30 pertsonak erantzun zioten galdera-sortari. Azken buruan, II. HANUP planaren jarraipenean eta koordinazioan inplikaturako teknikariak ziren, eta, beraz, planari buruzko ezagutza handia zuten. Zehazki, % 63,3k erantzun zuen dezente (% 53,3) edo asko (% 10,0) ezagutzen zuela II. HANUP plana, eta % 36,7k aitortu zuen ezagutza-maila txikiagoa zuela. Era berean, inkestan parte hartu zuten 10 lagunetik 7k adierazi zuten moduren batean hartu zutela parte II. HANUP plana egiteko prozesuan, edo 2017an egindako diagnostikoan, edo planaren dokumentua egiteko fasean. Beraz, ondoriozta daiteke trebakuntza-maila nabarmena duten teknikariak zirela.

Kapitulu honetan, esan bezala, udal-teknikariek II. HANUP planari buruz eginiko balorazioarekin eta pandemiak zerbitzuen funtzionamenduan eta planaren garapenean izaniko inpaktuari buruz duen pertzepzioarekin lotutako alderdiak jaso dira. Hala eta guztiz ere, zehaztu behar da ez direla kapitulu honetan sartzen galde-sortan jasotako hainbat galdera —bereziki, hiriko haur eta nerabeek gizarte- eta komunitate-bizitzako hainbat eremutan bizi duten egoeraren diagnostikoari buruzkoak—. Azterlan honen II. blokea osatzen duten kapituluetan landuko dira galdera horiek.

Zehazki, kapitulu honek hiru atal nagusi ditu.

- Lehenik eta behin, 3.3 epigrafean II. HANUP planaren ikuspegi orokorra eman da. Bertan, teknikariek alderdi positiboak edo indarguneak identifikatu dituzte, baita etorkizuneko planari begira hobetu daitezkeen puntuak edo alderdi negatiboak ere.
- Bigarrenik, 3.4, 3.5 eta 3.6 epigrafeek planean aurreikusitako ekintzen lanketa-, koordinazio- eta jarraipen-prozesuaren eta gauzatze-mailaren balorazioa egin dute, eta arreta berezia eskaini diote pandemiak planaren ohiko garapenean izan duen (eta oraindik ere izaten ari den) inpaktuari.
- Azkenik, kapitulu honetako azken bi epigrafeetan, zerbitzuen funtzionamenduarekin lotutako alderdiak jaso dira, dela pandemiaren lehen uneen bereizgarri izan zen etxeko konfinamenduan izanikoarekin lotutakoak, dela gaur egungoari buruzkoak. Halaber, identifikatu da zer haur- edo nerabe-taldetan izan duen edo izango duen pandemiak inpaktu negatiborik handiena.

3.3. II. HANUP planaren indarguneak eta ahuleziak

Konsultan parte hartu duten udal-teknikariek II. HANUP planaren inguruko alderdi positiboak edo indarguneei buruz eta alderdi negatibo edo hobegarriak buruz emaniko erantzunetatik abiatuta, hauek nabarmendu behar dira:

Gasteizko Udaleko teknikariek inplikazio- eta partaidetza-maila handia nabarmendu dituzte II. HANUP planaren alderdi positiboak nagusien artean, bai maila teknikoan, esku hartu duten udal-zerbitzu eta -sailak kontuan harturik, bai herritarrei dagokienez, plana prestatzeko faseren batean izaniko inplikazioa dela eta. Parte-hartzearekin batera, planean inplikaturako eragile guztien arteko koordinazioa eta planaren etengabeko jarraipena dira gehien nabarmentzen diren alderdietako bi. Ildo horretan, balioespen handia izan du talde teknikoaren kaudimenak, II. HANUP plana egiteko prozesuan izaniko inplikazioari, ahaleginari, dedikazioari eta erantzukizunari dagokienez.

Planaren oinarriak erreparaturik eta **metodologiari begira**, udal-teknikariek azpimarratu dute oso garrantzitsua dela plan hori haurren eta nerabeen egungo beharretan oinarritu izana —aldeztatik aurretik egindako azterketa diagnostikoan hauteman ziren—. **Maila teorikoan**, planaren sendotasun teknikoa ere azpimarratzen da. Zehazki, alderdi positibo gisa aipatzen dira haren **egituraketa**, erabilitako **kontzeptuen** argitasuna eta plana osatzen duten **edukien** eta **ekintzen** egokitasuna.

Azkenik, II. HANUP planaren orientazioari eta ikusgarritasunari dagokienez, identifikaturako beste indargune bat hauxe da: dokumentuak **bistaratu**, nabarmendu eta **sustatu** egiten du haurren eta nerabeen premien inguruko **kontzientzia hartzea**, eta egin ere modu transbertsalean egiten du, **determinatzaile sozialen** ikuspegiarekin eta **Garapen Jasangarriko Helburuekin** lerroturik.

Bestalde, udal-teknikariek hainbat alderdi identifikatu dituzte, hain positiboak ez direnak edo etorkizuneko planari begira **hobetu litezkeenak**. Ildo horretan, kezka nagusietako bat **COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortutako egoeraren inaktuarekin dago loturik**, bereziki 2020rako eta 2021erako aurreikusitako ekintzak gauzatzeari buruzko ziurgabetasunari dagokionez, **aurrekontu ekonomikoa murriztu** izanaren ondorioz. Bada kezka orokortu bat, gainera: txikitu egingo ote diren datozen 4 urteetarako udal-aurrekontuak eta haur eta nerabeei zuzendutako ekintzetara bideratutako partida ekonomikoak, bai eta hirugarren sektoreari zuzendutako laguntzak ere, kontuan izanik haien ekintzak ere haurretara bideratuak direla.

II. HANUP planaren edukiaz, zenbait teknikariek uste dute asmo handiegikoa dela eta **ekintza ugari biltzen dituela** —batzuetan «gehiegixoa» ere bai, haien ustean—. Horrela, bada, proposamena da planteatutako jarduerak eta ekintza-kopurua gutxiago izatea, eta edukia eta ezaugarriak, berriz, zehatzagoak, errealistagoak eta gauzagarriagoak.

Nahiz eta adierazi dugun planean inplikaturako eragileen arteko **koordinazioa** dela indarreko planaren indargunerik handienetako bat, bada hobetu beharreko beste alderdi bat ere, bai **barnean**, sail eta zerbitzuen ekintzen arteko erlazioa optimizatuz eta lidergo handiagoaren bidez, bai **kanpora begira**, haurrak eta nerabeak inplikaturako dauden hiriko beste plan batzuekin edo zeharkako beste proiektu batzuekin. Era berean, ezinbestekotzat jotzen da hurrengo planari begira **haurren eta nerabeen ikuspegia eta ekarpenak kontuan hartzen jarraitzea**, eta, horretarako, haien **partaidetza zuzena** ahalbidetzea.

Azkenik, zenbait **zailtasun espezifiko** identifikatu dira **Sailen arteko Koordinazioarako Organo Teknikoaren** eginkizunen esparruan ere. Inkestan parte hartu duten pertsonen proposatzen dute, besteak beste, ebaluazioen emaitzen eta teknikarien arteko urteko txostenen trukea bizkortzea bilerak egin aurretik, edo bileren antolaketa birpentsatzea, parte-hartzaileen ekarpenak kontuan har daitezela.

3.4. Plana prestatzeko prozesuaren balorazioa

Udal-teknikariek emandako erantzunak aztertu aurretik, merezi du gogoraraztea funtsezko bi etapatan gauzatu zela II. HANUP plana. Lehenengoa izan zen azterketa diagnostikoa gizarteratzea, haren emaitzak ezagutaraztea eta planaren ildo estrategikoak eta helburu orokorrak lantzeko ekarpenak biltzea. Bigarrena, berriz, partaidetza-prozesu zorrotz bat izan zen, horiek kontrastatzeko eta ekintzak diseinatzen eta hautatzeko. Prozesu horretan, haur eta nerabeek eta gizarte zibilak eginiko lanaz gainera, protagonismo handia izan zuen Udalaren barruko lanak ere.

Inkestari erantzun dioten 10 udal-teknikaritatik 7k hartu dute parte, nola edo hala, II. HANUP plana prestatzeko prozesuan, izan 2017an haurrek eta nerabeek hirian duten egoerari buruz egindako diagnostikoan, izan planaren dokumentua prestatzeko fasean. Horrek adierazten du galde-sortari erantzun dioten pertsonen inplikazio eta ezagutza handia dutela plan horretan jasotako ekintzei buruz.

Oso positiboa da II. HANUP plana egiteko prozesuari buruzko balorazioa, hurrengo taulan ikus daitekeenez. Inkestan parte hartu duten 3 pertsonatitik 2k (% 66,7k) nahiko edo oso modu positiboan baliosten dute prozesu hori. Azpimarratu behar da inork ez duela egin balorazio negatiborik arlo horretan. Aipatzekoa da, halaber, 6 teknikariren kasua (guztizkoaren % 20ren), uste baitute ez daukatela alderdi hori baloratzeko adina informazio, ez baitzuten parte hartu prestatze-prozesuan. Prestaketa-prozesuan esku hartu zutenen kasua kontuan izanik, gehienek (% 85,7k) uste dute prozesua nahiko ona edo oso ona izan dela, eta % 14,3k soilik jotzen dute prozesu hori hala-holaketzat.

1. taula. II. HANUP plana egiteko prozesuan izaniko parte-hartzea eta hari buruzko balorazioa



Plana egiteko prozesua hala-holaketzat jo duten pertsonen honela justifikatzen dute erantzuna: aipatzen dute II. HANUP planak ez duela jaso aurretik egiten zirenak baino jarduera berritzaileagoak, eta zenbait zerbitzuek tarte txikia izan dutela lankidetzaren eskaerari behar bezala erantzuteko. Plana egiteko prozesuan izaniko «gehiegizko parte-hartzea» ere aipatzen da.

3.5. Koordinazio-prozesuaren balorazioa

II. HANUP planak Gizarte Politiken Sailari esleitzen dizkio zerbitzuaren jarraipena, koordinazioa eta sustapena —hari atxikita dago Haurtzaro Zerbitzua—. Alabaina, koordinazio-funtzioak dituzten bi organo espezifiko aurreikusten ditu:

- **II. HANUP planaren Zuzendaritza Taldea:** plana garatzeko kudeaketa-organoa da, eta Gizarte Politiken Saileko Zuzendaritza Taldeari dagokio.
- **Udalen Sailen arteko Koordinaziorako Organoa:** II. HANUP planaren jarraipen-organoa da, eta zeharkakotasuna ematen dio prozesuari, haren zerbitzuek izendatutako arduradun teknikoek talde batek (planeko ekintza baten edo gehiagoren arduradunak) prozesuan parte hartzen duenetik. Arduradun horien zeregina da Zuzendaritza Taldearekin orpoz orpo lan egitea, II. HANUP planeko ekintzak garatzeko eta ebaluatzeko.

Alde horretatik, II. HANUP planak 2 urte baino gehixeago eman ondoren indarrean, zer balorazio egiten dute teknikariek koordinazio- eta dinamizazio-prozesuaz? (2. taula)

2. taula. II. HANUP plana koordinatzeko prozesuan izaniko parte-hartzea eta hari buruzko balorazioa

II. HANUP plana koordinatzeko prozesuan izaniko parte-hartzea	II. HANUP plana egiteko prozesuaren balorazioa				
	Guztira		Parte hartu duten pertsonak bakarrik		
	Kop.	%-a	Kop.	%-a	
 <p>Ez %20,0</p> <p>Bai %80,0</p>	Oso ona	5	% 17	5	% 21
	Nahiko ona	19	% 63	15	% 63
	Hala-holakoa	2	% 7	1	% 4
	Nahiko eskasa	--	--	--	--
	Oso eskasa	--	--	--	--
	Ez daukat behar adinako informaziorik	4	% 13	3	% 13
	Guztira	30	% 100	24	% 100

Ikus daitekeenez, inkestari erantzun dioten 10 udal-teknikaritatik 8k hartu dute parte plana koordinatzeko eta dinamizatzeko prozesuan (% 80k). Prozesu horren balorazioa positiboa da, argi eta garbi. Koordinazio-prozesuan parte hartu duten (edo parte hartzen ari diren) teknikariek % 84k nahiko positibotzat (% 63k) edo oso positibotzat (% 21k) jo dute dinamizazio hori. Nolanahi ere, adierazgarria da prozesu horri buruzko erantzun negatiborik jaso ez izana.

3.6. Gauzatze-prozesuaren balorazioa eta pandemiaren inpaktua


II. HANUP planean jasotako ekintzetan nolabaiteko erantzukizun-maila duten sailtako eta zerbitzuetako udal-teknikariek talde mardul bati zuzendutako inkestak bi galdera zituen planaren ekintzen gaineko ezagutza-mailarekin loturik, betiere kontuan harturik jarduera garatzen duen erakundeari (saila, zerbitzua, erakunde autonomoa edo udal-enpresa) dagokiola haien gaineko erantzukizuna, bai eta ekintza horien betetze-mailari buruzko balorazioa ere.

Lehenengo gaiari dagokionez, 10 teknikaritatik 8k (% 80k) adierazi dute badakitela zein diren lan egiten duten entitatearen erantzukizunpeko ekintzak; hau da, zein sail, zerbitzu, erakunde autonomo edo udal-enpresari dagokion ekintza horietako bakoitza. Zehazki, 4tik 1ek uste du ondo ezagutzen dituela ekintza horiek (% 26,7k), eta erdiak baino gehixeagok (% 53,3k) nahiko ondo. Alabaina, % 16,7k aitortzen du

berri gutxi duela bere erakundeari esleitutako HANUPeko ekintzen gainean, eta % 3,3k ez du haien inguruko berririk.


Jarduera garatzen duten erakundeak gauzatu beharreko ekintzen balorazioari dagokionez, % 63,3k uste du handia dela ekintza horien betetze-maila (3. taula). Otiak 10era bitarteko eskala batean —0k adierazten du ez dela batere betetzen eta 10ek erabat betetzen dela—, teknikarien % 63,3k modu nahiko edo oso positiboan puntuatu du ekintzen gauzate-maila (7-10 artean); % 20k tarteko puntuazioa ematen du (4-6 bitartean) eta % 7k baino gutxiagok negatiboki baloratzen du.

3. taula. II. HANUP plana koordinatzeko prozesuan izaniko parte-hartzea eta hari buruzko balorazioa



II. HANUP planean aurreikusitako ekintzak eta haren indarraldi osoa (2018-2022) kontuan hartuta, kontsultatutako ia pertsona guztiak bat datoz: COVID-19ak eragindako pandemia oztopo izango da aurreikusitako ekintzak behar bezala egin ahal izateko; hala adierazten dute 10 parte-hartzailetatik 9k (% 90ek). Dena den, oso desberdina da inpaktu horren intentsitateari buruzko pertzepzioa. Haietatik % 16,7k uste du pandemia oso eragozpen handia izango dela, % 50ek eragozpen handi samarra izango dela eta % 23,3k, azkenik, traba txikia izango dela.

4. taula. COVID-19ak eragindako pandemiaren oztopoari buruzko balorazioa, planean aurreikusitako ekintzak behar bezala gauzatzeari dagokionez



COVID-19ak eragindako pandemiak II. HANUP planean aurreikusitako ekintzetan izan dituen edo izango dituen inplikazio nagusiei buruz galdetu ondotik³, nabarmentzekoak dira udal-teknikariek aipatutako hainbat alderdi —ondoren jaso dira—.

Oro har, uler daiteke kezka handia sortzen duela II. HANUP planeko ekintzak behar bezala gauzatzeko aurrekontu nahikorik ez izateko aukerak, bereziki Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuko profesionalen artean, kolektibo horrekin zuzenean eta estuki egiten baitute lan. Kontsultatutako pertsonen aurreikusten dute ekintza asko ezin izango direla egin, beharrezko zuzkidura ekonomikorik ez dutelako. Erronka horren aurrean, uste dute gogoeta egin beharko dela II. HANUP plana birbideratzeko, berregokitzeko edo aurreikusitako ekintzak sinplifikatzeko eta/edo epe ertainera premia berriak lehenesteko aukerari buruz.

Aurrekontuan izaniko eraginaz gainera, pandemiak ekarritako egoeraren ondoriozko mugek edo murrizketek sorrarazi dute aldaketarik edo egokitzapenik planean aurreikusitako jarduketetan. Adibidez, bil daitezkeen pertsonen kopuruaren murrizketek edo mugikortasunaren mugek eragina izan dute talde-ekintzetan, kirol-programa eta -instalazioen funtzionamenduan, hezkuntza-eremuan aurreikusitako ekintzetan eta abarretan. Hori horrela izatearen ondorioz, aldatu edo egokitu egin behar izan dira.

3.7. Zerbitzuen funtzionamendua etxeko konfinamendu-garaian eta jardueren murrizketek haurren eta nerabeen artean izaniko balizko inpaktua

COVID-19ak eragindako pandemia gorabehera, Gasteizko Udaleko teknikariek gogobetetze-maila nahiko handia dute haur eta nerabeei zuzendutako zerbitzuek eskaini ahal izan duten erantzunaren inguruan. 2020ko martxotik eta maiatzera bitartean bizi izandako etxeko konfinamenduak izan du eraginik udal-zerbitzuek eskainitako erantzunean, bai mugapenei dagokienez, bai aukerei dagokienez.

Jarraian, ekarpen nagusien laburpen bat dator⁴.

- Lehenik eta behin, oso positiboki baloratzen dute zeinen azkar lortu duten egoera berri horretara egokitzea, bai eta profesionalek erakutsi duten jarrera proaktiboa eta konpromisoa ere.
- Bigarrenik, oso modu egokian ebaluatzen dute familia guztien arreta lehenetsi izana, eutsi egin baitzitzaizen haur guztiekiko esku-hartzeari eta harremanari, eskura dauden bitartekoak baliatuz larrialdi-egoeretan —Internet bidez, telefonoz edo aurrez aurre—.
- Hirugarrenik, teknikarien ustetan nabarmentzekoa da honako hau: egoera horrek aukera eman du jarduteko modu berriak, ikaskuntza berriak eta arlo horretan tresna berriak egokitzeko eta abian jartzeko. Era berean, nabarmendu dute bizi izandako egoeraren ondorioz hobetu egin direla bitarteko telematikoen bidez artatutako pertsonekin komunikatzeko aukerak.

Kontrako ikuspegitik begiratuta, etxeko konfinamenduak traba handiak eragin ditu haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuen ohiko jardunean.

³ Berariaz, galdera honen aurrean emandako erantzunak jasotzen ditu: «Zure ustez, COVID-19ak eragindako pandemiak eta hark ekarri dituen ondorioek eragotzi dute (edo eragotziko dute etorkizunean) zure lan-zerbitzuari agindutako HANUPeko ekintzak betetzea? Baiezkoa erantzun baduzu, adieraz ezazu, mesedez, zer modutan birbidera litekeen plana indarraldiaren gainerako urteetan».

⁴ Ondoren, galdera honi emandako erantzunak aztertuko ditugu: «Nola baloratzen duzu zure zerbitzuak etxeko konfinamenduko aldiko hilabeteetan (2020ko martxoa eta maiatza bitartean) emandako erantzuna? Zer indargune eta muga ikusi dituzu? Zure ustez, berriz ere antzeko zerbait gertatuko balitz, hobeto prestatuta egongo zinatekete?»

Ildo horretan, identifikatutako ahulguneen artean honako hauek ageri dira: orientabide argiagorik ez izatea eta haurren eta nerabeen beharrak ikuspegi zabal batetik kontuan hartzea, ekintzak moteldu dituzten muga burokratikoak eta, zenbait zerbitzuren kasuan, aurrez aurreko arreta aldi baterako etetea. Era berean, aipatzen da egoera horrek agerian utzi duela eta areagotu egin dituela lehendik zeuden ahuleziak, eta arretaren kalitatea baldintzatu dutela. Ahulezia horien artean daude, besteak beste, azpiegituren egoera, baliabide telematikorik ez izatea, arreta-ratio handiak eta abar.

Azkenik, pandemiarekin ikasitakoari dagokionez, bizi izandako egoeraren larritasuna gorabehera, udal-zerbitzuek uste dute antzeko egoera bat berriro gertatuko balitz hobeto prestatuta egongo liritekeela norbanako gisa. Alabaina, ez dute uste hobeto prestatuta daudenik, pandemiaren aurretik ageri ziren gabeziei eta mugei erantzuteko.

Bestalde, zuzenean haurrak eta/edo nerabeak artatzeaz arduratzen den zerbitzuren batean lan egiten duten Gasteizko Udaleko teknikarien ustez, oro har, normalean eskaintzen diren zerbitzuetan jarduerarik ez izatea edo osorik ez egiteak inpaktu garbia izan du zenbait haurren, nerabeen eta haien familien ongizatean⁵.

Baliabide telematikoen bidez lan egiten jarraitu arren, adingabeei zuzeneko arreta ematen dieten zerbitzuetan lan egiten duten teknikarien ustez, litekeena da babesgabetasun-egoera batzuk eta defentsarik eza ikusezin geratu izana etxean konfinatuta egoniko hilabeteetan, eta litekeena da, orobat, ezkutuan geratu izana hainbat kasu eta problematika, batez ere eskola-ingurunean hauteman ohi diren egoerekin loturikoak. Era berean, baliteke konfinamenduak berak bizikidetzatza-gatazkak edo indarkeria-egoerak areagotu izana. Konfinamendu-aldiaren ondoren, teknikariak ohartu dira atzerapen nabarmena gertatu dela kasuak artatzeari dagokionez, pilatu egin baitzaizkie kasuak itxialdian zehar.

3.8. Zerbitzuen funtzionamendua *normaltasun berria*

Gaur egun «normaltasun berria» esaten zaion horretan indarrean jarraitzen duten osasun-neurriak direla eta (distantzia soziala, mugikortasun-murrizketak, maskararen erabilera, taldeko bileretako mugak eta abar), teknikariek aitortu dute ezin izan zaiela berriro heldu pandemia aurretik egiten ziren jarduera guztiei⁶. Jarduera horietako gehienak mantendu edo egoera berrietara egokitu dira —hau da, gaur egun baimentzen diren espazio eta baliabideetara—. Beste kasu batzuetan, aldiz, jarduera batzuk etenda daude oraindik, batez ere taldekoak.

Gai horri dagokionez eta jasotako erantzunetan oinarrituta, bi dira, batez ere, egungo egoeran udal-teknikariak gehien kezkatzen dituzten ondorioak.

Hasteko, aurrekontu nahikorik ez izatea eta eskuragarritasun ekonomikoa murrizteak, alde batetik, eragotzi egiten du adingabeei zuzendutako proiektu eta jarduera berriak abian jarri eta programatu ahal izatea, eta, bestetik, baldintzatu egiten du lehendik zeuden proiektu eta jarduerak pandemiaren aurretik garatzen ari ziren baldintza berberetan egiten jarraitzeko aukera.

⁵ Hurrengo galderari emandako erantzunak aztertzen dira: «*Etxean konfinatuta emaniko hilabetei dagokienez, zure ustez, normalean eskaintzen diren udal-zerbitzu gehienen jarduerarik gabeko egoera partzial edo oso batek izan zuen inpakturik zenbait haurren, nerabeen eta haien familien ongizatean? (Mesedez, lan egiten duzun zerbitzuarekin pentsatuz bakarrik erantzun)*».

⁶ Epigrafe honetan jasotzen dira [III. eranskineko](#) galde-sortan egindako galdera honen erantzunak: «*Gaur egun, zure ustez, zer ondorio ari da eragiten pandemia zure lan-eremuaren barruan haurrei eta nerabeei zuzentzen zaizkien zerbitzuen edo programen funtzionamendu egokian?*»

Bigarrenik, Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zerbitzu guztietan hauteman denez, nabarmen ugaritu dira pandemiak sortutako egoeraren ondorioz zaugarritasun-egoeran edo babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeen kasuak. Horren eraginez, kasurik larrienak eta konplexuenak lehenetsi behar izan dira, eta, aldiz, neurri txikiagoan landu dira hain larriak ez diren kasuei dagozkien prebentziozko esku-hartzeak.

Era berean, udal-teknikariek identifikatuta dituzte haur eta nerabeen talde jakin batzuk, COVID-19aren pandemiak hein handiagoan eragin dien (edo eragingo dien) taldeen artean. Zehazki, udal-teknikarien ustez, COVID-19ak sorturiko pandemiak eragin negatibo handiagoa izan du edo izango du pandemia aurretik egoera okerragoan zeuden familien artean, hala nola zaugarritasun edo babesgabetasun ekonomiko edo sozialean dauden familietan. Adinari dagokionez, aurkako inpaktua handiagoa izan da, alde batetik, haurrik txikienetan (5 urtetik beherakoetan) eta, bestetik, nerabeen artean.

Era berean, profesional horiek emandako iritziazen arabera, badirudi COVID-19aren inpaktu negatiboa handiagoa izan dela desgaitasuna duten eta/edo osasun mentaleko arazoak dituzten haur eta nerabeen artean. Azkenik, badirudi pandemiaren eragina handiagoa izan bide dela gizarte-, hezkuntza- eta harreman-laguntzarik gabeko edo eten digitaletik eratorritako arazoak dituzten adingabeen artean; besteak beste, adingabe migratzaileen eta guraso bakarreko familietako adingabeen artean.

II. BLOKEA.

Haurren eta nerabeen egoera Gasteizen



4. kapitulua.

Hiriaren egitura soziodemografikoa

4.1. Gasteiz da azken 5 urteetan gehien hazi den 40.000 biztanletik gorako euskal udalerrria

Erroldako datu ofizialen arabera⁷, Gasteizek **253.996 biztanle** zituen 2020ko urtarrilaren 1ean, orain arte erregistratutako kopururik handiena. 2016arekin alderatuta (aurreko diagnostikoa egiteko oinarritzat hartu zen urtea), % 3,8 hazi da Arabako hiriburuko biztanleria, aurreko bosturtekoan (2011-2015) baino pixka bat gehiago, orduan % 1,8koa izan baitzen igoera.

Bilakaeraren ikuspegitik, Gasteizko biztanleriak dinamismo berezia du. Azken bi hamarkadetan, 2000. urtean mendea hasi zenetik, Gasteizko biztanleria % 16,9 hazi da, ia etengabe, urtetik urterako batez besteko % 0,8ko erritmoarekin. Azken 20 urte hauetan, 217.358 biztanle izatetik 253.996 izatera igaro da 2020an, eta horrek EAEko batez besteko hazkundearen (% 5,8) gainetik ipini du Gasteiz, bai eta beste bi euskal hiriburuaren gainetik ere. Izan ere, 2000tik 2020ra bitartean, biztanleriaren hazkunde erlatiboa ia lau aldiz txikiagoa izan zen Donostian, hau da, % 4,4 baino ez zen igo, eta Bilbon % 1,2 jaitsi zen biztanle-kopurua.

Datu berriagoei erreparatuta ere, Gasteizen gehiago ugaritu da biztanleria. Azken 5 urteetan, 2016tik 2020ra bitartean, Gasteizko biztanleriaren hazkundera (% 3,8koa) askoz handiagoa izan da, Euskal Autonomia Erkidego osoan (% 1,4koa), Bilbon (% 1,5koa), Donostian (% 1,2koa), Barakaldon (% 1,5koa) eta Getxon (-% 1koa) izandakoa baino. Era berean, eta Estatuko datuen ikuspegitik, Gasteiz zortzigarren postuan dago 200.000 pertsonatik gorako 30 udalerrien barruan.

Dinamismo demografikoaz gain, Gasteizen nabarmentzekoa da EAE osoko udalerririk zabalena dela⁸, 276,3 km²-ko guztizko azalerarekin, Donostiak eta Bilbok elkartuta dutenaren (101,6 km²) ia hirukoitza. Gainera, bizitegi-lurzoruaren azalera ere (201,3 km²-koa) Donostiakoa (136,5 km²-koa) eta Bilbokoa (120,2 km²-koa) baino askoz handiagoa da.


Tamainarik handieneko euskal udalerririk bakarrik kontuan hartuta, Gasteiz da **biztanleria-dentsitate txikiena** duen 40.000 biztanletik gorako udalerrria: **919,3 biztanle kilometro karratuko**. Beste 2 euskal hiriburuetakoa baino askoz ere txikiagoa da, Bilbokoa 8.627,3 bizt/km²-koa eta Donostiakoa 3.086 bizt/km²-koa baitira, baina baita Portugaletekoa (14.340 bizt/km²-koa), Getxokoa (6.557 bizt/km²-koa) eta Basaurikoa (5.778 bizt/km²-koa) baino txikiagoa ere.

⁷ 2020ari dagozkion datuak, EInen Etengabeko Erroldaren Estatistikako datuetatik abiatuta kalkulatua.

⁸ [EUSTAT](#). Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren datuak.

BIZTANLERIAREN BILAKAERA

1. grafikoa. Gasteizko biztanleriaren bilakaera. 2000-2020




Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Etengabeko Erroldaren Estatistika.

1. taula. 40.000 biztanletik gorako euskal udalerrietako populazioa eta populazio-dentsitatea. 2016-2020

	Dentsitatea (bizt./km ²)		Populazioa		Aldakuntza (%) 2016-2020
	2016	2020	2016	2020	
Gasteiz	885,4	919,3	244.634	253.996	+% 3,83
Bilbo	8.502,6	8.627,3	345.122	350.184	+% 1,47
Donostia	3.050,2	3.085,9	186.064	188.240	% 1,17
Barakaldo	4.001,0	4.059,4	100.025	101.486	% 1,46
Getxo	6.623,4	6.557,3	78.554	77.770	—% 1,00
Irun	1.471,1	1.502,1	61.608	62.910	% 2,11
Santurtzi	5.256,1	5.259,0	46.043	46.069	% 0,06
Portugalete	14.537,6	14.340,4	46.375	45.746	—% 1,36
Basauri	5.796,7	5.777,5	40.983	40.847	—% 0,33


Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Etengabeko Erroldaren Estatistika, Eustat. Lurralde-plangintza eta hirigintza.

2. grafikoa. EAEko lurralde historikoetako hiriburuetako biztanleriaren urtetik urterako hazkundearen bilakaera. 2000-2019



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Etengabeko Erroldaren Estatistika, Eustat. Lurralde-plangintza eta hirigintza.

3. grafikoa. EAEko lurralde historikoetako hiriburuetako, Arabako lurralde historikoko eta Euskadi osoko biztanleriaren aldakuntza-tasaren bilakaera. 2000-2020



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Etengabeko Erroldaren Estatistika.

4.2. Biztanleriak gora egin ondoren, zerotik gertuko saldo begetatiboa eta hazten ari den migrazio-saldoa, 2008ko krisiaren aurreko aldi bako handiagoa

Ikuspegi demografikotik hiri honetan izandako biztanleria-hazkundera azaltzen laguntzen duten fenomeno nagusiak aztertu ondoren argi dago **migrazio-saldoak positiboan izatearen ondorio dela**, neurri handi batean, Gasteizek 2016az geroztik izan duen hazkundera iraukorra.

2016tik aurrera eskuragarri dauden datuen arabera, migrazio-fluxuek eragin dute 2017-2019 aldiaren erregistratutako biztanleria-hazkunderaren % 96 inguru. Bestalde, bilakaerari buruzko datuen arabera, joera argia dago saldo begetatiboari dagokionez, hau da, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearekin loturik. Saldo hori gero eta txikiagoa da: 2018tik 100etik behera dago, 2019an 8koa izan zen eta, dirudienez, datozen urteetan negatiboa izango da, heriotza-kopurua jaiotzena baino handiagoa baita.

2020rako urteko heriotzen behin betiko zifrak oraindik finkatu ez diren arren eta, beraz, oraindik behin-behinekoak badira ere, Eustatek emandako informazioaren arabera, urte horretan 2.438 pertsona hil ziren Gasteizen, 2021ean baino % 22 gehiago, eta horietatik ia % 24,6 COVID-19aren ondorioz⁹. Zifra hori (2.438 lagun) eta 2020ko jaiotza-kopurua kontuan harturik (1.863koa, 2019an baino % 7 txikiagoa), Gasteizko saldo begetatiboa -575ekoa izango litzateke (oraindik behin-behinekoa).

Hala ere, gaur egun eta 2019ko azken datuak erreferentziatzat hartuta, ikuspegi konparatu batetik, Gasteiz da hazkundera begetatibo negatiborik ez duen Euskadiko hiriburua bakarra. Hau da, hiri horretako jaiotzen eta heriotzen arteko aldea 8 lagunekoa da, Bilbon eta Donostian ez bezala (-1.527koa eta -623koa dira, hurrenez hurren), edo Arabako lurralde historiko osoan ez bezala (-172koa baita). Horren arrazoia argia da: Gasteizek jaiotza-tasa handiagoa du, baina baita heriotza-tasa txikiagoa ere (3. taula). Alde batetik, 2019an Gasteizen 1.000 biztanleko 8,0 jaiotza izan ziren; Bilbon eta Donostian, berriz, 1.000 biztanleko 7,0 eta 6,7 izan ziren, hurrenez hurren. Bestalde, Gasteizen beste 2 hiriburuetan baino txikiagoa izan zen heriotza-tasa (7,9koa 1.000 biztanleko), kasu bietan milako 10etik gorako emaitzekin; zehazki, Bilbon 11,4 heriotza erregistratu ziren 1.000 biztanleko eta Donostian 10,0 1.000 biztanleko.


Migrazio-mugimenduei dagokionez, Gasteizko **egoeraren ezaugarri nagusia EAetik kanpoko immigrazio-fluxu handiak izan dira 2000. urtetik aurrera**. Egia da 2008ko krisi ekonomikoaren hasieratik murriztu egin dela Gasteizera iritsitako pertsonen urteko batez besteko kopurua (izan Estatuko gainerako tokietatik etorria, izan atzerritarra). Hala ere, badirudi beheranzko joera hori aldatu egin dela azken urteetan, eta, hain justu, 2019an erregistratu da kanpo-immigrazioaren kopururik handiena, 6.564 lagunekoa, hain justu ere (2. taula). Bestalde, **kanpo-emigrazioei** dagokionez, hau da, Gasteiztik eta EAetik kanpora emigratu duen biztanleriari dagokionez, ia egonkor jarraitu du, 2013tik 4.000 pertsona inguruan.

Bukatzeko, **barneko migrazio-fluxuei** dagokionez, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien artean gertatzen direnez, bi joera argi ikusten dira aztertutako aldiaren: 2011ra arte, EAeko beste udalerririk batzuetara joateko Gasteiztik alde egiten duten pertsonen kopurua handiagoa da Euskadiko gainerako udalerrietatik hirira iristen direnena baino; 2012tik aurrera, ordea, joera alderantzikatu egin da, eta Gasteiz biztanleak erakartzen dituen gunea da berriro ere, baita EAE barruan ere.

⁹ 2020. urteko behin-behineko datuen arabera, 24.237 heriotza izan ziren guztira; horietatik 3.052 (guztizkoaren % 12,6) COVID-19aren ondorioz izan ziren, Eustaten datu ofizialen arabera. Gasteizko datuen arabera, Arabako hiriburuan 2.438 pertsona hil ziren, eta horietatik 489 COVID-19aren ondorioz.


BIZTANLERIAREN MUGIMENDUA

4. grafikoa. Gasteizko jaiotzen, heriotzen eta saldo begetatiboaren bilakaera. 2000-2019



Iturria: Eustat. Biztanleriaren mugimendua.

5. grafikoa. Gasteizko immigrazioen, emigrazioen eta migrazio-saldoaren bilakaera. 2000-2019



Iturria: Eustat. Biztanleriaren mugimendua.

2. taula. Biztanleriaren mugimenduaren adierazle demografikoak (zenbaki absolutuak).
Hainbat lurralde-eremu. 2019

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Araba	EAE
-Jaiotzak	2.003	2.420	1.253	2.565	15.418
-Heriotzak	1.995	3.947	1.876	2.737	21.560
+ Saldo begetatiboa	8	-1.527	-623	-172	-6.142
-Barne-immigrazioak	2.194	6.845	3.674	4.649	53.255
-Kanpo-immigrazioak	6.564	11.379	5.316	8.378	52.306
-Barne-emigrazioak	2.013	7.371	3.864	4.483	53.255
-Kanpo-emigrazioak	4.400	5.997	3.632	5.682	32.838
+ Migrazio-saldoa	2.345	4.856	1.494	2.862	19.468
Saldoa guztira	2.353	3.329	871	2.690	13.326

Iturria: Eustat. Biztanleriaren mugimendua.

3. taula. Biztanleriaren mugimenduaren adierazle demografikoak (1.000 biztanleko tasak).
Hainbat lurralde-eremu. 2019

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Araba	EAE
-Jaiotzak	7,96	6,98	6,69	7,74	6,98
-Heriotzak	7,92	11,38	10,01	8,26	9,77
+ Saldo begetatiboa	0,03	-4,40	-3,32	-0,52	-2,78
-Barne-immigrazioak	8,71	19,74	19,60	14,02	24,12
-Kanpo-immigrazioak	26,07	32,81	28,36	25,27	23,69
-Barne-emigrazioak	8,00	21,25	20,62	13,52	24,12
-Kanpo-emigrazioak	17,48	17,29	19,38	17,14	14,87
+ Migrazio-saldoa	9,31	14,00	7,97	8,63	8,82
Saldoa guztira	9,35	9,60	4,65	8,11	6,04

Iturria: Eustat. Biztanleriaren mugimendua.

4.3. Haurrak eta nerabeak Gasteizko populazioaren % 17,4 dira

2020an, **0 eta 17 urte artekoak** dira Gasteizko 253.996 biztanleetatik **44.249**. Gaur egun, gasteiztar guztien % 17,4 dira haurrak eta nerabeak. Duela ia 3 hamarkada (1981ean), 18 urtetik beherako biztanleak gasteiztar guztien % 31,4 ziren, eta, harrezkero, kolektibo horren garrantzi erlatiboa gutxituz joan da pixkanaka, harik eta 2006an % 15etik behera kokatu arte. **Azken 5 urteetan, egonkor samar mantendu da 18 urtetik beherakoen guztizko kopurua, eta 1990eko hamarkadaren erdialdean zeukan pisu espezifiko berreskuratu du.**

2020an, Gasteizko 18 urtetik beherako biztanleen proportzioa EAE osokoa baino (% 16,4koa) zertxobait handiagoa da, Estatu osoan erregistratutakoaren parekoa (% 17,4) eta EB-27an urte horretan bertan izanikoa (% 18,2) baino pixka bat txikixeagoa.

Azken mendean, ugalkortasunaren, hilkortasunaren eta migrazioen bilakaerak izan du eraginik biztanleriaren adinaren arabeko egituraren, eta, kasu honetan, **zahartze demografikoa eragin du**. Aldaketa demografiko horiek biztanleriaren piramideetan ikus daitezke (7. grafikoa, 8. grafikoa, 9. grafikoa eta 10. grafikoa). Biztanleriaren egitura gertatu diren aldaketarik garrantzitsuenen artean, ondoren zehazten ditugunak nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, eta piramidearen oinarriari dagokionez, beherakada nabarmena gertatu da 15 urtetik beherako biztanleen artean, guztira 12.365 pertsona gutxiago baitaude 1981 eta 2020 artean, hau da, % 25eko jaitsiera gertatu da. Bigarrenik, 15 eta 29 urte arteko gazteen kopuruak ere behera egin du aldi horretan, eta kohorte horren bolumenak 10.623 pertsonako murrizketa izan du; hots, % 23ko jaitsiera erregistratu da. Bestalde, eta kontrako joeran, % 63,2 hazi da 30 eta 64 urte bitarteko biztanleria; beraz, 2020an adin-tarte horretako ia 50.000 pertsona gehiago daude 1981ean baino.

Hala eta guztiz ere, aldaketarik garrantzitsuenetako bat piramidearen gailurrean gertatu da: 65 urtetik gorako pertsonak 37.834 ugaritu dira 1981etik 2020ra bitartean, 1981ean % 8,4 izatetik 2020an % 21,2 izatera igaro baitira. Kolektibo horretan, nabarmentzekoa da adineko biztanleriaren hazkunde erlatibo handia. Hain zuzen ere, 85 urtetik gorako pertsonak 1.000 baino gehixeago ziren 1981ean, biztanleria osoaren % 1 baino gutxiago; gaur egun, berriz, biztanleen % 3,5 dira, ia 8.900 lagun. Euskadiko adinekoen kolektiboaren bilakaeraren ezaugarri nagusien artean, bi barne-prozesu nabarmendu behar dira¹⁰: alde batetik, adinekoen «gainzahartzea», kolektibo horren barruan nagusien protagonismoa handitu delako, eta, bestetik, zahartzaroaren «feminizazioa». Egia da 1981ean 65 urteko eta gehiagoko biztanleen artean emakumeen garrantzi erlatiboa (% 60 emakumeak ziren, eta % 40 gizonak) 2020an (% 56) baino handiagoa zela; hori hala den arren, egia da oraindik ere emakumeak gehiago direla adinekoen artean gizonak baino.


Eustatek 2031. urterako egindako biztanleria-proiekzioen arabera (10. grafikoa)¹¹, **Araba izango da lurralde historikorik dinamikoena demografikoki**, lurralde horretako biztanleria % 4,8 haziko baita 2016 eta 2031 bitartean. Proiekzio horien arabera, urteko hazkunde-tasa 3,1ekoa izango da 1.000 biztanleko, hau da, 2011tik 2015era bitartekoa baino handiagoa. Halere, mendearren lehen hamarkadakoa baino txikiagoa izango da, orduan Arabako biztanleria urteko milako 11,3ko erritmoan hazi baitzen. Eustatek egindako kalkuluen arabera, lurralde historiko horretako dinamismo handiagoaren arrazoia hauxe izango da: **migrazioaren hazkunde-tasa** Euskadi osokoa baino handiagoa izatea. Populazio-egituraren proiektioek erakusten dutenez, bai Araban, bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan, murriztu egingo da haur eta helduen populazioa, eta adinekoena, berriz, handitu. Hala ere, badirudi Araban 15 urtetik beherako haurren artean izandako beherakada (–% 4koa) txikiagoa izango dela Bizkairako (–% 16koa) eta Gipuzkoarako (–% 9koa) aurreikusitakoa baino.

¹⁰ Eustat. [Proiekzio demografikoak 2020](#). Emaizten analisía.

¹¹ Eustat. [Biztanleriaren proiektioak 2031](#). Emaizten analisía.


18 URTEK BEHERAKOEN TASA ETA BIZTANLERIAREN EGITURA

6. grafikoa. Gasteizko 18 urteko beherako pertsonen kopuruaren eta tasaren bilakaera (%). 1981-2020




Iturriak: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak (1981-2011), EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika (2016); Eustat. Biztanleriaren proiektzioak.

7. grafikoa. Gasteizko biztanleria-piramidea. 1981




Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

8. grafikoa. Gasteizko biztanleria-piramidea. 2006




Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

9. grafikoa. Gasteizko biztanleria-piramidea. 2020



Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

10. grafikoa. Arabako biztanleria-piramidea. 2030



Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

4.4. Jaiotza- eta ugalkortasun-tasek behera egin dute

Azken urteotan, gora egin du adingabeen kopuruak, bai eta adingabeek Gasteizko biztanle guztien artean duten pisu espezifikoak ere. Hala eta guztiz ere, joera hori ez da izango ziurrenik iraunkorra, eta datozen urteetan behera egingo du haur eta nerabeen kopuruak. Eustatek Arabarako aurreikusten dituen biztanleria-proiekzioak aplikatuko balitzaizkio Gasteizi, lortuko genuke 0-18 urte bitarteko biztanleria 42.500 pertsonakoa izatea 2026an, eta 2031n 40.100 lagun izatea adin-talde horretan. Hau da, hamarkada batean, gutxi gorabehera, gerta liteke % 7 baino gehixeago jaitea haur eta nerabeen kopurua Gasteizen, eta, hala, haien pisu espezifikoak % 17,4tik % 15,9ra murriztea.

Prozesu horretan, hainbat faktorek eragingo dute, hala nola **bizi-itxaropenaren gorakada progresiboak** eta jaiotza-tasa handiko aldietan jaiotako belaunaldiak pixkanaka adin handiagoetara iristeak. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da bizi-itxaropenaren gorakada progresiboa, bai Euskadin, bai gure inguruko herrialdeetan. Eustatek emandako azken datuaren arabera¹², Arabako Lautadan (Gasteizi dagokion eskualdean) igo egin da jaiotza-unekoko bizi-itxaropena 1981etik 2011ra bitartean: 72,0tik 79,8ra gizonezkoen kasuan, eta 78,5etik 85,7ra emakumeengan.

Jaiotza-tasaren eta ugalkortasunaren jaitsiera da biztanlerik gazteenen bolumenean eragin zuzenagoa duen beste faktore bat. Hala iradokitzen dute eskuragarri dauden adierazlerik berriek. 2014 eta 2019 artean, 1.000 biztanleko jaiotzen kopurua 10,11tik 7,88ra pasa da Gasteizen, eta ugalkortasun-tasa orokorra edo ugaltzeko adinean (15-49 urteen artean) dauden 1.000 emakumeko jaiotzen guztizkoa, berriz, 44,4tik 36,57ra. Bestalde, ugalkortasun-adierazle koiunturalak —bizitza emankorraren amaieran emakume batek izango lituzkeen seme-alaben kopurua, baldin eta adin bakoitzean duen portaera bat badator kontuan hartzen diren adinaren arabera ugalkortasun-tasa espezifikoekin— beherakada jarraitua izango luke: 2015ean emakume bakoitzeko 1,48 seme-alaba izatetik 2019an 1,3 izatera iritsi arte. Kasu guztietan ere, oso azpitik dago belaunaldi-ordezkapenaren atalasetik (emakume bakoitzeko 2,1 seme-alaba). Nolanahi ere, azpimarratu behar da Gasteizen ama izateko batez besteko adina Euskadiko beste bi hiriburuetan baino txikiagoa dela. **Ama izateko batez besteko adina 32,06 urtekoa zen EAEn 2019an**; Gasteizen, berriz, **30,98 urterekin izaten dute batez beste lehenbiziko semea edo alaba**.

Zein dira ugalkortasuna murriztearen arrazoi nagusiak? Estatistikako Institutu Nazionalak (EINek) egindako 2018ko Ugalkortasunari buruzko Inkestaren arabera, gaur egun arrail handia dago nahi den ugalkortasunaren eta lorturiko ugalkortasunaren artean. 18 eta 55 urte bitarteko emakume eta gizon gehienek bi seme-alaba edo gehiago izan nahiko lituzketen arren, praktikan seme-alaba bakarria izaten ari dira, edo bat ere ez. **Seme-alabak izateko adina atzeratzeko arrazoi nagusien artean hauek eman dira: lana, familia-bizitza eta lanekoa uztartzea eta arrazoi ekonomikoak** (Penit, 2019). Seme-alabarik ez izateko nahia, ostera, adinak gora egin ahala murriztu egiten da inkestaren arabera; halere, 29 urtetik gorako 10 emakumetik 1ek dio ez duela seme-alabarik izan nahi.

Estatuko konparazioaren ikuspegitik, EINek ugalkortasun-indize koiunturalari buruz emandako datuek erakusten dutenez, **2015-2019 aldian behera egin du emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaben kopuruak**, bai Gasteizen, bai Euskadi osoan, bai Estatuko autonomia-erkidego guztietan (15. grafikoa). Hala ere, beste lurralde batzuetan ez bezala, **badirudi jaitsiera hori geroago gertatu dela EAeko 3 hiriburuetan**. Izan ere, beste probintzia batzuetan ez bezala, Euskadin —eta are nabarmenago Gasteizen— krisi-garaian (2011-2015) gora egin zuen emakume bakoitzeko seme-alaben kopuruak. Emakume etorkinen ugalkortasunak gora egin izana zen arrazoi nagusia.

¹² Eustat. Adierazle demografikoak.


JAIOTZA- ETA UGALKORTASUN-ADIERAZLEAK

4. taula. Zenbait jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleren bilakaera Gasteizen. 2014-2019.

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Jaiotza-tasa gordina (jaiotzak 1.000 biztanleko)	10,11	10,09	9,64	9,09	8,52	7,88
Ugalkortasun-tasa orokorra (jaiotzak 1.000 biztanleko)	44,39	44,96	43,46	41,4	39,26	36,57
Ugalkortasun-adierazle koiunturala	1,44	1,48	1,45	1,41	1,37	1,3
Ama izateko batez besteko adina	31,95	32,01	32,11	32,09	32,01	32,06
Amatasunerako batez besteko adina lehen seme-alaba jaiotzean	30,89	30,97	31,05	30,97	30,92	30,98
Biztanleriaren hazkundera 1.000 biztanleko	7,56	2,93	9,53	8,87	10,37	8,79
Saldo begetatiboa 1.000 biztanleko	3,03	1,75	1,65	0,79	0,36	0,04
Jaioberriak 1.000 heriotzako	1.404,84	1.210,01	1.205,47	1.093,53	1.045,23	1.004,51
Ama ezkongabeek izandako haurren proportzioa	40,38	41,46	42,85	43,96	44,85	--


Iturria: EIN. Jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak.

11. grafikoa. Jaiotza-tasa gordinaren bilakaera 1.000 biztanleko




Iturria: EIN. Jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak.

12. grafikoa. Ugalkortasun-tasa orokorraren bilakaera (jaiotzak 1.000 emakumeko)




Iturria: EIN. Jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak.

13. grafikoa. Amatasunerako batez besteko adinaren bilakaera




Iturria: EIN. Jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak.

14. grafikoa. Amatasunerako batez besteko adinaren bilakaera lehen seme-alaba jaiotzean



Iturria: EIN. Jaiotza- eta ugalkortasun-adierazleak.

15. grafikoa. Ugalkortasunaren adierazle sintetikoaren bilakaera hainbat autonomia-erkidegotan eta EAEko lurralde historikoetan. 2000-2019



Iturria: EIN. Ugalkortasun-adierazleak.

4.5. Haur eta nerabeen osaera soziodemografikoa: sexua, adina eta jatorria

Adin-taldean arabera, 18 urtetik beherakoak (44.249 pertsona) nahiko modu orekatuan banatzen dira Gasteizen: **0-5 urteko biztanleak adingabe guztien % 32,0 dira, 6 eta 11 urte artekoak % 35,7 eta 12 eta 17 urtekoak % 32,3.**

Sexuari dagokionez ere orekatu samarra da banaketa —neskak % 48,5 dira eta mutilak % 51,5—, nahiz eta mutilen kopurua neskena baino zertxobait handiagoa izan aztertutako adin-tarte guztietan. **Maskulinitatearen ratioa** —hau da, 100 neskako mutilen batez besteko kopurua— 105 da 0 eta 5 urte arteko adin-tartean, eta 6 eta 11 urte bitarteko adin-tartean, berriz, 108 —nesken kopurua mutilena baino ia % 8,2 txikiagoa da—.

Jaiolekuari begira, Estatistikako Institutu Nazionalaren Etengabeko Erroldaren Estatistikako datuen arabera, **% 86,7** (38.370 pertsona) **EAEn jaio dira** (horietatik % 83,8 Gasteizen eta **% 2,9 EAeko beste tokiren batean**). Gainerako 5.879 pertsonetatik **% 5,4** (2.399 lagun) **Estatuko gainerako lurraldeetan** jaioak dira, eta **% 7,9** (3.480 pertsona) **atzerrian**.

Datu horiek Gasteizen bizi den populazio osoaren datuekin alderatuta (5. taula) ikusten denez, **biztanleria autoktonoaren pisua handiagoa da haur eta nerabeen artean** —EAEn jaioak dira 17 urtetik beherako guztien % 86,7; biztanleria osoa hartuz gero, berriz, % 62,7—. Era berean, adingabeen artean txikiagoa da Estatuko gainerako herrialdeetatik eta atzeritik etorritako pertsonen proportzioa. Izan ere, biztanleria osoaren artean, beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak biztanleriaren ia laurdena dira (% 23,3), baina, haur eta nerabeen artean, % 5,4 baino ez. Bestalde, atzerrian jaiotakoak Gasteizko biztanle guztien % 14 dira, baina, 18 urtetik beherakoen artean, % 7,9 bakarrik.

Oro har, atzerrian jaiotako adingabeen tasa asko aldatzen da adin-tarte batetik bestera. Atzeritik etorritako biztanleria % 4,1 baino ez da 0 eta 5 urte arteko haurren artean; 6 eta 11 urte bitarteko adingabeen artean, berriz, % 6,5, eta % 13raino igotzen da, azkenik, 12 eta 17 urte arteko nerabeen artean (6. taula).

Beste bi euskal hiriburuekin alderatuta (7. taula), Gasteizko adingabeen jatorriaren araberrako banaketa ez da oso desberdina. Nolanahi ere, **EAE kanpotik etorritako adingabeen ehunekoa** (% 13,3) **handiagoa da Gasteizen**, Bilbokoa (% 10,5) eta Donostiakoa (% 10,7) baino.

Zein dira Gasteizen jaio ez diren gasteiztarren sorleku nagusiak? Gaur egun Gasteizen bizi diren adingabeen **gehiengo handi bat hirian jaioa** bada ere (37.087, hau da % 83,8), proportzio handi bat, % 13 baino gehixeago, beste lurralde edo herrialde batzuetatik etorria da, hainbat arrazoi direla eta. **EAEn baina Gasteiztik kanpo jaio direnen artean** (1.283 lagun, adingabeen % 2,9 bakarrik), gehienak bizkaitarrak dira (% 43,3, 556 adingabe) eta % 24,2 gipuzkoarrak (311 pertsona). Halaber, gainerako % 32,4ak Arabako beste udalerrri batzuetatik etorriak dira (416 pertsona).

Beste autonomia-erkidego batean jaiotako adingabeei erreparatzen badiegu, 2020an biztanleriaren % 5,4 dira, hau da, 2.399 pertsona guztira. Kolektibo horren jatorria askotarikoa bada ere, 10etik 6 (% 62,3) 5 autonomia-erkidegotan jaio dira (8. taula); zehazki, **Gaztela eta Leonen** (% 14,5), **Madriren** (% 13,7), **Valentziako Erkidegoan** (% 12,7), **Andaluzian** (% 11,0) eta **Katalunian** (% 10,3). Probintzien araberrako azterketa xeheago batek erakusten duenez, Estatuko probintziarik populatuenetako batzuk —**Madril** (329 pertsona) eta **Bartzelona** (165)— eta beste mugakide batzuk —**Burgos** (225) eta **Errioxa** (126)— ageri dira jatorri ohikoenerako sei probintzien artean.

HAUREN ETA NERABEEN OINARRIZKO EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK

5. taula. Gasteizko 18 urtetik beherako banaketa, oinarrizko ezaugarri soziodemografikoen arabera. 2020

	Adina	Populazioa	Banaketa sexuaren arabera	Banaketa adinaren arabera	Gasteizen jaiok	EAEko gainerako ekuetan jaiok	Estatuko gainerako lekuetan jaiok	Atzerriar jaiok
Guztira	0-5	14.150	100,0	32,0	12.858	326	380	586
	16-11	15.795	100,0	35,7	13.113	469	1.185	1.028
	16-17	14.304	100,0	32,3	11.116	488	834	1.866
	Guztira	44.249	100,0	100,0	37.087	1.283	2.399	3.480
Mutilak	0-5	7.232	51,1	31,7	6.567	167	213	285
	16-11	8.210	52,0	36,0	6.810	245	626	529
	16-17	7.353	51,4	32,3	5.703	223	432	995
	Guztira	22.795	51,5	100,0	19.080	635	1.271	1.809
Neskek	0-5	6.918	48,9	32,2	6.291	159	167	301
	16-11	7.585	48,0	35,4	6.303	224	559	499
	16-17	6.951	48,6	32,4	5.413	265	402	871
	Guztira	21.454	48,5	100,0	18.007	648	1.128	1.671
Gizonak	Guztira	123.627	48,7	--	65.249	13.372	27.671	17.335
Emakumeak	Guztira	130.369	51,3	--	64.386	16.152	31.577	18.254
Guztira	Guztira	253.996	100,0	--	129.635	29.524	59.248	35.589

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Etengabeko Erroldaren Estatistika.

6. taula. Gasteizko biztanleriaren banaketa, jaioterriaren eta adin-taldearen arabera. 2020

	Gasteiz	EAEko gainer. tokiak	Estatuko gainer. tokiak	Atzerria	Guztira
0-5 urte	90,9	2,3	2,7	4,1	100,0
6-11 urte	83,0	3,0	7,5	6,5	100,0
12-17 urte	77,7	3,4	5,8	13,0	100,0
Guztira	83,8	2,9	5,4	7,9	100,0

Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

7. taula. 18 urtetik beherako biztanleriaren banaketa, jaioterriaren eta hirien arabera. 2020

	Udalerribera	EAEko gainer. tokiak	Estatuko gainer. tokiak	Atzerria	Guztira
Gasteiz	83,8	2,9	5,4	7,9	100,0
Bilbo	83,8	5,7	3,3	7,3	100,0
Donostia	85,2	4,1	3,2	7,5	100,0

Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

8. taula. EAetik kanpo jaiotako Gasteizko biztanleriaren banaketa, autonomia-erkidegoen arabera. 2020

	0-17 urteko biztanleak		Biztanleria guztira
	Kop.	Banaketa (%)	Banaketa (%)
Gaztela eta Leon	349	14,5	42,5
Madril	329	13,7	3,8
Valentziako Erk.	304	12,7	1,4
Andaluzia	264	11,0	7,9
Katalunia	248	10,3	2,3
Errioxa	126	5,3	7,4
Murtzia	113	4,7	0,5
Nafarroa	100	4,2	6,3
Aragoi	90	3,8	1,7
Kanariak	90	3,8	0,5
Gaztela-Mantxa	85	3,5	2,2
Kantabria	71	3,0	2,2
Galizia	71	3,0	6,7
Antzinako lurraldeak*	40	1,7	0,8
Asturias	32	1,3	1,4
Balear Uharteak	30	1,3	0,2
Extremadura	30	1,3	12,1
Melilla	22	0,9	0,1
Ceuta	5	0,2	0,1
Guztira	2.399	100,0	100,0

*Espainiako kolonia izan ziren lurraldeak.

Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

9. taula. Estatutik kanpo jaiotako Gasteizko biztanleria osoaren eta adingabearen banaketa, eskualdearen arabera. 2020

Q	0-17 urteko biztanleak		Biztanleria guztira
	Kop.	Banaketa (%)	Banaketa (%)
+ EB 28	314	9,0	10,7
+ Gainerako Europa	203	5,8	4,9
- Frantzia	56	1,6	1,6
- Errumania	54	1,6	2,7
- Georgia	66	1,9	1,3
- Ukraina	49	1,4	1,4
- Errusia	35	1,0	0,7
EUROPA	517	14,9	15,6
+ Magreb	590	17,0	19,5
+ Nigeria	88	2,5	3,9
+ Afrikako gai. herria.	237	6,8	6,5
AFRIKA	915	26,3	29,9
+ Ipar Amerika	81	2,3	1,1
+ Erdialdeko Amerika	257	7,4	6,9
+ Hego Amerika	1.268	36,4	39,4
- Venezuela	189	5,4	3,4
AMERIKA	1.606	46,1	47,4
+ Txina	128	3,7	2,1
+ Pakistan	242	7,0	3,8
+ Asiako gain. herrial.	67	1,9	1,2
ASIA	437	12,6	7,0
OZEANIA	5	0,1	0,1
Guztira	3.480	100,0	100,0

Iturria: EIN, Etengabeko Erroldaren Estatistika.

4.6. Atzerrian jaiotako 18 urtetik beherako biztanleriak gora egiten jarraitzen du

Atzerrian jaiotako pertsonen gorakada da gure gizartearen osaeran gertatu den aldaketarik garrantzitsuenetako bat. Eustatek ematen dituen Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren datuen arabera, 1981ean % 1ekoa baino ez zen Gasteizen bizi ziren eta atzeritik etorritako pertsonen ehunekoa. Haien pisu erlatiboa ez zen nabarmen hazi hurrengo 20 urteetan (% 1,2koa zen 1991n eta 2001ean, berriz, % 3,4koa), baina bai osteko 20 urteetan; beraz, proportzio hori % 14koa da 2020ko Etengabeko Erroldak emaniko datuen arabera.

Adingabeen kasuari erreparatuta, hauxe izan da bilakaera: atzeritik etorritako adingabeen proportzioa % 7,4koa zen 2006an; 2010ean jo zuen goia (% 10,2koa) eta, azken urteetan, eta zehazki 2016az geroztik, egonkor mantendu da % 7,5ean. 2020an, proportzio hori areagotu egin da pixka bat, eta % 8ra gerturatu da (% 7,9). Datu horiek, hala ere, txikitu egiten dute, nolabait, fenomeno horren garrantzia; izan ere, haurren eta nerabeen jatorriaz gain gurasoena ere kontuan hartzen bada, ikusiko dugu horien guztien % 25 baino gehiago direla atzerrian jaiotakoak¹³, edo gurasoetako bat, behinik behin.

Atzerrian jaiotako adingaberik gehienak Amerikatik (% 46,1) eta, bereziki, **Hego Amerikatik** (% 36,4) etorriak dira (9. taula). Gainerakoak Afrikatik (% 26,3) eta Europatik (% 14,9) datoz, edo Asiatik (% 12,6). Zenbaki erlatiboetan kopurua txikia den arren (3.480 pertsona, 44.249 laguneko guztizkotik, jatorri oso desberdina dute. Atzerrian jaiotako adingabeak 95 herrialde desberdinetan sortuak dira. Horietatik ia % 60 (% 58,4, hain zuzen ere) 10 herrialdeetatik soilik datoz; beheranzko hurrenkeran, hauexek dira: Kolonbia (514), Maroko (422), Pakistan (242), Venezuela (189), Aljeria (143), Paraguai (135), Brasil (128), Txina (128), Dominikar Errepublikak (122) eta Peru (112).


Atzeritar adingabeen jatorriari dagokionez, alde nabarmenak ageri dira Gasteizko datuak EAEko beste 2 hiriburuekin alderatzen direnean. **Gasteizen**, adibidez, **Afrikatik** eta, bereziki, **Magrebetik etorritako adingabeen pisu erlatiboa nabarmen handiagoa da Bilbokoa edo Donostiakoa baino**. Gasteizko atzeritar jatorriko adingabeen % 17 Afrikan jaiotakoak dira (Marokon eta Aljerian, batez ere); ostera, proportzio hori % 7koa baino ez da Bilbon eta % 6koa Donostian. Alde horiek biztanleria orokorraren artean ere ikus daitezke, eta agerian uzten dute, beraz, Gasteizen konparatiboki handiagoa dela magrebtar jatorriko biztanleriaren presentzia. Hala eta guztiz ere, 18 urtetik beherako pertsona guztien % 1,3 eta Gasteizen bizi den biztanleria osoaren % 2,7 baino ez dira. Bestalde, Gasteizen Amerikatik etorritakoen proportzioa txikixeagoa da Bilbon eta Donostian baino, eta Asiatik etorritakoena handixeagoa. Azken kasu horretan, Pakistandik etorritako biztanleria nabarmentzen da: Gasteizen, atzeritik etorritako adingabeen % 7 dira; Bilbon eta Donostian, berriz, % 1,7 eta % 1,2, hurrenez hurren.

Zein neurritan aldatu da adingabeen osaera jatorriari dagokionez? Azken 5 urte hauetan (2016-2020), hirian jaiotako biztanleria % 3,3 hazi da, eta hazkunde garrantzitsuak izan dira, orobat, EAEko gainerako lurraldeetatik (% 22,4) eta Estatutik (% 10,0) etorritako biztanleen kopuruan. Atzerrian jaiotako biztanleei begira, Georgiatik (% 0,4tik % 1,9ra) eta, batez ere, Venezuelatik (% 1,4tik % 5,4ra) etorritako adingabe-kopuruaren igoera izan da 2016-2020 aldian gertatu den aldaketarik esanguratsuenetako bat. Hori, zalantzarik gabe, loturik dago azken herrialde hori bizitzeko ari den krisi politikoarekin, litekeena baita seme-alabadun gurasoen migrazioa edo familia-berrelektatzeak bultzatu izana.

¹³ Informazio hori Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Gasteizko Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkestatik eskuratua da, eta aurrerago aztertuko dugu xehetasunez. Inkestaten fitxa teknikoa eta erabilitako galde-sorta dokumentu honen [I. eranskinean](#) eta [II. eranskinean](#) kontsulta daitezke.

HAURREN ETA NERABEEN JATORRIA

16. grafikoa. Gasteizko adingaberen artean, atzerritik etortitako immigrazioaren bilakaera, adin-taldean arabera. 2000-2019



Iturria: Eustat. Migrazio Mugimenduen Estatistika.

10. taula. Gasteizko adingaberen bilakaera, jaioterriaren arabera. 2006-2020. Zenbaki absolutuak eta banaketa.

	2006	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2006-2016 bilakaera	2016-2020 bilakaera
Gasteiz	29.770	30.351	31.627	33.187	34.489	35.905	36.880	37.087	% 20,6	% 3,3
EAEko gain. herriald.	871	806	829	879	945	1.048	1.196	1.283	% 20,3	% 22,4
Estatuko gain. lurrald.	1.010	1.033	1.152	1.378	1.696	2.180	2.429	2.399	% 115,8	% 10,0
Atzerria	2.540	3.316	3.836	3.913	3.498	3.188	3.257	3.480	% 25,5	% 9,2
Guztira	34.191	35.506	37.444	39.357	40.628	42.321	43.762	44.249	% 23,8	% 4,6
Gasteiz	% 87,1	% 85,5	% 84,5	% 84,3	% 84,9	% 84,8	% 84,3	% 83,8	--	--
EAEko gain. herriald.	% 2,5	% 2,3	% 2,2	% 2,2	% 2,3	% 2,5	% 2,7	% 2,9	--	--
Estatuko gain. lurrald.	% 3,0	% 2,9	% 3,1	% 3,5	% 4,2	% 5,2	% 5,6	% 5,4	--	--
Atzerria	% 7,4	% 9,3	% 10,2	% 9,9	% 8,6	% 7,5	% 7,4	% 7,9	--	--
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	--	--

Iturria: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

11. taula. Atzerrian jaiotako adingaberen banaketa, hiriburuen arabera. 2020

	Gasteiz	Bilbo	Donostia
+ EB 28	9,0	9,9	14,0
+ Europako gain. herriald.	5,8	4,2	7,0
- Frantzia	1,6	1,2	3,2
- Errumania	1,6	3,2	1,6
- Georgia	1,9	0,8	0,4
- Ukraina	1,4	1,0	2,9
- Errusia	1,0	1,6	2,4
EUROPA	14,9	14,0	21,1
+ Magreb	17,0	7,0	6,0
+ Nigeria	2,5	0,8	0,1
+ Afrikako gain. herriald.	6,8	5,2	1,4
AFRIKA	26,3	13,0	7,6
+ Ipar Amerika	2,3	2,9	6,3
+ Erdiald. Amerika/Karibe	7,4	12,6	31,3
+ Hego Amerika	36,4	45,5	21,9
- Venezuela	5,4	9,0	2,6
AMERIKA	46,1	61,0	59,4
+ Txina	3,7	6,5	6,8
+ Pakistan	7,0	1,7	1,2
+ Asiako gain. herrialdeak	1,9	3,7	3,5
ASIA	12,6	11,9	11,4
OZEANIA	0,1	0,1	0,5
Guztira (%)	100,0	100,0	100,0
Guztira (kopurua)	3.480	3.611	2.086

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Etengabeko Erroldaren Estatistika.

12. taula. Atzerrian jaiotako Gasteizko adingaberen bilakaera. 2016-2020

	2016	2020	Bilakaera Aldea
+ EB 28	313	314	1
+ Europako gain. herriald.	179	203	24
- Frantzia	28	56	28
- Errumania	102	54	-48
- Georgia	12	66	54
- Ukraina	52	49	-3
- Errusia	63	35	-28
EUROPA	492	517	25
+ Magreb	564	590	26
+ Nigeria	88	88	0
+ Afrikako gain. herriald.	186	237	51
AFRIKA	838	915	77
+ Ipar Amerika	64	81	17
+ Erdiald. Amerika/Karibe	219	257	38
+ Hego Amerika	1.127	1.268	141
- Venezuela	46	189	143
AMERIKA	1.410	1.606	196
+ Txina	167	128	-39
+ Pakistan	219	242	23
+ Asiako gain. herrialdeak	59	67	8
ASIA	445	437	-8
OZEANIA	3	5	2
Guztira (kopurua)	3.188	3.480	292
Biztanleria osoaren %	% 7,5	% 7,9	% 0,3

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN). Etengabeko Erroldaren Estatistika.

4.7. Biztanleriaren banaketa, auzoen arabera

Biztanleen Udal Erroldaren informazioa Gasteizko Udalak kudeatzen du, eta, horri esker, auzoen edo bizilekuen arabera azter daiteke Arabako hiriburuko adingabeen bilakaera. 2020ko daturik berrienak oinarri hartuta **esan daiteke Gasteizko 0 eta 17 urte arteko biztanleen erdiak baino gehixeago (% 53,9) hiriko 31 auzoetako 4tan bizi direla**: Zabalganan (0 eta 17 urte bitarteko pertsonen % 18,2), Arriaga-Lakuan (% 14,1), Salburuan (% 12,2) eta Sansomendin (% 9,4). Lau auzo horiek hiriaren iparraldean (Arriaga-Lakua), mendebaldean (Sansomendi eta Zabalgana) eta ekialdean (Salburua) daude. Hain zuzen ere, horietan bizi da Gasteizko biztanleria osoaren % 37,4, eta, esan bezala, 18 urtetik beherako haur eta nerabeen % 53,9.

Lau auzo horiek, hiriko auzorik jendetsuenak izateaz gainera, 0-17 urte bitarteko haur eta nerabeen tasarik handiena duten auzoen artean ere ageri dira. Biztanleria-bolumena alde batera utzita, **Gasteizko auzo batzuetan hiriko batezbestekoa baino handiagoa da adingabeen pisu erlatiboa** —hain justu, 100 pertsonatik 17,4k 18 urte baino gutxiago dituzte—. **Zabalgana (% 29,3), Aretxabaleta-Gardelegi (% 28,6), Salburua (% 27,9), Arriaga-Lakua (% 22,4) eta Sansomendi (% 20,2)** dira auzo horiek. Beste muturrean daude 0-17 urte bitarteko biztanleen tasarik txikiena duten auzoak: Santiago (% 9), Santa Luzia (% 9,6), San Martin (% 10,1), San Kristobal (% 11,0) eta Aranbizkarra (% 11,3). Auzo horietan, % 30etik gorakoa da 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren pisu espezifikoak, handiagoa hiriko adinekoren batez besteko tasa (% 21,6) baino.

Hiriko haur eta nerabeen erdiak baino zertxobait gehixeago 4 auzotan bakarrik metatzearen arrazoiak artean, lehenik eta behin, auzoon azalera aipatu behar da. Izan ere, ipar-mendebaldeko, ekialdeko eta hego-mendebaldeko landa-eremuak salbuetsiz gero —orotara 236,25 km²-ko azalera dute, hau da, hiriaren azalera osoaren % 85— Arriaga-Lakua (4,23 km²), Zabalgana (2,37 km²), Salburua (2,04 km²) eta Sansomendi (2,01 km²) dira, Mendizorroztzarekin batera (3,72 km²), hiri osoan azalerarik handiena duten eta familia-etxebizitza gehien dituzten auzoak (hau da, Gasteizen 2021ean dauden 115.869 familia-etxebizitzen % 33,7). Azalera handiagoa izateaz gain, berriki hazkunde handia izan duten auzoak dira; hau da, etxebizitza berriak eraiki dira eta seme-alabak izateko adinean dauden edo seme-alabak dituzten familia gazteak etxebizitza horietara joan dira. Zabalgana eta Salburua dira hiriko hiri-hedapenik handienetakoak, eta hango familia-etxebizitza guztien % 70 inguru 2001 eta 2020 artean eraiki ziren. Arriaga-Lakuaren kasuan, hazkunde hori lehenagotik bazetorren ere, 2001-2020 aldian eraiki ziren auzo horretako familia-etxebizitzen erdiak, gutxi gorabehera.

Aipatzekoak dira, halaber, bilakaeraren ikuspegitik (2016-2020) biztanleriaren osaeran adin-aldaketa handiak izan dituzten hiriko auzo edo zonak. 0 eta 17 urte bitarteko biztanleria gehien hazi zaien auzoak **Aretxabaleta** (% 123ko igoera), **Zabalgana** (% 32koa), **Salburua** (% 22koa) eta **Mendizorroztza** (% 16koa) dira. Beste aldean, **adingabeen beherakadarik handiena** izan dutenen artean daude **Ariznabarra** (-% 19), **Sansomendi** (-% 17), **San Martin** eta **Ekialdeko Landa Eremua** (-% 10).

Ezaugarri sozioekonomikoen ikuspegitik aipatzekoa da, halaber, hiriko batez bestekoa baino familia-errenta txikiagoa duten auzoetan bizi direla 0 eta 17 urte arteko haur eta nerabeen % 67,8. Era berean, haur eta nerabeen % 20 hiriko batez bestekoa baino % 15 eta % 28 errenta txikiagoa duten auzoetan bizi dira: Alde Zaharrean, Zaramagan, Aranan, Abetxukun, El Pilarren, San Kristobalen, Koroatzean, Judimendin eta Adurtzan. Auzo horiek, oro har, loturik daude etxebizitzaren katastro-balio apalagoarekin, familia-etxebizitzen batez besteko azalera txikiagoarekin, batez bestekoaren azpiko hauteskunde-partaidetzarekin eta horietan bizi diren atzerritarren proportzio handiagoarekin (ikusi 14. taula).

ADINGABEEN BANAKETA AUZOEN ARABERA

13. taula. Gasteizko biztanleriaren bilakaera, auzo edo bizileku-motaren arabera. 2016-2020

	Biztanleria guztira				0-17 urteko biztanleak			
	2006	2016	2020	2016-2020 bilakaera	2016	2020	2016-2020 bilakaera	< 18 urtekoen tasa
Abetxuku	3.254	3.306	3.328	% 0,7	544	542	-% 0,4	% 16,3
Adurtza	7.588	6.131	6.156	% 0,4	751	746	-% 0,7	% 12,1
Ali	781	963	972	% 0,9	194	190	-% 2,1	% 19,5
Anglo-Vasco	4.810	4.136	4.232	% 2,3	491	529	% 7,7	% 12,5
Arana	3.631	3.064	3.079	% 0,5	411	388	-% 5,6	% 12,6
Aranbizkarra	13.400	11.028	10.848	-% 1,6	1.250	1.225	-% 2,0	% 11,3
Arantzabela	1.759	1.479	1.457	-% 1,5	168	170	% 1,2	% 11,7
Aretxabaleta-Gardelegi	--	933	1.795	% 92,4	231	514	% 122,5	% 28,6
Ariznabarra	8.881	7.799	7.929	% 1,7	1.346	1.088	-% 19,2	% 13,7
Arriaga-Lakua	24.774	27.896	27.806	-% 0,3	6.850	6.234	-% 9,0	% 22,4
Alde Zaharra	10.028	8.658	8.910	% 2,9	1.207	1.282	% 6,2	% 14,4
Koroatzea	13.782	11.934	12.458	% 4,4	1.620	1.750	% 8,0	% 14,0
Babesgabetuak	6.841	5.930	6.092	% 2,7	685	698	% 1,9	% 11,5
El Pilar	10.882	8.998	9.167	% 1,9	999	1.040	% 4,1	% 11,3
Zabalgunea	9.186	8.143	8.593	% 5,5	1.075	1.196	% 11,3	% 13,9
Gazalbide	2.852	2.271	2.193	-% 3,4	255	260	% 2,0	% 11,9
Judimendi	6.565	5.696	5.809	% 2,0	722	752	% 4,2	% 12,9
Lovaina	8.736	7.758	7.915	% 2,0	1.052	1.044	-% 0,8	% 13,2
Mendizorrotza	5.457	4.521	4.830	% 6,8	668	773	% 15,7	% 16,0
Salburua	--	17.191	19.380	% 12,7	4.445	5.406	% 21,6	% 27,9
San Kristobal	7.309	5.927	5.866	-% 1,0	687	645	-% 6,1	% 11,0
San Martin	14.088	12.236	11.920	-% 2,6	1.349	1.208	-% 10,5	% 10,1
Sansomendi	21.850	20.986	20.740	-% 1,2	5.008	4.180	-% 16,5	% 20,2
Santa Luzia	9.447	7.608	7.463	-% 1,9	763	714	-% 6,4	% 9,6
Santiago	4.227	3.456	3.343	-% 3,3	294	302	% 2,7	% 9,0
Txagorritxu	9.419	8.015	7.936	-% 1,0	987	940	-% 4,8	% 11,8
Zabalgana	--	23.297	27.472	% 17,9	6.098	8.048	% 32,0	% 29,3
Zaramaga	14.035	11.885	12.289	% 3,4	1.487	1.658	% 11,5	% 13,5
Ekialdeko landa-eremua	2.642	1.964	2.045	% 4,1	311	281	-% 9,6	% 13,7
Ipar-mend. landa-eremua	1.522	1.579	1.599	% 1,3	279	253	-% 9,3	% 15,8
Hego-men. landa-eremua	1.334	1.254	1.420	% 13,2	224	234	% 4,5	% 16,5
Guztira	229.080	246.042	255.042	% 3,7	42.451	44.290	% 4,3	% 17,4

Iturria: Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

14. taula. Gasteizko auzoen edo bizilekuen hainbat ezaugarri. 2016-2020

	< 18 urteko biztanleria 2020ko urteetan	2018ko familia-errenta erabilgarria	Familia-etxebizitzien katastro-balioa 2020an	EAEko hauteskundeetako parte-hartzearen %a 2020an	Atzerritarrak ez diren adingabeen %a	Etxebizitzien batez besteko azalera 2020an
Alde Zaharra	1.282	24.837	53.510	% 47,1	% 87,7	72,9
Zaramaga	1.658	26.555	48.732	% 42,8	% 84,1	80,1
Arana	388	26.679	51.178	% 42,7	% 89,3	78,2
Abetxuku	542	28.001	48.264	% 38,9	% 94,7	86,3
El Pilar	1.040	28.056	58.712	% 43,9	% 83,1	81,8
San Kristobal	645	28.267	58.107	% 46,3	% 88,9	83,1
Koroatzea	1.750	28.637	67.215	% 45,7	% 83,6	86,0
Judimendi	752	29.205	66.254	% 52,1	% 88,2	84,2
Adurtza	746	29.384	65.794	% 47,2	% 88,3	79,7
Anglo-Vasco	529	30.820	72.450	% 49,5	% 89,8	90,7
Aranbizkarra	1.225	31.275	59.850	% 46,6	% 88,5	89,9
Salburua	5.406	32.437	91.633	% 46,2	% 94,1	96,5
Zabalgana	8.048	33.100	97.503	% 45,7	% 93,5	99,3
Arantzabela	170	33.288	68.412	% 48,1	% 90,9	92,7
Txagorritxu	940	33.399	78.048	% 50,3	% 90,2	91,0
Sansomendi	4.180	33.483	71.329	% 44,0	% 95,8	92,4
Santa Luzia	714	33.725	65.868	% 51,5	% 90,0	88,0
Ariznabarra	1.088	35.303	76.439	% 50,7	% 91,4	84,9
Arriaga-Lakua	6.234	35.429	77.666	% 46,2	% 96,0	90,8
Ali	190	36.632	76.372	% 40,4	% 94,4	104,3
Santiago	302	37.798	96.521	% 53,4	% 89,1	98,4
Babesgabetuak	698	37.822	99.273	% 55,1	% 90,8	99,0
Ipar-mend. landa-eremua	253	39.322	77.711	% 46,9	% 95,9	173,7
Gazalbide	260	40.465	95.952	% 55,0	% 93,6	122,7
Ekialdeko landa-eremua	281	41.695	96.992	% 47,9	% 92,0	171,9
Lovaina	1.044	43.259	120.795	% 57,4	% 94,0	102,1
Zabalgunea	1.196	46.933	143.421	% 53,5	% 93,6	114,9
Hego-mendeb. landa-eremua	234	47.080	117.668	% 54,5	% 97,4	186,5
Aretxabaleta-Gardelegi	514	49.097	145.691	% 54,4	% 97,0	112,8
San Martin	1.208	52.129	111.001	% 57,1	% 93,5	113,1
Mendizorrotza	773	81.515	239.359	% 57,8	% 92,5	167,8
Guztira	44.290	34.645	83.174	% 48,3	% 92,4	95,1

Oharra: urdinetik berderako mailaketak baliorik txikienetik handienetako zifrak adierazten ditu.

Iturriak: Gasteizko Udala (Udal Errolda; ondasun higiezinaren gaineko zerga, kontribuzioa edo katastroa), Arabako Probintziako Hauteskunde Batzordea eta Eustat (Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika).

5. kapitulua.

Familiak: osaera, familia-harremanak eta zailtasun nagusiak

5.1. Gasteizko lau familia-etxetatik batean haur edo nerabe bat bizi da

Biztanleen Udal Erroldako azken datuen arabera, **Gasteizen 106.606 etxe daude guztira 2021ean**¹⁴, eta horien **laurden batean (% 25,2tan) 0 eta 17 urte bitarteko pertsona 1 bizi da gutxienez** (17. grafikoa). Kopuru absolutuetan horrek esan nahi du hirian ia **26.900 etxetan** bizi direla 18 urtetik beherako haurrak edo nerabeak.


Azken 20 urteetan, nabarmen handitu da Gasteizko familia-etxeen kopurua, biztanleriarena baino hazkunde-erritmo handiagoan, gainera. 2001 eta 2021 artean, Gasteizko biztanleria % 16 inguru hazi da, eta familia-etxeak, berriz, % 40. Horrek familia-etxeen batez besteko tamaina pixkanaka murriztea ekarri du; izan ere, gora egin du bizikide gutxiago dituzten familia-etxeen kopuruak. Horien artean, bereziki nabarmentzekoak dira pertsona bakarreko familia-etxeak, % 132 ugartu baitira aldi horretan. Aldaketa horien ondorioz, **0-17 urteko pertsona bat gutxienez duten familia-etxeen pisu espezifikoak % 31tik % 25era jaitsi da 2001 eta 2021 bitartean**; aldi berean, ordea, % 29tik % 35era igaro da 65 urte eta gehiagoko pertsona bat gutxienez duten familia-etxeen pisu espezifikoak.

Hala eta guztiz ere, familia-etxeak zatitzeko joera nabarmena, ikusten denez, moteltzen ari da, batez ere azken 5 urteotan. 2016 eta 2021 arteko aurreko aldietan ez bezala, familia-etxeen hazkunde-erritmoa murriztu egin da, bai eta pertsona bakarreko familia-etxeena eta 0-17 urteko pertsonaren bat duten familia-etxeena ere. 2011 eta 2016 artean, 18 urtetik beherako pertsonaren bat duten familia-etxeek % 8 egin zuten gora; 2016 eta 2021 artean, berriz, % 1 baino ez.

¹⁴ 2016ko diagnostiko-txostenean Gasteizko familia-kopuruari buruzko informazioa jaso bazen ere, azken txosten honetan hiriko familia-kopuruari buruzko informazioa jaso da. Aldaketa horren arrazoia da 2017ko urriaren 16tik, Alkatetzaren Dekretu bidez, Udalak familia-bolantea emateari utzi ziola eta, haren ordean, bizikidetzabolantea jarri zuela abian, etxebizitza berean erroldatutako pertsona guztiak barne hartzen dituen, familia-loturak edozein direla ere. Informazio hori jasotzeko utzi zaionez, bizikidetzabolate bat osatzen duten pertsonen kopurua eta osaera bakarrik aztertu ahal izan dira, ahaidetasun-loturek sortuak izan ala ez. Dena den, gerta liteke etxebizitza berean familia-unitate bat baino gehiago egotea erroldatuta.

FAMILIA-KOPURUAREN BILAKAERA GASTEIZEN

17. grafikoa. Familia-etxeen kopuruaren bilakaera* Gasteizen. 2001-2020




* Familia-etxea unitate fisiko edo etxebizitza bera partekatzen duten pertsonen multzoa da. Baliteke etxebizitza berean familia-unitate bat baino gehiago egotea erroldatuta.
Iturria: Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

15. taula. Familia-etxeen kopuruaren eta osararen bilakaera Gasteizen. 2001-2020

	2001	2006	2011	2016	2021	Bilakaera 2011-2016	Bilakaera 2016-2021	Bilakaera 2011-2021
1	14.338	19.036	27.473	31.788	33.291	% 16	% 5	% 21
2	18.840	23.159	28.951	31.376	32.359	% 8	% 3	% 12
3	17.939	19.676	20.109	19.672	19.331	-% 2	-% 2	-% 4
4	17.601	16.590	15.410	15.411	15.666	% 0	% 2	% 2
5	5.355	4.195	3.463	3.481	3.757	% 1	% 8	% 8
6 eta gehiago	2.328	2.257	2.037	1.765	2.202	-% 13	% 25	% 8
Guztira	76.401	84.913	97.443	103.493	106.606	% 6	% 3	% 9
0-17 urte arteko pertsonak dituzten familia-etxeen kopurua	23.433	22.749	24.672	26.582	26.864	% 8	% 1	% 9
65+ urteko pertsonak dituzten familia-etxeen kopurua	22.167	24.916	28.938	33.274	37.356	% 15	% 12	% 29


Iturria: Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

18. grafikoa. Familien batez besteko tamainaren bilakaera Gasteizen. 2001-2020



Iturria: Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

19. grafikoa. Hainbat familia-etxe motaren bilakaera Gasteizen. 2001-2020



Iturria: Gasteizko Udala. Biztanleen Udal Errolda.

5.2. Lau haur eta nerabetatik bat familia ez-tradizional batean bizi da

Familia-erakundeak bilakaera oso garrantzitsua izan du azken hamarkadetan, eta gainerako aldaketa sozial eta ekonomikoen eskutik egin du, gainera. Horren guztiaren ondorioz, familia-mota berriak sortu eta zabaldu dira, tradizionalaz bestelakoak: bikote ezkondu edo ezkongabe seme-alabadunak, familia berreratuak, ama bakarrak, familia homoparentalak... Familia-erakundeak izandako aldaketak, ordea, osaeran izandako aldaketez harago doaz. Era berean, badute eraginik familion dinamiketan eta kideen arteko harremanetan ere. Familia-dinamikez —zehazki, sortzeko, mantentzeko eta hausteko prozesuei loturik—, lehen baino malguagoak direla esan beharra dago, baina gaur egun arrisku handiak dituztela bizitzako ziklo guztietan, eta berebiziko erronka direla familia- eta gizarte-politika publikoetarako; izan ere, politika horiek pertsona guztiak babestu behar dituzte, edozein izanik ere jatorrian zuten familia-mota, eta, aldi berean, aintzat hartu behar dute talde jakin batzuen zaurgarritasuna edo desabantaila sozioekonomikoa.

Euskadin 2019an egindako Familien eta Familia-etxeen Inkestaren emaitzarik berrienen arabera, **EAEko 10 familiatik 3 inguru (% 31,1) mendeko pertsonak ardurapean dituzten guraso batek edo bik osatutako familia-etxeak dira**¹⁵, eta, gehiengo handi batean, guzti-guztietan ez bada ere, 18 urtetik beherakoak dira mendeko horiek. Familia-etxe horiez inkesta horrek erakusten duenez, haien kopurua, **2011 eta 2015 artean nabarmen areagotu bazen ere, 2015 eta 2019 artean jaitsi egin dela kopuru absolutuetan**. Jaitsiera horrek bi gurasoko familia-etxeetan izan du eragina, % 4,5 murriztu baitira. Guraso bakarrekoak, berriz, nahiko egonkor egon dira: % 14,3 ziren 2001ean mendeko seme-alabak zituzten familia-etxe guztien artean, eta 2019an % 17,3ko pisu espezifikoak zuten.

Familien eta Familia-etxeen Inkestak Euskadirako ematen dituen datuekin batera, Gasteizko haur eta nerabeei egindako 2021eko inkestak erakusten duenez, **gero eta handiagoa da familia-aniztasuna**. Jasotako erantzunen artean ondoriozta daiteke Gasteizko haur eta nerabeen ia % 75 familia baten barruan bizi direla, eta familia horretan —anai-arrebak egon edo ez— aita eta ama daudela. Gainerako % 25a honela banatzen da: guraso bakarreko familiak (% 9,8), ama bat (% 8,8) edo aita bat (% 1) dutenak; zaintza partekatuko erregimenaren bidez gurasoak bananduta dauzkaten familiak, denboraren zati bat guraso batekin eta beste bat bestearekin (% 8) igarotzea ahalbidetzen dutenak; familia berreratuak, zeinetan adingabeak guraso biologiko batekin eta haren bikotekidearekin bizi diren (% 4,3); familia zabalak, beste senide batzuek osatuak, hala nola osaba-izebek edo aitona-amonek (% 0,8); familia homoparentalak (% 0,5) edo bestelakoak, hala nola haurrak edo nerabeak adingabeen zentro batean bizi direnean (% 0,5).

Iturri estatistiko ofizialek familien dinamismoarekin loturarik estuena duen faktoreetako bati buruzko informazioa ere ematen dute: ezkontza-hausturak. 18 urtetik beherako adingaberen bat duten bikoteen arteko banantzeen edo dibortzioen kopuruari buruzko azterketa xehatu batek adierazten du Araban gurasoen arteko hausturek ez dutela gorabehera handirik izan azken hamarkadan, eta, 2018tik, 300 banantze eta dibortziotik behera daudela. Hala ere, gainerako ezkontza-hausturek (hau da, 18 urtetik beherako seme-alabarik gabeko bikoteak protagonista dituztenek) behera egin dute; hori dela eta, gero eta handiagoa da banandu edo dibortziatu diren seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten bikoteen pisu erlatiboa. 2007-2019 aldian, lurralde horretako banantze eta dibortzio guztien % 47,9 izatetik % 56,2 izatera igaro dira. Bestalde, nabarmendu behar da aldaketa handia gertatu dela adingabe horiek zaintzeari dagokionez: 2016ra arte, batez ere amek izaten zuten seme-alaben zaintza (% 51), baina, azken 2 urteetan, **2 gurasoen artean partekatutako zaintza-lanen proportzioa da nagusi**. Hain justu ere, adingaberen bat duten banantzeen eta dibortzioen % 56an, zaintza partekatua ageri da 2019an¹⁶.

¹⁵ Mendeko seme-alabak dituzten familia-etxeak dira, eta Familien eta Familia-etxeen Inkestak honela definitzen ditu: 18 urtetik beherako seme-alaba bizikide bat, okupaziorik gabeko 18-29 urteko seme-alaba bat edo 30 urtetik gorako desgaitasun bat duten familia-etxeak.

¹⁶ Egiaztatu behar da EAEn ekainaren 30eko 7/2015 Legea dagoela indarrean 2015etik (gurasoen banantze- edo haustura-kasuetako familia-harremanei buruzkoa). Lege horretan, zaintza partekatua hartzen da lehentasunezko aplikazio-araubidetzat, betiere zenbait baldintza betetzen badira.


FAMILIA-EGITURA ETA -ANIZTASUNA

16. taula. Oinarrizko adierazle demografikoak, familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE. 2001-2019

	2001	2015	2019			Bilakaera 2001-2015	2015-2019 bilakaera
	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Banaketa bertikala (%)	< 16 urteko pertsonean bat		
Lagun bakarrekoa	151.855	215.636	263.073	28,8	% 0,0	% 42,0	% 22,0
Kide anitzekoa, ez-familiarra	7.651	15.728	15.067	1,6	% 5,0	% 105,6	-% 4,2
Familiarra, nukleorik gabea	17.720	15.629	14.502	1,6	% 2,5	-% 11,8	-% 7,2
Nuklearra, seme-alabarik gabea	138.491	198.650	209.829	23,0	% 0,2	% 43,4	% 5,6
-Seme-alabarik gabeko bikotea	47.741	45.190	55.723	6,1	% 0,0	-% 5,3	% 23,3
-Bikote seme-alabaduna	90.750	153.460	154.106	16,9	% 0,3	% 69,1	% 0,4
Nuklearra, seme-alabaduna	332.402	308.602	305.140	33,4	% 55,1	-% 7,2	-% 1,1
-Guraso mendeko ondorengoduna	239.318	245.705	234.582	25,7	% 69,1	% 2,7	-% 4,5
-Guraso mendeko ondorengodun gabea	93.084	62.898	70.558	7,7	% 0,4	-% 32,4	% 12,2
Gurasobakarra	87.881	95.048	84.233	9,2	% 29,1	% 8,2	-% 11,4
-Mendeko ondorengoduna	39.811	49.324	49.159	5,4	% 55,2	% 23,9	-% 0,3
-Mendekoak ez diren ondorengoduna	48.070	45.724	35.073	3,8	% 0,9	-% 4,9	-% 23,3
Hainbat nukleotakoa	12.967	14.262	21.808	2,4	% 56,2	% 10,0	% 52,9
Guztira	748.967	863.556	913.650	100,0	% 24,0	% 15,3	% 5,8

Iturriak: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Familien eta Familia-etxeen Inkesta (2001-2019).

20. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeen banaketa, familia-egoeraren arabera. 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

17. taula. Banantze eta dibortzio guztien bilakaera, motaren, 18 urtetik beherako seme-alaben presentziaren eta zaintza betetzen duen ezkontidearen arabera. Araba. 2007-2019

	Banantzeak eta dibortzioak guztira				Banantzeak eta dibortzioak 18 urtetik beherako seme-alabak direnean					
	Guztira	Tasa 1.000 bizt.	Ados jarrita	Administrazio- auzibidea	Guztizkoaren gaineko %-a	Guztira	% Aita	% Ama	% Biak	% Beste batzuk
2007	712	2,33	66,6	33,4	47,9	341	% 5	% 80	% 14	% 0
2008	653	2,11	63,7	36,3	46,4	303	% 3	% 87	% 9	% 1
2009	650	2,07	67,7	32,3	52,2	339	% 6	% 89	% 5	% 0
2010	579	1,82	73,7	26,3	51,6	299	% 10	% 76	% 14	% 0
2011	627	1,96	72,2	27,8	53,6	336	% 9	% 77	% 13	% 1
2012	610	1,89	71,5	28,5	54,6	333	% 8	% 72	% 20	% 0
2013	585	1,82	74,5	25,5	53,5	313	% 8	% 72	% 19	% 1
2014	607	1,89	75,5	24,5	54,9	333	% 8	% 65	% 25	% 2
2015	565	1,75	75,3	24,7	54,3	307	% 5	% 70	% 24	% 0
2016	678	2,09	79,9	19,9	54,0	366	% 3	% 51	% 45	% 0
2017	587	1,80	79,2	21,0	52,1	306	% 3	% 50	% 47	% 0
2018	547	1,66	79,3	20,7	52,8	289	% 2	% 43	% 55	% 0
2019	520	1,57	84,6	15,4	56,2	292	% 2	% 42	% 56	% 0

Iturria: EIN. Ezkontza-deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika.

5.3. Familia-harremanak eta gurasotasun positiboa

Jarraian aurkeztuko dugun analisiaren helburua da zehaztea, Gasteizko haurren eta nerabeen ikuspegitik, familia-harremanak zenbateraino oinarritzen diren gurasotasun positiboaren erudian. Horretarako, hiriko haur eta nerabeek hainbat galderari emandako erantzunak erakusten dira, kontuan izanik gurasotasun positiboaren printzipio nagusiak identifikatu nahi direla galdera horien bidez.

Atera daitekeen ondorio nagusia hau da, orain 4 urteko datuak aztertu zirenean bezalaxe: **haurren eta nerabeen artean zabalduta dago gurasotasunaren ikuspegi positiboa**. Identifikatutako printzipioekiko erakusten duten adostasun zabala aztertuz ikus daiteke hori. Kasu guztietan, % 80tik gorakoa da proposatutako epaiekin erabat ados edo ados samar daudenen proportzioa. Hala ere, horien guztien artean, **tratu onarekin eta lotura afektibo beroak ezartzearekin loturiko printzipioek pizten dute adostasun-mailarik handiena**. Kontsultan parte hartu duten haur eta nerabeen % 80,9k erabateko adostasuna erakutsi du familiak ondo tratatzen duela, maitatua sentitzen dela eta, orobat, maitasuna eta afektua jasotzen dituela esaten duen baieztapenarekin (21. grafikoa).


Halaber, erabat ados dauden haur eta nerabeek ere gehiengoa osatzen dute, nahiz eta neurri txikiagoan izan, ikaskuntzarako estimulua eta laguntza jasotzen dutela uste dutenen artean («*Nire familiak babesa ematen dit ikasketetan eta gauza berriak ikasteko garaian*»), entzunak sentitzen direnen artean («*Nire familiak entzuten nau*») eta beren inguruan ingurune egituratua hautematen dutenen kasuan («*Nire familian, ondo antolatuta daude eguneroko jarduerak, adibidez, otorduak, garbitasuna, lotara joateko orduak...*»). Hiru kasuetan, printzipio horien betetze-mailarekin erabat ados daudenen proportzioa % 62 eta % 75 artekoa da. Azkenik, **ikuspuntu konparatu batetik adostasun gutxien biltzen duen printzipioa erabakiak hartzeko familia-prozesuetan parte hartzeari buruzkoa da**. Kasu horretan, % 48koa da «*Sentitzen dut nire iritzia kontuan hartzen direla nire familiaren erabaketan*» baieztapenarekin erabat ados daudenen proportzioa. Sei printzipioak oro har hartuta, adierazi beharko litzateke kontsultatutako haur eta nerabeen % 74 ados daudela haiekin guztiekin (erabat ados edo ados), eta gainerako % 26a ez dagoela ados gutxienez haietako batekin. Nolanahi ere, oso txikia da printzipio batekin baino gehiagorekin ados ez daudenen proportzioa, eta jasotako erantzunen % 11,4 osatzen du.

Ez da alderik ikusten generoari dagokionez jasotako erantzunetan (18. taula). Oro har, neska-mutilek adostasun-maila bera erakusten dute familiek adierazitako printzipioak betetzeari dagokionez. Adinari erreparaturik, aztertutako printzipioekin guztiz ados edo ados samar daudenen proportzioa oso antzekoa da, eta estatistikoki bakarrik dira esanguratsuak baieztapen honekiko ezberdintasunak: «*Nire familiak ondo tratatzen nauela sentitzen dut*». Baieztapen horrekiko adostasun-maila, nahiz eta oso orokortua izan, txikixeagoa da 16-18 urteko nerabeen artean. Jatorriari dagokionez ere desparekotasun nabarmen batzuk ikusten dira, eta atzerritar jatorriko haurrak gainerakoak baino hein txikiagoan daude ados familiako kideen aldetik jasotzen duten entzutearekin eta tratu onarekin. Ezintasunen bat, gaixotasunen bat, osasun-arazo kronikoren bat edo iraupen luzeko osasun-arazoren bat izategatik mugaren bat duten haur eta nerabeen artean ere estatistikoki esanguratsuak diren desparekotasun batzuk ikusten dira gainerakoekin alderatuta: nahiz eta erantzun positiboak oso orokortuak izan, mugaren bat duten haur eta nerabeek gainerakoek baino adostasun txikiagoa dute ikasketetan babestuta sentitzearekin eta entzunda sentitzearekin.

Zer bilakaera izan dute familia-harremanek pandemia-garaian? Haur eta nerabe gehienek uste dute familiarekiko harremanak hobetu egin direla; % 28,3k, berriz, okerrera egin dutela diote. Aztertutako taldeen artean ikusitako aldeak (19. taula) ez dira oso handiak, baina estatistikoki esanguratsuak dira adinari dagokionez. Hala, 16 eta 18 urte arteko adin-taldean ikusten da, hain zuzen ere, familiarekiko harremanak hobera egin duela uste duten nerabeen proportziorik txikiena.

GURASOTASUN POSITIBOA ETA COVID-19AREN INPAKTUA

21. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeei gurasotasun positiboarekin lotutako baieztapenekiko duten adostasun-maila (%). 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

18. taula. Gurasotasun positiboarekin lotutako baieztapenekin oso ados edo ados dauden Gasteizko haur eta nerabeen proportzioa, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021


	Nire familiarengandik maitasuna eta afektua jasotzen ditut	Nire familian, ondo antolatuta daude eguneroko jarduerak	Nire familiak babesa ematen dit ikasketetan eta gauza berriak ikasteen	Familiak entzun egiten nau	Sentitzen dut nire iritzia hartzen direla kontuan	Nire familiak ondo tratatzen nauela sentitzen dut	Desadostasuna gutxienez bi gairen inguruan
Generoa							
Neskak	95,4	90,9	95,6	88,4	84,1	96,9	11,7
Mutilak	96,9	92,8	94,4	89,9	84,0	97,9	9,7
Bietako bat ere ez	72,4	70,5	71,2	60,1	64,4	76,4	45,9
Adina							
10-12 urte	96,5	92,9	95,9	91,8	87,3	97,4	8,8
13-15 urte	96,2	92,8	94,2	87,2	81,6	99,0	12,5
16-18 urte	94,2	88,4	93,2	86,1	81,5	94,5	13,5
Jatorria							
Bertakoa	96,4	92,2	95,0	90,2	84,4	97,8	10,3
Atzerritarra	93,6	89,4	93,1	84,2	81,6	94,7	14,4
Desgaitasuna							
Bai	94,4	87,0	87,2	79,3	76,7	91,6	19,7
Ez	95,8	92,1	95,6	89,9	84,9	97,8	10,2
Guztira	95,7	91,4	94,5	88,5	83,6	96,9	11,4

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

* Kategoria hori bat dator bi generoetako batekin ere identifikatuta ez dauden pertsonekin. Datu horietan ez dira aztertzen esanguratsutasun estatistikoari dagokionez, oso txikia baita laginean duten pisu espezifikoak: 21 kasu dira, eta erantzunak laginketa-errore handia izan dezakete.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

22. grafikoa. 'Nire familiarekin dudak harremana hobetu egin da COVID-19aren pandemia-garaian' adierazpenarekiko adostasun-maila (%). 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

19. taula. Proportzio hori oso ados edo ados dago «Nire familiarekin dudak harremana hobetu egin da COVID-19aren pandemia-garaian» baieztapenarekin (%). 2021

	%
Generoa	
Neskak	72,4
Mutilak	72,1
Bietako bat ere ez	47,5
Adina	
10-12 urte	75,7
13-15 urte	73,1
16-18 urte	66,2
Jatorria	
Bertakoa	71,5
Atzerritarra	72,4
Desgaitasuna	
Bai	66,8
Ez	72,9
Guztira	71,7

5.4. Enpleguaren prekaritatea, diru-sarrera nahikorik ez izatea eta seme-alaben etorkizunaren gaineko kezka, seme-alabak dituzten familien arazo nagusien artean

EAEko Familia-etxeei eta Familiei buruzko Inkesta estatistika-eragiketa bat da, eta, besteak beste, bizitzako 7 eremutako 67 arazoren prebalentzia neurtzen saiatzen da¹⁷, gizartean diren familia-mota desberdinen artean. Eragiketa horrek oro har ematen duen informazio zabaletik abiatuta, mendeko seme-alabak dituzten euskal familien artean zabalduen dauden 10 arazoak identifikatu dira¹⁸ (20. taula). 2019an mendeko seme-alabak dituzten euskal familien artean prebalentziarik handiena duten arazoak oso lotuta daude enpleguaren eta diru-sarreraren arloekin. Prebalentziarik handiena duten 10 arazoetatik 8k 2 dimentsio horiekin dute zerikusia. Enpleguaren kasuan, hauek dira arazo nagusiak: langabezia (familien % 16,8k langaberen bat du etxean), enplegu prekarioa (% 12,4), familia eta lana bateragarri egitea eragozten duen enplegua (% 11,6) eta ordutegi txarreko enplegua (% 10). Diru-sarrerari dagokienez, seme-alabak dituzten euskal familietako arazorik hedatuena (baina ez nahitaez larriena) gutxiagatasun eta gabezia materialeko egoerekin daude lotuta. Haietatik % 22,2k adierazi du ez duela behar adina diru-sarrera ezohiko gastuei aurre egiteko, % 15ek ezin duela ordaindu oporrik eta % 9,5ek ez duela behar adina diru-sarrera energiaren faktura ordaindu ahal izateko. Arazo horiekin batera, seme-alabak dituzten familiek badituzte beste alor batzuekin lotutako arazoak ere. Horietako bat —eta familia horien arazo espezifikoak da— seme-alaben etorkizunak eragindako ziurgabetasunarekin lotuta dago, familien % 21,1i eragiten baitio. Azkenik, 10 arazorik nagusien artean, aipatzekoa da familiako kideren baten desgaitasuna. Arazo hori mendeko ondorengoak dituzten 10 familietatik 1ek aipatzen du.

Bilakaeraren ikuspegitik, 2019an prebalentziarik handiena izan duten arazorik gehienek behera egin dute 2015. urtearekin alderatuta, eta hori egoera sozioekonomikoa hobetu izanari egotz dakioko. Izan ere, 2019an hobetzen ez diren 2 arazoetatik batek ere ez du zerikusi zuzenik enpleguarekin edo diru-sarrerarekin. Kideren baten desgaitasunarekin (gero eta prebalentzia handiagoa du) eta familia eta lana bateragarri egiteko ezintasunarekin lotutako arazoak dira, eta horien intzidentzia egonkor mantentzen da % 12an.

Familia-etxeei eta Familiari buruzko Inkestak berariaz aztertzen ditu bi arazo-mota, eta arreta berezia merezi dute diagnostiko honetan (21. taula): alde batetik, familiei seme-alaben inguruan sortzen zaizkien arazo zehatzak eta, bestetik, familia-bizikidetzako zailtasunak. Adingabeekiko arazoetan, **seme-alaben etorkizunaren inguruko ziurgabetasunarekin daude loturik familien arazo nagusiak**, bai eta seme-alaben independentziarako zailtasunekin ere. Intzidentzia askoz ere txikiagoarekin, nabarmentzekoak dira, alde batetik, egokitu ezinaren edo eskola-porrotaren arazoak eta, bestetik, gaitzespenaren edo *bullying*aren ondorioz sortuak. Euskadiko familia guztien % 16,2k duke mota horretako arazoren bat. Portzentaje hori seme-alabak dituzten lau gurasotik batek (% 25,0k) bizi du, eta, guraso bakarrekoen kasuan, % 34,5ek.

Euskadiko familia-etxeetan ageri diren bizikidetzaz arazoaren harira, 2019ko inkestaren emaitzen arabera, txikiagoa da tankera horretako arazoaren inpaktua. Dimentsio horrekin lotutako egoeraren baten aipamena Euskadiko familia guztien % 4,8ra mugatzen da, eta, era berean, mendeko seme-alabak dituzten gurasoen familien % 8ra eta mendeko adingabeak dituzten guraso bakarrekiko familien % 11,9ra. Harremanen eta bizikidetzaren eremuko arazoak aztertuta ikusten denez, hauxe da mendeko seme-alabak dituzten guraso-familien prebalentziarik handieneko arazoa (% 6,0): zereginak orekarik gabe banatzea bizikideen artean, eta, adingabeak dituzten guraso bakarrekiko familia-etxeen kasuan, dibortzioak, banantzeak edo burututako hausturak eragindako arazoak (% 6,1).

¹⁷ Etxebizitzarekin, familiako diru-sarrerarekin, lanarekin, seme-alabekin, adinekoen arretarekin, osasunarekin, bizikidetzaz arazoekin eta gizarte-harremanetako diskriminazio-arazoekin lotutako arazoak jasotzen dira.

¹⁸ Seme-alabak edo mendekotasuna duten ondorengoak aipatzean, esan nahi du etxean bizi diren seme-alaba edo bizikideren batek 18 urte baino gutxiago dituela. Egoera hori gertatzen da, halaber, etxean 18 eta 29 urte bitarteko seme-alabaren bat bizi bada, lanik gabe, edo 30 urtetik gorakoa, desgaitasunarekin.

FAMILIA SEME-ALABADUNEN ARAZO ETA BEHAR NAGUSIAK

20. taula. Mendeko seme-alabak dituzten familien arazorik zabalduenen intzidentziaren bilakaera, familia-talde motaren arabera (%). EAE. 2015-2019

	Mendeko seme-alabak dituzten familiak		Mendeko seme-alabak dituen bikotea		Mendeko seme-alabak dituen gurasoa		Familiak guztira	
	2015	2019	2015	2019	2015	2019	2015	2019
Diru-sarrera nahikorik ez aparteko gastuei aurre egiteko	27,9	22,2	22,7	17,8	52,7	44,4	23,9	20,9
Ziurgabetasuna seme-alaben etorkizunaren inguruan	38,0	21,1	38,2	20,7	37,2	23,2	20,1	12,3
Langaberen bat etxean	28,1	16,8	25,9	15,7	38,1	22,3	19,8	12,3
Oporrak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez	24,3	15,0	20,3	11,2	43,2	34,3	21,6	12,2
Enplegu prekarioa (aldi baterakoa, kontraturik gabea, lanaldi partzialekoa...)	16,6	12,4	16,8	12,0	16,0	14,3	11,5	8,9
Familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunak	11,5	11,6	12,4	10,8	7,4	15,6	5,6	4,3
Etxeko kideren baten desgaitasuna	6,6	10,1	5,6	9,2	11,3	14,6	9,0	11,4
Ordutegi txarreko enplegua (txandaka, ordutegi irregularrekin)	13,6	10,0	13,9	10,0	12,0	9,6	8,7	6,6
Beste gastu batzuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez	13,3	9,6	8,9	7,2	34,6	21,8	10,6	7,8
Etxeko energia-gastuetarako diru-sarrera nahikorik ez	14,5	9,5	10,3	6,7	34,5	23,1	11,8	8,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Familien eta Familia-etxeen Inkesta (2015-2019).

21. taula. Seme-alabekin eta etxeko harreman eta bizikidetzarekin lotutako arazoak dituzten familia-etxeen guztizkoaren gaineko intzidentzia-tasa mendeko seme-alabak dituzten familien artean, familia-talde motaren arabera. EAE/Gasteiz*. 2019

	Familiak guztira		Mendeko seme-alabak dituen bikotea		Mendeko seme-alabak dituen gurasoa	
	Tasa (%)	Zenb.*	Tasa (%)	Zenb.*	Tasa (%)	Zenb.*
Arazoak seme-alabekin						
Ziurgabetasuna seme-alaben etorkizunaren inguruan	12,34	13.074	20,68	5.625	23,20	1.322
Seme-alabek bizitza independentea izateko dituzten zailtasunak	4,78	5.065	5,66	1.538	12,58	717
Egokitu ezina edo eskola-porrota	1,12	1.187	2,74	744	4,97	283
Gaitzespen- edo <i>bullying</i> -arazoak	0,93	985	2,47	672	2,70	154
Nahi adina seme-alaba ezin eduki, familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunengatik	0,77	811	2,13	579	2,70	154
Seme-alaba adingabeak zaintzea	0,79	841	2,03	551	2,66	152
Nahi adina seme-alaba ezin eduki, baliabide ekonomikorik ez izateagatik	1,06	1.119	1,04	282	1,22	69
Ikasketak behar baino lehenago uztea	0,22	234	0,79	214	0,35	20
Nahi adina seme-alaba ezin eduki, lanarekin arazoak dituztelako edo lan-prekaritateagatik	0,78	822	0,73	198	1,74	99
Hautzaindegiko plazarik ez izatea seme-alaba adingabeentzat	0,09	93	0,03	9	1,47	84
Seme-alabarik ezin eduki (arrazoi biologikoengatik)	0,30	313	0,00	0	0,00	0
Aipatutako arazoetako bat	16,15	17.108	25,00	6.799	34,52	1.967
Familia-bizikidetzako arazoak						
Zereginen banaketa desberdina familia-etxeko kideen artean	2,77	2.937	6,04	1.642	1,94	110
Bikote-arazoak (ezkontideen arteko desadostasun garrantzitsuak)	0,38	400	0,93	252	0,00	0
Aginte-banaketa desberdina (menderatzea, azpiratzea, abusua)	0,34	357	0,90	245	0,27	16
Harreman txarrak seme-alabekin	0,42	449	0,79	216	2,35	134
Dibortzioa edo berehalako banantzea	0,22	237	0,46	126	0,74	42
Tratu txarrak bikote barruan	0,16	168	0,23	63	0,00	0
Dibortzioa, banantzea, haustura burutua	1,17	1.243	0,19	53	6,05	345
Seme-alabek familiako beste kide batzuei emandako tratu txarrak	0,19	198	0,10	28	2,32	132
Seme-alaben aurkako tratu txarrak	0,00	0	0,00	0	0,00	0
Aipatutako arazoetako bat	4,81	5.098	7,99	2.172	11,93	680

* Taula horrek, alde batetik, EAEko familien artean dauden arazoaren intzidentzia jasotzen du eta, bestetik, tasa horiek aplikatuz gero Gasteizen arazo horien eraginpean geratuko liritekeen familien datu absolutuak. Zenbatespen horretan 2019ko familia-kopurua hartu da kontuan, biztanleen udal-erroldako datuetatik abiatuz. Era berean, eta Gasteizko familia-motei buruzko datu espezifikorik ez dagoenez, zenbatespen horren abiapuntutzat hauxe hartu da: taulan agertzen den familia-mota bakoitzak EAE osoan ikusten den familia-kopuruaren pisu espezifiko bera duela.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Familia-etxeen eta Familien Inkesta, 2019.

5.5. Lana eta familia bateragarri egiteko arazoek eragin nabarmena dute biztanleria landunaren % 26an, eta gero eta gehiago eragiten diete emakumeei

Kapitulu honetan beharrezkotzat jo da lana eta familia bateragarri egiteak familientzat dakartzan arazo zehatzak berariaz azpimarratzea. Horretarako, esplotazio espezifiko bat egin da, Arabako lurralde historikoan oinarritua, Eustatek urtero egiten duen inkestatik (lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzkotik) abiatuta. Honako hauek dira Araban 15 urtetik beherako seme-alabak dituzten pertsona landunek dituzten kontziliazio-arazoen inpaktuari buruz atera daitezkeen ondorio nagusiak:

- **Kontziliazio-arazoak oso zailtasun handiak dira** Araban bizita enplegua eta 15 urtetik beherako seme-alaben zaintza bateragarri egin beharra daukaten **pertsonen laurdenarentzat baino gehixeagorentzat** (% 26)¹⁹.
- Bilakaeraren ikuspegitik, **datu orokorrek ez dute erakusten aldaketa garrantzitsurik enplegua eta adingabeen zaintza bateragarri egiteko arazoen hobekuntzari dagokionez**. Gai horri zailtasun-maila handiarekin aurre egiten dioten pertsonen proportzioa antzekoa da azken urteetan ikusitakoaren aldean, hain justu ere, % 26 eta % 29 artekoa (**22. taula**).
- Datu horiek, ordea, bestelako errealitate bat ezkututzen dute: gizon landunen artean behera egin du kontziliazio-arazo handia dutenen proportzioak; **emakumeen artean, berriz, nabarmen egin du gora**. Igoera hori 2019arekin alderatuta ikusten da batez ere, eta horrek esan nahi du pandemiaren lehen faseak eragin negatibo handia izan duela emakumeen kontziliazio-zailtasunetan, baina ez gizonenetan.

Aipatutako arazoez gainera, Eustaten lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruz egindako inkestak beste arazo eta egoera batzuk ere aipatzen ditu, gizonen eta emakumeen arteko egoera oso desberdina dela erakusteko, ez enpleguarekiko itxaropenei edo gogobetetzeari dagokienez bakarrik, baizik eta baita etxeko lanei dagokienez ere. Jarraian, estatistikaren ikuspegitik desparekotasun nabarmenak agertu dituzten alderdiak nabarmentzen dira.

- Seme-alaben zaintzan eta etxeko lanetan emandako denborarekiko gogobetetze-maila nabarmen handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Gizonen kasuan, bikotekideek jarduera horretan ematen duten denborarekiko gogobetetasuna ere handia da.
- Emakumeek gizonen baino askoz neurri handiagoan uste dute ama izateak kalte egiten diela enpresako ibilbide profesionalean.
- Gizon landunek emakumeek baino zailtasun handiagoak dituzte familia-arrazoiengatik lanaldi-murrizketa eskatzeko orduan.

Kontziliazio-arazoak ez dira kontu hutsala. Familia- eta haur-politiken eremuan, gizarte-inbertsioaren paradigmaren kezka nagusietako bat da kontziliazioa ahalbidetzea, ez emakumeak lan-merkatuan sartzea errazteko soilik, baita haurren aukera-berdintasuna bultzatzeko ere, pobreziaren belaunaldien arteko transmisio-zikloa hautsiz, haur guztiek ezagutzaren ekonomian ezinbestekoa den giza kapitala garatu ahal izan dezaten. Hori lortzeko, familiei laguntzeko neurriak hartu behar dira, eta kalitate eta estaldura handiko haurren hezkuntza- eta zaintza-sistemak garatu behar dira (Zalakain, 2014).

¹⁹ Lana eta 15 urtetik beherako seme-alaben zaintza bateragarri egiteko dituzten zailtasunei buruz galdetuta, 0tik 10era bitarteko eskala batean «7», «8», «9» edo «10» erantzun dute. Eskala horretan, 0k esan nahi du ez dutela batere zailtasunik, eta 10ek zailtasun handiak dituztela.

BIZTANLERIA LANDUNAREN KONTZILIAZIO-ARAZOAK**22. taula. 15 urtetik beherako seme-alabak dituen biztanleria landunaren ehunekoaren bilakaera, lana eta seme-alaben zaintza bateragarri egiteko zailtasun-mailaren arabera. Araba. 2018-2020**

	Guztira			Gizonak			Emakumeak		
	Txikia	Ertaina	Handia	Txikia	Ertaina	Handia	Txikia	Ertaina	Handia
2018	38,8	32,2	28,9	34,3	30,2	35,5	44,0	34,5	21,5
2019	44,0	29,4	26,6	37,9	33,9	28,2	50,6	24,7	24,8
2020	40,1	33,8	26,1	36,5	39,7	23,8	44,3	26,8	28,8

Puntuazioaren sailkapena Eustatek erabilitako metodologiaren arabera: txikia (0-3 puntu), ertaina (4-6 puntu) eta handia (7-10 puntu).
Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta.

23. taula. 15 urtetik beherako seme-alabak dituzten pertsona landunek familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitearekin lotutako hainbat alderdiri emandako batez besteko balorazioaren bilakaera, generoaren arabera (%). Araba. 2018-2020

Batezbestekoak, kasu guztietan, gauza desberdinak neurtu arren (asebetetze-maila, zailtasuna eta abar) 0 eta 10 arteko balioak dituzten eskalen arabera dira; balio horietan, 0k hutsala edo bat ere ez esan nahi du eta 10ek oso handia.

	Emakumeak			Gizonak			Guztira		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020	2018	2019	2020
a) Hainbat lan-alderdiri buruzko gogobetetze-maila									
Ordutegi-malgutasuna	6,45	6,75	6,38	6,73	6,62	6,30	6,59	6,68	6,33
Atsedeen-denbora lanaldian	6,75	6,59	6,92	6,39	6,52	6,42	6,56	6,56	6,65
Oporrak eta baimenak	7,60	7,23	7,42	6,83	7,16	7,10	7,19	7,19	7,25
Egonkortasuna	7,50	7,01	7,27	7,48	7,44	7,53	7,49	7,23	7,41
Ordainsaria	6,52	6,52	6,73	6,35	6,45	6,75	6,43	6,49	6,74
Mailaz igotzeko aukera	4,52	4,26	4,54	4,64	4,28	4,84	4,58	4,27	4,71
Lan orokorra	7,55	7,28	7,18	6,94	7,06	7,05	7,23	7,17	7,11
b) Hainbat baimen eskatzeko/erabiltzeko zailtasun-maila									
Familia-arrazoiengatik egunak eskatzea	3,07	3,79	3,54	3,87	3,46	3,62	3,50	3,62	3,58
Familia-arrazoiengatik eszedentziak eskatzea	3,89	4,71	3,97	5,02	4,25	3,72	4,49	4,47	3,83
Familia-arrazoiengatik lanaldi-murrizketa eskatzea	3,76	4,22	3,63	5,10	4,25	4,08	4,47	4,24	3,88
Norberaren kontuetarako lanetik falta izatea	3,08	2,74	2,79	3,19	2,45	2,67	3,14	2,59	2,73
c) Denboraren erabilerarekiko gogobetetze-maila									
Seme-alaba adingabeak zaintzeko	7,03	6,79	6,99	6,11	6,56	6,45	6,54	6,67	6,70
Etxeko lanetarako	6,29	5,81	6,14	5,75	6,02	5,86	6,01	5,92	5,99
Etxeko lanetarako (bikotekideak eginak)	5,73	5,81	5,96	7,23	7,53	7,12	6,57	6,74	6,63
Bizitza pertsonalerako erabilgarri dagoena	5,22	5,03	5,10	5,40	5,84	5,52	5,31	5,45	5,33
d) Lana eta honako hauek bateragarri egiteko zailtasun-maila									
Seme-alaba adingabeak zaintzea	4,01	4,05	4,38	4,99	4,52	4,46	4,53	4,29	4,42
Etxeko lanak	4,08	3,93	4,12	4,95	4,51	3,81	4,54	4,23	3,95
Izapide burokratikoak edo gestioak	4,24	4,32	4,47	5,30	4,30	3,91	4,80	4,31	4,16
Jarduera pertsonalak	4,68	4,70	4,92	5,43	4,53	4,58	5,08	4,61	4,73
e) Egoera hauek eragindako kalte-maila									
Amatasunak/aitatasunak kalte egin dizu edo kalte egin diezazuke zure enpresa edo erakunde barruko ibilbide profesionalean	2,71	3,03	3,26	1,27	1,34	1,49	1,95	2,16	2,30
7. astetik aurrera aitatasunagatiko lan-etenaldiko baimena eskatzeak eragina izango luke zure ibilbide profesionalean				2,71	2,31	2,34	2,71	2,31	2,34
Familia-arrazoiengatik eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzeak eragina izango luke zure ibilbide profesionalean	4,01	5,03	4,64	4,33	4,12	4,13	4,18	4,56	4,36

* Nabarmendurik agertzen dira sexuaren arabera eta 2020rako estatistikoki alde esanguratsuak ageri dituzten aldagaiak ($p < 0.05$) Mann-Whitneyren U probaren arabera, eta alde zuzenak egiaztatu ondoren aztertutako aldagaietako batek ere ez zuela banaketa normalik.
Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta.

Inkestek ematen dituzten datuez gainera, ikerketa honen esparruan elkarrizketatutako guraso-taldeak informazio interesgarria eskaintzen du: horien ustetan, kontziliazio-arazoak dira familiek gaur egun aurre egin beharreko zailtasunik handienetako bat, eta horrek eragin zuzena du familia-loturetan eta seme-alaben hazkuntzan eta hezkuntzan.

Nabarmendu dutenez, gaur egungo egoeran «ezinezkoa» da kontziliatzea, eta familian ez dago denbora partekatzeko aukerarik, bizimodu «estresagarria», «presakakoa» eta erritmo bizkorrekoa daramagulako. Hauek dira arrazoiak: alde batetik, gurasoen lan-kargak, lan-ingurunean ordutegi-malgutasun txikia dutelako, eta, bestetik, ikastetxeetako lanaldi zatitua, luzeegitza jotzen dena. Azken faktore horrek kezkatzen ditu, bereziki, kontsultatutako amak (2 eta 5 urte bitarteko haurrak dituztenak), bateraezinak iruditzen baitzaizkie lanaldi zatitua eta lana eta familia bateragarri egitea; izan ere, seme-alabak jangelan uztera behartzen dituzte ordutegi zatitua eta lanaldia bateragarri egiteko ezintasunagatik, baita lanaldia murriztera jotzen dutenean ere.

Denbora partekatzeko aukerarik eza negatibotzat jotzen dute, eta irizten diote eragina duela bai adingabeen ongizatean —eskola-lanaldi luzeak egin behar dituztelako— eta bai familia-lotura afektiboetan; izan ere, ezinezkoa da haiek «ezagutzea» eta «hazten ikustea». Familia-otorduetan sozializazioak duen garrantzia nabarmentzen da, eta une horiek partekatzeko aukera «izugarriko zorte» gisa ikusten da «kohesioa sortzeko». Hori dela eta, kontsultatutako guraso-taldeak eskola-egun jarraitua aldarrikatzen du kontziliaziorako erremintarik eraginkorrenen artean, eta nabarmentzen du gizartearen babes zabala duen eskaera dela eta eguna familiaren premiekin hobeto egokitzea ahalbidetuko lukeela. Era berean, eskaera horri leku egiteko erakundeen lankidetzeta eta ekimen falta salatu dute, eskola-jantokien errentagarritasunari ematen baitzaio lehentasuna, haurren eta familien ongizatearen gainetik.

Erantzunkidetasunari eta hazkuntza-lanen eta etxeko lanen banaketa ekitatiboari dagokienez, kontsultatutako gurasoek diote oraindik asko dagoela egiteko, eta, hazkuntzan gero eta aita gehiago inplikatu arren, oso feminizatuta daudela ekimena behar duten jarduerak —guraso-eskolak edo guraso-elkartearen jarduerak, adibidez—.

Egoera hori eremu pribatuan ere gertatzen da; izan ere, oro har, emakumeek hartzen dituzte beren gain etxeko antolakuntza- eta hazkuntza-lanik gehienak. Ildo horretan, emakumeek murrizten dute gehien lanaldia, hein batean, bikotekidearekiko soldata-aldeak tarteko, eta horrek, aldi berean, zigortu egiten du haien lan-sustapena.

Elkarrizketatutako emakumeek adierazten dute, orobat, belaunaldi-aldaketa bat dagoela haien amekiko: lan-merkatuan erabat txertatuta dagoen emakumearen erreferentzearen aurrean, etxean (seme-alabei laguntzeko, haiek hezteko eta haiekin gozatu ahal izateko) presentzia handiagoa izateko nahia dago. Egoera horren ondorioz, benetako kontziliaziorik ezak gatazka pertsonala eragiten du, eta hori gertatzen da, halaber, seme-alabak zaintzeko aitona-amonengana jo behar denean.

6. kapitulua.

Pobrezia, prekaritatea eta gizarte-bazterkeria

6.1. Arabako benetako pobrezia % 10,4tik % 7,3ra jaitsi da 2016 eta 2020 artean

Gasteizko haurren eta nerabeen pobrezia, prekaritatearen eta gizarte-desparekotasunen bilakaera eta egungo irismena aztertu aurretik, funtsezkoa da ikuspegi orokorrako batetik joera nagusien analisia egitea, azalitik bada ere. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoko egindako 2020ko Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak ematen duen informazio mamitsua baliatuko da. Azterketa horretan, benetako pobrezia adierazlea hartuko da ardatz nagusitzat²⁰, eta erreferentzia-aldi gisa, berriz, 2008-2020 bitartea.

2016an, Gasteizko haurren eta nerabeen egoerari buruzko azken diagnostikoan, Arabako lurralde historikoak EAEko beste bi lurraldeek baino egoera txarragoa zuen benetako pobrezia dagokionez. Nahiz eta 2008an ez izan egoera desberdinegia²¹, urte horretan hasitako krisi ekonomikoak eragin handiagoa izan zuen Araban, eta benetako pobrezia intzidentziaren gorakada eragin zuen 2008-2016 aldirian, zeina askoz ere nabarmenagoa izan baitzen lurralde horretan EAEko gainerako lurraldeetan baino. 8 urte horietan, benetako pobrezia tasa etengabe hazi zen Araban, % 4,1etik % 10,4ra 2016an; gainerako lurraldeetan, aldiz, tasa hori ez zen hainbeste (inola ere ez % 6,5 baino gehiago), eta, gainera, 2016an joera-aldaketa positiboa agertzen hasi zen. 2014 eta 2016 artean, benetako pobrezia ehuneko 0,9 eta 0,2 puntu murriztu zen Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren; Araban, berriz, 2,2 puntu hazi zen.

²⁰ Benetako pobrezia gisa hartzen diren inguruabarretan biltzen da, esate baterako, eguneroko bizitzako zer egoeratan geratzen diren konpentsatu gabe pobrezia dimentsio batzuetan eta besteetan (mantenua edo metaketa) agertzen diren oinarriko premiak, betiere gutxieneko ongizate-maila bat lortu ahal izateko, pobrezia-egoeran bizitzetik urrundurik. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren metodologian, benetako pobrezia bidez egiten zaie erreferentzia —gizartearen ikuspegi orokorretik— premiak behar bezala beteta ez dauzkaten benetako egoerei. Kasu horietan, pobrezia edo prekaritatearen bizipena errealitate bat da gizartearen nagusi diren ikusmoldeetatik abiatuta (baina ez nahitaez eragindako pertsonen pertzepzioetik bertatik).

²¹ Arabako benetako pobrezia % 4,1ekoa zen 2008an, eta Bizkaikoaren azpitik zegoen (% 5,2), baina ez Gipuzkoakoaren azpitik, zeinak % 2,5eko tasa baitzuen.

Bereziki zaila izan den aldi baten ondoren, Arabak benetako pobrezia nabarmen murriztea lortu du azken urteetan. Horrela, bada, 2020an tasarik altuena izaten jarraitzen duen arren (% 7,3koa da Araban; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 5,4koa eta % 5,1ekoa, hurrenez hurren), benetako pobrezia eragina 2016. urtetik gehien murriztu duen lurraldea izatea lortu du.

Zein izan dira aldaketa horien azpiko prozesuak? Arabako benetako pobrezia-egoeren azken aldiko bilakaera behar bezala ulertu ahal izateko, beharrezkoa da, gutxienez, 2 denbora-tarte aipatzea: azken 2 biurtekoekin bat datozenak, hain zuzen ere (horiei buruz bakarrik dugu informazioa).

- **2016 eta 2018 artean, benetako pobrezia behera egin du Araban, duela gutxi emantzipatutako familia-etxeen hobekuntza ekonomikoaren ondorioz.** Pobrezia-egoerari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren txostenak agerian uzten duenez, aldi horretan Arabak buelta eman dio aurreko urteetako dinamika negatiboari. Beste bi lurraldeek baino atzerapen handiagoarekin egin du, eta arrazoi espezifikoek bultzatuta. Joera-aldaketa horren interpretazioa, hein handi batean, gazteen emantzipazio-prozesuekin eta bizitza independentera irritearekin dago lotuta. Lurralde horretan, hain justu, «*familia-etxeetan agertutako benetako pobrezia hazkunderaren zati bat gazteen emantzipazio-prozesuak areagotzearen ondorio zen, ezkutuko pobrezia-moduak eratutako familia-etxeetako benetako pobrezia-egoeretara igarotzea eragiten baitzuten. Hala ere, emantzipazio-prozesu horiek susperraldi ekonomiko baten isla ziren, eta hari esker hasi ziren posible izaten*» (Estatistika Organo Berezia, 2021). Aldi horretan, Arabak beherakada handia izan du, benetako pobrezia-egoeraren intzidentzia zertxobait handitu duten beste bi lurraldeek ez bezala, eta, horren ondorioz, haren tasa 2016ko % 10,4tik 2018ko % 6,3ra murriztu da.
- **2018 eta 2020 artean, pobrezia-tasak gora egin du Araban, eta gorakada hori COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz gertatu da.** Azken urteetan lurralde historiko guztietan hauteman den dinamika desberdinak eragin negatibo handiagoa izan du Arabako lurralde historikoan. Aldi horretan, ehuneko puntu bat igo da pobrezia-tasa Araban, eta, hala, % 6,3tik % 7,3ra igaro da 2 urte horietan. Gipuzkoan ere gora egin du, askoz gutxiago bada ere (0,6 hamarren), eta Bizkaian, berriz, % 7tik % 5,4ra jaitea lortu du, Araban 2016 eta 2018 artean gertatutakoaren antzeko prozesu batean —hartara, COVID-19aren krisia baino lehenagoko aldeko prozesu ekonomikoez baliatu da—.

Eskualdearen ikuspegitik, Pobrezia-egoerari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak Gasteizerako ematen dituen datuek²² hauxe erakusten dute:

- **2016 eta 2020 artean, Gasteiz da benetako pobrezia-egoeraren intzidentziarik handiena duen eskualdea.** 2016an ez bezala —urte horretan iritsi zen benetako pobrezia-egoeraren tontorrik altuena eskualde horretan—, 2020an bi euskal eskualdek dute Gasteizek (% 7,7) baino tasa handiagoa: alde batetik Bilbok (Bizkaian) eta, bestetik, Debarrenak (Gipuzkoan), biak ere % 8,2ko tasarekin.
- **Aiaraldearekin eta Bizkaia-Kostarekin batera, Gasteiz eskualdeak murriztu du gehien benetako pobrezia-egoeraren tasa 2016-2020 aldian.** Lehenengo bi eskualdeek ehuneko -4 eta -3 puntuko bilakaera izan dute, hurrenez hurren; Gasteizek, aldiz, ehuneko -2,9 puntuko bilakaera izan du benetako pobrezian azken 4 urteetan.
- **Hala eta guztiz ere, Gasteizen benetako pobrezia-tasa (% 7,2) EAE osokoa (% 5,6) eta Arabako beste eskualde handikoa, Aiaraldekoa (% 5,1), baino nabarmenagoa da.**

²²Pobrezia-egoerari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak Arabako lurralde osoa hartzen du, Aiaraldea izan ezik (alegia, Audio, Amurrio, Artziniega, Aiara Okondo, Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia udalerrak izan ezik). Gasteiz eskualdea ezin da zuzenean hiriburuarekin parekatu; hala ere, lurralde-talde horrek hurbilketa ona egiten du, kontuan izanik hirian bizi diren biztanleak direla Gasteizko eskualde osoaren ia % 85, betiere Pobrezia-egoerari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren arabera.


POBREZIA-EGOEREN BILAKAERA GASTEIZEN

24. taula. Pobreziaren zenbait adierazleren bilakaera (%) Gasteizen, Araban eta EAEn. 2008-2020

	2008	2012	2014	2016	2018	2020	2008-20	2016-20	2018-20	
Gasteiz	Metatze-pobrezia	1,7	1,3	1,3	2,4	1,3	0,7	-1,0	-1,7	-0,6
	Mantenu-pobrezia	6,1	7,4	11,3	9,7	8,2	10,2	4,1	0,5	2,0
	Benetako pobrezia	4,4	6,2	8,9	10,6	6,9	7,7	3,3	-2,9	0,8
	Benetako ongizaterik eza	6,6	10,8	15,9	14,6	13,7	12,0	5,4	-2,6	-1,7
	Pobrezia erlatiboaren arriskua (< % 60 mediana)	15,3	16,8	19,6	19,4	17,8	20,4	5,1	1,0	2,7
	Pobrezia larriaren arriskua (< % 40 mediana)	3,5	3,0	7,5	8,0	5,8	7,5	4,0	-0,5	1,7
Araba	Metatze-pobrezia	1,8	1,1	1,5	2,3	1,1	0,6	-1,2	-1,7	-0,5
	Mantenu-pobrezia	5,8	7,3	10,5	9,7	7,7	9,8	4,0	0,1	2,1
	Benetako pobrezia	4,1	5,6	8,2	10,4	6,3	7,3	3,2	-3,1	1,0
	Benetako ongizaterik eza	6,5	9,7	15,3	14,2	12,4	11,3	4,8	-2,9	-1,1
	Pobrezia erlatiboaren arriskua (< % 60 mediana)	14,8	16,1	18,9	19,0	16,7	19,1	4,3	0,1	2,4
	Pobrezia larriaren arriskua (< % 40 mediana)	3,3	3,1	7,0	7,9	5,3	7,2	3,9	-0,7	1,8
EAE	Metatze-pobrezia	1,5	1,4	2,0	1,6	0,9	0,3	-1,2	-1,3	-0,6
	Mantenu-pobrezia	5,7	7,3	8,2	7,1	8,0	8,0	2,3	0,9	0,0
	Benetako pobrezia	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	5,6	1,4	-0,1	-0,5
	Benetako ongizaterik eza	8,2	10,1	11,5	10,8	12,5	9,5	1,3	-1,3	-3,0
	Pobrezia erlatiboaren arriskua (< % 60 mediana)	14,8	15,4	18,5	16,4	17,7	17,8	3,0	1,4	0,1
	Pobrezia larriaren arriskua (< % 40 mediana)	3,1	3,5	4,9	4,9	5,1	6,1	3,0	1,2	1,0

Oharra: berdez, bilakaera negatiboa (pobreziaren igoera) duten balioak agertzen dira, eta urdinez, berriz, aurreikusitako aldietan jaitsiera dakartenak. Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2008, 2012, 2016 eta 2020; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta), 2014, 2018.


23. grafikoa. Benetako pobrezia bilakaera (%) Gasteizen, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta EAEn. 2008-2020



Oharra: grafikoa Gasteizko, Arabako eta EAeko balioak bakarrik agertzen dira.

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2008, 2012, 2016 eta 2020; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta), 2014, 2018.

24. grafikoa. Benetako pobrezia (%) eskualdeka. 2020



Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2016 eta 2020.

6.2. Benetako pobrezia-egoerak murriztu egin dira 18 urtetik beherakoan artean, baina haien prebalentzia bikoitza da oraindik ere orokorrarekin alderatuta

Arabako 18 urtetik beherakoan artean, benetako pobrezia-egoeraren prebalentziak ere behera egin du 2016-2020 aldian, biztanleria osoaren kasuan ikusitakoaren antzera; halere, haren bilakaerak baditu nabarmenak merezi duten ezaugarri batzuk:

- **2016 eta 2020 artean, 18 urtetik beherako biztanleriaren benetako pobrezia-egoeraren tasa % 19,3tik % 13,1era igaro da Araban** (25. taula). Bilakaera hori oso antzekoa izan da Gasteizen; izan ere, prebalentzia % 13,4koa izan da 2020an, eta % 19,6koa 2016an. Zifra horien arabera, benetako pobrezia 5.900 haur eta nerabe bako bako gehixeagorik eragiten die Gasteizen 2020an²³, eta horrek esan nahi du 2016an baino ia 2.400 adingabe gutxiago daudela.
- **Haur eta nerabeen benetako pobrezia-tasa EAE osoan baino handiagoa bada ere Gasteiz eskualdean, agerikoa izan da bateratzeko joera**. 2016an, Gasteizko haur-pobrezia-egoeraren intzidentzia EAEko batez bestekoa baino 8,8 puntu handiagoa zen (% 19,6koa eta % 10,7koa, hurrenez hurren). Gaur egun, ordea, ehuneko 2,2 puntuko aldea dago: % 13,4koa da Gasteizen eta % 11,2koa EAEko. Adierazle horren joera positibo argi hori gertatu den aldi berean, haur-pobrezia-egoeraren intzidentzia nabarmen areagotu da Gipuzkoan (% 6,6tik % 11,1era), baina ez Bizkaian (izan ere, zertxobait jaitsi da lurralde horretan). Horren eraginez, haur-pobrezia-egoeraren intzidentziak gora egin du Euskal Autonomia Erkidego osoan.
- **Haurren benetako pobrezia-egoeraren prebalentziarik handiena duen EAEko bigarren eskualdea izateko hirugarrena izatera igaro da Gasteiz**. Duela 4 urte, Gasteizko pobrezia-tasa (% 19,6) Bilbokoak (% 20,7) baino ez zuen gaintzen. Gaur egun, Bilbokoaren (% 19,5) eta Debabarrenekoaren (% 17,5) azpitik dago Gasteizkoa (% 13,4).

Ikuspegi zabalago batetik —benetako pobrezia-egoeretan soilik erreparatu gabe, baizik eta pobrezia/ongizatea eskalak eskaintzen duen aukera zabalagoa aintzat hartuz—, honela banatuko litzateke Gasteizko biztanleria 2020an (25. grafikoa):

- 18 urtetik beherakoan % 13,4 **benetako pobrezia-egoeran** daude, eta horrek esan nahi du hiriko **5.900 bat familia-etxetan litekeena dela oinarrizko premiak behar bezala bete gabe egotea adingabeak**. Horretaz gainera, adingabeen % 4,9 —hau da, 2.200 haur eta nerabe inguru— ez dago benetako pobrezian, baina bai ongizaterik gabeko bestelako egoeraren batean.
- Adingabeen % 43,3 (**hots, 0 eta 17 urte bitarteko 19.200 pertsona inguru**), **ongizate-posizioaren tarteko taldeetan dago**, edo arriskua duen ongizate-egoera batean (% 10,1), edo, batez ere, ia erabateko ongizatean (% 33,2).
- Gainerako % 38,4ak edo **17.000 pertsona inguruk** erabateko ongizatea du.

Arabako lurralde historikoak EAEko beste bi lurraldeek baino haurren benetako pobrezia-egoeraren tasa handiagoak ditu oraindik ere (% 13,1ekoa da Araban; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 11,1ekoa eta % 10,7koa, hurrenez hurren). Nahiz eta pobrezia-egoeraren intzidentziak biztanleria osoan baino askoz handiagoa izaten jarraitzen duen adingabeen artean, beharrezkoa da azpimarratzea 2016-2020 aldian, benetako pobrezia-egoeraren intzidentziak behera egiteaz aparte, ongizate-eremu erabatekoan dauden haurren eta nerabeen kopuruak ere gora egin duela (eta nabarmen, gainera): % 26,1 ziren 2016an, eta 2020an, berriz, % 38,4.

²³ Nahiz eta prebalentzia-datuak Gasteizko eskualdeari buruzkoak izan (eskualde horretan Arabako udalerririk guztiak sartzen dira, hauek izan ezik: Laudio, Amurrio, Artziniega, Aiara Okondo, Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia). Zenbatespen hori Gasteizen bizi diren 0 eta 17 urte arteko biztanleen gainean egin da, EINEt Etengabeko Erroldaren Estatistikako datuen arabera.


HAUR-POBREZIA

25. taula. Haur-pobreziaren zenbait adierazleren bilakaera (%) Gasteizen, Araban eta EAEn. 2008-2020


		2008	2012	2014	2016	2018	2020	2008-20	2016-20	2018-20
Gasteiz	Benetako pobrezia	9,5	12,4	15,3	19,6	14,3	13,4	3,9	-6,2	-0,9
	Benetako ongizaterik eza	11,6	16,0	24,3	21,3	22,6	18,3	6,7	-3,0	-4,3
	Pobr. erlatiboaren arriskua (< % 60 med.)	20,6	19,2	30,4	26,3	31,3	27,2	6,6	0,9	-4,1
	Pobrezia larriaren arriskua (< % 40 med.)	7,3	7,3	16,3	13,1	12,4	13,7	6,4	0,6	1,3
Araba	Benetako pobrezia	8,4	11,2	14,3	19,3	13,0	13,1	4,7	-6,2	0,1
	Benetako ongizaterik eza	10,7	14,5	23,6	21,6	20,6	17,6	6,8	-4,1	-3,1
	Pobr. erlatiboaren arriskua (< % 60 med.)	19,2	18,3	29,3	26,2	28,7	26,2	7,0	0,0	-2,5
	Pobrezia larriaren arriskua (< % 40 med.)	6,4	7,2	15,1	12,7	11,4	13,5	7,1	0,8	2,1
EAE	Benetako pobrezia	7,7	8,9	11,1	10,7	10,6	11,2	5,5	2,4	0,6
	Benetako ongizaterik eza	13,4	13,9	17,6	16,4	19,1	16,8	3,4	0,3	-2,3
	Pobr. erlatiboaren arriskua (< % 60 med.)	18,0	16,4	26,3	22,0	24,0	25,2	7,2	3,2	1,2
	Pobrezia larriaren arriskua (< % 40 med.)	4,1	5,9	8,8	8,0	8,3	12,7	8,6	4,6	4,4

Oharra: berdez, bilakaera negatiboa (pobreziaren igoera) duten balioak agertzen dira, eta urdinez, berriz, aurreikusitako aldietan jaitsiera dakartenak. Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2008, 2012, 2016 eta 2020; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta), 2014, 2018.

25. grafikoa. 18 urtetik beherako biztanleriaren banaketa benetako pobreziaren/ongizatearen eskalan (%). Gasteiz 2008-2020




26. grafikoa. 18 urtetik beherako biztanleriaren benetako pobrezia-tasaren bilakaera, eskualdeen arabera. 2016-2020



Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2008, 2012, 2016 eta 2020; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta), 2014, 2018.

27. grafikoa. 18 urtetik beherako biztanleriaren pobrezia larriaren tasa (< % 40 mediana) (%). Europako konparazioa. 2019-2020



Iturriak: Estatistikarako Organo Berezia. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2020; EIN. Bizi-baldintzen Inkesta, 2020; eta Eurostat. EU-SILC 2019.

Benetako pobrezia adierazlea gure inguruko beste herrialde batzuek erabiltzen ez duten metodologia batetik abiatuta aterata dagoenez, Gasteizko haur-pobrezia tasak beste lurralde batzuetakoekin alderatu nahi izanez gero, EU-SILC²⁴ metodologiaren (Errentari eta bizi-baldintzei buruzko Europar Batasunaren estatistikaren) adierazleak erabil daitezke, eta, horien artean, pobrezia arrisku-tasa edo pobrezia larriaren tasa dira ezagunenak. Berez oso modu desberdinean ateratzen badira ere, bi adierazle horietatik pobrezia larriaren tasa pareka daiteke gehien benetako pobreziaekin —pertsona baliokide bakoitzeko medianaren % 40tik beherako urteko diru-sarrera garbiak dituzten familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa adierazten du—, eta, benetako pobrezia kasuan bezala, arrisku-egoerak baino gehiago benetako pobrezia larriaren egoerak neurtzeko erabiltzen da. 27. grafikoa ikus daitekeenez, 2020an Gasteizerako eskuragarri dauden datuak Eurostatek EB-27ko herrialdeetarako 2019an eskaintzen dituenekin alderatuz gero²⁵, ikusten da pobrezia larriaren tasak, bai Euskadi osorakoak, bai Arabarako edo Gasteizerako emanikoak, txikixeagoak direla Estatu osoko tasa baino, baina EB-27ko herrialde guztietarako ikusten direnak baino nabarmen handiagoak. Datu horien alderagarritasuna kontu handiz interpretatu behar da, iturri bakoitzak denbora-tarte desberdinari egiten baitio erreferentzia. Izan ere, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak 2020ko datu ekonomikoetan oinarritzen ditu adierazleak. Eurostatek, bestalde, 2019rako eskuragarri dagoen informazioa eskaintzen du, baina, praktikan, datuak 2018ko diru-sarrerei buruzkoak dira, hau da, inkestaren aurreko urteari (2019ari) buruzkoak. Baliteke tasetan ikusitako aldeak iturri bakoitzaren desparekotasun metodologiko horien ondorio izatea. Nolanahi ere, ezin da baztertu Euskadiko haur-pobrezia tasak Europar Batasuneko herrialde askotakoak baino handiagoak izatea, 2018ko datuek agerian uzten dutenez. 2018an, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak % 8,3ko eta % 11,4ko haur-pobrezia larriaren tasak eskaintzen zituen EAE osorako eta Arabarako, hurrenez hurren (25. taula); EB-27ko batez besteko tasa, aldiz, % 6koa zen 2019an (2018ko datuekin).

6.3. Desparekotasuna areagotu egin da haurtzaroan

2018. eta 2020. urteen artean benetako pobrezia-egoerak ugartzeaz gain, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak azken urte honetarako ematen dituen datuen arabera, desparekotasuna areagotu egin da, eta hori ez dator bat 2014-2016 biurtekoaren ezaugarri izan zen murrizteko joerarekin. Izan ere, **Euskadiko biztanleria orokorrari buruzko datuak eta Arabako guztizko biztanleriari eta 18 urtetik beherakoari buruzko datuak aztertzen baditugu**, argi dago Gini koefizienteak²⁶ gora egin duela eta, beraz, **desparekotasun-egoerak areagotu egin direla 2018 eta 2020 artean**.

Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako datuen arabera, 18 urtetik beherako Arabako biztanleriari dagokion Gini indizea²⁷ ia 4 puntu igo da 2008 eta 2020 artean, 24,2tik 28,1era. Aldi horretan bertan, biztanleria osoaren artean ere gora egin du, antzeko terminoetan egin ere (24,9tik 28,1era). Nahiz eta 2014 eta 2016 artean beherakada txiki bat gertatu zen desparekotasun-adierazleetan, azken edizioiko datuek erakusten dute gorakada kezagarria gertatu dela, bai 18 urtetik beherakoaren artean (% 2,6ko igoera), bai biztanleria osoaren artean (% 12,9ko igoera, are igoera nabarmenagoa). Benetako pobrezia hedapenari buruzko datuekin batera, beharrezkoa da emaitza horien larritasuna azpimarratzea, bai eta desparekotasunak eta gizarte-kohesioaren narriadurak eragiten dituzten ondorioak ere, zeinak areagotu egin baitaitezke pandemiaren eraginez.

²⁴ Errentari eta bizi-baldintzei buruzko Europar Batasunaren estatistikak dira, eta horien emaitzak [EIN](#)ek eskaintzen ditu Espainiarako eta autonomia-erkidegoetarako, Bizi-baldintzen Inkestatik abiatuta, eta [Eurostat](#)ek EBko herrialdeetarako.

²⁵ Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDIak) 2020rako ematen dituen datuak eta Eurostatenak behar bezala alderatzeko, aldi berean egin behar dira. PGDIan jasotako errenta-mailak 2020koak dira; Eurostaten metodologian, berriz, 2019ko edizioak 2018ko datuak baliatzen ditu, eta 2020koak (oraindik argitaratu gabe) 2019koak. Beraz, ez dute islatzen pandemiaren eragina (PGDIak bai, ordea).

²⁶ Eskura dauden diru-sarreretatik abiatuta gizarte-desparekotasuna ebaluatzeko erabiltzen den neurria da. Gini koefizientearen balioa 0 eta 1 arteko zenbaki bat da, non 0k berdintasun perfektua adierazten duen (pertsona guztiek diru-sarrera berdinak dituzte) eta 1ek, berriz, erabateko desparekotasuna (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu eta gainerakoek bat ere ez). PGDIan, adierazle hori ehunekoan adierazten da; beraz, gutxieneko balioa 0 da eta gehienekoa 100.

²⁷ Eskura dauden diru-sarreretatik abiatuta gizarte-desberdintasuna ebaluatzeko erabiltzen den neurria da. Gini koefizientearen balioa 0 eta 1 arteko zenbaki bat da, non 0k berdintasun perfektua adierazten duen (pertsona guztiek diru-sarrera berdinak dituzte) eta 1ek, berriz, erabateko desparekotasuna (pertsona batek diru-sarrera guztiak ditu eta gainerakoek bat ere ez). PGDIan, adierazle hori ehunekoan adierazten da; beraz, gutxieneko balioa 0 da eta gehienekoa, ostera, 100.

6.4. 16 urtetik beherako 1.500 haur inguruk gabezia material oso larriak dituzte hirian

Hautzaroko pobrezia- eta desparekotasun-egoeren norainokoari buruz orain arte aztertutako datuak osotasunean hartu behar dira kontuan; izan ere, azterlan askok jasotzen dutenez, haurtzaroan jatorria duten desparekotasun-egoerek pertsonen bizi-ziklo osoan dituzte ondorioak, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren pobrezia eta gizarte-bazterkeriako prozesuak sortzen dituzte.

Illo horretan, bereziki garrantzitsuak dira Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDIaren) 2020ko edizioak haurren gabezia materialeko egoerei buruz ematen dituen datuak. Orotara, PGDIak 1 eta 15 urte bitarteko haurren oinarritzko, hezkuntzako eta aisialdiko premiekin loturiko 13 adierazle lotzen ditu haurtzaroko pobrezia-egoerekin²⁸. Hauek dira eragiketa honek Euskadi osorako emandako emaitzetatik atera daitezkeen ondorio nagusiak:

- **Bilakaeraren ikuspegitik, haurren artean oinarritzko gabezia-arazoen prebalentziak ez du behera egin azken 4 urteetan** (28. grafikoa). 2016 eta 2020 artean, oinarritzko arazoren bat duten 1 eta 15 urte arteko haurren ehunekoa % 9,4tik % 11,6ra igaro da EAE osoan, eta horrek esan nahi du haurrek benetako hazkundea bizi izan dutela gabezia-arazoetan.
- Arazo horien artean, **oinarritzko arazo oso larrien prebalentzia** (guztien % 35ekoa) **% 3,5etik % 4,1era igo da**. Hiru arazo hauetakoren bat duten haurrak dira: ezin dute izan egunean proteina-otordu bat (% 3,4), egunero ezin dituzte eskuratu frutak edo barazkiak (% 2,8), eta ez dituzte bi zapata-pare, urte-sasoi bakoitzerako bat (% 1,4). EAE osorako ateratzen den prebalentzia (% 4,1) Gasteizko adin bereko biztanleei aplikatuz gero, hauxe ondorioztatzen da: 1.500 haurrek baino gehiagok dituzte gabezia larriko arazoak hirian. Hori, hala ere, beheranzko estimazioa da; izan ere, benetako pobrezia Euskadin duen eragina txikixeagoa da Araban edo Gasteizen baino, eta bi faktore horiek oso lotuta daude bata bestearekin (27. taula).
- Gabezia-egoerarik larriekin batera, badira desabantaila sozial handiko beste egoera batzuk ere, haurren % 4 eta % 8 bitarteri eragiten dietenak, eta horiek aipatu beharrekoak dira. PGDIaren 2020ko emaitzetatik ondorioztatzen denez, **haurren % 7,4k ez du arropa berririk (bigarren eskukoa ez dena), % 6,6k ezin du egin ospakizun berezirik (urtebetetzeak, adibidez) eta % 4,4k ez du aire zabaleko aisialdirako ekipamendurik, hala nola bizikleta edo patinak**. Oro har, 1 eta 15 urte arteko haur guztien % 11,6k muga horietako bat du gutxienez; hortaz, kopuru absolutuetan, hirian 4.400 haur inguru daude gabezia handiekin.
- Bistan denez, **arestian aipatutako gabezia-egoera horiek areagotu egiten dira benetako pobrezia-egoeran dauden pertsonen artean**. Benetako pobrezia-egoeran dauden haurren artean —haur-pobrezia % 13,4ra iristen da Gasteizen—, oinarritzko arazo oso larrien prebalentziak 4 pertsonatik 1i baino gehiagori eragiten dio (% 26,3ri), eta hain larriak ez diren beste gabezia-arazo batzuen prebalentziak, berriz, % 38,2ri.

²⁸ Hauek dira 13 adierazleak: (1) Arropa berria dute (bigarren eskukoa ez dena); (2) Bi zapata-pare dituzte (edo pare bat urteko sasoi bakoitzerako); (3) Fruta freskoa eta barazkiak jaten dituzte egunean behin gutxienez; (4) Haragia, oilaskoa edo arraina jaten dute egunean behin (edo horren baliokide begetarianoa); (5) Beren adinerako egokiak diren liburuak dituzte (ikastetxeak alde batera utzita); (6) Aisialdirako aire zabaleko ekipamendua dute (bizikleta, patinak, erraketa eta abar); (7) Aisialdirako ekipamendua dute etxean (jostailuak, jolasak eta abar); (8) Aisialdirako jarduerak egiten dituzte aldizka etxetik kanpo eta lotutako kostuarekin (kirola, instrumentu bat jotzea, gazte-erakundeak eta abar); (9) Gertaera bereziak ospa ditzakete (urtebetetzea, ospakizunak); (10) Noizean behin lagunak jolastera edo bazkaltzera gonbida ditzakete (batez ere etxera, baina baita kanpora ere); (11) Urtean astebetez gutxienez etxetik kanpo joan daitezke oporretan; (12) Ordaintzekoak diren eskola-bidaletan eta -jardueretan parte hartzen dute; (13) Leku egokia dute ikasteko edo etxeko lanak egiteko.

DESPAREKOTASUNA ETA POBREZIAREN INPAKTUA


26. taula. Desparekotasun-adierazleak. Euskadi eta Araba. 2008-2020

	Gini koefizientea				S80/S20 ratioa	% 10 pobreenaren diru-sarreraren %-a
	Araba		EAE		EAE	EAE
	Biztanleria guztira	<18 urte	Biztanleria guztira	<18 urte	Biztanleria guztira	Biztanleria guztira
2008	24,9	24,2	25,2	25,6	3,6	3,88
2012	25,4	24,5	25,3	24,3	3,7	3,75
2014	28,0	31,6	27,1	28,0	4,2	3,41
2016	26,4	28,1	25,8	26,4	3,9	3,48
2018	24,9	27,4	26,7	27,6	4,1	3,35
2020	28,1	28,1	28,2	27,5	4,4	3,18
2008-2020	↑ % 12,9	↑ % 16,1	↑ % 11,9	↑ % 7,4	↑ % 22,2	↓ -% 18,0
2016-2020	↑ % 6,4	= % 0,0	↑ % 9,3	↑ % 4,2	↑ % 12,8	↓ -% 8,6
2018-2020	↑ % 12,9	↑ % 2,6	↑ % 5,6	↓ -% 0,4	↑ % 7,3	↓ -% 5,1

Oharra: Arabako 18 urtetik beherakoei buruzko datuak joera gisa hartu behar dira, laginaren mugak direla eta.

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2008, 2012, 2014, 2016 eta 2020; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta), 2014, 2018.

28. grafikoa. Adingaberen gabeziak, familia-etxearen egoeraren arabera, benetako pobrezia/ongizatearen eskalan. Familia-etxebizitzetako 1 eta 15 urte arteko biztanleak (talde bakoitzeko biztanleen %-a). EAE. 2020



Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2016 eta 2020; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta), 2018.

27. taula. Hainbat gabezia-motaren eragina 1 eta 15 urte arteko biztanleren artean, benetako pobrezia/ongizatea eskalan duten posizioaren arabera. EAE. 2020

	Benetako pobrezia	Ongizate-ezaren beste modu bat	Ongizate- eta arrisku-elementuak	Ongizatea	Guztira	
	%	%	%	%	%	Gasteizko zenbatespena*
-Otordu proteinikorik ez egunero	22,6	7,0	4,0	0,0	3,4	1.296
-Fruta edo barazkirik ez egunero	20,4	4,8	2,0	0,0	2,8	1.065
-Bi zapata-pare ez (edo urte-sasoi bakoitzerako bat)	8,7	3,3	2,0	0,0	1,4	536
+Oinarrizko arazo oso larriak	26,3	11,3	4,0	0,0	4,1	1.542
-Arropa berririk ez	42,1	32,8	6,7	0,0	7,4	2.795
-Aisialdiko (aire zabala) ekipamendurik ez	30,7	10,1	2,9	0,0	4,4	1.656
-Egun bereziak ospatzeko aukera	37,7	24,5	4,7	0,6	6,6	2.489
+Bestelako oinarrizko arazoak	38,2	41,7	3,8	0,6	7,5	2.829
Oinarrizko arazoren bat	64,4	53,0	7,8	0,6	11,6	4.371
Oinarrizko arazorik ez	35,6	47,0	92,2	99,4	88,4	33.194
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	37.565
Ikastaroa online jarraitzeko baliabiderik ez	44,6	22,6	5,5	1,3	7,7	2.140

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2016 eta 2020; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariari buruzko Estatistika (Gizarte Beharren Inkesta), 2018.

Ikastaroa online jarraitzeko baliabiderik ez izatea eskolatutako 6 eta 16 urte arteko adingabeei aplikatzen zaie.

6.5. Gasteizko haur eta nerabeen % 18k uste duenez, etxeko egoera ekonomikoak okerrera egin du pandemiarekin

2021ean Gasteizko haur eta nerabeei egindako inkestatik lortutako datuekin osa daitezke Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak 2020ko haurren gabezia materialeko egoerei buruz ematen dituen datuak. Horietatik abiatuta, ondorio hauek atera dira:

- **Hiriko haur eta nerabeen erdiek ez dute inolako aldaketarik ikusten beren etxeko egoera ekonomikoan pandemiaren ondorioz, baina % 18k uste du egoerak okerrera egin duela, eta % 32,1ek hobera egin duela²⁹ (29. grafikoa).** Familiaren narriadura ekonomikoa gainerakoek baino hein handiagoan sumatu dutenen artean, atzerritar jatorriko haurrak — % 23,8k uste dute okerrera egin duela beren egoera ekonomikoak) eta nerabe zaharragoak nabarmentzen dira, txikienen aldean. Adin larriagoko nerabeek etxeko finantza-egoerari buruzko kontzientzia handiagoa izatearen ondorio izan daiteke hori, adinean gora egin ahala gora egiten baitu, orobat, COVID-19ak beren etxeetan eragin negatiboa izan duela uste duten pertsonen proportzioak ere.
- **Hiriko 10 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeen % 3k baino gutxiagok oinarrizkotzat jo daitezkeen ondasunak falta ditu,** hala nola eskolarako behar den materiala (% 2,5) edo egoera oneko 2 oinetako pare (% 2,8). Era berean, Gasteizko haur eta nerabeen % 2,7k etxean ez du wifi bidezko Internetarako konexiorik.
- **Zabalduegoak daude beste egoera batzuk, hala nola kirola egiteko edo zaletasunak praktikatzeko materiala edo gauzak ez izatea (% 8,1), norberaren telefono mugikorra ez izatea (% 17) edo erabilera esklusiboko ordenagailurik ez edukitzea (% 32).** Azken bi kasuok lotura estua dute adinarekin, 28. taulan ikus daitekeenez; hau da, adinak gora egin ahala, nabarmen handitzen da gailu horiek eskura dituztenen proportzioa. Telefono mugikorraren kasuan, 10 eta 12 urte bitartekoen % 66,2k, 13 eta 15 urte bitartekoen % 94,7k eta 16 eta 18 urte bitartekoen % 98,6k dute. Bestalde, alde nabarmenak ikusten dira atzerritar jatorriko adingabeen eta bertakoen artean, erabilera propioko ordenagailu bat eta kirola egiteko behar den material gutxiago izatearekin loturik.
- **Hiriko haur eta nerabeen ia % 22 lanik gabeko helduren bat (edo gehiago) duen familia-etxe batean bizi da, eta % 23k aitortu du beti edo askotan kezkatzen dela familiak duen diruaz.** Bi adierazleetako bat ere ezin da zuzenean lotu pobrezia-egoerekin edo gabezia materialekin, behar adinako kontua edo arreta hartu gabe (adibidez, bi adierazleak oso lotuta daude adinarekin, heldutasun-prozesuek errealitatearen ezagutza handitzen duten heinean); baina, egia esan, bi kasuetan berriz ere alde estatistikoki esanguratsuak ageri dira haurren jatorriaren arabera.
- Haurren eta nerabeen jatorrian ez ezik, **gabezia materialari begira desparekotasunak ikusten dira titulartasun publikoko eta pribatuetakiko ikastetxeetako ikasleen artean; gabezia hori handiagoa da publikokoengan, bai eta desgaitasuna duten haur eta nerabeengan ere³⁰.**

²⁹ Zehazki, galdera hau egin zitzaien: «Zure ustez, zer zentzutan aldatu da COVID-19aren eraginez zure etxeko egoera ekonomikoa?».


³⁰ Zehazkiago, desgaitasun, gaixotasun edo osasun-arazo kronikoren bat edo iraupen luzeko arazoaren bat duten haur edo nerabeek diote mugaren bat izan dutela azken 6 hilabeteetan beren adineko pertsonen normalean egiten dituzten jarduerak egiteko.

POBREZIAKO ETA GABEZIA MATERIALEKO EGOERAK

29. grafikoa. Hainbat gailu dituzten haurren eta nerabeen proportzioa. Gasteiz. 2021



30. grafikoa. COVID-19aren pandemiak etxeko egoera ekonomikoan izaniko inpaktuaren balorazioa. Gasteiz. 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).


28. taula. Gasteizko haur eta nerabeek hainbat gailu erabilgarri edukitzea, zenbait aldagai kontuan harturik (%). 2021

	Telefono mugikor propioa	Wifi konexioa etxean	Ordenagailu propioa	Bi oinetako-pare egoera onean	Beharrezko eskola-materiala	Kirol-materiala zaletasunetarako	2 gauza edo gehiago falta ditu	Egoera ekonomikoa okertzea
Titulartasuna								
Publikoa	82,6	95,7	59,9	96,5	95,9	89,7	19,2	19,2
Itundua	83,4	98,7	75,5	97,8	98,9	93,9	9,4	16,9
Generoa								
Neskak	83,3	97,3	70,1	98,3	98,3	91,1	13,4	18,3
Mutilak	82,0	97,1	65,2	96,4	96,9	92,7	15,1	17,8
Bat ere ez	100,0	100,0	85,0	90,0	90,0	90,0	9,5	15,8
Adina								
10 eta 12 artean	66,2	96,0	54,4	97,3	97,3	91,1	24,2	11,5
13 eta 15 artean	94,7	99,3	78,5	96,7	98,3	95,7	4,8	15,7
16 eta 18 artean	98,6	97,2	79,4	97,6	96,9	89,1	7,2	31,2
Jatorria								
Bertakoa	81,3	97,7	70,5	97,7	98,3	94,6	12,5	15,5
Atzerritarra	87,1	96,2	61,8	95,9	95,6	85,4	18,1	23,8
Desgaitasuna								
Bai	82,0	95,0	73,9	94,9	93,5	84,2	22,1	22,0
Ez	83,2	97,6	67,1	97,5	98,0	93,0	13,3	17,4
Guztira	83,0	97,3	68,0	97,2	97,5	91,9	14,2	18,0

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

31. grafikoa. Haur eta nerabeen proportzioa, etxean enplegua duten helduen arabera eta familiak duen diruaz kezkatzeko maiztasunaren arabera. Gasteiz. 2020



	Enplegua duten heldu bat edo bat ere ez	Beti edo sarritan arduratzen dira
Titulartasuna		
Publikoa	29,1	25,0
Itundua	14,6	21,0
Generoa		
Neskak	22,7	26,3
Mutilak	20,9	20,0
Bat ere ez	14,3	14,3
Adina		
10 eta 12 artean	17,3	15,6
13 eta 15 artean	17,8	21,7
16 eta 18 artean	33,3	36,9
Jatorria		
Bertakoa	17,3	20,7
Atzerritarra	31,9	28,3
Desgaitasuna		
Bai	23,7	36,0
Ez	21,5	21,0
Guztira	21,7	23,0

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

6.6. 2019tik 2020ra bitartean, Gasteizko seme-alabak dituzten familientzako gizarte-larrialdietako laguntzak (GLLak) eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) % 6 eta % 10 igo dira, hurrenez hurren, eta hautsi egin dute 2017tik zuten beheranzko joera

Pobrezia-egoeren bilakaerari ez ezik, horiek murrizteko prestazio eta laguntza publikoen estaldurari ere erreparatuz gero, **argi eta garbi ikusten dira bi aldi bereizi, biak ere ziklo ekonomikoak eta pandemiaren berehalako ondorio saihetsezinek markatuta.** Jarraian eskaintzen den analisiak Gasteiz hiriarri eta 3 laguntza-motari erreparatzen die: horietako 2 udal-kudeaketakoak dira, GLLa eta udal-laguntza ekonomikoak, eta hirugarrena autonomia-erkidegokoa (DSBEa), guztiak ere diru-pobrezia-egoerak murriztera bideratuak.

- **2016 eta 2019 urteen arteko aldiak, nabarmen murriztu zen GLLaren eta DSBEaren titularren kopurua, % 10 eta % 16, hurrenez hurren.** Murrizketa hori herrialdearen susperraldi ekonomiko progresibo baina desberdin batekin etorri zen. Aldi horretan, GLLak 408 titular gutxiago izan zituen Gasteizen, eta DSBEak 1.292 gutxiago (ikus 29. eta 31. taulak). **DSBEaren kasuan murrizketa hori homogeneoa izan zen, eta berdinean eragin zuten ardurapean adingabeak zituzten edo ez zituzten DSBEaren titularrei; GLLaren kasuan, aldiz, laguntzen murrizketa askoz handiagoa izan zen seme-alabak zituzten familien artean.** Hain justu ere, 2016 eta 2019 artean, GLLak % 10 murriztu ziren, baina murrizketa hori % 28koa izan zen seme-alabak zituzten familia nuklearren kasuan, eta % 26koa guraso bakarreko familietan. Izan ere, pertsona bakarreko familietan bakarrik areagotu ziren laguntza horiek. Ildo horretan, 2019an pertsona bakarreko familiak ziren GLLaren titularren % 50, nahiz eta hiriko familia-etxe guztien % 31 baino ez ziren. Aldi horretan bertan, nabarmen handitu ziren familia-etxe horientzako udal-laguntza ekonomikoak. 2016 eta 2019 artean, laguntza horiek % 7 ugartu ziren, oro har, eta pertsona bakarreko familia-etxeen artean, % 69. Horrenbestez, familia-etxe mota horretakoak dira laguntza titular diren familia-etxe guztien % 63. Aldi berean, udalaren laguntza ekonomikoak % 49 murriztu ziren seme-alabak zituzten bi gurasoko familien kasuan, eta % 31 guraso bakarrekoen kasuan.
- **2019-2020 aldiak jaso zuen pandemiaren lehen inpaktua, eta hautsi egin zuen 2016tik aurrera hasitako joera positiboa.** Gasteizko GLLaren titularren kopurua % 10 igo zen eta DSBEaren titularrena, berriz, % 9. Bestalde, Udalaren dirulaguntzak % 7 murriztu ziren. Kasu horretan, DSBEaren portaera homogeneoa da berriz ere: DSBEaren titularren kopurua berdinean igo zen adingabeak zituzten bizikidetzaren unitateetan eta hiriko DSBEaren titular guztietan (% 10 eta % 9, hurrenez hurren). Gizarte-larrialdietako laguntzen kasuan, aldiz, bi familia-etxe motatan soilik egin zuten gora, berriz ere: pertsona bakarrekoetan (% 16ko gehikuntzarekin) eta guraso bakarrekoetan (% 11ko igoerarekin) —laguntza guztienaren oso antzekoa—.
- Gasteizen diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBEa) jasotzen dutenei buruzko datuek erakusten dutenez, **2020. urtearen amaieran, bai Gasteizen eta bai Araban, DSBEa jasotzen duten eta seme-alaba adingabeak dituzten familien pisu espezifiko handiagoa da gainerako euskal hiriburuetan eta lurraldeetan baino** (ikus 31. grafikoa). Bilbon % 27 inguru dira, eta Donostian % 23; Arabako hiriburuan, ostera, % 35koa pisu espezifiko.
- Gasteiz, orobat, Euskadiko batezbestekoaren gainetik dago DSBEa jasotzen duten eta ardurapean adingabeak dituzten familia-etxeen kopuruari dagokionez (33. grafikoa). Adingabeak dituzten familia-etxeek prestazio hori jasotzeko tasa % 2,4koa da Gasteizen, Donostiako % 1koa baino askoz handiagoa eta Bilbokoaren antzekoa.

POBREZIARI AURRE EGITEKO PRESTAZIOAK ETA LAGUNTZA EKONOMIKOAK

29. taula. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLLen) titular-kopuruaren bilakaera urtean zehar. Gasteiz. 2012-2020

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Bilaka. 2012-15	Bilaka. 2016-19	Bilaka. 2019-20
Lagun bakarrekoa	1.137	1.393	1.515	1.492	1.577	1.539	1.633	1.778	2.056	% 31	% 13	% 16
Nuklearra, seme-alabarik gabe	180	249	301	324	336	292	291	287	278	% 80	-% 15	-% 3
Nuklearra, seme-alabekin	544	724	918	1.016	1.096	1.041	879	786	808	% 87	-% 28	% 3
Guraso bakarra	343	446	572	650	730	678	624	540	601	% 90	-% 26	% 11
Zabaldia ahaidetasun-erlazioarekin	54	91	113	120	126	101	97	97	86	% 122	-% 23	-% 11
Beste familia-mota batzuk	67	94	115	91	91	70	57	60	66	% 36	-% 34	% 10
Guztira	2.325	2.997	3.534	3.693	3.956	3.721	3.581	3.548	3.895	% 59	-% 10	% 10

Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

30. taula. Udal Laguntza Ekonomikoen titular-kopuruaren bilakaera urtean zehar. Gasteiz. 2012-2020

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	Bilaka. 2012-15	Bilaka. 2016-19	Bilaka. 2019-20
Lagun bakarrekoa	240	365	336	334	582	688	813	981	909	% 39	% 69	-% 7
Nuklearra, seme-alabarik gabe	24	73	64	45	87	59	56	62	67	% 88	-% 2s9	% 8
Nuklearra, seme-alabekin	63	261	185	222	373	267	222	192	190	% 252	-% 49	-% 1
Guraso bakarra	52	197	167	199	340	313	263	233	211	% 283	-% 31	-% 9
Zabaldia ahaidetasun-erlazioarekin	9	26	19	21	33	28	24	35	27	% 133	% 6	-% 23
Beste familia-mota batzuk	12	45	26	26	32	27	34	40	35	% 117	% 25	-% 13
Guztira	400	967	797	845	1.447	1.382	1.412	1.543	1.439	% 111	% 7	-% 7


Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

31. taula. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular-kopuruaren bilakaera abenduaren 31n, etxean 0 eta 17 urte bitarteko pertsonak dituzten kontuan harturik. Hainbat lurralde. 2016-2020

	2016		2017		2018		2019		2020		Bilakaera 2016-2019		Bilakaera 2019-2020	
	< 18 urte	Guztira	< 18 urte	Guztira	< 18 urte	Guztira	< 18 urte	Guztira	< 18 urte	Guztira	< 18 urte	Guztira	< 18 urte	Guztira
Gasteiz	2.698	7.893	2.551	7.288	2.317	6.713	2.299	6.601	2.530	7.177	-% 15	-% 16	% 10	% 9
Bilbo	4.298	16.202	4.122	15.549	3.808	14.257	3.547	13.236	3.641	13.514	-% 17	-% 18	% 3	% 2
Donostia	989	4.055	910	3.858	808	3.535	754	3.331	798	3.521	-% 24	-% 18	% 6	% 6
Araba	3.372	9.575	3.219	8.892	2.941	8.224	2.862	8.028	3.188	8.811	-% 15	-% 16	% 11	% 10
Gipuzkoa	4.563	15.039	4.248	14.128	3.945	12.992	3.691	12.361	4.043	13.257	-% 19	-% 18	% 10	% 7
Bizkaia	11.045	39.183	10.376	37.385	9.450	34.164	8.948	32.066	9.336	32.679	-% 19	-% 18	% 4	% 2
Guztira	18.980	63.797	17.843	60.405	16.336	55.380	15.501	52.455	16.567	54.747	-% 18	-% 18	% 7	% 4


Iturria: Lanbide.

32. grafikoa. Adingabeak kargura dituzten DSBEaren titularren proportzioa titular guztiekiko. Hainbat lurralde (%). 2020



Iturria: Lanbide.

33. grafikoa. Adingabeak dituzten familia-etxeetan DSBEa* eskuratzeko tasa. Hainbat lurralde (%). 2020



* Adingabeak ardurapean izanik, DSBEaren titular diren familia-etxeetan proportzioa adierazten du, okupatutako familia-etxebizitza guztiekiko. Iturriak: Lanbide; Eustat. Etxebizitzaren Udal Estatistika (2020).

6.7. Familia migratzaileen eta pobretuen ikuspegia

Pobrezia-egoeran dauden etorkinen arretaren eremuan jarduten duten kontsultatutako erakundeek gabezia handiak nabarmentzen dituzte kolektibo horretako haurrak eta nerabeak gizarteratzeari dagokionez. Lehenik eta behin, errealitate horren aurrean erakundeek erantzunik eman ez dutelako gertatu da hori; izan ere, uste dugu azkenaldian atzerapauso bat gertatu dela kolektibo horri eman beharreko arretan, ez baititu bermatzen oinarrizko premiak. Bestalde, sumatzen da ez dagoela benetako integrazioerik, gizarteak ez duela aniztasunaren «aberastasuna» balioesten eta, orobat, bizikidetzaren eta hurbiltze-espazioak falta direla.

Ekonomiaren eta bizitegiaren alorreko segurtasunik eza da kolektibo horrek aurrez aurre duen arazo nagusia, eragotzi egiten baitu egoera iragankorretatik eta muturreko pobreziatik irtetea, baliabide ekonomikorik eta alokairuko etxebizitzarik ez izateagatik. Batez ere familia iritsi berriei eragiten die horrek, erabateko mendetasun-egoeran baitaude, Udalaren gizarte-larrialdietarako laguntzak jaso ezin dituztelako, eskatzen den gutxieneko 6 hilabeteko errolatzea betetzen ez dutelako.

Hala eta guztiz ere, 6 hilabeteak igaro eta gizarte-laguntzak jaso ondoren, familia horiek etxebizitzaren «arazo handiari» egin behar izaten diote aurre, «*ia ezinezkoa*» izaten baita kolektibo horrentzat «*etxebizitza bat aurkitzea*». Kontsultatutako erakundeek nabarmendu dute alokairuko etxebizitza eskuratzeko zailtasuna ez datorrela arrazoi ekonomikoetatik bakarrik, gizarte hartzailearen aurreiritziek eta «beldurrek» ere badutela zerikusirik.

Egoera horri alokairuaren prezio handiak erantsi behar zaizkio, zeren eta, etxebizitza aurkituta ere, jasotako laguntzarik gehienak alokairua ordaintzera bideratu behar baitituzte. Egoera horrek, oro har, familia horien mendekotasuna areagotzen du, muturreko pobreziatik irteteko prozesua luzatzen du eta, batzuetan, «integrazio-prozesua hondatzen du».

Elkarrizketatutako guraso guztiak bizileku-bazterkeriako egoeran daude, eta Berakah programaren bidez artatuta. Horien iritzian, bi dira oztopo nagusiak: lan-merkatutako sarbidea eta alokairuko etxebizitza eskuratzeko ezintasuna. Salatzen dutenez, bete ezin dituzten baldintzak eskatzen dizkiete alokairu neurrigabeak ordaintzeko, hala nola abalak, nominak eta fidantzak.

Haien esanean, ekonomiaren eta bizitegien segurtasunik ezak ez die eragiten familia iritsi berriei bakarrik, baizik eta konstante bat da familia migratzaile askoren bizi-esperientzian. Osasun-krisiak eragindako enplegu-eskasiak okertu baino ez du egin dagoeneko hirian finkatuta dauden familia askoren egoera. Beste batzuek, berriz, irregularitasun-egoerak eragindako trabei egin behar diete aurre; adibidez, lan-baimena lortzeko 3 urte ere itxaron beharri eta atzerritartasun-legeetan izandako aldaketei.

Bestalde, Saharaz azpiko ama elkarrizketatuek salatu dutenez, ez daukate lan-aukerarik enplegu prekariotik eta balio sozial txikikotik haratago (garbiketa eta sukaldea, adibidez). Adierazi dutenez, aukerak mugatuak dira: «*Hemen dagoen lan bakarra garbiketarena da*». Eta, ildo horretan, «*frustrazioa*» aipatzen dute, ezin baitute aurrera egin lanean eta gizartean, eta egoera horrek nahi ez duten mendekotasun instituzionalean uztartzen ditu.

Kontsultatutako erakundeek baieztatu dutenez, muturreko pobrezia-moduen eraginpean egoteak eta bizi izandako migrazio-esperientziek ondorio larriak dituzte kolektibo horretako haurren eta nerabeen osasun mentalean, eta esparru horretan ez zaie arreta handirik ematen. Alde batetik, adierazi dute 6 edo 7 urtetik gorako haurrek arazo psikologikoak izaten dituztela migrazio-esperientzia ulertzeko eta onartzeko (Ulisesen sindromea), eta horrek arriskuzko eta indarkeriazko jokabideak, «jarraipena egiteko zailak», eragin ditzakeela haiengan, haziz doazen heinean. Gizarte berrira egokitzearen alorrean, pobrezia-kontzientzia hartzen dute, haien eta eskola-ingurune gainerako haurren artean dauden desparekotasun materialak (jostailuak, eskola-materiala, teknologia edo oinarrizko elikagaiak) hautematen baitituzte. Horri hizkuntzaren zailtasuna gehitu behar zaio, askotan ez baitakite ez euskaraz, ez gaztelaniaz. Faktore horiek integrazio-prozesu oso konplexuak eragiten dituzte.

Bestalde, neska-mutil nerabeak bitartekari bilakatzen dira askotan gizarte hartzailearen (erakundeak barne) eta haien familien artean, haiek izan ohi baitira lehenak hizkuntza menderatzen. Horren ondorioz, nerabezaro iheskorregia izaten dute eta heldutasun goiztiar behartura igarotzen dira; delinkuentzia eta halako arrisku-jokabideen aurrean erortzeko arrisku handiagoa duten nerabe bihurtzen dira. Hala ere, erakundeek oso positiboki baloratzen dute kaleko hezitzaileek arlo horretan egiten duten lana.

Galdekatutako gurasoen ikuspuntutik, Gasteizera iristeak kultura-talka handia sortzen du haur eta nerabeengan, eta aldaketa oso bortitz hori areagotu egiten da hizkuntza-arazoekin. Familia iritsi berri batzuek salatzen dutenez, gainera, ezin dituzte seme-alabak eskolatu, pasaporterik ez dutelako. Bestalde, adingabeen egokitzeko gaitasuna eta ikastetxeek eta udal-zerbitzuek integrazioaren alde egiten duten lana balioztatzen dute guraso horiek.

6.8. Gizarte-bazterkeriako beste prozesu batzuk: dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeak

Hirugarren sektoreko erakundeen eta kontsultatutako familien iritziak, dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen **inklusio eraginkorrik eza** da aurrez aurre izaten duten eragozpen nagusia, eta arazo horretatik hainbat oztopo eta zailtasun sortzen dira haien bizitzako zenbait esparrutan. Guztiek adierazten dutenez, inklusioaren kontzeptua diskurtso, mekanismo eta ekimen instituzionaletan jasota dagoen arren, horrek ez du esan nahi benetan aplikatzen denik. Beraz, egiaztatu da arrakala ageri dela inklusioari buruzko teoriaren eta teoria hori praktikan jartzearen artean. Horri gehitu behar zaio zenbait erakunde adierazi duten sentsazioa, hau da, alderdi horretan egindako aurrerapenak kolektiboek beraiek egiten duten «*presio eta eskaeren ondorio*» direla beti, eta ez erakundeek ekimenez, eta, beraz, aurrerapen motela izan dela, kolektiboaren beraren aldarrikapenak bultzatua beti. Inklusio-falta hori bi ardatzen inguruan egituratzen da: batetik, baliabide materialen gabezia eta, bestetik, aniztasunaren aintzatespen eta balorizazio sozialik ezean.

Ildo horretatik, inklusioaren kontzeptua oraindik erabat garatu gabe dagoela uste dute kontsultatutako erakundeek, inklusioa ez baita ulertzen bi noranzkoko prozesu gisa, neurri berean eragiten baitie dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeei eta gainerako biztanleei. Ildo horretan, ez dira aitortzen inklusioak gizarte osoari ekartzen dion aberastasuna eta onura ere. Horrek, era berean, dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeak jarrera pasiboan ipintzen ditu gizarteko gainerako haurren aurrean, inklusioa «mesede» gisa jasoko balute bezala.

Espazio sozial partekaturik ez izateak, hau da, benetako inklusiorik ez edukitzeak, aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeen arteko normalizaziorik eza eta elkarrekiko onarpen falta eragiten ditu. Ondorioz, erakundeek eta familiek identifikatzen dute ez dutela ezagutzen dibertsitate funtzionalaren errealitatea —batzuetan informazio faltagatik eta, beste batzuetan, interes-ezagatik—. Kezkagarria iruditzen zaie, esate baterako, ikasgelen barruan aniztasun funtzionala duten ikasleak bakarrik joatea gizarteratzeari eta aniztasunari buruzko sentsibilizazio-ekimenetara. Ezjakintasun eta hurbiltasun falta horren eraginez, era berean, desgaitasunak «*irudi sozial estereotipatua*» izaten jarraitzen du. Horretaz gainera, erakunde batzuek ikusezin bihurtzeko prozesuak aipatzen dituzte: kolektiboa ez dagoenez espazio publikoan ordezkaturik, autobazterketara jotzen du, haur eta nerabe horiek ez baitira sentitzen gizarteratuta eta interpelatuta.

Erakundeek eta familiek azaldu duten bezala, ikusezintasun hori are nabarmenagoa da diagnostikatu gabeko desgaitasunen kasuetan; izan ere, diagnostikorik ezak askotan baldintzatzen du hezkuntza- eta osasun-baliabideak eskuratzeko aukera, eta horrek eragin handia du adingabe horien garapenean.

Kontsultatutako erakunde askoren ustez, inklusio falta areagotu egiten da haurrak hazi ahala, eta adin-arrakala bat sortzen da, ondorio larriak eragiten dituena nerabezaro(aurre)an eta gaztaroan. Populazio-talde horretan antzeman dira sozializazioarako oztoporik handienak; izan ere, harreman-gabeziek eta isolamenduak eragindako osasun mentaleko arazoak areagotu egin dira, tartean autoestimua, tristura- eta depresio-arazoak.

Erakunde batzuen arabera, nerabezaroko eta gaztaroko etapetan inklusiorako laguntzak arian-arian kentzeak zaildu egiten du adingabe horien emantzipazioa eta laneratzea, eta, orobat, areagotu egiten ditu etorkizuneko mendetasun-egoerak eta kolektibo horren zaugarritasuna.

Gizarteratzeko ohiko oztopoekin batera, pandemiak gizarte-isolamenduaren hazkunde handia ekarri die dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeei, jakinik aurretik ere bazeudela haren eraginpean.

Alde batetik, sare sozial gutxiko kolektiboa denez, hezkuntza aurrez aurrekoa ez izateak eta bilera sozialak murriztu izanak eragin oso kaltegarria izan dute haur eta nerabe horien sozializazioan, eta areagotu egin dizkiete osasun mentaleko arazoak. Batzuek, gainera, oztopo fisiko gehiago izan dituzte, hala nola maskarak entzumen-urritasunak dituzten haur eta nerabeen kasuan, eta kontaktu fisikoa murriztu zaie.

Konfinamendu-aldian aurrez aurreko hezkuntza-jarduera etetearen ondorioz, arreta goiztiarreko terapiak bertan behera utzi ziren (logopedia, esaterako), eta nolabaiteko inboluzioa sumatu da haur horiengan. Oso kezka garritzat jotzen da atzerakada hori; izan ere, kasu batzuetan zerbitzuek adin-muga izaten dutenez, ezin da bermatu zerbitzuak berreskuratuko direnik. Era berean, kolektibo batzuek kontroleko osasun-zerbitzuetarako sarbidea (adibidez, ikusmen-kontroletarakoa) galdu zuten konfinamendugaraian.

Bestalde, aisialdi, denbora libre eta kirol-eskaintzan ere eragin handia izan du jarduerak bertan behera utzi izanak, edukiera murrizteak eta kiroldegien itxierak, eta, ondorioz, galdu egin da instalazio egokituertarako sarbidea (ur beroko igerilekuertarakoa, esate baterako).

Azkenik, kontsultatutako erakundeek aipatu dutenez, konfinamenduak eta pandemiak gainkarga eta ahalegin fisiko eta emozionala ipini ditu familia zaintzaileen bizkar, ezin izan baitute baliatu hezkuntza-zerbitzuek eta aisialdi eta denbora librekoek eskaintzen duten atsedenaz.

7. kapitulua.

Hezkuntza haurtzaroan eta nerabezaroan

Jarraian aurkeztuko dugun analisiak hezkuntzaren eremuan haur eta nerabeek gaur egun duten egoera du ardatz, dela prestakuntzaren ikuspegitik, dela gizartearen eta komunitatearen ikuspegitik. Horretarako, kapitulu honetan hezkuntzarekin lotutako hainbat alderdi aztertzen dira, estatistika ofizialetatik —matrikulazioaren ezaugarriak eta lorpen akademikoa—, ISEI-IVEIk³¹ egindako ebaluazio diagnostikoetatik edo hezkuntza-eremuko berdinen arteko tratu txarrei buruzko azken azterlanetik ateratakoak. Azterketa osatzeko, Gasteizko haur eta nerabeek egindako inkesta eta hirugarren sektoreko erakundeei eta gurasoei egindako kontsultatik ateratako informazioa hartuko dira oinarri.

7.1. Hiriko haur eta nerabeen % 53 sare publikoan daude matrikulatuta eta % 50 D ereduan

Eustaten Eskola Jardueraren Estatistikako azken datu ofizialen arabera, 2019-2020 ikasturtean 42.954 ikasle zeuden matrikulatuta Gasteizen³²; horietatik 10.807 Haur Hezkuntzako ikasleak ziren, 9.939 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak eta 6.674, azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak³³ (32. taula).

Bilakaeraren ikuspegitik, 2006tik eskura dauden datuetan oinarrituta, alderdi eta joera hauek nabarmendu daitezke (33. taula):

- **Haur Hezkuntzan hasi da jaiotza-tasaren murrizketa nabaritzen.** 2006-2015 bitartean, igoera orokor eta jarraitua sumatu zen hezkuntza-maila guztietako matrikulazioetan —batez ere Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, jaiotza-tasak gora egin zuelako—. Alabaina, azken 5 urteotan, moteldu egin da igoera hori: are gehiago, **Haur Hezkuntzako ikasleen kopurua % 4,3 jaitsi da, Gasteizen, 2015 eta 2019 artean**, Euskal Autonomia Erkidego osoan baino zertxobait gutxiago (–% 8,7).
- **Banaketa orekatua sareetan.** Gaur egun, Gasteizko ikasleak modu nahiko berdinean banatzen dira sare publikoaren (% 52,6) eta sare pribatuaren (% 47,4) artean, nahiz eta ikastetxe publikoetako matrikulazioa handixeagoa den Euskadi osokoa (% 50,5) baino. Oro har, **ikastetxe publikoetako ikasleen proportzioa zertxobait handiagoa da Haur Hezkuntzan** (% 57,8) eta **Lehen Hezkuntzan** (% 56,5), eta, aldiz, txikixeagoa DBHn (% 43,4) eta Derrigorrezkoaren Ondokoan (% 49,0). Bilakaerari dagokionez, 2006-2019 aldian, sare publikoko matrikulazioa gehiago hazi da (% 40) sare pribatukoa (% 20,5) baino.

³¹ Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea / Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa.

³² Eskola-jardueraren estatistikak matrikulaturiko ikastetxearen kokapenaren arabera banatzen ditu ikasleak, eta ez ikasleen bizilekuaren arabera; beraz, informazioak Gasteizko ikastetxeetako matrikulazioari egiten dio erreferentzia.

³³ Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntza-mailetan matrikulatutako ikasle adingabeetara egokiro hurbildu ahal izateko, maila horretan Batxilergoko, Erdi Mailako Lanbide Heziketako, Zereginen Ikaskuntzako eta Oinarritzko Lanbide Heziketako ikasleak bildu dira.

- **D hizkuntza-ereduaren hazkunde nabarmena eta jarraitua.** Gaur egun, D ereduak eskolatze osoaren erdia hartzen du (% 49,9), B ereduak % 34,1 eta A ereduak, azkenik, % 16,0. 2006-2007 ikasturtetik 2019-2020 ikastertera bitartean, A ereduko matrikulazioak % 42 egin du behera, eta **B eta D ereduetako matrikulazioak % 28,3 eta % 119,6 igo dira, hurrenez hurren.** Zehazki, D ereduko matrikulak 2006-2007 ikastertean 9.762 izatetik 2019-2020 ikastertean 21.439 izatera igaro dira. Azken ikasterte horretan, **D ereduko matrikulazioa bereziki handia da Haur Hezkuntzan (% 61,9) eta Lehen Hezkuntzan (% 53,9).** Dena den, kopuru alderatuetan, D ereduko matrikulazioak Euskadi osoaren azpitik (% 71,3) jarraitzen du Gasteizen (% 49,9). Hala ere, kontuan izan behar da eredu horretarantz izaniko bilakaera azkarragoa izan dela Euskadi osoariko ikusitakoa baino. 2006tik 2019ra bitartean, ehuneko 20,4 puntu igo da D ereduak Gasteizko matrikulazio osoaren gainean duen pisu erlatiboa (% 29,5etik % 49,9ra); Euskadin, aldiz, ehuneko 15 puntu igo da (% 56,3tik % 71,3ra).
- **Genero-desparekotasun nabarmenak ageri dira oraindik DBHtik aurrerako matrikulazioetan.** 2019-2020 ikasterteko datuek erakusten dutenez, derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren, ikasten jarraitzen duten 10 ikasletik 6k Batxilergoko ikasketekin segitzea erabakitzen dute (% 60,4), eta 10 horietatik gainerako 4ek Lanbide Heziketa (% 39,6) egitea. Batxilergoa, bestalde, **10 neskatatik 7k aukeratzen dute (% 69,0); mutilen kasuan, berriz, erdiek baino gehixeagok (% 52,4) bakarrik.** Nolanahi ere, datu horiek ezin dira hartu Gasteizko ezaugarri espezifikoetatik. Euskadin, oro har, generoen arteko aldeak mantendu egiten dira (nesken % 71,7k eta mutilen % 50,9k jarraitzen dute Batxilergo ikasketak egiten).

7.2. Atzerriko nazionalitatea duten ikasleak % 11,6 dira eta ia % 80 sare publikoan ari dira ikasten

Arestian aipatutako ezaugarriekin batera, atzerriko nazionalitatea duten ikasleen bilakaera ere aztertu behar da (34. taula eta 35. taula). 2006-2007 eta 2015-2016 ikasterteen artean, atzerriko nazionalitatea zuten ikasleen bolumena ia bikoiztu egin zen; hau da, 2.369 izatetik 4.687 izatera igaro ziren. Azken 5 ikasterreetan (2015-2016 ikasturtetik 2019-2020 ikastertera), ordea, igoera neurritsuagoa izan da, eta % 6,7 besterik ez da aldatu, 4.687tik 5.000ra.

Kopuru alderatuetan, **2015-2020 aldian Gasteizko atzerriko nazionalitateko ikasleen kopuruaren igoera (% 6,7) askoz txikiagoa izan da Euskal Autonomia Erkidego osoan baino (+% 21,8), baita EAEko beste 2 hiriburuetan baino ere.** Izan ere, 2015-2016 eta 2019-2020 ikasterteen artean ikasle atzerritarrak % 18,3 ugaritu dira Donostian eta % 23,0 Bilbon.

Atzerriko nazionalitadedun ikasle-kopuruaren hazkundera txikiagoa bada ere, sare publikoan duen presentzia nagusia da Gasteizen ikasle-sail horrek duen ezaugarri nagusietako bat. 2019-2020 ikasterteko datuek erakusten dutenez, atzerriko nazionalitatea duten 10 ikasletik 8 titulartasun publikoko ikastetxeetan daude matrikulatuta (% 79,2). Euskadi osoaren kasuan, ehuneko hori % 66,9koa da. Datu horren arabera, beraz, **kolektibo horren ordezkari handiagoa da ikastetxe publikoetan,** gaur egungo matrikulazio guztien % 17,5, alegia; sare pribatuan matrikulatutako ikasleak, berriz, % 5,1 dira talde horretan. Gainera, **fenomeno hori bereziki nabarmena da Gasteizen kasuan,** beste euskal hiriburuetan ikusitako arrakala apur bat txikiagoa baita. Bilbon, ikasle atzerritarrak % 14,1 dira sare publikoan eta % 8,7 pribatuan. Donostian, berriz, proportzio horiek % 10,2 eta % 5,8 dira, hurrenez hurren.

GASTEIZEN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK**32. taula. Gasteizen matrikulatutako ikasleak, sarearen, hizkuntza-ereduaren eta mailaren arabera. 2019-2020 ikasturtea**

Sarea	Eredua	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	DBHO*	Guztira
Publikoa	A	168	490	462	1.754	2.874
	B	141	1.013	488	343	1.985
	D	5.935	7.278	3.363	1.175	17.751
	Guztira	6.244	8.781	4.313	3.272	22.610
Pribatua	A	286	515	1.078	2.133	4.012
	B	3.520	5.142	3.471	511	12.644
	D	757	1.096	1.077	758	3.688
	Guztira	4.563	6.753	5.626	3.402	20.344
Guztira	A	454	1.005	1.540	3.887	6.886
	B	3.661	6.155	3.959	854	14.629
	D	6.692	8.374	4.440	1.933	21.439
	Guztira	10.807	15.534	9.939	6.674	42.954

Sarea		Hizkuntza-eredua		Mailak	
Gasteiz	Euskadi	Gasteiz	Euskadi	Gasteiz	Euskadi
Publikoa: % 52,6	Publikoa: % 50,5	A: % 16,0	A: % 9,7	HH: % 25,2	HH: % 24,1
Pribatua: % 47,4	Pribatua: % 49,5	B: % 34,1	B: % 18,4	LH: % 36,2	LH: % 36,8
		D: % 49,9	D: % 71,3	DBH: % 23,1	DBH: % 24,4
				DBHO*: % 15,5	DBHO*: % 14,6

*Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa: Batxilergoa, Erdi-mailako LH, Zereginen Ikaskuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketa.
Iturria: Eustat. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

33. taula. Gasteizen matrikulatutako ikasleen bilakaera, sarearen, hizkuntza-ereduaren eta mailaren arabera.

Sarea		15-16	16-17	17-18	18-19	19-20	Aldea 06-15	Aldea 15-19	Aldea 06-19
Sarea	Publikoa	21.605	22.107	22.567	22.642	22.610	% 33,8	% 4,7	% 40,0
	Pribatua	19.701	19.852	20.083	20.249	20.344	% 16,6	% 3,3	% 20,5
Hizkuntza eredu	A	8.435	8.090	7.781	7.154	6.886	-% 29,0	-% 18,4	-% 42,0
	B	14.092	14.234	14.634	14.826	14.629	% 23,6	% 3,8	% 28,3
	D	18.779	19.635	20.235	20.911	21.439	% 92,4	% 14,2	% 119,6
Maila	HH	11.290	11.162	11.023	10.977	10.807	% 30,1	-% 4,3	% 24,5
	LH	14.328	14.780	15.202	15.426	15.534	+% 28,4	% 8,4	% 39,2
	DBH	9.162	9.299	9.591	9.813	9.939	% 18,2	% 8,5	% 28,2
	DBHO	6.526	6.718	6.834	6.675	6.674	+% 19,8	% 2,3	+% 22,5
Guztira		41.306	41.959	42.650	42.891	42.954	+% 25,0	+% 4,0	+% 30,0

Iturria: Eustat. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

34. taula. Gasteizen matrikulatutako atzerriko ikasleak, sarearen eta mailaren arabera. 2019-2020 ikasturtea

		Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	DBHO	Guztira
Atzerriko nazionalitatea duten ikasleak	Publikoa	1.327	1.731	538	365	3.961
	Pribatua	117	170	455	297	1.039
	Guztira	1.444	1.901	993	662	5.000
Atzerriko nazionalitatea duten ikasleen %-a	Publikoa	21,3	19,7	12,5	11,2	17,5
	Pribatua	2,6	2,5	8,1	8,7	5,1
	Guztira	13,4	12,2	10,0	9,9	11,6

Iturria: Eustat. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

35. taula. Atzerriko nazionalitatea duten ikasleen banaketa, sarearen eta mailaren arabera (eta bilakaera)

Sarea		Maila		Jatorria	
Gasteiz	EAE	Gasteiz	EAE	Gasteiz	EAE
Publikoa: % 79,2	Publikoa: % 66,9	HH: % 28,9	HH: % 27,2	Europa: % 14,8	Europa: % 20,1
Pribatua: % 20,8	Pribatua: % 31	LH: % 38,0	LH: % 38,1	Afrika: % 47,4	Afrika: % 34,2
		DBH: % 19,9	DBH: % 20,4	Amerika: % 25,3	Amerika: % 34,9
		DBHO: % 13,2	DBHO: % 14,2	Asia: % 11,5	Asia: % 10,2

	2015-2016	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020	Bil. 2015-2020
Gasteiz	4.687	4.530	4.762	4.794	5.000	% 6,7
Bilbo	4.195	4.266	4.595	4.677	5.158	% 23,0
Donostia	1.969	2.040	2.103	2.170	2.330	% 18,3
EAE	24.667	25.455	26.635	27.750	30.040	% 21,8

Iturria: Eustat. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

7.3. Eskolatzeta-tasa altuak Haur Hezkuntzan eta eskola-uztearen jaitsiera

Atal honetan, eskolatzeta-tasarekin, derrigorrezko hezkuntza-mailak amaitzean ageri den egokitasunarekin eta eskola uztearekin zerikusia duten adierazle nagusietako batzuk errepasatuko dira.

- **Gasteizko 2 urtekoen eskolatzeta-tasa % 89,7koa da eta 3 urtekoena % 95,6koa.** Bai Euskadin, bai bereziki Gasteizen, 2000. urteaz geroztik gora egin du pixkanaka 0 eta 6 urte bitarteko ikasleen matrikulazioak Haur Hezkuntzan. Gasteizen kasuan, eskolatzeta-tasa % 95,6koa da 3 urteko haurren artean, % 89,7koa 2 urtekoen artean eta % 54,7koa 1 urteko haurren artean. Euskadiren kasuan, oso antzekoak dira tasa horiek: % 99koa, % 94,5ekoa eta % 51,7koa, hurrenez hurren (36. taula).
- **Haurren eskolatzeta-tasak Espainiako gainerako erkidegoetakoak baino altuagoak dira, bai eta EBko batezbestekoa baino handiagoak ere.** Horretaz gainera, Euskadi da eskolatzeta-tasa goiztiarrik handienak dituen autonomia-erkidegoa. Alderaketa eginez, eskura ditugun azken datuen arabera (2017-2018 ikasturtea), Euskadin eskolatzeta-tasa garbia % 93,1ekoa zen 2 urtekoen artean, Madrilen (% 72,5), Kantabriaren (% 71,6) eta Galiziaren (% 69,4) eta Espainia osoaren (% 60,0) oso aurretik³⁴. Europar Batasunaren esparruan ere, adin goiztiarreko eskolatzeta-tasak Euskadin handiagoak dira beste herrialde batzuetan baino. Eurostatek 2019. urterako emandako informazioaren arabera³⁵, 3 urterekin EB-27ko haurren % 92,8 zeuden eskolatuta, eta Euskadi (% 99) Finlandiaren (% 88,8), Austriaren (% 89,9), Holandaren (% 90,5) eta Portugalen (% 92,2) aurretik dago.
- **Gasteizko 12 urteko ikasleen % 85,9k amaitu du Lehen Hezkuntza.** 12 urterekin Lehen Hezkuntza amaitu duten ikasleen ehunekoak % 85,9koa da Gasteizen, eta handixeagoa (% 88koa) Euskal Autonomia Erkidego osoan (36. taula). Bi kasuetan ere, ehuneko horiek estatu osoari dagokion tasaren gainetik daude (% 81,2), Kataluniak bakarrik gainditzen baitu Euskadi (% 89,4)³⁶.
- **16 urterekin, eskolatzeta-tasa % 100ekoa da Gasteizen³⁷,** eta, beraz, Arabako hiriburua Euskadi osoko tasaren (% 98,4) eta Espainiako tasaren (% 95,7) gainetik dago. 17 urterekin, Gasteizen eskolatzeta-tasa ere unibertsala da derrigorrezkoaren ondoko mailetan, eta % 95,5ekoa Euskadin. Espainian, aldiz, % 90,2koa baino ez da (2017-2018 ikasturtea).
- **Gasteizko 16 urteko biztanle guztietatik, % 72,1 iritsi dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokora,** dela Batxilergoa (% 64,8) hautatuta, dela Lanbide Heziketa (% 7,3) aukeratuta. Halaber, 16 urteko 4 ikasletik 1ek (% 26,1ek) DBHn jarraituko du.
- **Eskola uztearen tasa³⁸ % 6,5ekoa da Euskadin** (% 8,5ekoa gizonetan eta % 4,3koa emakumeetan), azken 20 urteetan erregistratutako tasarik txikiena (37. grafikoa). Nabarmendu beharreko alderdirik positiboenetako bat da eskola uztearen tasetan 2009tik izan den murrizketa progresiboa —% 16,6raino igo zen urte horretan—. 2010ean, % 13,1eraino jaitsi zen, eta 2018tik % 7tik behera ibili da. Kopuru konparatuetan, Euskadiko tasa Europako batezbestekoaren azpitik dago (% 10,2koa izan zen 2019an), eta Espainian erregistratutako tasatik oso urrun (% 17,3koa izan zen 2019an). Europar Batasunean, Espainia da eskola-uzte goiztiararen tasarik altuena duen herrialdea, eta haren atzetik Portugal dago (% 16,7koa izan zen 2019an).

³⁴ Urtekari estatistikoa. Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2017-2018 ikasturtea (20192020 edizioa).

³⁵ Eurostat. Participation in early childhood education by sex (children aged 3 and over) (sdg_04_31)

³⁶ Urtekari estatistikoa. Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2017-2018 ikasturtea (2019-2020 edizioa).

³⁷ Kasu honetan, oso litekeena da tasa zertxobait txikiagoa izatea, informazioa ikastetxeen kokapenari buruzkoa baita, eta ez ikasleak errolatuta dauden udalerritari buruzkoa.

³⁸ Eskola-uzte goiztiararen tasa 18 eta 24 urte bitarteko biztanleriar dagokio, betiere Bigarren Hezkuntzako lehen etapa amaitu badu gehienez eta ez bada inolako ikasketarik egiten ari.

ESKOLATZEAREN, HEZKUNTZA-LORPENAREN ETA ESKOLA-UZTEAREN TASAK


36. taula. Eskolatzetasak* Gasteizen eta EAEn, sexuaren, adinaren eta irakaskuntza-mailaren arabera (%). 2019-2020 ikasturtea

	Guztira		Haur Hezk. eta Lehen Hezk.		Bigarren hezkuntza									
	G	EAE	G	EAE	DBH		Oinarrizko LH		Batxilergoa		Erdi-mail. LH		Goi-mail. LH	
					G	EAE	G	EAE	G	EAE	G	EAE	G	EAE
0 urte	14,9	19,8	14,9	19,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
1 urte	54,7	51,7	54,7	51,7	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2 urte	89,7	94,5	89,7	94,5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
3 urte	95,6	99,0	95,6	99,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
4 urte	98,0	99,9	98,0	99,9	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
5 urte	98,0	99,8	98,0	99,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
6 urte	97,8	99,6	97,8	99,6	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
7 urte	99,0	99,8	99,0	99,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
8 urte	99,2	99,5	99,2	99,5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
9 urte	100,5	100,0	100,5	100,0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
10 urte	98,5	99,9	98,5	99,9	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
11 urte	99,4	100,0	99,2	99,9	0,2	0,1	-	-	-	-	-	-	-	-
12 urte	100,0	99,9	14,2	12,0	85,9	87,9	-	-	-	-	-	-	-	-
13 urte	102,0	100,0	0,3	0,4	101,7	99,6	-	-	-	-	-	-	-	-
14 urte	103,0	100,2	-	0,2	103,0	100	-	-	-	-	-	-	-	-
15 urte	102,4	99,5	-	0,1	101,9	96,8	0,5	2,6	-	0,1	-	-	-	-
16 urte	105,3	98,4	-	0,2	26,1	19,2	7,1	7,5	64,8	65,4	7,3	6,2	-	-
17 urte	104,2	95,5	-	-	7,9	4,1	9,6	8	69,0	67,5	17,4	15,8	0,2	0,1

* Eskolatzetasak: 2019-2020 ikasturtean Gasteizko ikastetxeetan matrikulatutako ikasle-kopurua zati 2019ko abenduaren 31n Gasteizen bizi zen biztanleria.


Iturria: Eustat. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

34. grafikoa. Gasteizen matrikulaturiko ikasleen bilakaera, hezkuntza-mailaren arabera




Iturria: Eustat. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

35. grafikoa. Eskolatzetasaren bilakaera Haur Hezkuntzako lehen zikloan. EAE




Iturria: Eustat. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

36. grafikoa. Eskola-uzte goiztiarraren bilakaera 18-24 urte arteko biztanlerian, sexuaren arabera. EAE



Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Urtekari Estatistikoa. Hezkuntzaren zifrak Espainian.

37. grafikoa. Eskola uzte goiztiarraren tasaren bilakaera 18-24 urte arteko biztanlerian, lurraldeka.



Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta; Urtekari Estatistikoa. Hezkuntzaren zifrak Espainian. Eurostat.

7.4. Sare publikoko eta pribatu itunduko ikasleen desperekotasun sozioekonomikoak gero eta handiagoak dira Gasteizen

Etapa erdiko ebaluazio diagnostikoak ISEI-IVEIk egindako ebaluazio-prozesu bat dira, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen oinarriko gaitasunen garapen-maila balioztatzen dute. Ebaluazio horien emaitzetatik abiatuta, Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak txosten bat sustatzen du aldian-aldian, Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik, lorturiko emaitzak azaltzeko. Txosten horietako azkena, 2018. urtearen amaieran argitaratua, [Gasteizko Hezkuntza Egoera 2009-2017](#) izan zen. Azterlan horretan, 2009, 2010, 2011, 2013, 2015 eta 2017 urteetako ebaluazio diagnostikoetan Gasteizko ikastetxeetan lortutako emaitzak berrikusi ziren.

Azterlan horretan jasotako datuen gaurkotasuna eta garrantzia³⁹ eta informazioaren xehetasuna eta desagregazio-maila direla medio, erabaki da diagnostiko honetan zenbait alderdi nabarmentzea, ebaluazioen emaitzei eta emaitzetan esku hartzen duten testuinguruko eta gizarteko zenbait faktoreri buruz.

Lehenik eta behin, familiaren estatus ekonomiko, sozial eta kulturalaren indizeari (ISEKari) buruzko oinarriko informazioa bildu da —emaitzen arabera bereizi gabe⁴⁰—. Adierazle hori ikasleen egoera sozioekonomikoa islatzeko erabiltzen da, gurasoen hezkuntza- eta okupazio-maila eta etxeko kultura-ondasunei eta -ohiturei buruzko informazioa biltzen dituen balio baten arabera.

Gai horri dagokionez, nabarmentzekoa da, batez ere, **indize horrek sare-motaren arabera Gasteizen eta Euskadin izan duen bilakaera desberdina** (batez ere sare publikoaren kasuan) (38. grafikoa). Ikus daitekeenez, **Gasteizko ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleen familien batez besteko ISEK indizea jaitsi egin da apurka-apurka 2009. urtetik**, bai Lehen Hezkuntzan (% 55,7), bai Bigarren Hezkuntzan (% 66,1). Euskadin ere ikastetxe publikoetako ISEK indizeak behera egin duen arren 2011z geroztik, beherakada hori askoz txikiagoa izan da Gasteizen baino. Itunpeko ikastetxeetarako bilakaera-datuek erakusten dutenez, ISEK indizea handitu egin da, pixka bat, hala Lehen Hezkuntzan nola Bigarren Hezkuntzan, eta, oro har, areagotu egin dira jatorri sozioekonomikoko desperekotasunak sare publikoko eta itunpeko sareko ikasleen artean.

Bestalde, Gasteizko ikastetxeetako 2017ko **matematikako puntuazioen batezbestekoari erreparaturaz**⁴¹ (39. grafikoa), **alde nabarmenak ikusten dira ikasleen hainbat ezaugarri kontuan hartuta**. Irakasgai horren **emaitzetan eraginik handiena duten aldagaien artean** ageri dira **hizkuntza-eredua** eta **sarearen titulartasuna, ama-hizkuntza**, ikasleen **jatorria** eta **ikasle errepikatzailea izatea**. Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, sare publikoko A ereduko ikasleen, ikasturtea errepikatu dutenen eta etorkinak direnen emaitzak hiriko ikasle guztien batez besteko balioen oso azpitik daude ikasgai horretan. Alabaina, A, D edo B ereduko itunpeko ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako ikasleen matematikako batez besteko emaitzak nabarmen handiagoak dira, baita euskara ama-hizkuntza dutenenak ere. Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, emaitzak hobeak dira euskara ama-hizkuntzatzat duten eta D ereduko itunpeko ikastetxe batean ikasten duten ikasleen artean.

³⁹ Kontuan izan behar da matrikulazio-datuak edo eskolatzeko-adierazleak alde batera utzita, diagnostiko-ebaluazioetatik ateratako informazioa askoz ere gertuagokoa dela hezkuntza-sistemaren eraginkortasunari dagokionez.



⁴⁰ Txostenak ez ditu bereizten eginiko proben emaitzak, familiaren estatus ekonomiko, sozial eta kulturalaren indizearen arabera. PISArekin gertatzen denez, bereizketa horrek agerian jarriko zituzkeen ikasleen arteko desberdintasun handiak.

⁴¹ Ebaluatutako gaitasunak 3 arlotakoak dira: matematika, euskara eta gaztelania. Epigrafe honetan matematikako emaitzak soilik aztertu dira, baina txostenak 3 irakasgaien informazio osoa eskaintzen du.



GASTEIZKO IKASLEEN EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

38. grafikoa. Gasteizko eta EAEko ISEK indizearen batezbestekoaren bilakaera, sarearen eta hezkuntz-mailaren arabera. 2009-2017

Lehen Hezkuntzako 4. maila



Bigarren Hezkuntzako 2. maila




Datuak —positiboak edo negatiboak— EAEko batezbestekoaren (0,00) arabera adierazten dira, eta -1etik 1era doaz.


Iturria: Gasteizko hezkuntza-egoera. 2009-2017.

39. grafikoa. Gasteizko ikastetxeetako matematikako batez besteko puntuazioen batezbestekoa, hainbat aldagairen arabera. 2017

Lehen Hezkuntzako 4. maila



Bigarren Hezkuntzako 2. maila



Iturria: Gasteizko hezkuntza-egoera. 2009-2017.

Hain zuzen ere, nabarmenak dira ikasleen emaitzen eta lehen aipatutako aldagaien arteko aldeak (39. grafikoa). Ikasle errepikatzaileen eta ez-errepikatzaileen emaitzen batezbestekoaren arteko aldea ehuneko 45,4 puntukoa da Lehen Hezkuntzan, eta 36,4koa Bigarren Hezkuntzan. Jatorriari dagokionez, 23,2 puntuko aldea ageri da Lehen Hezkuntzan eta 33,7koa Bigarren Hezkuntzan, jatorri etorkina eta ez-etorkina duten ikasleen artean. Era berean, puntuazioen arteko aldeak ere nabarmenak dira, itunpeko sarearen eta sare publikoaren artean (17,9 puntuko aldea Lehen Hezkuntzan eta 16,7 puntukoa Bigarren Hezkuntzan).

7.5. Ikastetxeen sarearen titulartasunak emaitza diagnostikoetan duen inpaktua

Aipatu den bezala, ikasleen ebaluazio diagnostikoen emaitzetan inpakturik handiena duen aldagai nagusietako bat ikastetxeari dagokion sarearen titulartasuna da —publikoa edo pribatu itundua—. Hala ere, lehen deskribatutako familiaren ISEK indizearen batez besteko emaitzen arabera, **ikasleen jatorrizko desparekotasun sozioekonomikoek eragina dute lortutako emaitza akademikoetan**⁴². Berez [Gasteizko Hezkuntza Egoera 2009-2017](#) txostenak ISEK indizearen arabera egindako proben emaitzak bereizten ez baditu ere, gai horretarako hurbilketa gisa interpreta daitezke sare publikoko eta pribatuko ikasleek lortutako emaitza desberdinak (nolabait esateko, ikasleen jatorrizko egoera sozioekonomikoaren *proxy* gisa, aurreko epigrafean ikusi denez).

Ilido horretan, 40. grafikoa azaldutako ebaluazioen emaitzek hauxe iradokitzen dute:

- Ikastetxeak zer saretakoak diren aztertu ondoren lorturiko emaitzetan ikusten denez, aldeak handitu egin dira azken urteotan. Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, **aldeak bereziki nabarmenak dira gaztelaniako eta matematikako irakasgaien emaitzetan**; euskarari, aldiz, ez da hori gertatzen. Euskararen kasuan, DBHtik aurrera hasten dira aldeak nabarmentzen.
- Horretaz gainera, Euskal Autonomia Erkidego osoan ez bezala, Gasteizen sare publikoaren eta itunpekoaren arteko puntuazioen aldeak konstanteak izan dira aztertutako aldi osoan (2009-2017). **Matematikaren kasuan**, 2009an apenas ikusten zen alderik sare-motaren araberrako puntuazioetan, **bi hezkuntza-mailetan**. Urte horretatik aurrera, ordea, **aldeak areagotu egin dira**, batez ere, sare publikoan behera egin duelako arlo horretako batez besteko puntuazioak.



Hemen jasotako emaitzak ikasleen artean dauden hezkuntza-desparekotasunei buruzko hurbilketa bat baino ez dira. Hala ere, bi sareetako ikasleen artean gero eta arrakala handiagoa izateko dauden joeren ondorioz, eztabaida publikoaren kezka nagusien artean kokatu beharko litzateke gai hori, ikasleen emaitza akademikoak gaitasunen eta ahaleginaren araberrakoak izan daitezken, eta ez jatorri sozioekonomikoak zehazten dituen inguruabarren araberrakoak. Horren guztiaren xedea hauxe izango litzateke, azken buruan: ikastetxea eta eskola-sistema ez izatea gizarte-desparekotasunok errepikatzeko leku.

⁴² Txostenak ez ditu bereizten egindako probak familiaren ISEK indizearen arabera, eta, beraz, ikasleen jatorrizko egoera sozioekonomiko desberdinaren *proxy* gisa erabiltzen da atal honetan ikastetxearen titulartasuna (publikoa edo itunpeko pribatua).



GASTEIZKO IKASLEEN EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

40. grafikoa. Gasteizko eta Euskadiko ikastetxeetako matematikako, gaztelaniako eta euskarako batez besteko puntuazioen batezbestekoaren bilakaera, sarearen eta hezkuntza-mailaren arabera. 2009-2017



Euskara



Gaztelania



Matematikak



Iturria: Gasteizko hezkuntza-egoera. 2009-2017.

7.6. Ikaskideen arteko harremana da hobekien baloratutako alderdia, eta etxeko lanak, aldiz, okerren balioetsia

Eskola ez da irakasteko eta ikasteko gunea bakarrik; sozializazioa eta topaketa ere sustatzen ditu. Ikastetxeekin eta horietan gertatzen diren interakzioekin lotutako hainbat elementuren zerrenda batetik abiatuta, **ikaskideekiko harremana da Gasteizko haur eta nerabeek ondoen baloratzen duten alderdia** (41. grafikoa). Haien ia erdientzat (% 47,3k) oso ona da ikastetxearen dimentsio hori, eta heren batentzat (% 33,4k), berriz, ona. **Ondoen baloratutako bigarren alderdia ikastetxea bizitokitik gertu egotea da**; alde horretatik, Gasteizko haur eta nerabeen % 40,1ek oso ondo balioesten dute alderdi hori, eta % 27,4k ondo.

Bi alderdi horien ondoren, beste 5ek antzeko balorazioa dute: haurren eta nerabeen % 25ek eta % 30ek oso ona balorazioa eman diete, eta, ona iruditzen zaiela diotenak gaineratuz gero, esateko % 70era iristen dira erantzun positiboak. Baloraziorik handienetik txikienerako hurrenkeran zerrendatuta, gai hauekin daude lotuta alderdi horiek: irakasleak («laguntza behar dudanean ematen didaten erantzuna» eta «irakasleekiko harremana»), hainbat elementu fisiko edo material («baliabide informatikoak» eta «ikastetxeko instalazioak») eta segurtasuna («ikastetxeko segurtasuna»). Azkenik, **okerren baloratutako elementua eskolako lanen zamari dagokiona da**: nahiz eta % 43,3k alderdi hori oso ondo edo ondo balioesten duten, % 27,7k hala-hola baloratzen dute, eta % 29k eskas edo oso eskas.

Aztertutako aldagaietatik, bik dute loturarik estuena ikastetxeen balorazioarekin: batetik adinak, eta, bestetik —eta batez ere—, ikastetxeen titulartasunak. **Ikastetxe publikoetako ikasleek itunpeko ikastetxeetakoek baino positiboagozat jotzen dituzte hezkuntzarekin loturiko harreman-alderdiak** («irakasleekiko harremana», «irakasleen erantzuna laguntza-premiak direnean» eta «ikaskideekiko harremana»). **Alabaina, itunpeko ikastetxeetako ikasleek publikoetakoek baino balorazio positiboagoa egiten dute segurtasunarekin eta baliabide materialekin lotutako alderdiez** («ikastetxeko segurtasuna» eta «baliabide informatikoak»). Adinari dagokionez ere alde nabarmenak ageri dira zentroko baliabide informatikoei eta etxeko lanen edo betebeharren kopuruari lotuta: bi alderdien balorazioa negatiboagoa da adinak gora egin ahala. Azkenik, aipatu behar da bertako eta atzerriko ikasleen artean desparekotasun estatistikoki esanguratsuak ageri direla ikaskideekiko harremanean. Atzerriar jatorriko ikasleen % 25,5ek adierazten dute alderdi hori hala-holako, eskasa edo oso eskasa dela, eta bertakoen artean, berriz, % 17,1 dira iritzi hori dutenak (37. taula).


7.7. % 10ek soilik uste dute COVID-19ak okerragotu egin duela ikaskideen arteko edo irakasleekiko harremana; aldiz, % 23k uste dute behera egin duela beren errendimendu akademikoak

la ikasturte erdian eskolara joan gabe egon ondoren (2019-2020 ikasturtean), eta pandemia dela eta murrizketaz jositako beste ikasturte erdi baten ondoren (2020-2021 ikasturtean), Gasteizko ikasleen % 11,7k uste du ikaskideekin dituzten harremanek okerrera egin dutela eta, beste horrenbestek (% 10,5ek) gauza bera dio irakasleekiko harremanari buruz. **Eragin negatiborik handiena eskola-errendimenduari dagokiona da**; izan ere, % 23,1ek dio errendimendu horrek behera egin duela. Azken alderdi horren harira, **kaltea handiagoa izan dela uste dute ikaslerik zaharrenek eta desgaitasuna duten ikasleek**. Mugaren bat adierazi dutenen % 38,2k adierazi dute behera egin duela beren errendimendu akademikoak, eta, desgaitasunik ez duten ikasleen kasuan, % 20,9k.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da ikasle askok eta askok egoera latzei aurre egiteko duten gaitasuna. Hiru kasuetan (irakasleekiko harremana, ikaskideekiko harremana eta errendimendu akademikoa), dimentsio horietako bakoitzaren hobekuntza adierazten duten erantzunek gaintitu egiten dituzte erantzun negatiboak (42. grafikoa).

IKASTETXEEN BALORAZIOA ETA COVID-19AREN INPAKTUA

41. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeek ikastetxeen ezaugarriekin eta funtzionamenduarekin lotutako alderdiei emandako balorazioa (%). 2021




Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

37. taula. Ikastetxeekin lotutako alderdiak oso ondo edo ondo baloratu dituzten haur eta nerabeen proportzioa, zenbait aldagairen arabera (%). Gasteiz. 2021

	Segurta-suna ikastetxe-an	Irakaslee-kiko harremanak	Irakasleen erantzuna laguntza behar dudanean	Gelako ikaskidee-kiko harremana	Ikastetxeko instalazio-ak	Baliabide informa-tikoak	Etxean egiteko lanen karga	Bizi naizen tokitik hurbil egotea
Titulartasuna								
Publikoa	65,0	74,4	73,7	84,5	71,4	58,1	49,0	70,7
Itundua	72,6	65,0	66,5	77,2	69,0	71,8	38,2	64,6
Generoa								
Neskak	71,4	70,2	71,8	78,9	72,3	64,0	41,6	68,8
Mutilak	67,9	69,9	68,4	82,9	67,6	66,6	46,1	67,0
Bietako bat ere ez*	38,2	39,6	59,9	67,5	80,5	71,0	13,5	47,1
Adina								
10-12 urte	72,6	74,3	74,3	77,2	72,6	74,4	53,6	68,7
13-15 urte	67,3	65,0	66,7	85,6	67,5	57,0	36,9	72,1
16-18 urte	66,7	68,1	68,0	79,9	70,0	63,2	37,7	62,0
Jatorria								
Bertakoa	70,9	70,5	67,8	82,9	70,2	66,1	42,7	69,6
Atzerritarra	64,0	66,7	75,4	74,5	70,0	63,6	44,7	61,8
Desgaitasuna								
Bai	64,9	66,4	65,6	80,7	71,1	68,8	44,2	64,9
Ez	69,6	69,9	70,5	80,7	70,0	65,0	43,1	67,8
Guztira	69,0	69,4	69,9	80,6	70,2	65,4	43,2	67,5

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.
Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

42. grafikoa. COVID-19aren inpaktua Gasteizko haur eta nerabeen hezkuntzaren arloko hainbat alderditan (%). 2021



	Ikaskidee-kiko harremanak*	Eskola-errendimen-dua*	Irakaslee-kiko harremanak*
Titulartasuna			
Publikoa	10,3	24,3	8,6
Itundua	13,0	22,0	12,2
Generoa			
Neskak	13,9	23,2	9,2
Mutilak	8,9	21,9	10,7
Bat ere ez	26,8	53,3	41,3
Adina			
10 eta 12 artean	10,6	13,1	8,5
13 eta 15 artean	13,3	27,8	15,4
16 eta 18 artean	11,5	29,7	8,4
Jatorria			
Bertakoa	11,7	22,3	10,7
Atzerritarra	11,9	25,2	10,1
Desgaitasuna			
Bai	16,5	38,2	13,3
Ez	11,0	20,9	10,1
Guztira	11,7	23,1	10,5

* Emaitzetan, aipatutako alderdiak pixka bat edo asko okertu direla adierazten duten erantzunei egiten zaie erreferentzia.
Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

7.8. Ikaskideen arteko tratu txarren prebalentziak behera egin du apur bat; Gasteizen 3.000 ikasle ingururi eragingo lieke

Eskola-jazarpena edo *bullyinga* honela defini daiteke: berdinen arteko tratu txar larri eta jarraitua eskola-ingurunean. Indarkeria-mota hori 3 ezaugarri hauetatik abiatuta definitu ohi da: kaltea, beldurra, larritasuna eta abar eragin nahi duen nahitako ekintza da; erasotzailearen eta biktimaren artean botere-desparekotasuna duen harreman asimetrikoa izaten du oinarrian, eta errepikakorra izaten da. Tratu txar mota horrek hainbat agerbide izan ditzake, eta zuzeneko edo zeharkako ekintzen bidez bidera daiteke⁴³.

Euskadin, ISEI-IVEIk ondoz ondo egindako azterlanek nabarmen lagundu dute eskola-jazarpena ikusarazten eta neurtzen, eta funtsezko oinarria izan dira gero arazoari aurre egiteko protokoloak, akordioak eta jarduera-gidak garatzeko. ISEI-IVEIk Euskadi osorako 2018an argitaratutako azken txostenaren emaitzek aurkikuntza hauek azaleratzen dituzte:

- **Tratu txarren indize orokorraren eragina jaitsi egin da Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean⁴⁴ (2016. urtearekin alderatuta), baina Lehen Hezkuntzakoak bere horretan jarraitzen du.** Tratu txarren indize orokorra (aurrerantzean TTIO) hazi egin da, pixkanaka, 2008tik, baina 2018ko datuek bilakaera positiboa izan dute. 2018an, Euskadin eskola-jazarpena jasan duten DBHko ikasleen proportzioa (% 16,2) pixka bat txikiagoa da duela 2 urtekoa (% 18,8) baino. Alabaina, ia ez da izan aldaketarik Lehen Hezkuntzako ikasleen artean (% 19,7tik % 20,2ra).
- Euskal Autonomia Erkidego osoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei antzemandako prebalentzien gutxi gorabeherako aplikazioa eginik, **Gasteizen, Lehen Hezkuntzako ia 1.400 ikaslek eta Bigarren Hezkuntzako 1.500 ikasle inguruk bizi izan zituzten eskola-jazarpenerako egoerak 2018an⁴⁵.**
- **Tratu txarren eragina desberdina da hezkuntza-mailaren eta generoaren arabera.** TTIOaren prebalentzia handiagoa da Lehen Hezkuntzako ikasleen artean (% 20,1), Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean baino (% 16,2). Horretaz gainera, jazarpen-ehunekorik handienak mailarik goiztiarrenetan gertatzen dira, eta behera egiten dute eskola-mailak gora egin ahala (% 21,7 Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta % 17,2 6. mailan). Jazarpenaren prebalentzia, halaber, handixeagoa da mutilen artean nesken artean baino, hezkuntza-maila edozein dela ere.
- **Ahozkoa da tratu txarren motarik ohikoena.** Bi etapetan, ahozko tratu txarrak dira ohikoena. Lehen Hezkuntzako ikasleen % 14,1i eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 11,2ri eragiten die; kopuru absolutuetan, Gasteizko ia 2.100 haur eta neraberi, alegia (39. taula). Tarte handiarekin, gizarte-bazterkeria da DBHko ikasleen artean gehien gertatzen den bigarren jazarpen-mota, eta ezikusi egiten dietela edo parte hartzen ez dietela uzten sentitzen duten pertsonen egoerak jasotzen ditu. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean, aldiz, tratu txarren bigarren motarik ohikoena objektu pertsonalen aurkako erasoak dira, eta ikasle guztien % 5i baino gutxiagori eragiten diete.

⁴³ Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI) (2019) [Ikaskideen arteko tratu txarrak. Bullying 2018. 2019ko txosten exekutiboa](#). 46. or.

⁴⁴ Txosten horietan, tratu txarren indize orokorrak adierazten du Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6.era eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik 4.era bitarteko ikasleen zer proportziok jasan duen neurtutako tratu txar horietako bat gutxienez «maiz» edo «beti» maiztasunarekin. Hauek dira azterlanean jasotako tratu txarren motak: 1) hitzeko tratu txarrak (iraindu egiten naute, izengoitiak jartzen dizkirate, nitaz hitz egiten dute); 2) gizarte-bazterkeria (ezikusi egiten didate, ez didate parte hartzen uzten); 3) tratu txar fisikoak (makilekin mehatxatzen naute, jo egiten naute, beldurra sartzeko soilik mehatxatzen naute); 4) gauzei eraso egitea (gauzak ezkatuzten dizkirate, gauzak apurtzen dizkirate, gauzak lapurtzen dizkirate); 5) ziberbullyinga (Internet edo sare sozialen bidez mezuak bidaltzen dizkirate mehatxatzeko, iraintzeko edo nitaz barre egiteko); sare sozialetatik edo txatetatik kentzen naute; nire argazkiak, irudiak edo mezuak Internet bidez edo mugikorretik zabaltzen dituzte nire aurka erabiltzeko; mugikorrarekin grabatzen naute eta nire aurka erabiltzeko zabaltzen dituzte grabatutakoak, mehatxu eginez; nire kontuan sartzen dira ni izango balira bezala aritzeko, eta mezuak edo irudiak bidaltzen dituzte, nire lagunekin arazoak sortzeko); 6) sexu-erasoa (sexu-jazarpena egiten didate). (Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat soilik).

⁴⁵ Zenbatespen horretan, Lehen Hezkuntzako (% 18,9) eta Bigarren Hezkuntzako (% 15,7) prebalentzia orokorrak aplikatu zaizkie Gasteizen 2017-2018 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6.era eta DBHko 1. mailatik 4.era bitarteko mailetan matriculatutako ikasleei, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Sistemaren Estatistikek diotenari jarraikiz.

- **Ziberbullyingaren intzidentzia larria ez da % 3tik gorakoa, eta jaitsi egin da apurtxo bat.** Beherakada txiki bat gertatu da tratu txar mota horren biktimen kopuruan 2016 eta 2018 artean. Lehen Hezkuntzako prebalentzia % 3,4tik % 2,8ra igaro da; DBHn, berriz, jaitziera % 3,1etik % 2,4ra izan da. Prebalentzia horiek Gasteizen aplikatuta, jazarpen-modalitate horren eraginpean dauden 400 haur eta nerabe baino gehixeago leudeke.
- **Jazarpena, oro har, jolastokian edo gelan gertatzen da, eta ikasgela bereko mutilek praktikatzan dute.** Lehen Hezkuntzan batez ere jolastokian (% 38,8) gertatzen dira tratu txarrak, eta DBHn gelan bertan (% 31,9). Era berean, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, jazarpena mutilen taldeek (soilik) egiten dute (% 36,3 LHn eta % 36,0 DBHn), eta, gainera, biktima dagoen gela berekoak dira (% 41,3 LHn eta % 45,6 DBHn)⁴⁶.
- **Ikaslerik gehienek erantzun aktiboa dute tratu txarren aurrean.** Biktimek batez ere familiarengana (% 57,4 Lehen Hezkuntzan) eta lagunengana (% 51,9 DBHn) jotzen dute gertatzen zaienaren berri emateko, eta, neurri txikiagoan, irakasleengana. Hala ere, DBHko ikasleen % 24k eta Lehen Hezkuntzako % 15,6k ez diote inori kontatzen. Bai Lehen Hezkuntzako ikasleek (% 73,6) bai DBHkoek (% 60,7) adierazi dutenez, aktiboki erantzuten dute egoera horiek ikusten dituztenean, helduren bati informazioa emanez edo egoera eteten saiatuz.
- **Beherakada txiki bat izan da genero-arrazoiengatik eta sexu-orientazioagatik bazterketa-egoerak hautematen dituzten ikasleen artean.** 2018ko azterlaneko datuek erakusten dute Lehen Hezkuntzan ez dela aldatu neska izateagatik bazterkeria badela hautematen duten ikasleen ehunekoa (2016an % 12,2 izateatik 2018an % 11,3 izatera), ezta mutila izateagatik hautemandakoa ere (% 10ean jarraitzen du). DBHn, aldiz, behera egin du jazarpen-egoerak ageri direla adierazten duten ikasleen ehunekoak, homosexuala izateari (% 19,2tik % 15,9ra) eta norbaiten sexu-orientazioari buruzko zurrumurruei lotuta (% 11,9tik % 10,6ra).
- **Hauek dira Lehen Hezkuntzan eta DBHn ikaskideen aldetik tratu txarrak jasaten dituela adierazten duen ikaslearen ezaugarri nagusiak: mutila da, atzerritarra, adinagatik dagokiona baino gutxienez ikasturte bat atzetik dago eta oinarritzko ikasketak amaitu gabe edo amaituta da aitaren edo amaren gehienezko ikasketa-maila.**


Azterlan honetaz gainera, HBSC-2018 azterlanaren Euskadirako emaitzek⁴⁷ ere jasotzen dute berdinaren arteko tratu txarrei buruzko informazio garrantzitsua. 11 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzendutako azterlan horren emaitzetan oinarrituta, 10 ikasletik 2k adierazten dute min egin dietela irainduz, barre eginez edo iseka eginez (% 21,5), edo besteek gogoko ez izateko gezurrak kontatuz edo txutxu-mutxuak asmatuz (% 20,0). 10 ikasletik 1ek aitortzen du azken 2 hilabeteetan beste ikasleren batzuek baztertu egin dutela lagun-taldetik edo ezikusi egin diotela (% 13,8); txantxak edo sexu-iruzkinak nahiz -keinuak egin dizkiotela (% 10,7); ikastetxean edo institutuan tratu txarrak eman dizkiotela (% 10,4), edo beste ikasleren bati emaniko tratu txarretan esku hartu duela ikastetxean edo institutuan (% 10,3). Eraso fisikoak (% 4,7) eta ziberjazarpenaren kasuak (% 4,6) gutxiago gertatzen dira. Era berean, nesken artean gehiago azaltzen dira deslegitimazio-egoerak, hitzezko jazarpena eta berdinaren taldea bazterteza; mutilen artean, berriz, gehiago dira tratu txar fisikoko egoeretan parte hartu dutenak (44. grafikoa).

⁴⁶ Txostenak adierazten duenez, aurkikuntza horiek berekin dakarte, alde batetik, zentroan gutxien ikusten diren lekuen zaintza indartzea, zentroko eta jolastokiko sarrera-irteeretak denborak eta klase-aldaketak zaintzea, eta, bestetik, historikoki eta kulturalki gizonezkoen generoari eman zaion jokabide-rola eta -eredua lantzeko beharra.

⁴⁷ Moreno, Carmen (2020). [Estudio Health Behaviour in School-aged Children \(HBSC-2018\): informe técnico de los resultados obtenidos por el Estudio Health Behaviour in School-aged Children \(HBSC\) 2018 en País Vasco](#). Osasun Ministerioa: Madril.

BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREI BURUZKO AZTERLANAREN EMAITZAK EUSKADIN

43. grafikoa. Tratu txarren indize orokorraren bilakaera Euskadin, hezkuntza-mailaren arabera (%). 2005-2018



38. taula. Tratu txarren indize orokorra, estratuen eta etapen arabera. 2018

	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza
A publikoa	29,5	23,8
B publikoa	19,5	18,2
D publikoa	21,0	16,2
A itundua	15,8	12,3
B itundua	22,8	14,4
D itundua	17,2	17,6

* Tratu txarren indize orokorra osatzen duten tratu txar mota bakoitzeko jokabideak aldatu egin dira edizio batetik bestera. Bilakaerari buruzko datuak alderagarriak izan daitezten, Lehen Hezkuntzako txostenaren edizio guztietako 12 jokabide komunak eta Bigarren Hezkuntzako 13 jokabide komunak bakarrik hartu dira kontuan. Era berean, 2016ko eta 2018ko emaitzetatik kanpo utzi dira Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen datuak.

Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Ikaskideen arteko tratu txarrak. Bullying 2018. 2019ko txosten exekutiboa. 46. or.


39. taula. Tratu txar mota, hezkuntza-etaparen eta sexuaren arabera (%), 2018

	Lehen Hezkuntza (4., 5. eta 6. mailak)					Bigarren Hezkuntza (1., 2., 3. eta 4. mailak)				
	Gasteizko zenbatespena*	Guztira	Mutilak	Neskak	G/E ratioa	Gasteizko zenbatespena*	Guztira	Mutilak	Neskak	G/E ratioa
Ahozko tratu txarrak	1.027	% 14,1	% 15,9	% 12,2	1,3	1.071	% 11,2	% 12,0	% 10,4	1,2
Objektuen aurkako erasoa	408	% 5,6	% 6,7	% 4,5	1,5	449	% 4,7	% 5,1	% 4,2	1,2
Gizarte-bazterkeria	532	% 7,3	% 7,8	% 6,7	1,2	382	+% 4,0	+% 4,0	+% 4,0	1,0
Tratu txar fisikoa	430	% 5,9	% 7,4	% 4,3	1,7	296	% 3,1	% 3,8	% 2,3	1,7
Ziberbullyinga	204	% 2,8	% 3,3	% 2,4	1,4	229	% 2,4	% 2,8	% 2,0	1,4
Sexu-jazarpena	--	--	--	--	--	86	% 0,9	% 1,2	% 0,7	1,7

Oharra: Taula honetan, alde batetik, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean tratu txar mota batzuek eta besteek duten eragina jaso da, eta, bestetik, arazo horiek jasaten dituzten ikasleen datu absolutuak, betiere EAEko tratu txarren tasak Gasteizera aplikaturik. Zenbatespen hori egiteko, 2017-2018 ikasturtean derrigorrezko mailatan matrikulatutako ikasleak hartu dira kontuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Hezkuntza Sistemaren Estatistiketako matrikula-datuei jarraituz.

Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI). Ikaskideen arteko tratu txarrak. Bullying 2018. 2019ko txosten exekutiboa.

44. grafikoa. Azken bi hilabeteetan egoera hauetakoren bat bizi izan duten Euskadiko 11 eta 18 urte bitarteko ikasleen prebalentzia (%). 2018



Iturria: Health Behaviour in School-aged Children (HBSC) 2018 azterlanak Euskadin lortutako emaitzen txosten teknikoa.

Aurreko epigrafeetan jorratutako gaiez gainera, beharrezkoa da hezkuntza formalarekin eta eskolako bizikidetzarekin lotutako zenbait alderdi kritiko aztertzea, kontuan izanik azterlan honen esparruan kontsultatutako gizarte-eragileek nabarmendu dituztela. Alderdion azalpen ordenatua errazteko, bi eremutan banatu dira, bata orokorragoa eta bestea, berriz, espezifikoa, dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeek aurrez aurre izan ohi dituzten arazoei buruzkoa.

7.9. Dibertsitate funtzionala duten ikasleak gizartean eta hezkuntzan txertatzeko oztopo nagusiak

Dibertsitate funtzionalaren eta hezkuntza-premia berezien esparruan kontsultatutako eragileek⁴⁸ hezkuntzaren berriazko eremuko 3 arazo nagusi nabarmentzen dituzte:

- hezkuntza-inklusioa bermatzen duten baliabide materialen gabezia
- ikastetxeetako harreman- eta sozializazio-alderdietako gabeziak, batez ere eskola-jolastokietan
- eta adin-arrakala bat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan hezkuntza-laguntzak arian-arian kentzearen poderioz areagotua

Hezkuntza-inklusioa bermatzeko baliabide materialen gabezia

Alde batetik, aitortzen den arren badirela hezkuntza-baliabideak kolektibo horrentzat, kasurik gehienetan defizitarioak direla adierazten da; izan ere, horien esleipena, normalean, «beherantz» egiten da, edo ez dira gauzatzen behar bezala. Alde horretatik, bereizi egin behar dira, batetik, desgaitasun finkatuagoak dituzten kolektiboak (horietan baliabide-aukera handiagoa ageri da, nahiz eta hobetzeko modukoak izan) eta, bestetik, desgaitasunik berrienak edo ezezagunenak, laguntza gutxiago dutenak. Alderdi horretan bereziki garrantzitsua da nahasmendu arraroak edo diagnostikatu gabeak dituzten seme-alabadun familiek bizi duten egoera, diagnostikorik ez izateak goitik behera baldintza baitezake hezkuntza-laguntza egokiak eskuratzeko bidea: «*Diagnostikorik eduki ezean, ez dizute ematen laguntzarik*». Horrek eragin handia du adingabe horien garapen akademikoan. Ikastetxeetan langile trebatuen falta ere aipatu dute familia horiek.

Era berean, ikastetxeetarako irisgarritasuna positiboki baloratzen da, baina nabarmentzen dute oraindik mugatuta jarraitzen duela zenbait kasutan; izan ere, kanpoko eraikuntza egokitu dute, baina ez barrualdeko zenbait eremutarako sarbidea —hala nola gimnasioak edo laborategiak—. Era berean, adierazi da ikastetxe batzuetan irisgarritasun-elementuak falta direla; esaterako, entzumen-urritasunak dituzten ikasleentzako argi-sirenak patioetan.

Eskolaz kanpoko jardueretan berdintasunez sartzeko aurreikusitako bitartekoak ere ez dira jotzen nahikotzat. Alde horretatik, batetik, baliabide eraginkorren gabeziak aipatzen dira (prestakuntza espezifikoa duten begiraleak, irisgarritasun-arazoak edo garraio egokitua) eta, bestetik, eskaintza inklusibo eta normalizatzailearen falta, jarduerak lehiakortasunean oinarritzeko joera baitute, eta horrek zaildu egiten du dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen sarbidea. Kasu askotan, faktore horien eraginez, «*haur askok baztertu egiten dute beren burua zuzenean, ez baitaukate bermerik jarduera berdintasunez egin ahal izateko*».

⁴⁸ Kontsultatutako erakundeak txosten honetako 1.3 metodologia-atalean zehazten dira.

Harreman- eta sozializazio-arazoak

Dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen integrazio erreala eta sozializazioa da kontsultatutako erakunde eta familiek adierazten duten bigarren alderdia —eta, batzuetan, elementu akademiko hutsak baino premiazkoagozat jotzen da—.

Erakunde batzuek azpimarratu dutenez, ikastetxe bat partekatze hutsak ez du esan nahi, halabeharrez, inklusioa denik *de facto*; izan ere, espazio bat partekatu arren, ez dira betetzen ikaskideen arteko sozializatorako baldintzak, eta ez da elkarrekintza sustatzen. Adierazi dutenez, ikasgela egonkorretako ikasleen esperientziek ez dute inolako harremanik gainerako ikaskideekin, edo, zenbaiten esanean, gainerako ikaskideek ez dute «inolako arrastorik» zer ote den desgaitasuna.

Horren ildotik, erakundeek nabarmendu dute eskola-jolastokietan (eta jantoki gisako beste gune batzuetan) inklusio falta nabari dela eta horrek sozializazio-arazoak sortzen dituela. Jolastokiak, «bizikidetzarako gune» gisa harturik, «esklusiboak» eta «eredu tradizionaletan» oinarrituak dira. Hortxe izaten dituzte zailtasun handienak desgaitasuna duten haur eta nerabeek, leku faltagatik, jolas-elementu inklusiborik ez dutelako (zabu egokituak, adibidez) edo jolas-aukera inklusiborik ez daukatelako (lehiatzekoekin alderatuta, futbolaren kasuan, adibidez). Gainera, beste alderdi batzuetan bezala, arazoak larritu egiten dira adinean aurrera egin ahala, eta ahozko erasoak edo eraso fisikoak gerta daitezke.

Hezkuntza-laguntzen adin-arrakala

Kontsultatutako erakundeen arabera, haur horien gizarteratzerik eta inklusiorik eza areagotu egiten da haurrak hazi ahala, eta benetako arazo bihurtzen da nerabezaroan. Egoera horri gehitu behar zaio hezkuntza-laguntzak arian-arian kendu egiten direla haurrak eta nerabeak Bigarren Hezkuntzara igarotzen direnean; izan ere, laguntza horiek ia ez dira existitzen Lanbide Heziketan eta unibertsitatean, eta horrek geldiarazi egiten du hezkuntza-sarbidea adin handiagoetan.

Gainera, kontsultatutako erakundeek eta familiek nabarmendu dutenez, ezintasunak dituzten haur eta nerabeen ibilbide akademikoek (curriculum-aniztasuna, gela egonkorra, zereginen ikaskuntza) euren hezkuntza-helburuak —eta, beraz, lanekoak— «galarazi» eta «mugatu» egiten dituzte Bigarren Hezkuntzatik aurrera, kasu askotan aurrez zehaztuta daudelako eta malgutasun gutxi dutelako, bereziki erasan kognitiboak dituzten ikasleen kasuan. Zenbait erakundek gaineratu dutenez, haur eta nerabeen hezkuntza-lorpenak ez dira aitortzen ofizialki curriculum-egokitzapenean; horrek are gehiago mugatzen du lan-merkatuan sartzeko bidea, eta ahultasun eta bazterketa-arrisku handiagora eramaten ditu.

Dena ez da, ordea, eskola-sistemari buruzko iritzi kritikoa. Kontsultatutako eragileek eredu inklusibo arrakastatsua ere aitortzen dituzte ikastetxe batzuetan —bereziki, San Martin ikastetxean—, eta, tamalez, ez daude hezkuntza-sareko gainerako ikastetxeetara hedatuta. Hala, berdintasunik ezak jarraitzen du.

7.10. Hautemandako beste arazo batzuk: hezkuntza-baliabiderik eza, elebitasunaren erronka eta eskola-jolastokiak

Aipatutakoez gainera, beste arazo edo iritzi batzuk ere sortu dira kontsultatutako guraso-taldearen aldetik. Jarraian aipatuko ditugu horiek guztiak.

Hezkuntza-baliabiderik eza

Kontsultan esku hartu duten gurasoen taldea kezkatuta dago desgaitasuna duten haurrei laguntzeko langileen murrizketekin, irizten baitiote ikasle guztiei egiten dietela kalte. Nabarmetzen dute, orobat, ez dagoela landa-ingurunerako baliabiderik, batez ere Bigarren Hezkuntzako ikasleek eskola-garraiorik ez izatea, kontuan izanik egunero joan behar dutela ikastetxera.

Elebitasunaren erronka

Kontsultatutako gurasoen taldeak «arazo handitzat» hartzen du elebitasuna, eta eskola-porrotaren kausatzat dute askotan, ez diolako Arabako errealitate soziolinguistikoari erantzuten eta aurrerapen akademiko egokia eragozten duelako. «Egundoko porrot» moduan kalifikatzen dute; izan ere, erakundeek inbertsio handia egin duten arren, irakas-hizkuntza gaztelania duten ikasleek edukia buruz ikasi baino ez dute egiten, eta ez dira gauza garatzeko. Kezkaturik agertzen dira, orobat, seme-alaben etorkizunarekin ere, ez baitute gaitasunik etxerako lanetan eta bestelako zereginetan laguntzeko, eta hezkuntza-sistemako hizkuntza-ereduetan oinarrituta azaltzen dute Gasteizen ikasle etorkinen segregazio handia.

Eskolako jolastokiak, gizarteratzeko gun e izatera bidean

Kontsultatutako guraso-taldeak oso positibotzat jotzen ditu guraso-elkarteak egiten ari diren urratsak, eskolako jolastokiak espazio inklusiboagoak izan daitezzen eta jolas-aukera eta -elementu gehiago eskain ditzaten. Haien ustean, Udalaren jarduera beharrezkoa da, ekimen horiei bultzada bat emateko.

8. kapitulua.

Osasun-egoera, bizi-gogobetetasuna, bizimoduak eta arriskuak

Atal honetan, Gasteizko haur eta nerabeen osasun- eta ongizate-egoera aztertzen da, Osasunaren Mundu Erakundeak 1946ko Gutun Konstituzionalean onetsiriko eredu biopsikosoziala oinarri hartuta. Eredu haren arabera, osasuna gaixotasunik edo afekziorik ez izatetik haratago doa, eta ongizate fisiko, psikologiko eta sozialeko egoera osotzat hartzen da. Proposamen horri jarraikiz, atal honetan Gasteizko haur eta nerabeen osasun-egoera, ongizatea eta bizitzarekiko gogobetetasuna aztertu dira lehenik eta behin; bigarrenik, haien bizimoduak eta osasunarekin eta ongizatearekin lotutako arrisku-faktoreak, eta, azkenik, COVID-19ak eragindako egoerak haien bizi-baldintzetan izan duen inpaktua.

Gasteizko haur eta nerabeen bizimoduak sakon ezagutzeak *ad hoc* gauzaturiko ikerketa soziologiko bat eskatuko zukeen arren, gaur egun badira makina bat azterlan, estatistika edo txosten esku-eskura, alderdi horien guztien gaineko ikuspegi orokorra lortzeko eta portaera eta jarrera horien azpian dauden arrisku-faktore nagusietako batzuk nabarmentzeko. Luze-zabal aritzeko asmorik gabe, diagnostiko hau osatzeko aztertu beharreko zatitugun eremuetako batzuk aurkeztuko ditugu jarraian.

8.1. Gasteizko 10 haur eta nerabetik 9k uste dute osasun ona edo bikaina daukatela

Oro har, esan daiteke **Gasteizko haur eta nerabeek oso modu positiboan baloratzen dutela beren osasun-egoera orokorra**. 102. orrialdean jasotako 45. grafikoan, Gasteizko haur eta nerabeen osasun-egoeraren balorazioaren banaketa aurkeztu da, inkestan ezarritako 4 kategorietan emandako erantzunak (bikaina, ona, hala-holakoa eta eskasa) oinarri hartuta. Emaitzek erakusten dutenez, **kontsultatutako adingabe eta nerabe gehienek oso osasun ona dutela uste dute**. Izan ere, Gasteizko 10 haur eta nerabetik 9k uste dute haien osasuna ona (% 49,1) edo bikaina (% 41,4) dela. **Bada % 10 inguruko gutxiengo bat, hala-holako osasuna (% 8,0) edo eskasa (% 1,6) duela uste duena**.

Bilakaerari dagokionez (45. grafikoa), beren osasun-egoera modu positiboan baloratzen dutenen proportzioa zertxobait jaitsi da 2017koarekin alderatuta. Dena den, kontuan hartu behar da aurreko edizioan ez zirela sartu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasleak, eta, txostenean aurrerago ikusiko dugunez, COVID-19ak izan dezakeen eraginaz haratago, 17 eta 18 urteko nerabeek osatutako kolektibo horrek autoebaluazio okerragoa egin zuen bere osasunaren gainean. Nolanahi ere, **hala-holako osasuna edo eskasa dutela uste dutenen proportzioa (% 9,6) Euskadi osoan 2018an erregistratutakoaren oso antzekoa da, eta Espainiakoa baino txikiagoa**. Hain zuzen ere, HBSC azterlanak —Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua hura ere— galdera hori bera jasotzen du, eta horrek aukera ematen du Gasteizko emaitzekin alderatzeko. Euskadiren kasuan, osasun-egoera hala-holakotzat edo eskastzat daukaten ikasleen proportzioa (% 9,5) gaur egun Gasteizen erregistratutakoaren oso antzekoa zen (% 9,6), baina Espainia osoan beren buruaren osasunaren gaineko autoebaluazio negatiboa duten ikasleen % 11,2aren azpitik dago.

Helduen eta adinekoen artean gertatzen den bezala, haurren eta nerabeen osasuna ere argi eta garbi baldintzatzen dute adinak eta sexuak. Gasteizko ikasleen osasunaren pertzepzio subjektiboari buruzko 40. taulan emandako emaitzen arabera, inkestan parte hartutako mutilek (% 94,6) hobeto baloratzen dute beren osasuna neskek baino (% 87,3), eta, beraz, nesken artean handiagoa da osasun orokorra hala-holaketat edo eskastzat jotzen dutenen proportzioa (% 12,7), mutilen artean erregistraturikoaren aldean (% 5,4). Adinaren arabera banakaturiko emaitzek ere adierazten dutenez, **osasun bikaina edo ona dutela uste duten nesken eta mutilen proportzioa murriztu egiten da adinak gora egin ahala**. Hain zuzen ere, 10 eta 12 urte bitarteko 2 haurretatik 1ek uste du bere osasuna bikaina dela (% 50,0); 13 eta 15 urte bitarteko artean, berriz, % 40,4 dira, eta 17 eta 18 urte bitarteko artean, azkenik, % 32,8. Inkestaren emaitzen arabera, baliteke norberaren osasunari buruzko balorazioa okerragoa izatea atzeritar jatorriko biztanleen artean, bai eta desgaitasunen bat edo osasun-arazo kronikoren bat edo iraupen luzeko osasun-arazoren bat dutenen artean ere.

8.2. % 25 eta % 30 inguruk gogo-aldarte baxua, suminkortasuna edo urduritasuna izaten dute gutxienez astean behin

Osasunaren autobalorazio subjektiboaz gain, azterketa honen esparruan beste galdera bat ere sartu zen ikasleei zuzenduriko inkestan, ondoez psikosomatikoarekin lotutako hainbat alderdiri lotuta. Gai horren gainean eskuratutako emaitzek erakusten dutenez, **norberaren osasunari buruzko pertzepzioa argi eta garbi positiboa izateaz gainera, badaude pertzepzio hori baldintza dezaketen beste ondoez edo inguruabar batzuk ere**. Hain justu ere, 46. grafikoan jasotako emaitzen arabera, inkestan parte hartu duten 10 ikasletik 3 urduri sentitu dira azken 6 hilabeteetan (% 29,0), eta 4tik 1ek suminkortasuna edo umore txarra (% 26,1), aldarte kaskarra (% 25,2) edo lo egiteko zailtasunak (% 25,1) izan ditu, egunero edo astean behin baino gehiagotan.


Aipatu dugun 2018ko HBSC azterketatik ateratako Euskal Autonomia Erkidego osoko ikasleei buruzko emaitzekin alderatuta, zertxobait handiagoa da azken 6 hilabeteetan horrelako egoerak sentitu dituztela adierazi duten ikasleen proportzioa, Gasteizko ikasleen artean. Kontuan izan behar da, hala ere, Euskadirako emaitzak 2018koak direla eta, kapitulu honetan zehar ikusiko dugunez, litekeena dela pandemiak adingabeen egoera emozional eta psikosomatikoari eragin izana.

Bada nabarmendu beharreko beste puntu bat: desparekotasun argiak daude ondoez psikosomatikoaren zantzu horien presentziari dagokionez, sexuaren, adinaren, jatorriaren eta desgaitasun-egoeren arabera. 41. taulan ikus daitekeenez, **kasu guztietan handiagoa da horrelako egoerak maizago bizitzen dituztela adierazten duten nesken proportzioa mutilena baino**, batez ere buruko eta bizkarreko ohiko mina —inkestan parte hartu duten mutilen % 6,6k eta nesken % 20,0k esan dute buruko mina sarri izan dutela— eta suminkortasuna edo jenio txarra —egoera horiek bizi izan dituzten nesken ehunekoak (% 34,4) bikoiztu egiten du mutilena (% 16,7)—. Adinean ere, nabarmenak dira aldeak, eta, oro har, **nerabeek zenbat eta adin handiagoa, orduan eta ondoez gehiago**. Nabarmendu behar da, halaber, horrelako ondoezak ohikoagoak direla atzeritar jatorriko biztanleen artean, bereziki suminkortasun-sentsazioarekin, gogo-aldarte kaskarrekin eta lo egiteko zailtasunekin lotutakoak —atzeritar jatorriko adingabeen % 31,9ri eragiten diete, eta bertakoen % 22,6ri ere bai—.


Era berean, eta logikoa denez, emaitza banakatuek erakusten dute desgaitasuna edo mugapen larria duten haur eta nerabeek gehiago bizitzen dituztela mota horretako egoerak; bereziki, urduritasun-egoerak (% 42,1ek, eta desgaitasunik ez dutenetako % 27k), gogo-aldarte kaskarra (% 39,8k eta % 23,0k, hurrenez hurren) eta suminkortasun- edo jenio txarreko egoerak (% 36,8k eta desgaitasunik ez dutenetako % 24,6k).

HAUREN ETA NERABEEN OSASUNAREN AUTOBALORAZIOA

45. grafikoa. Osasunaren autobalorazioa Gasteizko haur eta nerabeen artean (%). 2017-2021



46. grafikoa. Hainbat gaitzen maiztasuna Gasteizko haur eta nerabeen artean, azken 6 hilabeteetan (%). 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

40. taula. Osasunaren autobalorazioa Gasteizko haur eta nerabeen artean, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Bikaina	Ona	Hala-holakoa	Eskasa	Guztira	Bikaina edo ona	Hala-holakoa edo eskasa
Generoa							
Neskak	35,0	52,3	10,5	2,2	100,0	87,3	12,7
Mutilak	47,8	46,8	4,9	0,4	100,0	94,6	5,4
Bietako bat ere ez*	40,5	24,2	21,8	13,5	100,0	64,7	35,3
Adina							
10-12 urte	50,0	43,1	6,1	0,8	100,0	93,1	6,9
13-15 urte	40,4	49,2	7,8	2,6	100,0	89,6	10,4
16-18 urte	32,8	55,5	10,2	1,5	100,0	88,3	11,7
Jatorria							
Bertakoa	41,9	50,0	6,6	1,5	100,0	91,9	8,1
Atzerritarra	40,0	46,6	11,6	1,8	100,0	86,6	13,4
Desgaitasuna							
Bai	23,7	54,9	18,4	3,0	100,0	78,6	21,4
Ez	44,1	48,2	6,4	1,4	100,0	92,2	7,8
Guztira	41,4	49,1	8,0	1,6	100,0	90,4	9,6

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

41. taula. Azken 6 hilabeteetan Gasteizko haur eta nerabeek hainbat gaitz gutxienez astean behin sentitu izanaren esperientzia, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Buruko mina	Tripako mina	Bizkarreko mina	Gogo-aldarte kaskarra	Suminkortasuna edo jenio txarra	Urdukitasuna	Lo egiteko zailtasunak
Generoa							
Neskak	20,0	9,6	23,1	30,7	34,4	36,0	28,6
Mutilak	6,6	5,6	11,4	18,5	16,7	21,4	20,4
Bietako bat ere ez*	24,9	31,0	32,6	51,5	53,4	43,0	55,5
Adina							
10-12 urte	9,3	7,7	10,8	16,9	17,3	22,4	21,6
13-15 urte	16,6	9,5	19,3	28,5	33,3	32,7	26,9
16-18 urte	15,4	7,3	23,5	31,2	29,2	32,9	27,3
Jatorria							
Bertakoa	12,5	7,8	16,2	22,1	23,0	27,7	22,6
Atzerritarra	16,4	8,7	21,3	33,2	34,4	32,5	31,9
Desgaitasuna							
Bai	28,4	12,7	31,1	39,8	36,8	42,1	36,7
Ez	11,3	7,4	15,5	23,0	24,6	27,0	23,4
Guztira	13,6	8,1	17,6	25,2	26,1	29,0	25,1

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

8.3. Bizitzaren hasierako hilkortasun-adierazleen egonkortasuna eta istripuen prebalentzia txikiagoa da Euskadi osoan baino

Atal honetan, haur eta nerabeek beren osasun-egoerari buruz duten pertzepzio subjektiboaren inguruko ikuspegia, azterketa honetarako *ad hoc* egindako inkestaren emaitzetan oinarritua, osatu egin da, hainbat estatistika-iturritatik eskuratutako zenbait adierazleren analisiarekin.

- **Hilkortasunaren intzidentzia oso txikia da bizitzaren hasieran, eta Arabakoa Euskadikoa baino txikiagoa.** Urtebetetik beherako heriotzei eta jaiotza-inguruko heriotzei buruzko datuak⁴⁹ nahiko egonkorak izan dira azken hamarkadan. Hain justu ere, azken 10 urteetan urtebetetik beherako heriotza-kopurua 5 eta 11 artekoa izan da Arabako lurralde historikoan. Zehazki, 2019ko azken urtean urtebetetik beherako 6 adingabe hil dira Araban; hau da, 2018an baino 5 gutxiago. Eustaten Heriotzen Estatistikak emandako datuen arabera⁵⁰, 2019an Araban erregistratutako haurren heriotza-tasa 1,5ekoa da urtebete baino gutxiagoko 1.000 adingabeko. Hori horrela, Arabako tasa txikiagoa da Bizkaian (2,8 milako), Gipuzkoan (2,2 milako) eta Euskadi osoan (2,4 urtebetetik beherako mila umeko) erregistratutakoa baino. Jaioberrien heriotza-tasa⁵¹ ere txikiagoa da lurralde horretan (1,56 mila jaiotzako Araban, eta Euskadin 2,08). Jaiotza inguruko heriotzen kopuruari dagokionez (17 izan ziren 2019an), azken hamarkadako intzidentzia aldatu egin da, 13 eta 23 heriotza artean erregistratu dira. Azkenik, 2019an erregistratu zuen Arabak 5 urtetik beherako heriotza-tasarik txikiena (2,34 milako) 2010az geroztik, EAE osorako erregistratutakoaren azpitik (3,57 milako).
- **Erditzeen ezaugarrietan ez da izan aldaketa nabarmenik.** Maturitateari, jaiotako haurren batez besteko pisuari (gramotan) eta erditze anizkoitzen prebalentziari buruzko datuek ez dute adierazten aldaketa nabarmenik azken urteotan. Erditze goiztiarren ehunekoa, guztizkoaren aldean, % 5 eta % 6 artekoa izan da azken hamarkadan. 2019an 45 erditze anizkoitz izan ziren, azken hamarkadan erregistratutako 60-70 erditzeak baino gutxiago. Izan ere, haien pisu erlatiboa lehen aldiz jaitsi da % 2tik (guztizkoarekin alderatuta), eta lurraldean izandako erditze guztien % 1,8 dira. Ikusitako aldaketa nagusietako bat amen adinarekin dago lotuta, eta, bereziki, 45 urte eta gehiagoko emakumeen jaiotzen gorakadarekin. Izan ere, 2006an jaiotza guztien % 0,4 baino ez ziren Araban, 2015ean % 0,9 eta 2019an, azkenik, % 0,7. 45 urte edo gehiagoko 1.000 emakumeko jaiotza-tasa 0,21ekoa da, Euskadi osokoaren oso antzekoa (milako 0,19koa). Oro har, amatasunaren batez besteko adina 32,6 urte inguruan mantendu da Araban 2015-2016az geroztik.
- **Haurren suizidio-tasa beste bi lurralde historikoetan baino handixeagoa da.** 2019an, 19 urte edo gutxiagoko 4 pertsonak egin zuten beren buruz beste Euskadin, eta horietako 1 Araban gertatu zen. Alderatatutako kopurutan, kausa horrek eraginda Arabak 0,16ko heriotza-tasa izan zuen 2019an, 19 urte edo gutxiagoko 10.000 biztanleko. Lurralde horretako suizidioagatik heriotza-tasa handiagoa da Bizkaikoa (19 urte edo gutxiagoko 10.000 biztanleko 0,10ekoa) eta Gipuzkoakoa (0,07koa) baino.
- **Istripuen prebalentzia txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidego osoan baino.** 2013 eta 2018 bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestaren datuek ez dute erakusten aldaketa garrantzitsurik 14 urtetik beherako artean nahita eragin gabeko lesioen prebalentziari dagokionez, ez Euskadi osoan, ez Araban. 2018an, istripuen prebalentzia % 7,8koa zen lurralde horretako 14 urtetik beherako biztanleen artean; hau da, 2013an erregistratutakoaren (% 7,1aren) oso antzekoa eta Euskadi osokoa (% 10,8koa izan zen 2018an) baino txikiagoa. Inkesta horren emaitzen arabera, honela banatzen dira istripuak gertatu ziren tokiak: kalea, saltokiak, bankuak, tabernak, parkeak eta halako toki publikoak (% 45,6); jolaserako edo kirolerako lekuak (% 39,1); ikastetxeak (% 13,5), eta, azkenik, etxea (% 1,8). Istripu guztien artean, % 45,1 lurzoru-mailan erori izanagatik

⁴⁹ Jaiotza-inguruko heriotza esaten zaio erditzearen aurreko edo ondorengo edozein unetan bizitza-zantzu oro behin betiko desagertzeari, betiere haurdunaldiko 22. astearen, edo 500 gramotik gorako pisuaren, eta bizitzako lehen 7 egunen barruan gertatzen bada.

⁵⁰ Urtebetetik beherako 1.000 haurren heriotza-tasak urtebetetik beherako adingabeen heriotza-kopurua jasotzen du, urtebetetik beherako guztizko biztanleriaren gainean.

⁵¹ Jaioberrien heriotza-tasa: 28 egunetik beherako haurren heriotzak, 1.000 jaiotzako.

gertatu ziren, % 27,1 talken edo kolpeen ondorioz, % 26,0 maila desberdinetatik erortzeagatik eta % 1,8, azkenik, objektu zorrotzek eraginda.

Bestalde, Segurtasun Sailak egindako Euskadiko Trafiko Istripuen Estatistikak emandako datuen arabera, azken hamarkadan asko murriztu da hildakoak eragin dituzten istripuen tasa, hala herritar guztien artean nola adingabeen artean —eta bereziki azken horietan—. Estatistika horren datuei jarraikiz, 2 urtez jarraian adingabeko hildakorik egon gabe, 2019an 14 eta 24 urte bitarteko pertsona bakarra hil zen Arabako lurralde historikoan.

8.4. 18 urtetik beherakoen ia % 1,5ek dauka desgaitasuna aitortuta

Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen azken datuen arabera, 2020. urtearen amaieran Araban 851 haur eta nerabe zeuden % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta. Horietatik guztietatik, % 66 mutilak dira, eta gehienek (% 74k) % 64tik beherako desgaitasun-maila dute. 2016 eta 2020 artean, igo egin da desgaitasuna duten 18 urtetik beherako pertsonen kopurua: 711 izatetik 851 izatera. Araban bizi diren adingabe guztiak kontuan hartuta, desgaitasuna duten haur eta nerabeen tasa 2016an % 1,26koa izatetik 2020an % 1,46koa izatera igaro da. Arabako tasa (% 1,41ekoa, 2019an) eta gainerako lurralde historikoetakoa alderatuz gero, ikusiko dugu lurralde hori Bizkaiaren (% 1,73) eta Gipuzkoaren (% 0,97) artean ageri dela.

Halaber, 2020an, Araban 597 haur eta nerabek zuten mendekotasun-mailaren bat aitortuta. Horien guztien % 68 haurrak dira, % 33k I. gradua du eta % 45ek eta % 22k II. eta III. graduak, hurrenez hurren. 2016 eta 2020 artean, egonkor samar mantendu da mendekotasuna duten adingabeen tasa, % 1 inguruan (2020an % 1,02koa da). Ikuspegi konparatutik, 2019an, Arabako tasa (% 1,41) berriz ere Bizkaiko tasaren (% 1,23) eta Gipuzkoakoaren (% 0,74) artean dago.

Dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen bizitzako osasun-esparruari buruz galdetu zaien erakundeek eta familiek adierazi dutenez, ez dago espezialisten arteko koordinaziorik, eta familiei ez zaie ematen informaziorik; ondorioz, batzuetan gainez egiten dute, egoera dela eta. Halaber, aipatu dute osasun-arloko profesionalak prestatzeko eta sentsibilizatzeko beharra sumatzen dutela familiei haurren egoerari buruzko informazioa ematerakoan. Bereizki azpimarratzen da familientzako laguntza psikologikorik eza, eta, salatu dutenez, «ez da zaintzailea zaintzen». Horrek, haien esanetan, kostu emozional handiko egoerak eragiten ditu, eta familia zaintzaileko kideen artean gaixotasun mentalak eta seme-alabengan kalteak eragin ditzakete.

Arreta goiztiarreko baliabideak batzuetan ez dira jotzen nahikotzat, eta halakorik ez izateak ondorio handiak izan ditzake tratamendu-urteak galarazten zaizkien haur horiengan. Bestalde, diagnostikorik ez duten eta gutxi edo batere ez ezagutzen diren desgaitasunetan (adibidez, hizkuntzaren nahaste espezifikoan edo loaren uhin jarraituaren puntan), oro har, ez dago batere laguntzarik eta baliabiderik osasun-sistema publikoan. Horrek esan nahi du ahultasun handiagoa duten familiek zailtasun nabariagoak dituztela osasun-sistema publikoak estaltzen ez dituen terapiak eta tratamenduak eskuratzeko. Auzi horri buruz galdetu zaien familia batzuek salatu dutenez, urteak daramatzate sistema publikoan eta pribatuan diagnostiko eta tratamendu egokia lortzeko bidean, eta horrek kostu ekonomiko eta pertsonal handia eragiten die.

8.5. Bizitzarekiko gogobetetze-mailak altua izaten jarraitzen du, baina apur bat jaitsi da 4 urte hauetan

Lortutako emaitzek erakusten dutenez (47. grafikoa), **kontsultatutako haur eta nerabeen bizitzarekiko gogobetetze-maila, oro har, oso handia da pandemiaren ondoren.** Otik 10era bitarteko eskala batean (0k izan litekeen bizitzarik eskasena adierazten du, eta 10ek, berriz, onena), lortutako batez besteko puntuazioa 7,33koa da; hau da, oso ona. Izan ere, jasotako puntuazioen banaketa kontuan hartuz gero, ikasleen erdiak inguru (% 51,4) 3 puntuaziorik handienetan kokatzen dira (8an, 9an eta 10ean). Bestalde, zati txiki batek bakarrik baloratzen du puntuaziorik baxuenekin bizi-gogobetetasuna: % 15,1ek soilik erantzun dio galdera horri Otik 5era bitarteko puntuazioarekin.

Datuak alderatuz, aipatutako bi galderen emaitzek adierazten dutenez, **haurrek eta nerabeek beren bizitzarekiko duten gogobetetze-mailak okerrera egin du, zertxobait, 2017ko egoerarekin alderatuta.** Bizi-asebetetzearen mailarekiko batez besteko puntuazioa 8,0 zen 2017an, eta, gaur egun, aldiz, 7,3 da. Hain zuzen ere, Otik 10era bitarteko eskalan Otik 5era bitarteko puntuazioa eman dutenen proportzioa % 6,9koa zen 2017an, eta gaur egun % 15,1ekoa da. **Beherakada txiki hori gorabehera, 2 galderen pandemia aurreko eta osteko emaitzen konparazioak erakusten du adingabeen bizi-gogobetetasuna hobetu egin dela apur bat.** Pandemia aurreko bizi-gogobetetasunari dagokionez, batez besteko puntuazioa 7,1ekoa zen, eta gaur egun 7,3koa da. Bestela esanda, gaur egun haur eta nerabeen % 15,1ek ematen ditu 5 puntu baino gutxiago, eta ehuneko hori % 20,7koa zen pandemia baino lehen. Era berean, gaur egun haur eta nerabeen erdiek inguruk adierazten dutenez, bizitzarekiko gogobetetze-maila handia dute (8-10 puntu); aldiz, ehuneko hori zertxobait txikiagoa zen pandemia baino lehen (% 48,7koa); bi kasuotan, ehunekoa urrun samar dago 2017an lortutako % 67,5etik.

Nolanahi ere, pandemiaren haratago, lurraldeen arteko konparazioak erakusten du Gasteizko ikasleen bizitzarekiko gogobetetze-mailaren emaitzak hobeagoak direla Euskadi osoan eta Espainiakoak baino. Hain zuzen ere, Gasteizen 5 puntu edo gutxiago lortu dituzten haur eta nerabeen proportzioa (% 6,9koa) txikiagoa da 2018an Euskadi osoan (% 8,4) eta Espainian (% 9,2) lortutakoak baino.


Gogobetetze-mailari buruz jasotako erantzunak oso lotuta daude aztertutako oinarrizko aldagai soziodemografikoekin (42. taula). Oro har, mutilek neskek baino gogobetetasun handiagoa ageri dute (nahiz eta kasu honetan aldeak txikiak izan), eta zertxobait handiagoak dira adin txikiagoko (10 eta 12 urte bitarteko) eta bertan jaiotako haurren batezbestekoak ere. Alde horiek argi eta garbi ikusten dira, gogobetetze-pertzepzio handi edo oso handien aurrean asebetetze-indize neurritsuak edo, are gehiago, asegabatasun-indize argiak dituzten adingabeak kontuan hartzean (0 eta 6 arteko puntuazioak). Hain pozik ez dauden haurrak, beraz, % 34,8 dira 16 eta 18 urte bitartekoen artean, eta % 28,8 13 eta 15 urte bitartekoen artean. Atzeritar jatorriko adingabeen kasuan, % 35,8koa da kopurua, bertakoena baino ehuneko 13 puntu handiagoa.

Osasunaren balorazio subjektiboaren eta bizitzarekiko gogobetetasunaren arteko doikuntza-maila ere handia da, 42. taulan ikus daitekeenez. Beren osasuna bikaintzat jotzen duten haur eta nerabeen artean, % 43,9k bizitzarekiko gogobetetze-maila oso handia dute (9 eta 10eko puntuazioak); aldiz, beren osasuna hala-holakoa edo eskasa dela uste dutenek gogobetetze-maila neurritsuagoa eta asegabatasun-maila handiagoa dute (% 65,1ek).

Azkenik, emaitzek erlazio nahiko argia erakusten dute, halaber, bizi-gogobetetasun txikiagoa izatearen —pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta— eta adinaren eta norberak hautemandako osasun-egoeraren artean. Zehazki, garbi geratu da azken urte honetan bizitzarekiko gogobetetzeak okerrera egin duela uste dutenen proportzioak gora egiten duela adinarekin, eta handiagoa dela, halaber, beren osasun-egoera modurik negatiboenean hautematen dutenen artean.

HAURREN ETA NERABEEN BIZITZAREKIKO GOGOBETETASUNA

47. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeen bizi-gogobetetasunaren maila COVID-19aren pandemiaren aurretik eta ondoren (%). 2017-2020-2021



Oharra: grafikoa «Zein lekutan sentitzen duzu zaudela zure bizitzako une honetan?» galderari emandako erantzunen banaketa jaso da. Horretarako, eskala bat erabili da, eta, eskala horretan, 10ek ahalik eta bizitzarik onena adierazten du, eta 0k, berriz, bizitzarik okerrena.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2017-2020).

42. taula. Gasteizko haur eta nerabeen bizi-gogobetetasun maila, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Gogobetetze oso handia (9-10)	Gogobetetasun nabarmena (7-8)	Gogobetetze neurritsua eta asegabetasuna (0-6)	Ertaina
Generoa				
Neskak	22,9	47,7	29,5	7,15
Mutilak	28,6	49,7	21,7	7,55
Bietako bat ere ez	13,5	31,4	55,1	6,35
Adina				
10-12 urte	43,9	40,0	16,1	8,02
13-15 urte	18,6	52,6	28,8	7,12
16-18 urte	11,7	53,5	34,8	6,78
Jatorria				
Bertakoa	26,5	51,0	22,5	7,45
Atzerritarra	22,8	41,4	35,8	7,03
Desgaitasuna				
Bai	19,9	38,9	41,2	6,83
Ez	26,3	49,8	23,9	7,41
Osasuna				
Bikaina	43,9	45,0	11,1	8,18
Ona	13,8	55,0	31,2	7,01
Hala-holakoa edo eskasa	6,4	28,5	65,1	5,35
Guztira	25,5	48,3	26,2	7,33

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,001$ erako Khi-karratuaren probaren arabera, gogobetetze-maila oso handia dutenen (9-10) eta gainerakoen arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

43. taula. Gasteizko haur eta nerabeen bizi-gogobetetasunaren mailaren aldaketa COVID-19aren pandemiaren aurretik eta ondoren, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Okerrera egin du	Berdin jarraitzen du	Hobera egin du
Generoa			
Neskak	35,4	27,4	37,2
Mutilak	27,9	32,4	39,7
Bietako bat ere ez	45,8	16,5	37,7
Adina			
10-12 urte	23,5	38,5	38,0
13-15 urte	34,7	26,9	38,4
16-18 urte	38,4	22,5	39,1
Jatorria			
Bertakoa	31,6	29,4	39,0
Atzerritarra	32,7	30,3	37,0
Desgaitasuna			
Bai	31,6	26,7	41,7
Ez	32,0	30,1	38,0
Osasuna			
Bikaina	23,1	38,9	38,0
Ona	35,8	23,4	40,8
Hala-holakoa edo eskasa	49,0	22,6	28,5
Guztira	31,9	29,6	38,5

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,001$ erako Khi-karratuaren probaren arabera, gogobetetzeak okerrera egin duela uste dutenen eta gainerakoen arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

8.6. Pandemiaren inpaktua: 10 haur eta nerabetik 2k uste dute okerrera egin duela haien osasun fisikoak, eta % 35,2k aldarte okerragoa dutela pandemiaren aurretik baino

Txosten honen 2. kapituluaren garatu den esku hartzeko esparruan azalduenez, COVID-19 gaixotasunaren ondoriozko pandemiak eta horrek ekarri duen egoerak aurrekaririk gabeko testuingurua sortu dute, eta eraginak izan dituzte dimentsio ugarietan, hala nola ekonomian, gizartean, hezkuntzan eta osasun fisiko eta mentalean, besteak beste. Egia da, hala ere, orain arte haurrak eta nerabeak ez direla izan kutsatze-kopuruaren intzidentziak gehien kaltetutako populazio-taldea, eta ez dituztela izan, orobat, gaixotasunaren ondoriozko konplikazio-kantitate handienak eta gaixotasunari lotutako hilkortasunik handienak. Hori hala izanik ere, etxeko konfinamendu-fasean bizitako egoerak, ikastetxeetara itzultzeak, ezarritako murrizketek eta aldi horretan hartutako neurriek baliteke inpakturik eragin izana, bai eta ondoriorik ere haien osasunean, ongizatean eta bizi-baldintzetan.

Atal honetan, haurren eta nerabeen ikuspegitik aztertu nahi dira ondorio horiek, haien iritzien eta usteen bidez. Horretarako, azterlan diagnostiko honen esparruan zenbait galdera jaso ziren Gasteizko haur eta nerabeei zuzendutako galde-sortan, helburu gisa harturik osasun fisikoan eta gogo-aldartean izaniko eragina neurtzea —gutxi gorabehera—, baina baita pandemiarekin lotutako hainbat arriskuri buruzko kezka-maila eta azken hilabeteetan hartutako hainbat neurriren balorazioa ere. Jarraian, galdera horien emaitzak azalduko ditugu.

Lehenik eta behin, deigarria da Gasteizko haur eta neraberik gehienek pentsatzea COVID-19aren ondorioz bizitako egoerak ez duela aldatu ez haien osasun fisikoa (% 34,5ek), ez aldarte (% 30,5ek) (48. grafikoa). Izan ere, osasun fisikoaren gaineko inpaktuaren kasuan, pandemiak osasun fisikoaren egoera pixka bat edo asko hobetu duela uste duten haur eta nerabeen proportzioa (% 44,5) okerrera egin duela uste dutenena (% 20,9) halako bi da. Litekeena da landa-lana egiteko aukeratutako aldiak nolabait ere baldintzatu izana jasotako erantzunak, kontuan izanik amaitu zela etxeko konfinamendu-aldia eta berriro ekin zitzaizela aurrez aurreko eskolei. Nolanahi ere, **ikuspegi baikorretik haratago, aipatu behar da 10 haur eta nerabetik 2k uste dutela beren osasun fisikoak okerrera egin duela (% 20,9k), eta % 35,2k uste dutela beren gogo-aldartearen pandemiaren aurretik baino okerragoa dela gaur egun** (48. grafikoa).

Alde batetik, osasun fisikoaren kasuan, apur bat edo asko okerrera egin duela uste dutenen proportzioa handiagoa da adinak gora egin ahala eta osasunari buruzko pertzepzioa okerragoa den heinean (44. taula). Hain zuzen ere, 13 eta 15 urte arteko (% 25,3) eta 16 eta 18 urte arteko (% 25,4) 4 neska-mutiletatik 1ek uste du okerrera egin duela haien osasun fisikoak. Proportzio hori beren osasuna hala-holakotzat edo eskastzat dutenen ia erdira iristen da (% 46,0). Bestalde, gogo-aldartearen kaskartzen ikusi dutenen proportzioa handiagoa da nesken artean (% 42,4) mutilen artean baino (% 27,4), adinean gora egin ahala (% 44,0 16 eta 18 urte artekoen artean), desgaitasuna duten neska-mutilen artean (% 47,4), eta osasun-egoera orokorraren autobalorazioa okerragoa den heinean (hala-holako osasuna edo eskasa duten 10etik 6k uste dute okerrera egin duela haien gogo-aldarteak).

Pandemian zehar bizi izandako egoerak herritarren osasunean eta animoan izan duen eraginaz gainera, badira haurren eta nerabeen artean kezka eragin duten beste egoera batzuk ere (49. grafikoa). Hain justu, **10 haur eta nerabetatik 6k adierazi dute inkesta egin aurreko 30 egunetan nahiko edo oso kezkatuta egon direla beren familiako norbait, lagun bat edo gertuko norbait COVID-19ak jota hil ote daitekeen (% 58,4), COVID-19aren aurreko egoerara itzultzeko falta den denboragatik (% 61,1) eta beren familiako norbait, lagun bat edo gertuko norbait COVID-19arekin kutsatzeko arriskuagatik (% 9,0)**. Era berean, erdiak baino gehixeago kezkatuta daude datozen hilabeteetan zer gertatuko den ez dakitelako (% 54,2). Era berean, inkestatuen % 43,3k erantzun du kezkatuta dagoela beste pertsona bat COVID-19az kutsatzeko aukerarekin, eta, azkenik, % 28,9 norbera kutsatzeko aukerarekin (49. grafikoa).

Inkestan planteatutako egoera bakoitzarekiko kezka handia⁵² erakusten duten haur eta nerabeen proportzioa, kasu guztietan, handiagoa da nesketan mutiletan baino (44. taula). Etorkizunari buruzko ziurgabetasunari dagokionez —hau da, COVID-19aren aurreko egoerara itzultzeko geratzen den denboraz—, handitu egin da nahiko kezkatuta edo oso kezkatuta sentitzen direla erantzun dutenen proportzioa, mutilen eta nesken adinak gora egin ahala eta hautemandako osasun-egoera zenbat eta okerragoa izan. Era berean, aipatu behar da bertako biztanleen artean handiagoa dela beren familiako, lagunarteko edo ingurunekeo norbait kutsa ote daitekeen kezkatuak daudenen proportzioa atzeritarren artean baino, bai eta haien osasuna bikaintzat jotzen ez dutenen artean ere (44. taula).

Azkenik, esan daiteke inkestan parte hartu duten haur eta nerabeak bat datozela, oro har, COVID-19aren pandemiagatik harturiko neurriekin (50. grafikoa).

Lehenik eta behin, **10 haur eta nerabetik 7k uste dute norbera babesteko neurriak hartzea** (maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, distantzia zaintzea eta abar) **lagungarria izan daitekeela pertsonen osasuna babesteko** (% 70,8k).

Bigarrenik, **10 parte-hartzailetik 6k erantzun dute bete dituztela pandemian zehar hartutako gomendio eta neurri guztiak** (% 60,8).

Hirugarrenik, **Gasteizko haur eta nerabeen erdiek inguruk uste dute beren ikastetxean ari direla betetzen COVID-19aren aurka babesteko neurriak**, ikasgelak aireztatzearen, sartzean tenperatura neurtzearen eta distantzia fisikoaren bidez, besteak beste (% 48,4k).


Azkenik, bai haurrak eta nerabeak COVID-19tik babesteko, bai, oro har, birusaren hedapena murrizten laguntzeko Gasteiz hirian hartutako neurriei dagokienez, ez dago jarrera orokor argirik: erdiek baino gehiagok erantzun dute ez daudela ez ados ez desados auzi horren gainean planteatutako baieztapenekin. Hala ere, horrek ez du esan nahi balorazioa negatiboa denik. Izan ere, **% 19,4k bakarrik ageri du desadostasuna Gasteizko haurrak eta nerabeak COVID-19tik babesteko behar adina neurri hartu direla dioen baieztapenarekin, eta % 17,8 ez dago ados hirian hartutako neurriek COVID-19aren hedapena murrizten lagundu izanarekin.**

Txikia da inkestan planteatutako baieztapenekin ados ez dauden haur eta nerabeen kopurua, alegia uste dutenena hartutako neurriak eskasak, desagokiak edo beste mota bateko neurriekin osatu beharrekoak izan direla. Hala ere, desadostasuna agertzen dutenen proportzioa handixeagoa da zenbait taldetan (45. taula). Oro har, adinean aurrera egin ahala gora egiten du pandemian zehar hartutako neurriei buruz planteatutako baieztapen bakoitzarekiko desadostasun-mailak.

⁵² Ikasle horiek inkestan erantzun dute nahiko edo oso kezkatuta egon direla arrazoi horregatik inkesta egin baino lehenagoko 30 egunetan.


COVID-19AREN ONDORIOAK ETA HARTUTAKO NEURRIEI BURUZKO IRITZIA (I)

48. grafikoa. COVID-19aren inpaktua haurren eta nerabeen osasun fisikoan eta aldarlean, Gasteizen. 2021




Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

49. grafikoa. COVID-19arekin lotutako hainbat alderdiren inguruko kezka-maila haur eta nerabeen artean, Gasteizen. 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

50. grafikoa. COVID-19aren pandemiaren aurrean haur eta nerabeek Gasteizen hartutako hainbat neurriekin agerturiko adostasun-maila. 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

COVID-19AREN ONDORIOAK ETA HARTUTAKO NEURRIEI BURUZKO IRITZIA (II)**44. taula. COVID-19aren pandemiaren ondorioz osasunean eta ongizatean hainbat ondorio izan dituzten Gasteizko haur eta nerabeen proportzioa, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021**

	Pixka bat edo asko okertu da		Nahiko edo oso kezkatuta azken 30 egunetan					
	Nire osasun fisikoa	Nire gogoardatea	COVID-19arekin kutsatzeko aukera	Beste inor COVID-19arekin kutsatzeko aukera	Nire familiako norbaitek, lagun batek edo gertuko norbaitek COVID-19a hartzeko aukera	Nire familiako norbait, lagun bat edo gertuko norbait COVID-19ak jota hiltzeko aukera	COVID-19aren aurreko egoerara itzultzeko geratzen den denbora	Datozen hilabeteetan zer gertatuko den ez jakitea (etorkizunarekiko ziurgabetasuna)
Generoa								
Neskak	22,0	42,4	33,7	50,1	67,5	65,3	70,4	67,6
Mutilak	20,0	27,4	24,1	36,7	50,4	52,3	52,3	41,4
Bietako bat ere ez	16,9	45,8	28,5	37,2	53,7	36,2	44,0	32,4
Adina								
10 eta 12 artean	13,2	23,6	31,7	42,0	58,9	60,3	55,4	50,1
13 eta 15 artean	25,3	39,1	26,5	42,8	57,9	58,6	60,5	52,2
16 eta 18 artean	25,4	44,0	28,0	45,4	60,0	56,3	67,5	60,2
Jatorria								
Bertakoa	20,8	34,5	30,2	45,7	60,2	61,3	62,8	55,4
Atzerritarra	21,3	36,9	25,5	37,5	55,7	51,0	56,6	51,0
Desgaitasuna								
Bai	28,1	47,4	24,7	46,7	58,4	59,1	59,8	53,3
Ez	19,9	33,4	29,5	42,9	59,1	58,3	61,3	54,3
Osasuna								
Bikaina	12,7	20,5	27,1	39,1	52,4	55,2	55,4	48,6
Ona	22,8	42,4	29,9	46,5	64,4	61,6	64,6	57,9
Hala-holakoa edo eskasa	46,0	60,6	31,8	45,6	59,5	55,5	67,1	58,2
Guztira	20,9	35,2	28,9	43,4	59,0	58,4	61,1	54,2

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.
Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

45. taula. Pandemiaren hartutako neurriekin ados ez dauden Gasteizko haur eta nerabeen proportzioa, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Uste dut nire hirian hartutako neurriak lagundu dutela COVID-19aren hedapena murrizten	Uste dut behar beste neurri hartu direla Gasteizko haurrak eta nerabeak COVID-19tik babesteko	Bete ditut pandemiaren zehar hartu diren gomendioak eta neurri guztiak	Uste dut nire ikastetxean ari direla betetzen COVID-19tik babesteko neurriak (aireztapena, tenperatura hartzea, distantzia)	Uste dut lagungarria izan daitekeela norbera babesteko neurriak hartzea (maskara, eskuak garbitzea, distantzia mantentzea) pertsonen osasuna babesteko
Generoa					
Neskak	15,6	20,3	7,6	13,8	3,4
Mutilak	19,5	18,0	12,1	14,7	6,2
Bietako bat ere ez	29,7	34,5	36,5	35,5	29,7
Adina					
10 eta 12 artean	10,2	11,4	5,3	8,5	4,1
13 eta 15 artean	14,7	15,5	12,9	19,1	3,4
16 eta 18 artean	28,6	31,6	13,5	17,4	8,2
Jatorria					
Bertakoa	17,3	18,8	10,5	15,5	3,6
Atzerritarra	19,0	21,0	10,0	12,6	9,7
Desgaitasuna					
Bai	17,2	19,5	11,7	14,8	3,6
Ez	17,9	19,4	10,1	14,7	5,5
Guztira	17,8	19,4	10,3	14,7	5,3

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.
Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

8.7. Haurren obesitate-tasak gora egin du, baina elikadura-ohiturek hobera egin dute

Azken urteotan antzeman den behar nagusietako bat elikadura-ohiturekin eta haurtzaroko eta nerabezaroko nutrizioaren kalitatearekin dago lotuta. Deskribatutakoaren arabera, ezinbestekoa da elikadura-ohiturak, higiene-ohiturak eta bizimodu osasungarriak bizitzako lehen urteetan integratzea haurren eguneroko ohituretan, finkatu eta helduarora arte jarrai dezaten. Horregatik, oso garrantzitsua da orientazio egokia eskaintzea haurrei eta haien hezkuntzan eta zaintzan esku hartzen duten eragileei (familia, irakasleak eta abar), ohitura osasungarriak ikas ditzaten sustatzeko.

Esparru hori aztertzean, haurren obesitatearekin eta gehiegizko pisuarekin zerikusia duen adierazlea da ohikoenetako bat. 2017ko Osasun Inkesta Nazionalak emandako datuen arabera⁵³, **Euskadin haurren obesitatearen intzidentzia 2 eta 17 urte bitarteko biztanleriaren % 11,1era iritsi da, eta gehiegizko pisua, berriz, biztanle horien % 13,6ra**⁵⁴. Aurreko edizioetako emaitzekin alderatuta, **obesitate-tasak gora egin du pixkanaka: 2006ko % 5,1etik 2012ko % 6,9ra eta 2017ko % 11,1era**. Espainia osoan ere gora egin du, hein txikiagoan bada ere: % 9,6tik % 10,3ra igo da 2012 eta 2017 bitartean. Berriki egindako ALADINO azterketaren arabera⁵⁵, behatutako 19 ikasle espainiarretatik 4k (% 40,6k) pisu handiegia dute: % 23,3k gehiegizko pisua eta % 17,3k obesitatea. Txosten horren arabera, moteldu egin da, antza, 2011tik ikusten zen gehiegizko pisuaren beheranzko joera, 2015etik gaur egunera arte.

HBSC inkestak ere horri buruzko informazioa jasotzen du, eta adierazten du GMIaren emaitzen sailkapenean oinarrituta⁵⁶ obesotzat jo daitezkeela Euskadiko 11 eta 18 urte bitarteko ikasleen % 1,9 eta Espainiako % 3,1, betiere Osasunaren Mundu Erakundearen estandarren arabera. Inkesta horrek, orobat, ikasleek beren gorputzari buruz duten pertzepzioari buruzko galdera bat ere jasotzen du. Gai horri dagokionez, nabarmentzekoa da 2018an inkestari erantzun zioten Euskadiko 11 eta 18 urte bitarteko ikasleen % 28,4k uste zutela gizen samar edo gizenegi zeudela.

Eskura ditugun adierazleen arabera, oso osasungarriak ez diren elikadura-ohiturak dituzte gazteenek Euskadin. Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Osasun Inkestaren azken edizioako datuei jarraikiz, Arabako 15 eta 24 urte arteko biztanleen % 5,4k astean behin baino gutxiagotan jaten du fruta freskoa, % 4,9k ez du kontsumitzen astero okelarik, % 21,4k soilik esaten du astean 3 aldiz edo gehiagotan jaten duela barazkia eta % 11,3k ez du kontsumitzen lekalerik gutxienez astean behin. Halaber, inkesta horren emaitzek diotenez, Arabako 15 eta 24 urte arteko gazteen % 26,1ek egunero kontsumitzen ditu gozoak, eta % 5,0k eta % 10,5ek, hurrenez hurren, azukrearekin egindako freskagarriak eta janari lasterra astean hirutan edo gehiagotan. **Positibotzat jo daitezke gozokien, azukrerik gabeko freskagarrien eta aperitiboen kontsumoari buruzko datu ebolutiboak, horien asteko ohiko kontsumoa murriztu egin baita gazteen artean, bai Euskadi osoan, bai Araban. Badirudi zertxobait igo den adierazle bakarra janari lasterraren kontsumoarena dela**. Astean gutxienez 3 aldiz kontsumitzen dutela aitortzen duten Arabako gazteen proportzioa % 6,1etik % 10,5era igo da 2013 eta 2018 artean.

Bestalde, gosaria da haurtzaroan eta nerabezaroan garapen egokia izateko funtsezko eginkizuna duen eguneko otorduetako bat. Gai horri dagokionez, 2017ko Osasun Inkesta Nazionalaren emaitzen arabera, 1 eta 14 urte bitarteko euskal haurren % 3,4 inguruk (% 9,6k Espainian) ez du batere gosaltzen edo likidoak bakarrik hartzen ditu (kafea, esnea, tea, txokolata edo kakaoa, jogurta eta abar), eta % 93,5ek, likidoaz gainera, elikagai solidoren bat ere gosaltzen du. HBSC azterketak Euskadirako eskuratutako emaitzen arabera, 11 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeen % 11,1ek ez dute inoiz gosaltzen baso bat esne edo fruta-zuku bat baino gehiago astegunetan. Ehuneko hori Espainia osoan lortutakoa baino txikiagoa da (% 16,9koa), nahiz eta ematen duen gora egin duela 2014. urtearekin alderatuta (% 5,9), eta 2006an lortutako zifrara iritsi dela berririo (% 11,4).

⁵³ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Beldintasun Ministerioa. Estatuko Osasun Inkesta, 2017.

⁵⁴ 2 eta 17 urte bitarteko populazioan, obesitatea haurren sexuaren eta adinaren arabera definitzen da, adingabeentzat erabili ohi diren eten-puntu espezifikokoak baliatuz —eta, beraz, helduentzat erabiltzen direnez bestelakoak—.

⁵⁵ ALADINO azterlana. Espainian hazkuntza, elikadura, jarduera fisikoa, haurren garapena eta gizentasuna zaintzekoa. 2019.

⁵⁶ Gorputz-masaren indizea (GMIa) = pisua (kg) / garaiera (m) ber bi.

8.8. Jarduera fisikoa eta kirola haien lehentasunen artean daude, baina neurri handiagoan mutiletan nesketan baino

Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Osasun Inkestaren emaitzen arabera, **Arabako 15 eta 24 urte bitarteko 10 mutiletatik 9k** (% 90,4k) eta **10 neskatatik 8k** (% 79,2k) **jarduera fisiko osasungarria egiten dute**⁵⁷; hau da, Arabako gazte guztien % 85,1ek. Ehuneko hori handixeagoa da 2013an Araban (% 80,7) eta Euskadin (% 84,2) erregistratutakoa baino. Agerian geratu denez, nabarmenak dira genero-desberdintasunak, bai Araban, bai gainerako lurraldeetan, eta inkestaren 2013ko eta 2007ko aurreko edizioetan ere ikusten ziren.

Gasteizko haur eta nerabeei egindako iritzi-inkestaren emaitzak ere positibotzat jo daitezke; izan ere, aisialdirako jarduera-motarik gogokoenari buruz galdetu zaienean, proportzio handi batek aipatu ditu ariketa fisikoarekin eta kirolarekin lotutako jarduerak. Gai hori zehatzago lantzen da aisiari eta denbora libreari buruzko kapituluaren (60. grafikoa). Hala ere, azpimarratzekoa da galdetutako haur eta nerabeen % 40,2k 3 aukeretako bat adierazi duela jarduera gustukoeneren artean: ariketa edo kirola taldean praktikatzeko (% 40,2), ariketa edo kirola bakarrik egitea (% 19,9), eta mendira joatea, paseatzea (% 14,8). Kasu horretan ere nabarmenak dira nesken eta mutilen arteko aldeak. Hain zuzen ere, txostenean aurrerago ikusiko denez (53. taula), galdetutako mutilen % 47,7k eta nesken % 33,4k erantzun dute nahiago dutela kirola taldean egin.

8.9. % 35,8k egin du kale-edana, eta 4tik 1ek probatu du tabakoa

Drogen kontsumoari eta bestelako adikzioei buruz gaur egun eskuragarri dauden inkestek, dela Euskadiren esparrukoek, dela Estatu osokoek, aukera ematen dute adingabeen ohiko kontsumoaren prebalentziak aztertzeko. Oraingoan, eta lehen aldiz, drogekin eta jokoarekin lotutako hainbat itemi buruzko galdera bat sartu da azterlan honetan, Gasteizko ikasleei zuzendutako galde-sortan. Jarraian, horri buruz lortutako emaitzak aurkeztuko dira, eta Euskadiko 14 eta 18 urte bitarteko biztanleentzat⁵⁸ ikusitako prebalentzia nagusiekin alderatu, ESTUDES inkestan⁵⁹ galdetzen diren legezko eta legez kanpoko droga nagusien kontsumoari dagokionez.

- **Alkohol-kontsumoa.** Herritar guztien artean gertatzen den bezala, alkohola da, alde handiz, gehien kontsumitzen den substantzia, 14 eta 18 urte bitarteko euskal ikasleen artean, eta zabaldurik dago haren kontsumoa. ESTUDES inkestaren emaitzen arabera, 2018an % 82,5ek adierazi zuten noizbait kontsumitu zutela, % 80,2k azken 12 hilabeteetan kontsumitu zutela eta % 61,0k azken 30 egunetan kontsumitu zutela. Ikasleen artean, oso txikia zen alkoholaren eguneroko kontsumoaren prebalentzia. Bilakaerari dagokionez, 2016az geroztik alkoholaren kontsumoaren prebalentzia orokorrak murriztu egin dira; nabarmenezkoa da azken hilabeteen kontsumoaren prebalentzian izandako jaitsiera, % 73,9tik % 61,0ra igaro baita 2016 eta 2018 artean. Kontsumitzen hasteko batez besteko adina ia ez da aldatu 2014tik (47. taula), eta 13,8 urtekoa izan da 2018an, batez beste. Alkoholaren arrisku-kontsumoari dagokionez, badira nabarmendu beharreko zenbait datu: 2018an 14 eta 18 urte bitarteko 2 ikasletik 1ek onartu zuen noizbait mozkortu zela azken urtean (% 56,3) —eta 4tik 1 (% 26,8) azken hilabeteetan—; % 37,2 inguruk aitortu zuen 5 kopa edo gehiago kontsumitu zituela egun berean azken hilabeteetan (*binge drinkinga*), eta % 58,2k kale-edanean ibili zela egunen batean azken urtean (% 26,7 azken hilabeteetan). Gasteizko 10 eta 18 urte arteko ikasleen kasuan (51. grafikoa), azterlan honen esparruan egindako inkestaren arabera, kalean noizbait alkohola edan dutela adierazi dutenen ehuneko % 35,8koa da⁶⁰, ESTUDESek 14 eta 18 urte bitarteko biztanleentzat Euskal Autonomia Erkidego osorako zenbatetsitako % 67,2aren oso azpitik. Espero zen bezala, Gasteizko emaitzak bat

⁵⁷ Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestak jarduera fisikoa neurtzen du, galde-sorta estandarizatu eta baliozkotu batetik abiatuta. Galde-sorta horretan, pertsoneri galdetzen zaie zenbat egun eta denbora eman dituzten egunero jarduera fisiko bizia edo neurritsua egiten edo oinez ibiltzen —gutxienez 10 minutuz— azken 7 egunetan, izan denbora librean edo aisialdian, izan etxeko lanetan, izan lanean edo joan-etorrietan.

⁵⁸ Ez da aurkeztu Arabako lurralde historikorako emaitzarik, ez baita argitaratu datu espezifikorik lurralde horretarako.

⁵⁹ Espainiako Bigarren Hezkuntzako Drogen Erabilera buruzko Inkesta (ESTUDES). Euskal Autonomia Erkidegoko datuak.

⁶⁰ Kontuan izan behar da azterlan horren esparruan egindako inkesta 10 eta 18 urte bitarteko Gasteizko ikasleentzat dela, eta ESTUDES inkestan emandako datuek, berriz, 14 eta 18 urte bitarteko Euskadiko ikasleei egiten dietela erreferentzia. Aztertutako biztanlerian dauden aldeek, beraz, baldintzatu egiten dute emaitzen alderagarritasuna.

datoz Euskadi osokoekin; izan ere, noizbait kalean alkohola edan dutenen eta noizbait mozkortu direnen proportzioa handiagoa da nerabeen adinak gora egin ahala (46. taula).

- **Tabako-kontsumoa.** Nahiz eta 2018an Bigarren Hezkuntzako euskal ikasleen % 45,2k esan zuen noizbait probatu zuela tabakoa, ESTUDES inkestaren arabera, horien guztien % 12,4k soilik esan zuen egunero kontsumitzen zuela. Biztanleria orokorrearekin gertatzen zenez (EDADES inkesta), adin txikikoen artean bilakaerari buruzko datuek adierazten zuten igoera txiki bat izan dela bizitzan noizbait kontsumitu dutenen artean (2014ko % 42,3tik 2018ko % 45,2ra), eta, aldiz, ohiko kontsumoa egonkorrago ageri da aldi horretan (2006ko % 11,5etik 2018ko % 12,4ra igaro da) (52. grafikoa). Gasteizko 10-18 urteko ikasleen kasuan (51. grafikoa), inkesta egin zaien 4 neska-mutiletatik 1ek bakarrik esan du bizitzan noizbait probatu duela tabakoa (% 26,0k). Alkohol-kontsumoaren kasuan bezala, tabakoa noizbait probatu duten ikasleen proportzioak gora egiten du adinarekin: 10-12 urteko ikasleen artean % 4,1 zen, 13-15 urteko ikasleen artean % 20,5, eta 16-18 urteko ikasleen artean, azkenik, % 54,9 (46. taula).
- **Kalamuaren eta beste substantzia batzuen kontsumoa.** Kalamua da, oraindik ere, 14 eta 18 urte arteko ikasleek gehien kontsumitzen duten legez kanpoko substantzia psikoaktiboa, bai eta herritar guztien artean zabalduna ere. 2018an, 10 nerabetik 4 inguruk (% 39,6k) noizbait kontsumitu zuen bizitzan, % 33,0k azken urtean eta % 23,8k azken hilabeteetan. Gaur egungo tasak 2016an ikusitakoak baino txikiagoak badira ere, substantzia horren eguneroko kontsumoa igo egin da pixka bat (2016ko % 2,9tik 2018ko % 4,5era)⁶¹. Era berean, aipatu behar da, CAST eskalan oinarrituta, litekeena dela kontsumo problematikoa izatea Euskal Autonomia Erkidegoan azken 12 hilabeteetan substantzia hori kontsumitu dutela adierazten duten 10 ikasletik 2k⁶² (47. taula). Legez kanpoko gainerako substantziak ez daude hain hedatuta 14 eta 18 urte arteko gazteen artean, eta geroago hasten dira kontsumitzen. Gasteizko 10 eta 18 urteko ikasleei zuzendutako inkestatik lortutako emaitzek adierazten dutenez (51. grafikoa), txikiagoa da kalamuaren noizbehinkako kontsumitzaileen ehunekoa (% 15,5). Gainerako substantzien kasuan bezala (46. taula), noizbait kalamua kontsumitu dutela aitortzen duten ikasleen proportzioa handiagoa da adin handieneko taldean (% 37,3 dira 16 eta 18 urte bitartekoaren artean).

Drogen eta adikzioen kontsumoari dagokionez, azpimarratzekoa da azken urteotan egindako lana, bizi-ohitura osasungarrien, prebentzioaren eta droga-kontsumoaren arriskuei buruzko kontzientziazioaren arloan. Hala eta guztiz ere, badira oraindik nerabeekin eta gazteekin oso lotuta dauden kontsumo problematiko mota batzuk, hala nola kalamu- eta alkohol-kontsumo intentsiboa asteburuetan edo jaiegunetan, eta eskola-eremuko prebentzio selektiboko eta arriskuen murrizketako udal-programetan lantzen dira auzi horiek.

Bestalde, droga-kontsumoari buruzko datuez gainera, aipatzekoa da azken urteotan portaera-adikzioekin edo substantziarik gabeko adikzioekin lotutako arazo berriak sortu direla: diruarekin jokatzeta eta Interneten erabilera, adibidez. Jarraian, horri buruzko laburpen labur bat aurkeztuko dugu, nerabeen kasuan lorturiko emaitzetan oinarrituta.

⁶¹ Azken 30 egunetan egunero kontsumitzea.

⁶² CAST eskala (*Cannabis Abuse Screening Test*) baheketa-tresna bat da, eta 6 galdera egiten ditu, azken urtean kalamua kontsumitzeari lotutako patroiak edo jokabide arriskutsuak identifikatzeko.


- **Dirua jokatzeari** dagokionez, aipatzekoa da, berez azken aldiko arazotzat hartu ezin den arren, azken urteotan ugaritzen ari direla Interneti eta joko-establezimendu eta -plataforma berriei lotutako modalitate berriak. 2018ko ESTUDES inkestak emandako datuen arabera, inoiz dirua jokatzeari izaniko prebalentzia —online edo aurrez aurre— Euskadiko 14 eta 18 urteko ikasleen % 31,5era iristen zen. Zehazki, % 13,5ek jokoren bat egin zuen Internet bidez, eta % 28,9k aurrez aurre. Bai Euskadin, bai Espainia osoan, alde handiak daude sexuaren arabera. Izan ere, nesken artean dirua jokatzeari prebalentzia % 17,5ekoa da, eta mutilen artean, berriz, % 45,0koa. Era berean, inkesta horretako emaitzen arabera, ikasleen % 5 inguruk joko problematikoa izan dezake, Lie Bet eskalan⁶³ oinarrituta (mutilen % 8,3k eta nesken % 1,6k). Gasteizen kasuan, inkestan parte hartu duten 10 eta 18 urte arteko ikasleen % 14,4k jokatu dute dirua inoiz ausazko jokoren batean (51. grafikoa), eta sexuaren araberrako aldeak mantendu egiten dira. Hain zuzen ere, portzentaje hori % 8,5ekoa da nesken artean eta % 19,7koa inkestan parte hartu duten mutilen artean (46. taula).
- Azkenik, ezin dugu ahaztu azken urteotan hainbat nahasmendu sortzen ari direla **teknologia digitalen erabilerarekin eta aplikazio berriein loturik**. Adikzio gisa onartuta ez dagoen arren, adostasuna dago horrelako jardunbideek portaera konpultsiboak eta mendekotasuna ere sor ditzaketela. Euskadi osorako egindako zenbatespenen arabera, 2018an 14 eta 18 urte arteko ikasleen % 18,1ek Internet konpultsiboki erabiltzen zuten, CIUS eskalan⁶⁴ oinarrituta. Jokoarekin aipatutakoa ez bezala, badirudi Interneten erabilera konpultsiboa handiagoa dela neska nerabeen artean (% 21,3koa) mutil nerabeen (% 15,0koa) artean baino (47. taula).

⁶³ Lie Bet eskala balizko joko problematikoa detektatzeko baheketa-tresna bat da.

⁶⁴ CIUS eskala Interneten balizko erabilera konpultsiboa baloratzeko erabiltzen den tresna bat da.

DROGA-KONTSUMOA ETA BESTE ADIKZIO BATZUK

51. grafikoa. Drogekin eta jokoarekin lotutako hainbat praktika izan dituzten Gasteizko haur eta nerabeen proportzioa (%). 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).


46. taula. Drogekin eta jolasarekin lotutako praktikak izan dituzten Gasteizko haurren eta nerabeen proportzioa, hainbat ezaugarriaren arabera (%). 2021

	Noizbait edan dut alkohola kalean	Noizbait probatu dut tabakoa	Noizbait mozkortu naiz	Noizbait probatu dut kalamua (haxixa, marihuana)	Noizbait jokatu dut dirua ausazko jokoren batean
Generoa					
Neskak	37,4	26,3	24,4	12,8	8,5
Mutilak	34,0	25,6	26,2	18,2	19,7
Bat ere ez	39,6	28,1	30,6	19,1	30,6
Adina					
10 eta 12 artean	6,4	4,1	3,8	1,8	7,5
13 eta 15 artean	31,5	20,5	19,3	8,1	13,1
16 eta 18 artean	71,8	54,9	54,5	37,3	23,0
Jatorria					
Bertakoa	36,9	24,3	25,0	14,2	13,0
Atzeritarra	32,9	30,4	26,5	19,1	18,0
Desgaitasuna					
Bai	41,0	31,8	27,2	20,3	15,1
Ez	35,0	25,1	25,2	14,8	14,3
Guztira	35,8	26,0	25,4	15,5	14,4

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

52. grafikoa. Kontsumoaren prebalentziaren bilakaera eta drogekin lotutako hainbat praktika. Euskadiko 14 eta 18 urte arteko ikasleak (%). 2014-2018



47. taula. Kontsumoaren prebalentzia eta drogekin lotutako hainbat praktika, eta hasteko batez besteko adina. Euskadiko 14-18 urte arteko ikasleak (%). 2018

	Guztira	Mutilak	Neskak
Tabakoa			
Noizbait	45,2	42,5	48,0
Egunero	12,4	13,6	11,1
Hasteko batez besteko adina	14,1	13,9	14,3
Alkohola			
Noizbait	82,5	79,9	85,3
Kale-edana noizbait	67,2	62,2	72,4
Mozkorraldia noizbait	56,3	52,5	60,3
Hasteko batez besteko adina	13,8	13,8	13,7
Kalamua			
Noizbait	39,6	41,4	37,7
Kontsumo problematikoa	21,1	25,9	15,2
Hasteko batez besteko adina	14,7	14,5	14,9
Jokoa			
Dirua jokatzeko noizbait (online edo aurrez aurre)	31,5	45,0	17,5
- Onlineko jokoak	13,5	20,8	6,0
- Aurrez aurreko jokoak	28,9	40,8	16,5
Joko patologikoa (Lie-Bet)	5,0	8,3	1,6
Internet erabiltzea			
Interneten erabilera konpultsiboa (CIUS ≥ 28)	18,1	15,0	21,3

Iturria: Espainiako Bigarren Hezkuntzako Drogen Erabilera buruzko Inkesta (ESTUDES), 2018.

8.10. % 15,3k mutil-laguna edo neska-laguna du, eta % 17,5ek sexu-harremanak izan ditu

Gasteizen sexualitateari buruzko datu espezifikorik ez dagoenez, azterlan honen esparruan egindako inkestaren diseinuan 2 adierazle sartu dira, lehen aldiz, hiri horretako ikasleen arteko harreman sexoafektiboen eremura eta sexu-jokabideetara hurbiltzeko. Zehazki, neska- edo mutil-lagunik ba ote zuten eta inoiz sexu-harremanik izan ote zuten galdetu zitzairen inkestan. Lortutako emaitzen arabera (48. taula), galdetutako Gasteizko ikasleen % 15,3k adierazi du baduela mutil- edo neska-laguna, eta % 17,5ek, sexu-harremanak izan dituela noizbait. Oro har, parte hartu duten ikaslerik gehienek (10etik 7k) erantzun dute ez dutela mutil-lagunik eta ez dutela izan sexu-harremanik (% 73,6k). Bi galdera horietakoren bati baiezkoa erantzun diotenen proportzioa handiagoa da 16 eta 18 urte bitarteko adin-taldean (48. taula).

2018ko HBSC azterketako azken datuek erakusten dutenez, **2018an 15 eta 18 urte bitarteko EAEko nerabeen ia laurdenak (% 24,4k) izan zituen sexu-harreman osoak** (53. grafikoa). Konparazio- eta bilakaera-terminoetan, bi alderdi aipatu behar dira: alde batetik, proportzio hori pixkanaka murrizten joan da 2006tik (% 30,2), eta 2014tik ia egonkor mantendu da (% 23,9), eta, bestetik, gure autonomia-erkidegoan sexu-harreman osoak izan dituzten 15 eta 18 urte arteko nerabeen proportzioa (% 24,4) txikiagoa da Estatukoa (% 35,1) baino.

Jokabide sexual jakin batzuek izan dezaketen arriskuaren ikuspegitik, aipatzekoa da, nahiz eta gehienek onartzen duten metodo antikonzeptiboak erabiltzen dituztela sexu-harremanetan (% 86,2k) —% 79,8k adierazi du preserbatiboa erabili duela sexu-harreman osoak izan dituen azkenaldian—, **nerabeen proportzio batek ez du erabiltzen halako metodorik (% 7,6k) edo metodo ez-segururik erabiltzen ditu, hala nola «atzera-martxa» (% 6,2k)** (54. grafikoa). Era berean, inkesta horren emaitzek erakusten dute 15 eta 18 urte bitarteko euskal nesken % 24,1ek hartu duela, noizbait, «biharamuneko pilula». Espainiako gazteen sexu-osasunari buruzko azken ikerketa kualitatibo baten arabera⁶⁵, nahi gabeko haurdunaldia da oraindik ere gazteen artean sexu-praktikari buruzko beldur nagusia, eta, bereziki, neska gazteen artean (Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa, 2019).

Haurdunaldia borondatez eteteari dagokionez, HBE bat egin zuten 18 urtetik beherako Arabako nesken kopuruari buruz eskuragarri dauden datuen arabera, 2019an 15 kasu erregistratu ziren⁶⁶. Ikuspegi konparatu batetik (55. grafikoa), **Arabako neska nerabeen artean HBE-en prebalentzia** (1,88 kasu, 13 eta 17 urte bitarteko 1.000 neskako) **Euskadiko batezbestekoaren oso antzekoa da** (1,90 kasu, 13 eta 17 urte bitarteko 1.000 neskako), eta Estatu osoko tasaren oso azpitik dago (3,41 kasu 1.000 neskako). Bestalde, bilakaeraren ikuspegitik, **datuek erakusten dute Arabako emakume nerabeen HBE-en tasak nabarmen egin duela behera aurreko urtearekin alderatuta** (2018an 1.000 neska nerabeko 2,75eko tasa izatetik, 2019an 1,88koa izatera igaro da), eta, azken 10 urteetan lehen aldiz, haurdunaldia borondatez eteteko 2 ebakuntzaren azpitik dago 13 eta 17 urte bitarteko 1.000 neskako (2011n, guztira, 31 HBE izan ziren, eta tasa 5,10ekoa izan zen).

Bestalde, EINen 2019ko Jaiotzen Estatistikako datuen arabera, **18 erditze izan ziren 18 urtetik beherako nerabeen artean Arabako hiriburuan** (3,22ko tasa, 14 eta 18 urte bitarteko 1.000 neskako). Bilakaerari dagokionez⁶⁷ —mugatua bada ere—, tasa hori murriztu egin da azken 2 urteetan (2017an tasa 4,39koa izan zen adin horretako 1.000 neska nerabeko) (56. grafikoa). Hiriburuan ikusitakoa ez bezala, Arabako lurralde historiko osoan, badirudi neska nerabeen erditze-tasak zertxobait gora egin duela azken 2 urteetan (14 eta 17 urte bitarteko 1.000 neskako 3,04ko tasa izatetik 3,71ko tasara igaro da 2018 eta 2019 artean), baina urrun jarraitzen du 2017an lortutako 4,05eko tasa hartatik.


⁶⁵ Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa (2019) [Gazteen sexu-osasunari buruzko azterketa kualitatiboa, 2019](#).

⁶⁶ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Haurdunaldia borondatez eteteari buruzko txosten-sorta.


⁶⁷ Gasteizen 18 urtetik beherako emakumeen jaiotza-kopuruari dagokion serie osoa hauxe da: 2016 (17 jaiotza), 2017 (23), 2018 (18) eta 2019 (18). Datuak EINen Jaiotzen Estatistikatik aterata daude.

JOKABIDE SEXUALAK ETA HARREMAN SEXOAFEKTIBOAK

53. grafikoa. Sexu-harreman osoak izan dituzten 15-18 urteko nerabeen proportzioaren bilakaera. Euskadi. 2014-2018



54. grafikoa. 15-18 urteko nerabeek azkeneko erabilitako antisorgailu-motaren banaketa. Euskadi. 2014-2018




Iturria: Health Behaviour in School-aged Children (HBSC) 2018 azterketa.

48. taula. Gasteizen neska- edo mutil-laguna dutela eta noizbait sexu-harremanak izan dituztela adierazi duten haur eta nerabeen proportzioa, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Mutil- edo neska-laguna daukat	Izan ditut noizbait sexu-harremanak	Ez dut mutil- edo neska-lagunik, eta ez dut inoiz izan sexu-harremanik	Badut mutil- edo neska-laguna, eta izan ditut noizbait sexu-harremanak
Generoa				
Neskak	13,7	15,1	75,6	6,9
Mutilak	16,6	19,2	72,0	9,2
Bat ere ez	23,6	29,9	66,5	22,4
Adina				
10 eta 12 artean	9,9	2,7	86,1	1,8
13 eta 15 artean	8,5	8,5	83,8	3,3
16 eta 18 artean	27,4	41,6	50,5	20,3
Jatorria				
Bertakoa	14,4	15,7	75,0	6,9
Atzerritarra	17,7	22,2	70,1	12,2
Desgaitasuna				
Bai	22,8	29,3	61,3	14,2
Ez	14,2	15,7	77,0	7,6
Guztira	15,3	17,5	73,6	8,3


Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.
Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

55. grafikoa. Neska adingabeen HBEen tasaren bilakaera. Araba, Euskadi eta Espainia. 2006-2019



* 13 eta 17 urte bitarteko nesken artean kalkulaturako milako tasak.
Iturria: Haurdunaldia borondatez etetea. Osasun Ministerioa

56. grafikoa. 18 urteko edo gutxiagoko amen jaiotza-tasaren bilakaera. 2016-2019



* 14 eta 18 urte bitarteko nesken artean kalkulaturako milako tasak.
Iturria: EIN. Jaiotzen Estatistika.

8.11. Gabezia handiak ageri dira sexu-hezkuntzan: dibertsitate funtzionala duten haurren eta nerabeen kasua

Dibertsitate funtzionala duten haurren eta nerabeen eremuan jarduten duten hirugarren sektoreko erakundeek nabarmentzen dutenez, gabezia handia ageri da haurren eta nerabeen sexu-hezkuntzan, esparru inklusibo batetik.

Lehenik eta behin, ikastetxeetan sexu-hezkuntzari esleitutako ordu gutxi daudela salatzen da, eta horrek ez duela aukerarik ematen gaiari sakon eta inklusiboki heltzeko, ezin direlako eskolak egokitu, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat eskuragarri jartzeko. Batzuetan, nahiz eta gero eta gutxiago izan, erasan kognitiboak dituzten haur eta nerabeak ikasgelatik ateratzen dira sexu-hezkuntzari eskainitako orduetan, askotan familiek beraiek eskatuta.

Bestalde, adierazi da kolektiboa ia erabat ikusezin bihurtzen dela sexu-hezkuntzako diskurtsoetan eta materialetan, ez baitago desgaitasuna duten pertsonen sexualitatearen ordezkariarik. Hori dela eta, haur eta nerabeek ezin dute sentitu beren burua «gizaki sexudun» gisa «errekonoizituta» eta «interpelatuta», ezta ikasgelako ikaskideen artean ere.

Aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeen sexualitatea are ikusezinago bihurtzen da genero-arrazoiengatik eta identitate eta orientazio sexualagatik. Neskatila-mutikoak, adibidez, abusuen biktima baino ez dira izaten oro har, eta ia inoiz ez beren sexualitatearen subjektu aktibo. Era berean, feminitate-eredu murriztaile eta estereotipatuagoen eraginpean daude, eta horrek are gehiago zailtzen ditu haien bizipenak. Bestalde, kontsultatutako erakundeek ezkutuko errealitate bati buruz hitz egiten dute dibertsitate funtzionala eta orientazio sexualak edo identitate ez-normatiboak (gay, lesbiana, trans) dituzten haur eta nerabeei dagokienez; horien artean, are handiagoa da ikusezintasun-maila, ia erabatekoa.

Ikusgarritasunik eta errekonozimendurik ezak, eta sexualitatearen alderdi emozionala (arbuioa, adibidez) kudeatzeko tresnarik ez izateak eragina du kolektibo horren osasun mentalean, batez ere nerabearoan; hala, «*bazterkeria, autoestimua apala, depresioa eta are bullyinga ere eragiten ditu, eta isolamendu-egoera ugari*».

Gabezia horiek arrisku-egoerak ere ekartzen dituzte, batez ere erasan kognitiboak dituzten pertsonen kasuan. Ildo horretan, adierazten da sexu-hezkuntza eskasak eragotzi egiten duela biktimek abusu-egoerak ezagutzea eta adieraztea, eta errealitate hori bereziki egiaztatzen da desgaitasun-egoeran dauden nesken eta emakumeen artean. Era berean, mugen eta baimenaren eremuan tresnarik ez edukitzeak eta egoera horiek ez lantzeak erasan kognitiboak dituzten pertsonen abusuak eragin ditzake, ezjakintasanagatik.

Azkenik, erakundeek positibotzat jo dituzte Udalak eskainitako sexu-aholkularitzako zerbitzuak, baina azpimarratu dute beharrezkoa dela zerbitzu horiek gehiago irekitzea eta sustatzea, desgaitasun-egoeran dauden neska-mutilentzat benetan eskuragarriak eta inklusiboak izan daitezen. Arlo horretako profesional soziosanitarioen prestakuntza falta ere nabarmendu da.

8.12. Nerabeen sexu-osasunaren arrisku-gune nagusiak

Egia da haurren eta nerabeen sexu-hezkuntzako gabeziez hitz egitean ez litzatekeela justifikatuta egongo dibertsitate funtzionala duten pertsonen egoeran soilik zentratzea. Gai hori ez da jorratu eginiko talde edo elkarrizketa bakar batean ere, baina pentsa daiteke oraindik hutsune handiak ageri direla arlo horretan. 15 eta 24 urte arteko nerabeen eta gazteen artean egin berri den sexu-osasunari buruzko azterlan batek zenbait arrisku eta gabezia identifikatzen ditu, kontuan hartu beharko liratekeenak gai horri heltzean.

Azterlan kualitatibo interesgarri horren aurkikuntza nagusien artean, 3 esparru edo alor berezi samar identifikatzen dira, eta horien inguruan biltzen dira egungo nerabeen eta gazteen sexu-osasunaren gaineko arrisku nagusiak.

- **Anonimotasuna eta lotura ahulak espazio birtualean.** Soziabilitate sexuala nolabait ere Interneten eremura mugitzetik abiatuta, zenbait arrisku sortu dira *sextingaren* praktikaren inguruan, eta, horrekin batera, anonimotasunarekin eta ziberbullyingarekin loturiko estortsio-bideak dituzte. Horiek guztiek neurri handiagoan eragingo liekete gazteenei (15-16 urtekoei), ahulagoak baitira; *«izan ere, sare sozialak gehiago erabiltzen dituzte, sexualitatearekin eta sareekin lotura hasi berriagoak dituzte soziabilitatea garatzeko kanal gisa (baita soziabilitate sexuala ere), eta, aldiz, prekarioagoak dira haien heldutasuna eta emozioen kudeaketa. Horien barruan, identitate eta orientazio ez-normatiboak dituztenak are ahulagoak izango lirateke, sare sozialen bidez ezarri ohi baitituzte komunikazioaren zati handi bat eta haien sareak (ez hain normatiboak)»*.
- **Bikotearen «sublimazioa» lotura gisa.** Loturari gizartean emandako zentraltasunak, eta, bereziki, bikotekideari emanikoak —loturaren ordezkari gisa— arrisku-egoerak ekar ditzake, nortasun-eskaera asko bikoteari helarazten baitzaizkio. Azterlan honen arabera, oraindik ere nolabaiteko nagusitasuna dute, batez ere gazteen artean (15-16 urte), ardatz hauek dituzten diskurtsoek: *«bestearen gaineko kontrola, mugak ezartzeko ahalegina, desleialtasunarekiko beldurra eta beste pertsonarekiko nolabaiteko konfiantza falta»*.
- **Maskulinitate toxikoa.** Maskulinitasun toxikoaren ezaugarritzat hartzen dira nagusitasun-sentimendua, oldarkortasuna, ahulenen abusua eta jarrera bortitzak. Arrisku-eremu horrek nolabaiteko ikusgarritasuna lortuko luke, bereziki indarkeria esplizituari lotutako muturreko kasuetan. *«Ingurune horietan aurrerapausoak gertatzen ari diren arren, nolabaiteko liskarraren iruditeria, maskulinitatearen aurkako eraso-sentimendua eta kontakizun alternatibo bat eraikitze ahaleaginean erreferenterik ez izatea “defizit” gisa agertzen ari dira oraindik ere, harremanetan ipini garen mutil askoren artean»*.

Besteak beste, azterlanak 15 eta 16 urte bitarteko gazteei eragiten dieten gai espezifiko batzuk ere jorratzen ditu, eta horietako batzuk sexu-hezkuntzan gabezia handiak izatearekin lotuta daude. Horien artean, ikerketak oraindik ere «koitozentrismoaren» ideia aipatzen du. 15 eta 16 urteak izaten dira sexualitatera lehen aldiz hurbiltzeko adina, eta, beraz, eredu hori ezartzeak zaugarritasun-egoeran jartzen ditu. Gainera, ez da aurreikusten koitoaz kanpoko beste sexu-praktikarik, *«eta horrek, itxaropenak beharrezko tresnarik gabe bete beharrak sorturiko urduritasunarekin batera (erektzioa lortzea, ia aurretiazko estimulaziorik gabe), kondoiari uko egitea ekar dezake, horrek dakartzan arriskuekin»*. *«Sexu-hezkuntza defizitarioarekin lotutako landa-lanean ikusten diren zaugarritasunek zerikusia dute, orobat, arrisku afektibo-emozionalekin bikotearen testuinguruan edo unean uneko sexu-harremanaren testuinguruan. Mutilengan “espero bezain ondo aritzeko” edo neskengan plazerik eza normalizatzeko beharrari buruzko sentimenduak, harik eta autoaurkikuntza-prozesu bat hasten duten arte»*.

8.13. Behera egin du genero-indarkeriako kasuen kopuruak, bere horretan jarraitu dute nerabeen sexu-askatasunaren aurkako delituek, baina gora egin du familia barruko indarkeriak

– Genero-indarkeria eta sexu-askatasunaren aurkako delituak

Emakundek aldian-aldian datuak ematen ditu, Ertzaintzak ofizialki erregistratzen dituen emakumeen aurkako indarkeria-kasuak oinarri hartuta. Datu horiei esker, lehen hurbilketa bat egin daiteke **genero-indarkeriak**⁶⁸ nerabeen artean duen inpaktuari buruz. Datu horiek oinarri hartuta, **Ertzaintzak Arabako lurralde historikoan erregistratu zuen 7 emakume adingabe izan zirela genero-indarkeriaren biktima** (hau da, erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia zuten egoerak) eta **beste 20 emakume adingabek jasan zituztela sexu-askatasunaren aurkako erasoak**⁶⁹ (49. taula). Kopuru erlatiboetan, 2019an Araban eskuragarri zeuden datuen arabera, genero-indarkeriaren (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren) biktima diren 18 urtetik beherako emakumeen kopurua indarkeria-mota horren biktima diren emakume guztien % 1,6 zen; sexu-askatasunaren aurkako indarkeria-egoeren kasuan, berriz, emakume nerabeak askoz ere proportzio handiagoa ziren (% 35,1).

Datuen bilakaerak adierazten duenez, behera egin du bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuen kopuruak (2017an eta 2019an 14 izan ziren, eta 2020an, berriz, 7), eta **adierazten dute, orobat, egonkorrak izan direla emakume nerabeen sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko datuak** (20-23 kasu inguru izan dira 2017tik, 18 urtetik beherako 1.000 emakumeko 0,7 eta 0,8 kasu arteko tasarekin) (49. taula). Era berean, nabarmendu behar da Araban bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuen 2020rako intzidentzia-tasa txikixeagoa dela Euskadi osorako erregistratutakoa baino (Arabian 18 urtetik beherako 1.000 emakumeko 0,25eko tasa eta Euskadin 0,37koa), eta, orobat, tasa oso antzekoa duela sexu-indarkeriaren kasuan (0,7 ingurukoa 1.000 emakume adingabeko).

– Etxeko edo familia barruko indarkeria

Etxeko edo familia barruko indarkeriaz⁷⁰ —aztertu beharreko beste indarkeria-mota bat— eskuragarri dauden datuetan⁷¹, alegia Emakundek emandako datuetan (49. taula), zenbakiak hauxe diote: 2020an, familia barruko indarkeriaren biktima izan ziren 18 urtetik beherako 42 neska eta nerabeen berri eman zuen Ertzaintzak Arabako lurralde historikoan⁷². Bilakaerari buruzko datuek erakusten dutenez, berriz, 2018 eta 2020 artean 40 kasutik gora egon da zifra hori, 2012-2018 aldian erregistratutako oso gainetik, batez beste 20 haur eta nerabe ingururekin.

Bestalde, Estatistikako Institutu Ofizialak Euskadirako egindako Etxeko Indarkeriaren Estatistikako datuen arabera (57. grafikoa), 2020an orotara 110 izan ziren etxeko indarkeriaren 18 urtetik beherako biktimak⁷³, eta horietatik guztietatik % 57,3 neskak edo nerabeak ziren —hau da, 63 biktima— (50. taula).

⁶⁸ Gaur egun edo iraganean emakume biktimaren ezkontidea edo bikotekidea den edo izan den gizon batek (bizikidetzarik gabe bada ere) emakume horren aurka baliaturiko indarkeria-kasuak sartzen dira.

⁶⁹ Sexu-indarkeriak sexu-askatasunaren aurkako delituak biltzen ditu, Zigor Kodean halakotzat tipifikatuta daudenak eta familia-eremuko egileek egindakoak.

⁷⁰ Familia barruko indarkeriaren barruan, baztertu egiten dira genero-indarkeriaren kasu espezifikoak, eta, beraz, barnean hartzen dira bizikidetzaren unitateko edo familia-taldeko kide batek eragindako egoerak —eta, horietan, biktimak emakumeak zein gizonak izan daitezke—.

⁷¹ Bi informazio-iturri daude arazo horien eraginaren berri izateko: bata, Emakundek ematen du —nahiz eta biktimak emakumeak direnean soilik jasotzen duen informazioa— eta, bestea, EINen Emakumeen aurkako Etxeko Indarkeriaren Estatistikak, zeinak kautelazko neurriak edo babes-aginduak dituzten biktimen kopuruari buruzko datuak ematen dituen, sexua edozein dela ere.

⁷² Emakunde (2020) [Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak. EAE, 2019.](#)

⁷³ EINen arabera, etxeko indarkeriaren barruan sartzen dira bai gizon batek bai emakume batek Zigor Kodearen 173.2 artikuluan zerrendatutako edozein pertsonari eragindako indarkeria fisiko edo psikologikoko ekintza guztiak, genero-indarkeriako kasu espezifikoak izan ezik. Zehazki, zenbakiak erreferentzia egiten diote erreferentziako urtean etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Erregistro Zentralean inskribatutako kautelazko neurriak edo hasitako gaiak babesteko aginduak dituzten biktimen kopuruari.

2011-2020 aldia kontuan hartuta, bat datoz Emakundek emandako datuekin; izan ere, egoera horiek gero eta joera handiagoa dute Araban, eta, 2011, 2012 eta 2013an erregistratutakoekin alderatuta, kasuen kopurua bikoiztu ere egin da (57. grafikoa). Kasuen kopuruak gora egiteaz gainera, indarkeria-mota horren biktima adingabeen garrantzi erlatiboak ere gora egin du etxeko indarkeriaren biktima guztien artean (2011n % 14,9 ziren; 2016an, % 18,2; eta 2020an, azkenik, % 28,1).

GENERO-INDARKERIA ETA ETXeko INDARKERIA

49. taula. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren 18 urtetik beherako emakumeen bilakaera. Araba eta EAE. 2013-2019

	Araba					EAE
	2016	2017	2018	2019	2020	2020
Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeria						
<14 urte	2	0	0	1	0	5
14-17 urte	7	14	8	13	7	61
Guztira	9	14	8	14	7	66
Tasa 1.000 bizt. (< 18 urt. emak.)	0,329	0,504	0,285	0,497	0,248	0,374
Guztizkoaren gaineko %-a	% 1,9	% 3,0	% 1,7	% 2,8	% 1,6	% 2,3
Familia barruko indarkeria						
<14 urte	10	8	27	34	27	183
14-17 urte	7	10	16	11	15	78
Guztira	17	18	43	45	42	261
Tasa 1.000 bizt. (< 18 urt. emak.)	0,621	0,648	1,531	1,596	1,487	1,477
Guztizkoaren gaineko %-a	% 18,9	% 18,9	% 38,1	% 30,4	% 34,1	% 27,6
Sexu-indarkeria*						
<14 urte	2	6	12	9	9	57
14-17 urte	14	16	8	14	11	70
Guztira	16	22	20	23	20	127
Tasa 1.000 bizt. (< 18 urt. emak.)	0,585	0,791	0,712	0,816	0,708	0,719
Guztizkoaren gaineko %-a	% 61,5	% 44,9	% 31,7	% 41,8	% 35,1	% 37,6

*Barruan sartzen dira Zigor Kodean sexu-askatasunaren kontrako delitutzat hartutakoak, familia-esparrutik kanpokoek egindakoak. Iturria: Emakunde eta Segurtasun Saila. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika. Biztanleriari buruzko datuak: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.


50. taula. Etxeko indarkeriaren biktima eta salatzaileen* kopuruaren bilakaera, sexuaren, adinaren eta salatuarekiko harremanaren arabera. EAE. 2016-2020

	2016	2017	2018	2019	2020
18 urtetik beherako biktimak					
Neskak	41	34	60	46	63
Mutilak	15	23	41	53	47
Guztira	56	57	101	99	110
Biktimen eta salatuen arteko harremana (adin guztiak)					
Gurasoa	100	125	123	116	149
Semea/alaba	86	89	147	130	120
Anaia/arreba	43	29	41	28	34
Aitona/amona	3	4	4	9	7
Biloba	1	0	0	2	5
Gainerako harremanak	106	139	110	135	120
Guztira	339	386	425	420	435
< 18 urteko salatutako pertsonak					
Emakumeak	10	11	11	13	11
Gizonak	7	8	7	10	9
Guztira	3	3	4	3	2

* Datuok abiarazitako auziei eta babes-aginduak edo kautela-neurriak emanda dauzkaten kasuei buruzkoak dira.

Iturria: EIN. Etxeko Indarkeriaren Estatistika.

57. grafikoa. Hainbat indarkeria-motaren biktima diren 0-17 urteko pertsonen tasaren bilakaera (milako). 2012-2020



* Datuok abiarazitako auziei eta babes-aginduak edo kautela-neurriak emanda dauzkaten kasuei buruzkoak dira.

Iturriak: EIN. Etxeko Indarkeriaren Estatistika; Emakunde eta Segurtasun Saila. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika. Biztanleriari buruzko datuak: EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

8.14. Legearekin gatazkan dauden adingabeen tasa ez da handitu, baina Euskadi osokoa baino handiagoa da

2019an, 14 eta 17 urte bitarteko 93 neska eta mutil zigortu zituzten epai irmo bidez Arabako lurralde historikoan⁷⁴; hau da, % 0,76ko ehunekoa adin horretako biztanleriarekiko (58. grafikoa). Kondenatutako adingabeen tasa nabarmen handiagoa izan zen mutilen artean (% 1,13koa) nesken artean baino (% 0,35ekoa) (51. taula). Izan ere, 2019an kondenatutako adingabeen % 23 soilik ziren neskak, nahiz eta 2013tik izandako proportziorik handiena izan. Aldeak handiak dira adinari dagokionez ere: 16 eta 17 urteko gazte kondenatuen proportzioa (1,14ko eta 0,94ko tasak, hurrenez hurren) 14 urtekoenaren bikoitza da (0,44ko tasa). Era berean, aldeak ageri dira nazionalitatearen arabera ere: 0,62 Espainiako nazionalitatea duten nerabeen artean, eta 1,97 atzerriko nazionalitatea dutenen artean. Ikuspegi konparatu batetik erreparatuta, 2013tik (hau da, Kondenatuen Estatistikak probintziako datuak ematen dituenetik) lortutako datuek erakusten dute kondenatutako adingabeen tasa zertxobait handiagoa dela Araban Euskadin baino, eta kondenatutako adingabeen tasaren bilakaera Estatu osoan erregistratutakoaren oso antzekoa dela (58. grafikoa).

8.15. Auzoan, ikastetxean edo etxean indarkeria-egoeren eraginpean maiz edo erregulartasunez egoteak % 7 eta % 16 ingururi eragiten die

Aurreko atalean aipatu diren indarkeria-egoerei eta legearekiko gatazkei dagokienez, zehaztu behar da adingabeen zati oso txiki bati eragiten dioten kasuak direla.

Azterlan honen esparruan Gasteizen egindako onlineko inkestan ere zenbait galdera sartu dira, Arabako hiriburuko ikasleen artean indarkeria-egoeren aurreko esposizio- eta prebentzio-maila ezagutzeko. Emaitzetan oinarrituta, esan dezakegu egindako inkestaren bidez kontsultatutako haur eta nerabeen % 7 eta % 16 inguruk maiz edo erregulartasunez hautematen dituztela auzoan, ikastetxean edo bizi diren etxean indarkeria-egoera jakin batzuk, baina ez beti biktima gisa (52. taula). Emandako erantzunen arabera, % 16,1ek uste du **haien auzoan maiz gertatzen direla** (hau da, beti edo normalean) **haur eta nerabeen arteko indarkeria-egoerak**, hala nola mehatxuak, umiliazioak, irainak, eraso fisikoak eta ziberjazarpena. **% 13,7k gauza bera uste du, baina ikastetxearen inguruneari erreferentzia eginez**. Era berean, **% 6,7k erantzun du gurasoek behin eta berriz egiten dietela oihu**.

Hainbat aldagai soziodemografikoren arabera bereizitako emaitzen arabera, indarkeria-egoeren pertzepzioa zertxobait handiagoa da titulartasun publikoko zentroetan ikasten duten haur eta nerabeen artean (% 19,5), itunpeko zentroetan ikasten dutenen artean baino (% 13,1). Halaber, gatazka- eta indarkeria-egoerak maizago hautematen dituzten pertsonen proportzioa bikoitza egiten da desgaitasunen bat duten haurren eta nerabeen kasuan (% 25,0 auzoko indarkeria-egoeren kasuan eta % 24,7 ikastetxeko indarkeria-egoeren kasuan), betiere desgaitasunik ez dutenekin alderatuz gero (% 14,8 eta % 12,0, hurrenez hurren).


⁷⁴ Kondenatuen Estatistikatik atera dira datuak: EINeko adingabeak. «Kondenatuen estatistika: Adingabeak» Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistro Zentralean dagoen informazioan oinarrituta egiten da, zeinaren titulartasuna Justizia Ministerioarena baita. Erreferentziako urtean epai irmoz kondenatu zituzten eta Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaien Erregistroan inskribatu zituzten 14 eta 17 urte bitarteko adingabeen multzoa hartzen du.

GATAZKAK ETA INDARKERIA-EGOEREN AURREKO ESPOSIZIOA

51. taula. Epai irmo bidez kondenatutako 14 eta 17 urte arteko pertsonen ehunekoa, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. Araba eta EAE. 2019


	Araba		Euskadi	
	Kop.	Tasa	Kop.	Tasa
Sexua				
Gizonak	72	1,13	438	1,03
Emakumeak	21	0,35	103	0,26
Adina				
14 urte	14	0,44	88	0,41
15 urte	17	0,54	107	0,51
16 urte	34	1,14	174	0,86
17 urte	28	0,95	172	0,86
Nazionalitatea				
Espainiakoa	69	0,62	438	0,57
Atzerritarra	24	1,97	103	1,69
Guztira	93	0,76	541	0,66

58. grafikoa. Epai irmo bidez kondenatutako 14 eta 17 urte bitarteko pertsonen tasaren bilakaera. Araba, Euskadi eta Espainia. 2013-2019



Iturriak: EIN. Kondenatuen Estatistika; Adingabeak; Etengabeko Erroldaren Estatistika.

59. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeen pertzepzioa hainbat eremutan indarkeria-egoerak gertatzeko maiztasunaz (%). 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

52. taula. Indarkeria-egoera jakin batzuk beti edo normalean hautematen dituzten Gasteizko haur eta nerabeen proportzioa, hainbat aldagairen arabera (%). 2021

	Nire ikastetxean mehatxuak, umiliazioak, irainak, eraso fisikoak edo ziberjazarpenera gertatzen dira ikasleen artean	Nire auzoan mehatxuak, umiliazioak, irainak, eraso fisikoak edo ziberjazarpenera gertatzen dira haur eta nerabeen artean	Gurasoek oihu egiten didate eta sentitzen dut gaizki tratatzen nautela
Titulartasuna			
Publikoa	16,1	19,5	7,4
Itundua	11,6	13,1	6,1
Generoa			
Neskak	13,1	15,6	7,2
Mutilak	13,4	15,6	5,9
Bietako bat ere ez	34,4	39,9	14,5
Adina			
10 eta 12 artean	13,2	12,6	6,8
13 eta 15 artean	14,7	18,3	6,5
16 eta 18 artean	13,3	17,9	6,9
Jatorria			
Bertakoa	13,0	17,0	5,8
Atzerritarra	15,5	13,8	9,2
Desgaitasuna			
Bai	24,7	25,0	12,1
Ez	12,0	14,8	6,0
Guztira	13,7	16,1	6,7

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

9. kapitulua.

Aisialdia eta denbora librea

9.1. Aisialdiko jarduerarik gogokoenak 2017ko berak dira (lagunekin denbora pasatzea, musika entzutea, telesailak eta filmak ikustea, taldean kirola egitea eta sare sozialak erabiltzea), baina tokia irabazten ari dira topaketa fisikorik behar ez dutenak

Beste hainbat eremutan bezala, COVID-19aren pandemiak inpaktu nabarmena du haurren eta nerabeen aisialdian eta denbora librean. Inkesta egin den unean (2021eko apiriletik ekainera bitartean), pandemiaren laugarren olatua gertatu da, eta txertaketa-prozesua bizkortzen hasi da⁷⁵, nahiz eta murrizketa handiak dauden eremu publiko orokorrean eta ikastetxeetan. Azken buruan, duela 4 urteko egoeraz oso bestelakoa bizi da, eta, zalantzarik gabe, Gasteizko haur eta nerabeek aisialdiaz gozatzeari buruz lortutako erantzun askotan ikusten da hori.

2021ean, hauek dira Gasteizko haur eta nerabeek gustukoak dituzten **aisialdiko 5 jarduerak** —hau da, inkesta egin den unean gehien eta gusturik handienez praktikatzen dituztenak—: **lagunekin aurrez aurre denbora pasatzea** (% 61,5), **musika entzutea** (% 58), **telesailak eta filmak ikustea** (% 49,2), **taldean kirola egitea** (% 40,2) eta **sare sozialak erabiltzea** (% 38,6). Egia esan, 2017an identifikatu ziren ia jarduera berberak dira, baina, pandemiaren ondorioz, **ikusten da lehentasuna ematen zaiela kaleko espazio publikoa edo zenbait instalazio kolektibo behar ez dituzten jarduerari**. Hori horrela, lagunekin denbora aurrez aurre pasatzeak edo taldean ariketa edo kirola egiteak ehuneko 10 eta ia 15 puntu ere galdu dituzte 2017ko datuekin alderatuta; telesailak edo filmak ikusteak, sare sozialak erabiltzeak edo sareko bideo-jokoetan aritzeak, aldiz, ehuneko 8,5, 7 eta 11 puntu irabazi dituzte, aurreko 4 urteekin alderatuta (60. grafikoa).

Haurrek eta nerabeek aipatutako aisia-jardueren ikuspegitik⁷⁶, **aniztasuna** da nabarmendu beharreko elementuetako bat. Batez beste, 4,5 jarduera aipatu dituzte, eta, haur eta nerabeen % 95,1ek arestian aipatu diren 5 jarduera ezagunenetako bat aipatu badu ere, % 88,4k, jarduera horiez gainera, beste jarduera batzuk ere aipatu ditu, eta % 4,9k bestelako jarduerak soilik.

⁷⁵ 2021eko apirilaren 1ean, Euskadiko biztanleen % 5,6k baino ez dute jaso txertaketa osoa; 2021eko ekainaren erdialdean, berriz, % 37,5ek, [Osasun Ministerioak](#) autonomia-erkidegoei buruz emandako datuen arabera.

⁷⁶ Haur eta nerabe bakoitzari 17 jarduerako zerrenda bat eman zitzaion, eta gehienez 5 aukeratu behar zituzten.

Beste ikuspegi batetik, **aipatzekoak dira, halaber, aisia eta denbora libre, batez ere generoaren eta adinaren arabera** (53. taula). Lehenengo kasuan, lagunekin denbora pasatzea salbuespentzat harturik —neskek eta mutilek antzera aipatzen dute jarduera hori—, neskek nahiago dute, argi eta garbi, musika entzun, telesailak eta filmak ikusi, sare sozialak erabili eta lagunekin txateatu; mutilen artean, berriz, ohikoagoa da sareko bideo-jokoetan aritzea eta taldean ariketa edo kirola praktikatzea. Adinari dagokionez, berriz, jarduera jakin batzuk zaletasun handiagoa sortzen dute adinean aurrera egin ahala: lagunekin denbora pasatzea (aurrez aurre), musika entzutea eta sare sozialak erabiltzea. Azkenik, **aipatzekoak dira jarduerarik gustukoaren (lagunekin denbora aurrez aurre pasatzearen) kasuan sumatzen diren aldeak jatorriari eta desgaitasunen bat izateari loturik —horrek gizarte-bazterkeriako arazoak egon litezkeela iradokitzen du—**. Atzerritar jatorriko haur eta nerabeen artean (bertan jaiotakoekin alderaturik) eta desgaitasunen bat dutenen artean (desgaitasunik ez dutenekin konparatuta), txikiagoa da aisiaz gozatzearen aldeko lehentasuna lagunekin aurrez aurre egoteari dagokionez, ikuspegi estatistikotik.

9.2. Etxeak, norberarenak edo adiskide batenak, tokia kentzen dio kaleari, aisialdiaz gozatzeko gehien aukeratzen den toki moduan

Bilakaeraren ikuspegitik, 2021eko emaitzek ere hainbat aldaketa iradokitzen dituzte, aipatutakoez bat, Gasteizko haur eta nerabeek aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko adierazten dituzten espazioei dagokienez⁷⁷. Aldaketa horien artean, 2017an kanpoko aisialdiaren (kalekoaren) eta etxeko aisialdiaren artean ikusten zen erlazioaren alterazioarekin dago lotuta deigarriena. 2021ean, etxea da haurrek eta nerabeek aisialdiaz gozatzeko gehien aipatzen duten tokia, izan berena, izan lagunena. Hala adierazten dute neska-mutilen % 79,3k, eta kalea (parkeak, plazak eta, oro har, aire zabaleko edozein ekipamendu edo instalazio) % 73,3k (61. grafikoa). **2017. urtearekin alderatuta, gehiago gozatzen da etxeko aisialdiarekin (2017ko % 61,9tik 2021eko % 73,3ra igaro da), aire zabaleko aisialdiaren kaltetan (2017an % 77,2k aipatzen dute, eta 2021ean % 73,3k).**

Oro har, nerabeek gehiago gozatzen dute kalean adin txikiagoko haurrek baino, eta gutxiago etxeko aisialdian edo hezkuntza-ingurunekeo aisialdian. Alde horiek adierazgarriak dira estatistikoki (54. taula).

9.3. Haur eta nerabe gehienek lagunena eta familiaren artean banatzen dute aisialdia, neurri handi batean adinaren arabera zehazten den nolabaiteko orekaren barruan

«Norekin igarotzen duzu denbora libre gehiena?» galderaren aurrean, eta gehienez 4 erantzunetatik 2 adierazteko baldintzapean⁷⁸, haurren eta nerabeen % 64,7k adierazi dute batez ere lagunekin eta aurrez aurre pasatzen dutela denbora libre; haurren eta nerabeen % 59,7k familiarekin pasatzen dutela erantzun dute; % 20,2k banakako aisialdia aipatu dute, eta % 14,7k, azkenik, esan dute lagunekin igarotzen dutela baina birtualki. Oro har, argi eta garbi ikusten da lagunekin igarotako aisiak gora egiten duela adinarekin, eta familiarekin, berriz, behera.


⁷⁷ Zehazki, galdera hau egin zitzaion: «*Une honetan, non gozatzen duzu gehien zure aisialdiaz? Adierazi gehienez 3 aukera*».

⁷⁸ Erantzun-aukerak 4 hauek ziren: «Nire lagunekin aurrez aurre», «Nire lagunekin, baina ez aurrez aurre (Internet bidez)», «Nire familiarekin» eta «Nik neuk bakarrik».


Haur eta nerabe gehienek adierazi dute lagunekin igarotzen dutela denbora libre gehiena (% 75,3k). Hala ere, eta beste aukera batzuk alde batera utzita, haurren eta nerabeen laurden batek (% 24,7k) aisialdia ez du partekatzen lagunekin nagusiki, baizik eta familiarekin eta/edo bakarrik. Hain zuzen ere, haurren eta nerabeen % 14,3k familiarekin soilik partekatzen dute aisialdia, eta % 5,3k, ostera, bakarrik. Aisia-denbora gehientsuena familiarekin soilik igarotzen duten pertsonen artean, bereziki nabarmentzen dira atzerritar jatorriko haur eta nerabeak (% 20,4, bertakoen % 12arekin alderatuta), eta aisialdia bakar-bakarrik igarotzen dutenen artean, berriz, nabarmentzekoak dira desgaitasunen bat duten haur eta nerabeak (% 11,5, desgaitasunik ez dutenen % 4,4arekin alderatuta).

AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK: ZER, NON ETA NOREKIN (I)


60. grafikoa. Aisialdirako jarduerarik gogokoenen banaketa Gasteizko haur eta nerabeen artean (%). 2017-2021



61. grafikoa. Aisialdiaz gehien gozatzeko lekuen banaketa Gasteizko haur eta nerabeen artean (%). 2017-2021



62. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeek norekin igarotzen duten gehien denbora librea (%). 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK: ZER, NON ETA NOREKIN (II)**53. taula. Gasteizko haur eta nerabeek aisialdirako nahiago dituzten jarduerak, hainbat ezaugarriaren arabera (%). 2021**

	Lagunekin denbora pasatzea (aurrez aurre)	Musika entzutea	Telesailak, filmak edo telebista-saiok ikustea	Taldean ariketa edo kirola egitea	Sare sozialak erabiltzea (Facebook, Instagram...)	Sareko bideo-jokoetan aritzea	Lagunekin txateatzea (WhatsApp, Telegram, Hangouts...)
Generoa							
Neskak	65,5	68,9	60,9	33,4	46,5	11,5	32,7
Mutilak	58,4	46,7	38,1	47,7	31,2	51,1	22,8
Bat ere ez	39,1	65,9	34,5	24,9	24,3	41,6	37,7
Adina							
10 eta 12 artean	54,3	50,0	48,2	40,1	23,3	31,4	27,2
13 eta 15 artean	65,5	57,0	51,3	37,7	45,1	33,9	31,0
16 eta 18 artean	66,0	67,9	48,5	42,5	49,7	29,1	26,1
Jatorria							
Bertakoa	65,1	55,5	49,3	44,7	38,8	33,5	28,1
Atzerritarra	52,2	64,7	49,0	28,2	38,0	25,8	27,6
Desgaitasuna							
Bai	52,1	67,6	48,2	31,0	41,1	24,4	27,2
Ez	63,8	57,0	49,6	42,1	38,6	32,9	28,4
Guztira	61,5	58,0	49,2	40,2	38,6	31,3	28,0

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.**54. taula. Gasteizko haur eta nerabeen artean aisialdiaz gehien gozatzeko lekuak, hainbat ezaugarriaren arabera (%). 2021**

	Kalean	Nire etxean	Nire lagunaren etxean	Kirol-instalazioetan	Ikastetxean	Merkataritza-guneetan
Generoa						
Neskak	72,4	60,4	36,0	19,9	20,6	15,9
Mutilak	73,7	67,3	25,9	23,6	16,3	5,5
Bietako bat ere ez	82,0	52,2	26,1	15,6	20,4	4,3
Adina						
10 eta 12 artean	64,4	68,4	27,2	21,6	26,3	5,6
13 eta 15 artean	77,4	66,8	32,3	18,5	13,5	12,3
16 eta 18 artean	79,4	55,5	33,7	24,3	14,4	14,7
Jatorria						
Bertakoa	75,7	62,1	30,8	24,6	17,8	9,8
Atzerritarra	66,8	67,5	31,2	13,5	20,5	12,8
Desgaitasuna						
Bai	67,8	56,7	31,6	18,0	15,8	14,8
Ez	74,4	64,7	30,6	22,4	18,8	10,0
Guztira	73,3	63,6	30,9	21,6	18,5	10,6

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.**55. taula. Gasteizko haur eta nerabeekin denbora libre gehiena igarotzen duten pertsonak, hainbat ezaugarriaren arabera (%). 2021**

	Nire lagunekin aurrez aurre	Familiarekin	Nik neuk bakarrik	Nire lagun birtualekin	Familiarekin [soilik]	Nik neuk bakarrik [soilik]	Familiarekin edo bakarrik [lagunik gabe]
Generoa							
Neskak	68,9	63,4	22,1	10,2	13,0	4,3	23,6
Mutilak	60,7	55,9	17,5	19,5	15,9	6,0	25,4
Bat ere ez	57,4	61,5	38,9	8,5	8,5	11,8	34,1
Adina							
10 eta 12 artean	56,3	79,7	13,7	12,9	22,3	3,2	33,4
13 eta 15 artean	67,3	57,7	23,1	14,9	12,4	4,2	21,9
16 eta 18 artean	71,6	39,3	24,8	16,5	7,2	8,6	17,6
Jatorria							
Bertakoa	68,1	58,8	19,7	14,8	12,0	4,9	21,9
Atzerritarra	55,6	62,0	21,4	14,4	20,4	6,3	32,0
Desgaitasuna							
Bai	55,2	52,2	31,2	16,4	19,8	11,5	34,5
Ez	66,1	60,3	18,8	14,4	13,3	4,4	23,2
Guztira	64,7	59,7	20,2	14,7	14,3	5,3	24,7

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

9.4. Gutxi gorabehera 10 haur eta nerabetik 4k adierazi dute pandemiaren aurretik baino denbora gehiago igarotzen dutela pantailen aurrean eta sare sozialak erabiltzen

Orain arte azaldu ditugun inkestaren emaitzek agerian uzten dute, besteak beste, pandemiak eragin nabarmena izan duela haurren eta nerabeen aisialdian, eta, bereziki, nolabaiteko aldaketa eragin duela kaleko aisialdia apur bat albo batera utzi eta etxeko aisialdirantz igarotzeko bidean —eta, beraz, aisialdi isolatuagoa ekarri duela—.

Gasteizko haur eta nerabeek jarduera jakin batzuk egiteko maiztasunari buruzko galderaren aurrean (pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta)⁷⁹, hona hemen jasotako datu nagusiak (63. grafikoa):

- **Gasteizko haur eta nerabeen proportzio handi batek —kasuen arabera, % 40 eta % 50 artean— hainbat jarduera lehen bezalakoxe maiztasunarekin egiten jarraitzen duela adierazi du**, hala nola familiarekin etxean denbora pasatu (% 52,3k), bideo-jokoetan aritu (% 48,7k), sare sozialak erabili (% 45,7k) edo pantaila baten aurrean denbora pasatu (% 43,3k). Horrenbestez, pentsatzekoa da, etxeko konfinamendu-aldian (hau da, 2020ko martxotik maiatzera, gutxi gorabehera) jarduera horien maiztasuna areagotu egin bazen ere, urtebete geroago egoera normalizatu egingo zela haur eta nerabe batzuentzat.
- Gehiengoan erantzunak ez badira ere, **haur eta nerabeen % 30 eta % 35 inguruk adierazi dute pandemia aurretik baino maiztasun txikiagoarekin egiten dituztela espazio irekiak behar dituzten aisialdiko eta denbora libreko jarduerak**. Horren ildotik, haurren eta nerabeen % 35ek adierazi dute lehen baino gutxiagotan egiten dituztela txangoak edo paseoak familiarekin (% 35ek), kirola edo ariketa fisikoa aire zabalean (% 33,1ek) eta gutxiagotan geratzen direla kalean lagunekin (% 31,8k).
- Azpimarratzekoak dira, halaber, beste proportzio batzuk: **haur eta nerabeen % 40 inguru lehen baino maizago aritzen dira edozein pantailaren aurrean denbora-pasa (% 44,3), bai eta sare sozialetan ere (% 38,1)**.


Oro har, hainbat desberdintasun ikusten dira azken 2 urte hauetako aisialdi-ohituren aldaketei dagokienez, generoaren arabera (56. taula). Mutilen aldean, neskek maizago igarotzen dute denbora pantaila aurrean (nesken % 51,3k eta mutilen % 37,9k), sare sozialak erabiltzen (nesken % 46,2k eta mutilen % 29,6k) eta etxean familiarekin (nesken % 38,1ek eta mutilen % 28k). **Mutilen eta nesken artean ikusitako alde handi horiek, kasu horretan ez ezik, jarduerarik gustukoenei dagokienez ere nabarmenak dira (53. taula), eta baliteke esan nahi izatea aisialdiaren esparruan generoen arteko aldea sakontzen ari dela, eta, zehazki, neskek aisialdi pasiboaren aldeko zaletasun handiagoa izatea.**

Berez adinari dagozkion zenbait ezberdintasunaz gainera, **berriaz ere ikusten da nolabaiteko isolamendu-prozesua handiagoa dela, oro har, atzerritar jatorriko haur eta nerabeen kasuan**. Ildo horretan, emaitzek erakusten dute atzerritar jatorriko neska-mutilen % 40,3 lehen baino maiztasun txikiagoarekin geratzen direla lagunekin kalera ateratzeko. Bertako haurren eta nerabeen kasuan, % 28,6koa da ehuneko hori.

⁷⁹Hain zuzen, 18. galdera da, eta [II. eranskineko](#) galde-sortan kontsulta daiteke. Hauxe da galdera: «*Pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta, zenbatean behin egiten dituzu une honetan jarduera hauek?*». 7 erantzun-aukera ematen ziren: «*Nire lagunekin geratzea, kalera ateratzeko*», «*Kirola edo ariketa fisikoa egitea aire zabalean*», «*Edozein pantailaren aurrean denbora pasatzea (mugikorra, tableta, ordenagailua, kotsola, telebista...)*», «*Bideo-jokoetan aritzea*», «*Sare sozialak erabiltzea*», «*Nire familiarekin etxe barruan denbora pasatzea (jolasean, gauza entretengarriak egiten)*» eta «*Nire familiarekin etxetik kanpo denbora pasatzea (txangoak, paseoak...)*».

COVID-19AREN PANDEMIAREN INPAKTUA AISIALDIAN

63. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeen artean hainbat jarduera egiteko maiztasuna, pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta (%). 2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

56. taula. Gasteizko haur eta nerabeen artean hainbat jarduera egiteko maiztasuna, pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta eta hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

Pandemiaren aurreko egoerari dagokionez	Lagunekin geratzea kalera ateratzeko	Kirola edo ariketa fisikoa egitea aire zabalean	Edozein pantailaren aurrean pasatzea denbora	Bideojokoetan aritzea	Sare sozialak erabiltzea	Familiarekin etxe barruan denbora igarotzea	Familiarekin etxetik kanpo denbora igarotzea
	Gutxiago	Gutxiago	Gehiago	Gehiago	Gehiago	Gehiago	Gutxiago
Generoa							
Neskak	33,1	31,7	51,3	15,3	46,2	38,1	34,8
Mutilak	31,0	34,7	37,9	29,8	29,6	28,0	34,2
Bat ere ez	19,0	28,6	25,1	19,0	43,7	20,7	59,4
Adina							
10 eta 12 artean	35,6	30,6	41,4	24,7	31,8	44,3	31,9
13 eta 15 artean	24,6	35,5	48,8	25,1	47,5	33,1	36,4
16 eta 18 artean	34,0	33,7	43,2	17,6	36,6	20,1	37,2
Jatorria							
Bertakoa	28,6	31,2	43,5	23,0	39,0	32,8	34,2
Atzerritarra	40,3	38,0	46,3	21,0	35,8	32,9	37,2
Desgaitasuna							
Bai	35,3	41,2	46,2	24,2	39,1	27,3	40,2
Ez	31,3	32,1	44,1	22,2	38,2	33,6	34,6
Guztira	31,8	33,1	44,3	22,4	38,1	32,8	35,0

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

9.5. Aisialdiarekiko gogobetetze-maila nabarmen jaitsi da 2017arekin alderatuta

Oro har, 2021ean aisialdiarekiko asebetetze-maila altu samarra bada ere —haur eta nerabeen % 48,9k adierazi du oso pozik dagoela eta % 42k, berriz, nahiko pozik—, **datu horien bilakaerak erakusten du esparru horretan nolabaiteko narriadura gertatu dela, duela 4 urte jasotakoekin alderatuta**. Hain zuzen ere, 64. grafikoa ikus daitekeenez, oso pozik dauden pertsonen proportzioa ehuneko 19 puntu murriztu da 2017ko datuekin alderatuta, eta, aldiz, % 2,6tik % 9ra igo da batere ez dituela asetzen edo gutxi asetzen dituela dioten pertsonen ehunekoa 2021ean.

Bildutako informazioak erakusten du, halaber, aisialdiarekiko gogobetetasuna oro har txikitzearekin batera **murriztu egin dela familiarekin nahiz lagunekin partekatutako aisialdiaren gozamen-maila ere** (64. grafikoa). 2017an, familiaren aisialdiaz asko gozaten zutela adierazi zuten haurren eta nerabeen proportzioa ia % 56koa zen, eta 2021ean, berriz, % 43ra jaitsi da. Lagunekin aurrez aurre partekatutako denboraren kasuan, asko gozaten zutela adierazi zutenen proportzioa % 76,7koa zen, eta gaur egun, berriz, % 61,6koa da.

2021eko datuek erakusten dutenez, gainera, lagunarteko aisialdiari eskainitako denbora nabarmen murriztu da; ez, ostera, bakardadean gozatzeko denbora, ez baita aldatu. 2021ean bakardadean emaniko aisialdiarekin nahiko edo oso pozik daudela adierazten duten haurren eta nerabeen proportzioa % 57,2koa da, 2017an lortutakoaren oso antzekoa (% 61,8).

Aldagai soziodemografikoen arabera banakaturiko emaitzen arabera, eremu horretan desberdintasun nabarmenak daude generoaren, adinaren, jatorriaren eta desgaitasunaren arabera.


Oro har, **aisialdiarekiko gogobetetze-maila handixeagoa da mutilen artean nesken artean baino**. Aldeak oso handiak ez diren arren, aisialdiarekin gogobetetasun txikia edo hutsa dutela adierazten duten nesken proportzioa (% 11koa) mutilena (% 6,5ekoa) baino handixeagoa da, eta alde horiek esanguratsuak dira estatistikoki. Era berean, aisialdiaz lagunekin eta birtualki gozatzeari dagokionez ere alde nabarmenak aurkitu dira (58. taula). **Alde horretatik, mutilek neskek baino gehiago gozaten dute aisialdi birtualarekin: mutilen % 69,1ek eta nesken % 57,5ek adierazi dute oso edo nahiko pozik daudela**.

Bestalde, adinari dagokionez, **15 urtetik gorako nerabeek asebetetze falta handiagoa dute aisialdiarekin. Adin horretan, gainera, gazteagoek baino askoz ere gehiago gozaten dute bakarkako aisialdiaz, eta gutxiago gozaten dute familia-aisiarekin loturiko jarduez**.

Azkenik, berriz ere haurren jatorria eta desgaitasunak aipatu behar dira, aisialdiarekin eta gozamenarekin lotura estua duten aldagaien artean ageri baitira. Azterlan honetatik ondoriozta daitekeenez, atzerritar jatorriko pertsonak eta desgaitasuna dutenak ez daude gainerakoak bezain pozik aisialdiarekin. Lehenengo kasuan, gainera, haur eta nerabe atzerritarrek gutxiago gozaten dute lagunarteko eta aurrez aurreko aisialdian emaniko denboran, atzerritarrak ez direnen aldean. Bigarren taldearen kasuan, ikusten da desgaitasunen bat duten pertsonak gutxiago gozaten dutela familian emandako aisialdi-denborarekin.

AISIALDIAREKIKO GOGOBETETASUNA

64. grafikoa. Aisialdian egindako jardueretako gogobetetze-mailaren bilakaera eta aisialdiko denboraren gozamen-mailaren banaketaren bilakaera, konpainiaren arabera (%). 2017-2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

57. taula. Gasteizko haur eta nerabeek aisialdian egindako jardueretako duten gogobetetze-maila, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Oso pozik	Nahiko pozik	Ez oso pozik	Batere pozik ez	Oso edo nahiko pozik	Ez oso pozik edo batere pozik ez
Generoa						
Neskak	44,1	44,9	9,2	1,8	89,0	11,0
Mutilak	52,4	41,1	5,1	1,5	93,5	6,5
Bietako bat ere ez	21,5	72,4	1,7	4,5	93,8	6,2
Adina						
10 eta 12 artean	56,6	35,5	5,8	2,1	92,2	7,8
13 eta 15 artean	47,0	47,3	4,0	1,7	94,3	5,7
16 eta 18 artean	38,4	49,1	11,2	1,3	87,5	12,5
Jatorria						
Bertakoa	51,6	42,2	5,1	1,2	93,7	6,3
Atzeritarra	37,4	47,4	12,2	3,0	84,8	15,2
Desgaitasuna						
Bai	37,9	46,9	13,9	1,3	84,8	15,2
Ez	49,2	43,0	6,1	1,8	92,2	7,8
Guztira	47,7	43,6	7,0	1,7	91,3	8,7

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

58. taula. Gasteizko haur eta nerabeek aisialdian emaniko denboraren gozamen-maila*, konpainiaren eta hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Familiarekin	Lagunekin aurrez aurre	Lagunekin birtualki	Neu bakarrik
Generoa				
Neskak	84,3	91,9	57,5	58,9
Mutilak	84,1	92,4	69,1	54,4
Bietako bat ere ez	54,1	89,7	84,5	82,9
Adina				
10 eta 12 artean	92,9	92,2	58,3	44,9
13 eta 15 artean	83,1	94,4	68,7	57,1
16 eta 18 artean	73,6	89,8	65,0	70,6
Jatorria				
Bertakoa	83,9	93,6	64,3	56,7
Atzeritarra	82,7	88,0	62,0	58,8
Desgaitasuna				
Bai	73,4	89,1	64,6	62,9
Ez	84,9	92,6	63,8	56,6
Guztira	83,6	92,1	63,7	57,2

Taulan jaso da zer proportziok adierazi duen «asko» edo «nahiko» gozatzen duela. Nabarmenduta ageri dira aztertutako aldagaien artean estatistikoki esanguratsua den lotura bati dagozkion erantzunak.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

9.6. Aisialdiko udal-eskaintza partizipatiboago eta inklusiboago baterantz, kirolari arreta berezia eskainiko diona eta gizarte-harremanak sustatuko dituenak

Aisialdiko jardueren udal-programazioaren ikuspegitik, Gasteizko haur eta nerabeen ustez, zer jarduera-mota lirateke lagungarrienak hirian aisia-denbora hobetzeko?

Aipatutako neurrien artean —7 proposameneko zerrendatik abiatuta—, hauek dira aisialdia hobetzeko itxaropenik handiena dutela iritzitakoak: kirol-jarduerak antolatzea —% 76,5en ustez, jarduera horrek asko edo nahikoa hobetuko luke aisialdiaz gozatzeko modua—; beste auzo, ikastetxe nahiz herrialde batzuetako pertsonak edo bestelako zaletasunak dituztenak ezagutzeko aukera ematen duten jarduerak antolatzea (% 70,6ren ustez); haurrek nahi dituzten jarduerak antola ditzan eskatzea Udalarari (% 65,8ren ustez), eta, azkenik, haur guztiek parte hartzeko moduko jarduerak antolatzea, irisgarritasun fisiko, kognitibo edo ekonomikoaren ikuspegitik (% 65,8).

Aipatu diren gainerako neurrien artean —kontsultatutako pertsonen % 54k eta % 63k babesturik—, hauek adierazi behar dira: «auzoetan jarduera gehiago antolatzea» (% 62,9), «informazio gehiago izatea Udalak antolatzen dituen jarduerari buruz» (% 56,8), eta «musika, antzerki, pintura eta antzeko jarduera gehiago antolatzea» (% 53,9).

Bilakaeraren ikuspegitik, 2017arekiko alde nagusiak udaleko aisialdi-eskaintzaren informazio- eta proposamen-elementuei dagozkienak dira. 2017 eta 2021 artean, ehuneko 13,5 puntu murriztu da haurrek eta nerabeek gustukoak dituzten jarduerak Udalarari proposatzeko aukera izateari esker aisialdia asko edo nahiko hobetuko litzatekeela uste dutenen ehunekoa. Era berean, ehuneko 7,1 puntu egin du behera dagoen eskaintzari buruzko informazio gehiago izanda udal-aisialdia hobetu egin daitekeela uste dutenen ehunekoak (65. grafikoa).

Oro har, **neskek babes-maila handiagoa ematen diete proposatutako neurri askori**. Kasu honetan, aldeak estatistikoki esanguratsuak dira mutilen eta nesken arteko harremanak sustatzen dituzten jarduerak antolatzeari buruz (nesken % 77,3k babestu dituzte, eta mutilen % 64,6k), pertsona guztiak barne hartzeari buruz (nesken % 70,4k eta mutilen % 58,7k) eta jarduera kulturalen gainean (nesken % 64,2k eta mutilen % 43,1ek). Aisialdiko udal-programazioari buruzko informazio gehiago izateari dagokionez ere, neskek babes-maila handiagoa adierazten dute (% 62,1 eta % 51,7, hurrenez hurren). **Halaber, oso azpimarragarria da 2021ean ez egotea alde estatistikoki esanguratsurik —2017an bazegoen— kirol-jardueren antolaketaari dagokionez, zeinak nesken % 74,1ek eta mutilen % 79,5ek babesten baitituzte.**

Bestalde, kasu hauetan ere ikusten dira zenbait desparekotasun: adinari dagokionez **aipagarria da urteak pasatu ahala behera egiten duela jarduera inklusiboak antolatzeko babesak**. Jarduera horiek hirian aisialdia hobetzen lagunduko luketela uste dute 10 eta 12 urte bitartekoen % 73,4k, 13 eta 15 urte bitartekoen % 62,6k, eta 16 eta 18 urte bitarteko nerabeen % 58,7k.


Azkenik, ikusten da atzeritar jatorriko haur eta nerabeek babes txikiagoa ematen diotela kirol-jarduerak antolatzeari, eta horrek lotura izan lezake bertako jatorria dutenek baino askoz ere lehentasun txikiagoa adierazi izanarekin kirol-jarduerak praktikatzeari, kapitulu honetako 9.3 atalean adierazten denez (53. taula).

Desgaitasuna duten edo ez duten haur eta nerabeen artean aisia-proposamenetan desberdintasunik ageri ez bada ere, dibertsitate funtzionalaren eremuan lan egiten duten erakundeekin izandako elkarrizketetan ikusten da ez dagoela aisialdiko, denbora libreko eta kirol inklusibo eta normalizatzaileko eskaintzarik⁸⁰.

⁸⁰136. Orrialdean jarraitzen du.

AISIALDIKO UDAL-PROGRAMAZIOA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

65. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeen artean aisialdia hobetzeko proposamenetarako babes-mailaren banaketa (%). 2017-2021



Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

59. taula. Gasteizko haur eta nerabeen artean aisialdia hobetzeko proposamenei emandako babes-maila*, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Kirol-jarduera gehiago antolatzea	Gehiago erlazionatzeko jarduerak antolatzea	Gehien gustatzen zaizkigun jarduerak proposatzea	Jarduera inklusiboak antolatzea	Auzoetan jarduerak gehiago antolatzea	Kultura-jarduerak gehiago antolatzea	Informazio gehiago izatea
Generoa							
Neskak	74,1	77,3	69,6	70,4	63,9	64,2	62,1
Mutilak	79,5	64,6	62,9	58,7	62,4	43,1	51,7
Bat ere ez	64,5	52,6	44,4	52,6	49,9	58,9	48,9
Adina							
10 eta 12 artean	80,0	69,6	70,4	73,4	67,6	55,0	59,3
13 eta 15 artean	71,7	70,4	63,4	62,6	61,8	49,0	52,6
16 eta 18 artean	77,0	71,9	63,1	55,9	58,7	57,0	57,8
Jatorria							
Bertakoa	78,9	70,8	66,5	65,5	64,7	52,6	57,5
Atzeritarrak	70,3	70,3	63,9	61,2	58,0	57,3	54,7
Desgaitasuna							
Bai	74,8	71,6	67,7	69,6	64,4	61,7	58,7
Ez	76,6	70,4	65,5	63,6	62,5	52,5	56,5
Guztira	76,5	70,6	65,8	64,3	62,9	53,9	56,8

*«Asko» eta «nahiko» erantzunak taldekatzen ditu.

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

Igerilekuetara iristeko arazoak ere aipatu dituzte, dela temperatura egokiak dituen urik ez dagoelako, dela prestakuntza espezifikoa duten monitoreak falta direlako, edo zaila delako aldageletara sartzea, laguntzailea beste sexukoa denean. Desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, zaila da zinemara joatea ere, lehen lerroan bakarrik jesar baitaitezke eta zeinu-mintzairako interpreteak behar baitituzte, eta ildo hori ere eskasa eta eskusiboa da.

9.7. Aisialdia hobetzeko alderdiak

«*Pandemiaren egungo egoera kontuan hartuta, bururatzen al zaizu zure aisialdia eta zure lagunena hobetzeko egin daitekeen zerbait?*» Aukerako galdera hori bildurik zegoen hiriko 1.000 haur eta neraberi baino gehiagori helarazi zitzairen galde-sortan, eta % 35,8k erantzun zuten; hau da, 400 bat pertsonak argi eta garbi adierazi zituzten aisialdiari eta entretenimenduari buruzko proposamenak, lehentasunak eta nahiak. Batzuetan oso modu berezian edo pertsonalean egin zuten; beste batzuetan, aldiz, planteamendu orokorrakoak edo beste haur eta nerabe batzuei helarazteko modukoak.

Galdera horri erantzun zioten haur eta nerabe gutxi zegoenez —esan bezala, haurren eta nerabeen herenek baino gehixeagok bakarrik egin zituzten proposamen zehatzak—, ezin da esan lortutako erantzunak adierazgarriak direnik. Hala ere, haien freskotasuna, ñabardura-aniztasuna eta heldutasuna kontuan harturik, txosten honetan jaso eta aztertzeoak dira. Erantzun horiek 2 bloketan sailkatu dira. Lehenengoak hurrek eta nerabeek 6 eremu espezifikotan egindako proposamen zehatzak aztertzen ditu. Bigarrenak, berriz, aisialdiaren esparruan egindako proposamenak ditu ardatz, COVID-19aren garaian inplementatu dituzten murrizketekin, prebentzio- eta higiene-neurriekin lotuta.

- Ikuspegi kuantitatibotik, **jasotako proposamenen % 64** —guztira 591 bildu dira— **6 eremutan sailka daitezkeen planteamendu zehatzetan ardatzen dira**; gainerakoak, % 36, une jakinen batean COVID-19ari aurre egiteko ezarritako osasun publikoko murrizketa eta neurrien esparruko planteamendu zehatzei dagozkie.
- Lehenengo erantzun-multzoari dagokionez, 6 eremutan sailkatu dira proposamenak. **Proposamenok, funtsean, gai hauek jorratzen dituzte: espazio irekietan eta naturan jarduera gehiago egitea; kultura- eta entretenimendu-eskaintza zabaltzea**, murrizketekin bateragarri eginez; komunikazio- eta entretenimendu-teknologiaren erabilera eta abusua; berdinen artean soziazitate handiagoa nahi izatea (denbora gehiagoan eta pertsona gehiagorekin); hain murriztailea izango ez den kirol-jarduera baten irrika, eta, halaber, familia- eta etxe-eremuko aisialdi «seguruko» proposamenak.
- Azken urte honetan koronabirusarekin kutsatzea prebenitzeko ezarri diren neurrien inguruko bigarren proposamen-multzoari dagokionez, atera daitezkeen ondorio nagusietako bat da **biziki askotarikoak** direla, eta, inplizituki, **neurri horiek inpaktu ikaragarria dutela haurren eta nerabeen aisialdian eta denbora librean**. Ildo horretatik, aldeko eta kontrako planteamenduak (edo ñabardurak) ageri dira maskararen erabilerari, edukiera-mugei eta oro har ezarritako neurriei dagokienez. Alabaina, nabarmentzekoak dira txertaketaren aldeko planteamendu orokorrak, bai eta etxeratze-aginduaren eta mugikortasun-murrizketen aurkakoak ere.

10. kapitulua.

Hiri-ingurunea eta partaidetza soziala

Hiri-ingurunea funtsezkoa da hiri batean bizi den biztanleriaren eguneroko esperientzian, eta, beraz, eragin bereziki handia du bertako biztanleen bizi-kalitatean. Egia da orain arte gehienbat helduen ikuspegitik egin dela hirigintzaren diseinua; hala ere, gero eta kontzientzia handiagoa dago haur eta nerabeen ikuspegia bizi diren hiri-ingurunearen diseinuan txertatzeko beharraren inguruan.

Atal honetan, batetik, hiri-ingurunearen eta bertan dauden hiri-zerbitzu eta -azpiegituren balorazioa jaso da, eta, bestetik, Gasteizko haur eta nerabeen parte-hartze soziala, azterlan diagnostiko honen esparruan biztanleria-talde horri zuzendutako inkestaren emaitzetatik eta hiriaren alderdi aktibo gisa dituzten iritzietatik abiatuta.

10.1. Haurrek eta nerabeek oso modu positiboan baloratzen dituzte beren bizitegi-inguruneke hiri-espazioak eta -instalazioak, baina alde nabarmenak daude auzoen arabera

Gasteizko haur eta nerabeek bizi diren hiri-inguruneari buruz zer iritzi duten jakiteko asmoz, zenbait hiri-ekipamendu eta azpiegiturari buruzko balorazioa neurtzeko galdera bat sartu da, hiri horretako 10 eta 18 urte arteko ikasleei zuzendutako galde-sortan. Zehazki, azpiegitura hauen gaineko iritzia bildu nahi izan da: berdeguneak eta lorategiak, kirol-instalazioak, jolasteko eta denbora pasatzeko espazioak, merkataritza-establezimenduen presentzia, garraio publikoa, bidegorriak, ikastetxeak eta gizarte-etxeak eta osasun-zentroak. Dimentsio horiek guztiak barnean hartzen dituen galdera inkestatutako biztanleria bizi den auzoari buruzko balorazioa jasotzeko egin da, eta, horri esker, hiri horren barruko lurralde-desparekotasunak azter daitezke.

Oro har, **inkestatutako haur eta neraberik gehienek positiboki baloratzen dituzte bizi diren auzoko hiri-espazioak eta -instalazioak**⁸¹. Izan ere, elementu horietako bakoitza oso ondo edo ondo baloratzen duten pertsonen proportzioa % 70etik gorakoa da kasu guztietan, eta horrek, zalantzarik gabe, onarpen-maila handia erakusten du (66. grafikoa). Ondoen baloratutako ekipamenduen artean daude bizitegi-eremuko berdeguneak eta lorategiak (% 88,6), osasun-zentroa (% 86,3) eta auzoko gizarte-etxea (% 84,5).

⁸¹ Atal honetan, azterketatik at utzi dira Gasteiztik kanpo bizi diren 59 ikasle.

Hiru kasu horietan, % 84tik gorakoa da balorazio positiboa egiten duten haur eta nerabeen proportzioa. Kontrako aldean, nahiz eta balorazio bereziki positiboa izan (% 70etik gorakoa), honako hauek dira positiboak ez diren balorazioen proportziorik handiena jaso duten zerbitzuak⁸²: bizikletentzako bidegorriak (% 28,9k hala-holakoak, eskasak edo oso eskasak direla dio); kirol-instalazioak, hala nola kantzak edo auzoko kiroldegia (% 24,0), eta ikastetxeak (% 18,4).

Kontuan izan behar da Gasteizko auzo guztiek ez dituztela inkestan galdetzen diren hiri-espazio eta -instalazio guztiak, eta, beraz, inkestatutako haur eta nerabeek emandako balorazioa interpretatzeko, ezinbestekoa da emaitzak haien bizilekuaren arabera banakatzea⁸³. 61. taulan, espazio eta instalazio bakoitzerako balorazio positiboaren eta negatiboaren banaketa jaso da, azterlanean parte hartu duen biztanleriaren bizilekuaren arabera. Ikuspuntu horretatik, **aintzat hartutako ekipamenduei buruzko batezbestekoa baino balorazio positiboagoa duten bi eremuak hiriaren iparraldeko eta mendebaldeko auzoetakoak dira**, hau da, Abetxuku, Arriaga-Lakua, El Pilar eta Zaramaga (iparraldea) eta Ali, Sansomendi eta Zabalgana (mendebaldea) auzoetakoak. Nabarmenezkoa da eremu horietako batean bizi diren 10 haur eta nerabetatik 9k positiboki baloratzen dituztela auzoak dituen berdeguneak eta lorategiak. Era berean, inkestaren aurreko edizioan lortutako emaitzekin alderatuz gero, nabarmendu beharrekoa da mendebaldeko auzoetako balorazioetan gertatu den aldaketa. Hain zuzen ere, 2017ko inkestan, eremu horretan aintzat hartutako zerbitzu guztiak —osasun-zentroa izan ezik— hiri osoan baino okerrago baloratu ziren. Oraingo edizio honetan, aldiz, bizitegi-eremu horretako espazioak eta instalazioak (batez ere gizarte-etxeak) jaso dute balorazio positiboaren proportziorik handiena. Litekeena da Zabalgana inguruan duela gutxi gizarte-etxe bat ireki izanak eremu horretako espazio eta instalazioen balorazio-maila hobetzen lagundu izana.

Alabaina, 2 eremu nabarmen dira; horietan, aintzat hartutako zerbitzurik gehienek hiri osorako baino balorazio okerragoa lortu dute (60. taula). **Gasteiz ekialdean** (Babesgatubeak, Judimendi, Salburua, Santa Luzia eta ekialdeko landa-eremua) eta **erdialdean** (Alde Zaharra, Koroatzea, Zabalgunea, Gazalbide, Lovaina, San Martin eta Txagorritxu) dauden auzoak biltzen dituzte. Alde batetik, erdialdearen kasuan, batezbestekoarekin alderatuta balorazioerik okerrera lortu duten zerbitzuak hauek dira: garraio publikoa (inkestatutako 10 egoiliarretik 4k hala-holakotzat, eskastzat edo oso eskastzat jo dute zerbitzu hori) eta, hurrengo, gizarte-etxea (% 23,7), jolasteko eta denbora pasatzeko espazioak (% 21,9), bidegorria (% 21,1) eta berdeguneak (% 20,3). Bestalde, ekialdean, batezbestekoarekin alderatuta balorazioerik kaskarra lortu duten zerbitzuak ikastetxeak (% 33,5) eta kirol-instalazioak (% 31,6) izan dira, eta, hurrengo, merkataritza-guneak (% 22,1), jolasteko eta denbora pasatzeko guneak (% 19,2), berdeguneak eta lorategiak (% 16,9) eta osasun-zentroa (% 18,8).


Desberdintasun geografikoez gainera, inkestaren emaitzek alde nabarmenak eman dituzte haurren eta nerabeen ezaugarriari dagokienez ere (61. taula). Emaitza horien arabera, oro har, neskek mutilek baino okerrago baloratzen dute alderdi bakoitza. Hala ere, oso eskastzat, eskastzat edo hala-holakotzat baloratu dutenen proportzioa handixeagoa da mutilen artean (% 20,9) nesken artean baino (% 15,7). Aldeak handiagoak dira adinaren aldagaia kontuan hartzen denean. **16 eta 18 urte bitarteko ikasleen artean, balioespenak negatiboagoak izan ohi dira adin txikiagoko ikasleek emanikoekin alderatuta**, jolasteko eta denbora pasatzeko guneei eta bizikletentzako erreiei dagokienez.

⁸² Balorazio ez-positiboek erantzun-kategoria hauek biltzen dituzte: «oso eskasa», «eskasa» eta «hala-holakoa».

⁸³ Gai horri hurbilketa geografiko bat eskaintzeko asmoz, 6 eremutan banatu dira Gasteizko egungo 31 auzoak. Eremu bakoitzean dauden auzoak azterlan honetako 60. taulan kontsulta daitezke.

HIRI-INGURUNEAREN BALORAZIOA

66. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeen banaketa (%), hiriko hainbat espazio eta instalazioren balorazio-mailaren arabera. 2021



60. taula. Gasteizko haur eta nerabeen hiriko hainbat espazio eta instalazioren balorazio-mailaren banaketa* (%), bizitegi-auzoaren arabera. 2021

	Bal.	Erdialdea	Eki-aldea	Ipar-ekialdea	Iparraldea	Mendebaldea	Hegoaldea	Guztira
Berdegunek eta lorategiak	+	79,7	83,1	84,8	91,2	91,8	86,2	88,6
	-	20,3	16,9	15,2	8,8	8,2	13,8	11,4
Kirol-instalazioak	+	71,3	68,4	67,2	76,3	79,4	80,6	76,1
	-	28,7	31,6	32,8	23,7	20,6	19,4	23,9
Jolasteko/denbora pasatzeko esp.	+	78,1	80,8	80,8	83,1	85,7	81,6	82,7
	-	21,9	19,2	19,2	16,9	14,3	18,4	17,3
Merkataritza-gunea	+	83,2	77,9	82,7	81,3	84,6	79,0	82,0
	-	16,8	22,1	17,3	18,7	15,4	21,0	18,0
Bidegorriak	+	78,9	83,0	76,4	84,9	79,1	81,1	81,9
	-	21,1	17,0	23,6	15,1	20,9	18,9	18,1
Garraio publikoa	+	58,1	73,0	77,7	72,2	74,8	72,0	71,1
	-	41,9	27,0	22,3	27,8	25,2	28,0	28,9
Ikastetxeak	+	86,2	66,5	83,6	81,6	81,7	84,0	81,6
	-	13,8	33,5	16,4	18,4	18,3	16,0	18,4
Gizarte-etxea	+	76,3	78,3	77,5	86,6	88,7	82,7	84,6
	-	23,7	21,7	22,5	13,4	11,3	17,3	15,4
Osasun-zentroa	+	85,6	81,2	88,3	87,7	89,2	76,3	86,3
	-	14,4	18,8	11,7	12,3	10,8	23,7	13,7

*Balorazioa: (+) «Oso ona» eta «ona» balorazioak dira; (-), berriz, «hala-holakoa», «eskasa» edo «oso eskasa». Errenkada bakoitzean 2 baliorik handienak eta txikiak.

Eremuen eta auzoen arteko harremana (erantzun-kopurua)

Erdialdea (137): Alde Zaharra, Koroatzea, Zabalgunea, Gazalbide, Lovaina, San Martin eta Txagorritxu. **Eki-aldea** (64): Babesgatubeak, Judimendi, Salburua, Santa Luzia eta ekialdeko landa-eremua. **Ipar-ekialdea** (28): Anglo-Vasco, Arana, Aranbizkarra, Arantzabela, Santiago eta ipar-ekialdeko landa-eremua. **Iparraldea** (397): Abetxuku, Arriaga-Lakua, El Pilar, Zaramaga. **Mendebaldea** (297): Ali, Sansomendi eta Zabalguna. **Hegoaldea** (112): Adurtza, Aretxabaleta-Gardelegi, Ariznabarra, Mendizorrotza, San Kristobal eta hego-mendebaldeko landa-eremua.

61. taula. Gasteizko haur eta nerabeen hiriko hainbat espazio eta instalazioren balorazio-maila* (%), sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera. 2021

	Berdegunek	Kirol-instalazioak	Jolasteko eta olgetarako tokiak	Merkataritza-gunea	Garraio publikoa	Bidegorriak	Ikastetxeak	Gizarte-etxea	Osasun-zentroa
Generoa									
Neskak	12,6	26,1	17,7	20,6	21,0	30,8	15,7	14,2	12,4
Mutilak	10,2	21,9	16,9	15,3	15,1	27,4	20,9	16,9	14,9
Bat ere ez	9,7	22,2	16,5	21,3	22,4	21,3	22,4	10,9	15,6
Adina									
10 eta 12 artean	13,8	21,9	14,6	15,7	16,0	23,3	16,1	16,6	16,5
13 eta 15 artean	9,7	26,1	12,8	18,9	15,9	28,8	19,7	16,6	9,9
16 eta 18 artean	10,3	24,1	24,4	19,6	22,6	35,2	19,6	13,0	14,3
Jatorria									
Bertakoa	10,2	22,5	17,9	19,1	18,6	30,9	19,8	15,9	13,1
Atzerritarra	14,5	27,7	15,6	15,1	16,9	23,8	14,8	14,2	15,2
Desgaitasuna									
Bai	11,9	18,9	18,2	19,3	22,9	29,8	17,0	18,8	17,1
Ez	11,3	24,7	17,1	17,8	17,4	28,8	18,6	15,0	13,2
Guztira	11,4	23,9	17,3	18,0	18,1	28,9	18,4	15,4	13,7

*Erantzun negatiboak taldekatzen dira: «hala-holakoa», «eskasa» eta «oso eskasa».

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

10.2. Segurtasuna, garbitasuna, irisgarritasun unibertsala eta ingurumen-arazoak dira hiri-ingurunean garrantzitsuentzat jotzen diren alderdiak, baina haiek dira, orobat, gehien hobetu daitezkeenak

Inkestaren emaitzen arabera, **hauek dira Gasteizko haur eta nerabeentzako alderdirik garrantzitsuenak: segurtasuna** (% 83,1), **garbitasuna** (% 77,9) eta **irisgarritasun unibertsala** (% 74,7). Hiru dimentsio horien ondoren, garrantzitsutzat jotzen dira kutsadura eta beste ingurumen-arazo batzuk (% 73,4), lasaitasuna (% 71,3) eta mugikortasuna eta trafikoa (% 56,6). Azkenik, **edertasuna** (% 33,7k soilik eman dio garrantzi handia) eta **auzokideekiko harremana** (% 51,4k) dira **garrantzi gutxien eman zaien dimentsioak**. Inkestaren 2017ko edizioarekin alderatuta, azpimarratu behar da nabarmen egin duela gora ingurumen-arazoei emandako garrantziak (2017an, % 49,3k baino ez zuen oso garrantzitsutzat jo alderdi hori, eta 2021ean, berriz, % 73,4k). Orobat, nabarmentzekoa da irisgarritasunari (% 67,1etik % 74,7ra) eta garbitasunari (% 74,3tik % 77,9ra) emaniko garrantzian izaniko bilakaera. Aldiz, ikusten da behera egin duela auzokideekiko harremanei emandako garrantziak (% 65,6tik % 51,4ra).


Dimentsio bakoitzari ematen zaion garrantziaz ez ezik, hobetzeko marjinaz ere galdetzen zen inkestan. Horri dagokionez, hauxe da ondorio nagusia: garrantzitsuentzat jotako 4 dimentsioak bat datoz hobegarriztat jotako 4 dimentsioekin, baina alderantzizko ordenan. Hain zuzen ere, aztertutako eremuen artean **hauek dira kontsultatutako ikasleen proportziorik handienak hobetu beharrekotzat jotzen dituen alderdiak: ingurumen-arazoak** (% 54,5), **irisgarritasun unibertsala** (% 51,2), **garbitasuna** (% 50,6) eta, ehuneko txikiagoarekin, **segurtasuna** (% 44,8). Aldiz, galdekatutako 10 haur eta nerabetik 6k ez dute beharrekotzat jotzen auzoko lasaitasuna (% 63,9k), edertasuna (% 63,6k), auzokideekiko harremana (% 62,5k) eta mugikortasuna edo trafikoa (% 61,1k) hobetzea.

Berriz ere, emaitzak inkestatutako pertsonen bizilekuen arabera banakatuz gero, zenbait ondorio interesgarri atera ditzakegu (68. grafikoa). Lehenik eta behin, segurtasuna da alderdi guztietatik garrantzitsuen auzo guztietan. Horren ondoren, garbitasuna da gehien baloratzen den alderdia, hiriko gunerik gehienetan (erdialdean, ekialdean, ipar-ekialdean eta iparraldean). Hala ere, Gasteizko hegoaldeko eta mendebaldeko haur eta nerabeek, segurtasunaren ondotik, garrantzi handiagoa ematen diote irisgarritasunari garbitasunari baino. Bigarrenik, nabarmendu behar da **identifikatutako elementuak hobetzeari garrantzirik gehien —hiriaren batez bestekoaren gainetik— ematen zaion eremua bat datorrela Gasteiz iparraldearekin** (Abetxuku, Arriaga-Lakua, El Pilar eta Zaramaga auzoak bildu dira bertan). Hirugarrenik, egia bada ere ingurumen-arazoak, irisgarritasuna eta garbitasuna direla hobetu beharreko 3 alderdiak ezarritako 6 eremuetatik 3tan (iparraldean, mendebaldean eta hegoaldean), beste 3 eremuetan emaitzak zertxobait aldatzen dira. Izan ere, iparraldeko eta ipar-ekialdeko haurrek eta nerabeek gainerako eremuetan baino hein handiagoan irizten diote garrantzitsu auzoko segurtasuna hobetzeari. Halaber, erdialdean eta ekialdean, mugikortasuna eta trafikoa hobetu beharko liratekeela adierazten dute.

Desberdintasun geografikoez gainera, alde deigarri batzuk ikusten dira inkestan parte hartu duten adingabeen ezaugarri soziodemografikoak kontuan hartuz gero ere (62. taula). Ezberdintasunik nabarmenen artean, genero-desparekotasunak eta neskek eta mutilek auzoa hautemateko duten modu ezberdina nabarmendu behar dira. Oro har, **neskek mutilek baino garrantzi handiagoa ematen diote segurtasunari, garbitasunari, ingurumenari eta irisgarritasunari**, eta, horien artean, handiagoa da auzoko segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzea beharrekotzat jotzen dutenen proportzioa. Adinari dagokionez, esanguratsua dira dimentsio batzuetan ikusten diren aldeak ere. Oro har, **haur eta neraberik zaharrenek** (16 eta 18 urte bitartekoak) **garrantzi handiagoa ematen diote bizi diren auzoko lasaitasunari, edertasunari eta garbitasunari**, eta **parte-hartzailerik gazteenek** (10 eta 12 urte bitartekoak), berriz, **hobetzeko tarte handiagoa ikusten dute lasaitasunari, auzokideen arteko harremanei eta ingurumenari dagokienez**. Azkenik, azpimarratu behar da inguruko lasaitasunarekin lotutako pertzepzio apur bat zabalduagoa dagoela desgaitasuna duten biztanleen artean.

INGURUNeko ELEMENTU GARRANTZITSUAK ETA HOBETU DAITEZKEENAK

67. grafikoa. Gasteizko haurrek eta nerabeek hiriko hainbat elementuri emaniko garrantzia eta elementuok hobetzeko aukera (%). 2021



68. grafikoa. Gasteizko haurrek eta nerabeek hiriko hainbat elementuri emaniko balorazioa eta elementuok hobetzeko aukera, bizi diren auzoaren arabera (%). 2021

	Erdialdea	Ekialdea	Ipar-ekialdea	Iparraldea	Mende-baldea	Hegoaldea	Guztira
Garrantzi handia (%)							
Lasaitasuna	76,9	70,7	72,1	74,0	66,3	65,9	71,3
Segurtasuna	88,2	75,3	80,1	84,9	79,1	84,4	83,1
Edertasuna	39,5	29,5	20,9	35,1	29,1	37,8	33,7
Garbitasuna	81,2	77,4	88,9	79,6	73,1	76,0	77,9
Mugikortasuna eta trafikoa	55,3	58,0	48,4	58,6	54,9	55,4	56,6
Ingurumen-arazoak	76,1	72,2	76,5	73,9	70,8	74,4	73,4
Auzotarrekiko harremanak	45,3	41,5	59,3	52,0	52,8	58,0	51,4
Irisgarritasuna	77,7	73,8	74,1	72,5	75,9	77,2	74,7
Hobetu daitezke (%)							
Lasaitasuna	34,5	42,4	21,5	39,3	33,9	30,7	36,1
Segurtasuna	40,6	39,4	48,0	48,6	42,4	42,8	44,8
Edertasuna	32,9	47,6	39,7	37,9	34,7	32,4	36,4
Garbitasuna	40,2	48,1	45,3	53,6	52,1	50,7	50,6
Mugikortasuna eta trafikoa	42,8	56,0	37,5	38,2	32,9	42,0	38,9
Ingurumen-arazoak	51,1	51,4	33,1	57,6	55,8	50,3	54,5
Auzotarrekiko harremanak	37,6	30,0	17,2	40,5	39,6	29,8	37,5
Irisgarritasuna	43,9	42,6	54,2	56,3	49,8	47,6	51,2

Oharra: zutabe bakoitzeko, emandako garrantziari dagokionez 2 baliorik handienak agertzen dira nabarmenduta, eta hobetu daitezkeen alderdiei dagokienez 3 nabarietan.

62. taula. Gasteizko haurrek eta nerabeek hiriko hainbat elementuri emaniko balorazioa eta elementuok hobetzeko aukera, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2021

	Lasaitasuna		Segurtasuna		Edertasuna		Garbitasuna		Mugikortasuna eta trafikoa		Ingurumena		Auzotarren arteko harremanak		Irisgarritasuna	
	G	H	G	H	G	H	G	H	G	H	G	H	G	H	G	H
Generoa																
Neskak	70,8	38,3	87,9	49,8	33,9	33,7	82,1	51,4	55,1	36,3	77,0	56,8	50,4	35,8	81,5	54,8
Mutilak	72,2	33,7	79,5	39,6	33,6	39,6	75,1	50,4	58,0	42,1	71,1	52,5	52,6	39,3	68,3	48,2
Bat ere ez	64,0	42,8	54,8	46,7	32,4	26,1	45,9	36,0	54,6	25,2	45,1	47,6	46,9	35,8	66,3	40,8
Adina																
10 eta 12 artean	69,6	41,8	84,6	43,6	31,3	35,8	74,5	53,3	57,1	40,6	70,9	58,1	58,1	34,2	76,0	52,3
13 eta 15 artean	66,0	35,9	81,0	46,1	28,5	36,1	74,9	49,5	53,8	41,1	71,2	60,2	49,6	39,4	76,0	53,3
16 eta 18 artean	78,4	29,9	83,6	44,8	41,5	37,6	84,6	48,5	58,7	35,0	78,3	45,0	45,9	39,5	72,0	48,1
Jatorria																
Bertakoa	70,8	34,4	83,8	45,0	32,3	37,1	79,3	51,9	55,9	40,2	72,9	54,9	51,1	38,0	74,4	50,4
Atzeritarra	72,8	40,7	81,3	44,1	37,5	34,8	74,3	47,0	58,2	35,6	74,7	53,5	52,1	36,4	75,4	53,4
Desgaitasuna																
Bai	75,6	44,2	81,9	50,2	37,4	35,0	75,3	47,0	57,9	39,6	72,7	52,9	54,4	35,6	75,7	51,3
Ez	70,7	34,9	83,3	44,0	33,2	36,7	78,3	51,1	56,4	38,8	73,5	54,7	51,0	37,8	74,5	51,2
Guztira	71,3	36,1	83,1	44,8	33,7	36,4	77,9	50,6	56,6	38,9	73,4	54,5	51,4	37,5	74,7	51,2

G: elementuak oso garrantzitsutzat jotzen dituzten ikasleen %-a. H: hobetu daitezkeela uste duten ikasleen %-a.

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera.

Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkesta (2021).

10.3. Haurrek eta nerabeek uste dute gaitasun eta ahalmen handia dutela hiriko gaitan parte hartzeko, baina uste dute ez zaiela entzuten

Haurren parte-hartzea da Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako eskubideetako bat; izan ere, hitzarmen haren arabera, haurrak iritzi bat izateko moduan egotea bermatu behar dute estatuek, eta beraiei eragiten dieten egoerei buruzko iritzia askatasunez emateko aukera izatea, betiere horien iritzia adinaren eta heldutasunaren arabera kontuan hartuta (Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 12. artikulua). Eskubide aitortua izan arren, eta, gainera, hainbat alderdi garatzen lagunduagatik ere —hala nola emozionalak, kognitiboak, kulturalak eta sozialak—, eskubide hori benetan aitortzea eta garatzea mugatuta dago oraindik ere, eta, beraz, sakontzen jarraitzea garrantzitsua dela esan daiteke.

Gasteizko adingabeen parte-hartzeari buruz lortutako erantzunetatik ondoriozta daitekeen ideia nagusietako bat da **gaitasun subjektibo handia dagoela hiriko gaitan parte hartzeko**, eta, gainera, gora egin duela azken 4 urteetan. 69. grafikoko emaitzek erakusten dutenez, **10 parte-hartzaitatik 8 inguru gai sentitzen dira, hiriaren esparruan, haur eta nerabeen interesak defendatzeko** (% 79,5), **eta gehienek uste dute lagun dezaketela hiria hobetzen** (% 94,4). Hala ere, parte hartzeko gaitasun handi hori **ez dator bat haur eta nerabeek sarri samar adierazi duten beste pertzepzio batekin; alegia, haien iritziak gutxi entzuten eta aintzatesten dituztela**. Izan ere, adierazitako ehuneko handiekin alderatuta, haur eta nerabeen erdiek baino gehixeagok (% 52,3k) uste dute erabakiak hartzen dituzten pertsonak ez dutela batere kontuan hartzen haurren eta nerabeen iritzia. 2017ko datuekin alderatuta, gora egin du hiria hobetzen lagun dezaketela uste dutenen ehunekoak (% 89tik % 94,4ra), bai eta haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko gai sentitzen direnenak ere (% 77,1etik % 79,5era). Horrekin kontrajarririk, adierazten dute adingabeen iritziak ez direla behar bezala entzuten eta aintzat hartzen.

Haurrek eta nerabeek Gasteizen duten parte-hartzeari dagokionez, nabarmentzekoak dira Arabako hiriburuko udalak azken urteotan abian jarritako 2 ekimen.

- Lehenik eta behin, *Aktiba(tu) programa*⁸⁴, 18 urte arteko neska-mutilei zuzendua, zeinaren helburua baita Gasteizko haur eta nerabeek beren eskubideak eta horiek dakartzaten erantzukizunak ezagutzea, eta, aldi berean, eskubide horiek gauzatzea. Programa horren helburua da haien parte-hartzea sustatzea, ikaskuntza-esperientzien bidez eta partaidetza- eta kontsultataldean bitartez, haurrek eta nerabeek iritzia eman ahal izan dezaten hiriaren parte aktibo gisa. Programa horrek 3 lan-ildo aurreikusten ditu: batetik, haurren eta nerabeen eskubideak sustatzea; bigarrenik, haurren eta nerabeen parte-hartzea, eta, hirugarrenik, haurren eta nerabeen eskubideak eta partaidetza zabaltzea eta haien gainerako sentsibilizazioa sustatzea. Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Programa 2006an jarri zen abian *Lagunkide* izenarekin. 2013an, programa birdiseinatzeko prozesu bat hasi zen, eta, bertan, programan parte hartu duten alderdi guztien ekarpenak integratu dira (neska-mutileenak, haurtzaroarekin eta nerabezaroarekin lotutako teknikarienak eta gurasoenak). Berrito diseinatzeko prozesu horren helburua izan da prozesua osatzen duten jarduerak doitzea eta jarduera berriak sortzea, egungo beharrei erantzun ahal izateko eta, hartara, hartzailleengana modu afektiboagoan iristeko.

⁸⁴ Gaur egun, hauek dira [Aktiba\(tu\) programaren](#) barruko jarduerak: Eskubideen Batzordeak; Antzerki-foruma; Hirikoak; Haurrek eta nerabeek parte hartzeko foroak; Bloga; Zabalkunde-jarduerak; Aktiba(tu) planeta; Eman pauso bat zure eskubideen alde, eta Haur eta Nerabeen Elkargunea.

- Bigarrenik, *Haur eta Nerabeen Elkargunea*⁸⁵ haurren eta nerabeen (8 eta 14 urte artekoen) partaidetzarako udal-organoa da, eta Aktiba(tu) Haurren Partaidetza Programaren parte da. Udalaren eta haurren arteko zuzeneko espazio edo kanal bat da, zeinaren bidez haurrek eta nerabeek beren iritziak, itxaropenak eta proposamenak adierazi eta partekatu ahal izaten dituzten, alderdi aktibo eta arduratsu gisa interesatzen zaizkien gaiei buruz edo hirirako garrantzitsuak eta beharrezkoak iruditzen zaizkien gaiei buruz; horien artean nabarmentzekoak dira ingurumena, jolas-guneak, gizarte-etxeak, haurren pobrezia, mugikortasuna, haur-parkeak, bizikidetzak eta beste hainbat.

Gasteizko Udalak parte hartzeko 2 formula horiei nolabaiteko bultzada eman dien arren, inkestaren emaitzek agerian uzten dute **2 jarduera horiei buruzko ezagutza urria dagoela kontsultatutako biztanleen artean** (69. grafikoa). Ildo horretatik, parte hartu duten 10 haur eta nerabetik 2k soilik ezagutzen dute *Aktiba(tu) Programa* (% 20,5ek), eta % 24k baino gutxiagok ezagutzen du *Haur eta Nerabeen Elkargunea*. Bi kasuetan, **programak ezagutzen dituztenen ehunekoa % 5,3koa baino ez da**.

Azkenik, haur eta nerabeek hirian duten partaidetza hobetuko luketen ekintzei buruz ere galdetu da inkestan (69. grafikoa). **Haurren eta nerabeen parte-hartze soziala hobetzen lagun lezaketan jarduketan artean, nabarmentzekoak dira 2 neurri hauek**, garrantzirik handiena eman zaielako: alde batetik, **haurrek eta nerabeek eragiten dieten arazoak konpontzeko duten gaitasuna hobetzea** (% 89,8k uste du neurri horrek asko edo dezente hobetuko lukeela haien parte-hartzea) eta, bestetik, **haien iritziak aintzat hartzea, eta erantzuna ematea** (% 89,7k). Bi neurri horien ondoren, hauek dira garrantzirik handiena duten proposamenak: iritziak askatasunez adierazteko seguru sentitzeko guneak sortzea (% 87,3ren ustez, neurri hori nahiko edo oso garrantzitsua da parte-hartzea hobetzeko) eta haien eskubideak hobeto ezagutzea (% 86,4). Azkenik, nahiz eta garrantzi txikiagoa eman zaien, nabarmentzekoak dira parte hartzeko moduari buruzko informazioa jasotzera (% 81,4) eta nola parte hartu ikastera (% 81,2) bideratutako ekintzak.




63.taulan aurkezten dira haurrek eta nerabeek hiriko gaietan duten parte-hartzeari buruzko emaitzak, hainbat ezaugarriaren arabera. Inkestatutakoek ikasten duten zentroaren titulartasunari erreparatuz gero, **sare publikoko ikasleek itunpeko sarekoek baino hein handiagoan sentitzen dute gai direla beren interesak defendatzeko, eta hein handiagoan uste dute botere publikoak ez direla gai haien erabakiak kontuan hartzeko**. Halaber, Gasteizko haurren eta nerabeen parte-hartzearekin lotutako programei buruzko ezagutza ere handiagoa da ikastetxe publikoetan ikasten dutenen artean. Hezkuntza-sare publikoko ikasleen artean ere pertzepzio handiagoa dago ideia honen inguruan: neurri jakin batzuk —hala nola erantzuna emateak eta haien iritziak kontuan hartzea, bai eta parte hartzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko aukerak ere— lagungarriak izan daitezke udalerrian parte hartzeko bidea hobetzeko.

Bestalde, kontsultatutako pertsonen sexuari erreparatuta ikusten da haur eta nerabeek hiria hobetzen lagun dezaketela uste duten nesken ehunekoa handixeagoa dela mutilena baino. Era berean, inkestatutako neskek uste dute —adin bereko mutilek baino gehiagok uste ere— proposatutako neurri bakoitza lagungarria izan daitekeela haurrek eta nerabeek hiriko hainbat eremutan duten parte-hartzea hobetzeko. Azkenik, adinari dagokionez, aipatu behar da erabakiak hartzeko garaian haurrak eta nerabeak kontuan hartzen direla uste dutenen proportzioak behera egiten duela inkestan esku hartu duten pertsonen adinak gora egin ahala. Izan ere, 10 eta 12 urte bitarteko 10 haurretatik 6k uste dute kontuan hartzen dituztela erabakiak hartzerakoan; 16 eta 18 urte bitarteko artean, berriz, antzeko ehuneko batek du kontrako iritzia. Azkenik, ikus daitezke adin handiagoko (16-18 urteko) haur eta nerabeek eta atzerritar jatorriko haurrek garrantzi handiagoa ematen dietela prestakuntza-neurriekin adin txikiagoko edo bertan jaiotako biztanleek baino.

⁸⁵ [Haur eta Nerabeen Elkarguneak](#), gainerako Elkarguneekin batera, Kontseilu Soziala osatzen du.

HAURREN ETA NERABEEN PARTE-HARTZEA HIRIAN

69. grafikoa. Gasteizko haur eta nerabeek hirian duten parte-hartzearekin lotutako hainbat gairi buruzko iritzia (%). 2021



63. taula. Gasteizko haurrek eta nerabeek hirian duten parte-hartzearekin lotutako hainbat gairi buruzko iritzia, hainbat aldagaiaren arabera (%). 2021

	Gaitasuna (adostasunaren %-a)			Programen ezagutza (%)	Partaidetza hobetuko luketen alderdiak (%-a, asko eta nahiko)					
	Hiria hobetzen lagun dezakegu	Gai gara gure interesak defendatzeko	Kontuan hartzen gaituzte		Baten bat ezagutzen dut edo entzun dut	Gure eskubideak hobeto ezagutzea	Nola parte hartu ikastea	Arazoak konpontzeko gaitasuna hobetzea	Espazio seguruak sortzea	Iritziak kontuan hartzea eta erantzutea
Titulartasuna										
Publikoa	95,8	82,2	44,3	37,7	88,3	83,3	91,2	88,3	91,7	84,5
Itundua	93,1	77,1	50,6	27,0	84,9	79,3	88,7	86,4	87,8	78,5
Generoa										
Neskak	96,4	80,3	47,3	33,8	87,4	83,3	92,5	91,5	92,3	85,0
Mutilak	93,3	79,7	49,1	30,5	86,7	79,9	88,7	84,0	88,3	78,7
Bat ere ez	71,2	56,1	21,6	27,4	58,9	63,4	57,1	67,9	59,9	57,1
Adina										
10 eta 12 artean	95,1	76,8	59,8	32,6	86,0	82,0	88,9	88,3	89,4	80,3
13 eta 15 artean	93,4	82,8	41,8	32,7	82,8	74,3	87,9	86,1	88,7	79,3
16 eta 18 artean	94,5	79,4	39,9	31,0	90,3	86,6	92,7	87,3	90,7	84,4
Jatorria										
Bertakoa	93,8	80,0	46,4	32,1	86,2	79,8	89,9	87,8	89,9	80,3
Atzerritarra	96,0	78,2	50,8	32,1	87,2	85,1	89,7	86,0	88,9	84,3
Desgaitasuna										
Bai	92,9	77,8	51,1	32,6	86,6	79,4	87,8	88,1	88,0	80,5
Ez	94,6	79,8	47,1	32,0	86,4	81,5	90,2	87,2	89,9	81,5
Guztira	94,4	79,5	47,7	32,1	86,5	81,2	89,9	87,3	89,6	81,4

Oharra: estatistikoki esanguratsuak diren aldeak nabarmenduta agertzen dira, $p < 0,01$ erako Khi-karratuaren probaren arabera. Iturria: Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeen zuzendutako inkesta (2021).

10.4. Haur eta nerabeen parte-hartzearen mugak eta erronkak Gasteizen

Aurreko atalean zehaztu denez, Haurren eta Nerabeen Elkargunea parte hartzeko organo egonkor bat da, eta Gasteizko 8 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzendurik dago. 2017ko ekainaren 23an onetsi zen Osoko Bilkuran, Haur eta Nerabeentzako Udal Planak (HANUP) sustatutako ekintzen barruan, haurren eskubideak sustatzearekin bat etorriz. Haur eta Nerabeen Elkarguneak urte bereko abenduan egin zuen lehen bilkura. Haren jarduerari dagokionez, Gasteizko Udalak egindako Gizarte Politiketari, Adinekoen eta Haurren Sailaren urteko memorietan jasotzen denez, 2 saio egin zituzten 2019-2020 ikasturtean, eta guztira 85 haur eta nerabek hartu zuten parte. 2017-2018 eta 2018-2019 edizioetako bakoitzean 3 saio egin ziren, eta 95 eta 78 lagunek esku hartu zuten, hurrenez hurren.

Gasteizen haurren eta nerabeen eskubideen arloan lan egiten duten erakundeek azterlan diagnostiko honen esparruan adierazitako balorazio kualitatiboari dagokionez, esan daiteke, oro har, parte hartzen duten erakundeek positiboki baloratzen dituztela Elkargunearen bidez haurrek parte hartzeko egindako jarduerak. **Modu positiboan baloratutako alderdietako bat da Elkarguneko parte-hartzea ez dagoela hezkuntza-eremuarekin soilik lotuta**, eta, ildo horretan, komenigarritzat jotzen dute mekanismo horretara iristeko bideak indartzea, parte-hartzea handitzeko.

Hala ere, **hauteman da hobetzeko moduko alderdirik ere**. Lehenik eta behin, **erakundeek adierazi dute ez dagoela parte hartzeko gune espezifikorik hiriko nerabeentzat**. Ildo horretan, azterlanean parte hartu duten erakundeek nabarmendu dutenez, 14 urtetik aurrerako nerabeei gazte-elkargunea dagokie eta, hala ere, ez zaie heltzen etapa horretako interes eta arazo espezifikoak. Hori dela eta, uste dute kolektibo horrek ez daukala ez mekanismorik, ez ordezkariarik. Horregatik proposatu dute neska-mutil horien parte-hartzea sustatzea, 14 eta 18 urteko adin-tarterako berariazko elkargune baten bidez.

Bigarrenik, desgaitasunaren eremuan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeen aburuz, **eskasa da dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen parte-hartzea Elkargunearen bidez**; izan ere, zenbait kasutan, kontsulta-mekanismoetat baina ez dute hartzen, baina irizten diote ez dela aplikatzen eraginkortasunez.

Azkenik, Tokiko Planean jasotako ekintzetan nolabaiteko inplikazioa duten udal-teknikariak kritiko agertu dira adingabeen benetako parte-hartzearekin. Inkestan islatzen denez, parte-hartzea bigarren mailan geratzen da askotan, azpiko interesen eraginez edo. Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen dute gai horretan sentsibilizatzea eta haurren eta nerabeen benetako beharretan arreta jartzea. Etorkizunari begira, baikor ageri dira Hobetuz Txiki Programak eskaintzen dituen aukerekin⁸⁶.

⁸⁶ [Gasteiz Hobetuz](#) programa parte hartzeko eta hiria kudeatzeko tresna bat da, eta, haren bidez, herritarrek udal-baliabideen xedea proposatu eta erabaki dezakete. 2022-2023 ediziorako, diru-zenbateko bat bideratuko da Hobetuz Txiki programarako, haurrek bultzatutako proposamenak kontuan hartzeko.

11. kapitulua.

Haurren eta nerabeen zaurgarritasun-egoerei eta babesgabetasun-arriskuari emaniko arreta

Haur zaurgarriak eta babesgabetasun-arriskuan daudenak dira Gasteizko haur eta nerabeen egoerari buruzko hamaikagarren kapituluaren ardatzak. Hurrengo orrialdeetan aztertu da zer bilakaera izan duten, azkenaldian, udaleko gizarte-zerbitzuen programen, zerbitzuen eta prestazioen bidez artaturiko seme-alaba adingabeak dituzten familien kopuruak eta ezaugarriak, eta, orobat, udalerriko haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoerek. Analisi hori osatzeko, hainbat udal-teknikarik hiriko zaurgarritasun-egoeren inguruan egindako balorazioak eta iritziak aztertu dira.

11.1. 2017 eta 2020 artean, nahiko egonkorra izan da 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jaso duten familien kopurua

2017-2020 aldirako eskuragarri dauden datuetatik abiatuta atera daitekeen ondorio nagusietako bat da **azken urteotan nahiko egonkor mantendu dela (4.400 inguruan) 0 eta 17 urte bitarteko seme-alabak dituzten eta udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jaso duten familien kopurua**⁸⁷; hau da, bai oinarrizko gizarte-zerbitzuetan, bai Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuan, bai Gizarte Inklusioaren Zerbitzuan.

Datu horiek oso bestelakoak dira diagnostikoan emandakoen aldean; izan ere, asko ugaritu dira ardurapean seme-alabak dituzten eta udal-arreta jaso duten familiak. Hain zuzen ere, 64. taulan ikus daiteke 2013-2016 laurtekoan udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako familien kopurua % 12,3 hazi zela, eta 2017 eta 2020 artean, berriz, hazkundea % 0koa izan zela. Hala ere, bi ñabardura garrantzitsu egin behar dira:

- **2016. urteaz geroztik, ia etengabea da haurrak eta nerabeak dituzten familientzako arreta-maila.** 2016tik eskura dagoen informaziotik ondoriozta daitekeenez, urte horretatik aurrera maila berean eutsi zaio seme-alabak dituzten familiei zuzendutako udaleko gizarte-zerbitzuen arretari. Aldi horretan, Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuek 17 urte arteko haur eta nerabeak dituzten udalerriko familia guztien % 16ri eman diete arreta, eta udalerriko adingabe guztien % 18 edo % 19ri.

⁸⁷ Urteko uneren batean aktibo egon diren familia-espedienteak bakarrik hartzen dira kontuan.

- **2020an, seme-alaba adingabeak dituzten familientzako arreta % 2,7 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta.** Udaleko gizarte-zerbitzu guztiak aktibo egon ziren arren —krisiaren hasieran, lanaren zati bat telefono bidez egin zuten, larrialdietan izan ezik⁸⁸—, 2020ko arreta-datuek agerian uzten dute % 2,7 murriztu dela seme-alaba adingabeak dituzten familientzako arreta. Nolanahi ere, murrizketa oso txikia izan arren, **zenbateko hori ez dator bat guztira artatutako familien kopuruarekin, zeina % 0,6 bakarrik murriztu baitzen 2019tik 2020ra bitartean.**

Askotarikoak dira seme-alaba adingabeak dituzten eta udaleko gizarte-zerbitzuetara jotzen duten familien arazoak eta zailtasunak (65. taula). 2020ko abenduaren 31ko datuek agerian uzten dutenez, **hauek dira arazo nagusiak**, ordena honetan bertan: **ekonomikoak, informaziorik eza eta laneratzeko zailtasunak**; hurrenez hurren, artatutako seme-alaba adingabeak dituzten familien % 70i, % 63ri eta % 43ri eragiten zieten. Neurri txikiagoan bada ere, ardurapean adingabeak dituzten familien % 20 eta % 25 baitaude haien eraginpean, honako hauek leudeke: bizikidetzaren desorekako arazoak (% 25), gizarteratzeko zailtasunak (% 23) eta haurren eta nerabeen babesgabetasun-arazoak (% 21).

2020ko datuetatik abiatuta, eta 2019ari dagokionez, ondorio hauek atera daitezke:

- Kopuru erlatiboetan, seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten familien artean hauek dira **gehien handitu diren bi arazoak**: batetik, **etxeko indarkeria eta genero-indarkeria** eta, bestetik, **etxebizitza-arazoak**. Biak ala biak 2020an familien % 11ri eragin dioten arazoak dira, eta % 6 eta % 8 hazi ziren, hurrenez hurren.
- Beste muturrean, hauek dira **2019. urtearekin alderatuta gehien murriztu diren arazoak**: **eskolaratzeko zailtasunak** (familien % 6ri eragin diete 2020an) eta **gizarteratzeko zailtasunak** (familien % 23ri eragin diete). Bi arazoak % 10,4 eta % 6,1 murriztu ziren.
- Era berean, 2020ko datuek agerian utzi dutenez, **haurren eta nerabeen babesgabetasun-arazoak dituzten familien kopurua ez da murriztu 2019arekin alderatuta, etxean konfinatuta egon arren**. Are gehiago, arazo hori zuten familien kopurua handiagoa izan zen 2020an (889 familia) 2019an baino (883 familia).

Ikuspegi zabalago batetik, 2016-2020 aldia aukeratuz gero ondorio nagusi hauek atera daitezke:

- **Kopuru erlatiboetan gehien handitu diren arazoaren artean daude etxebizitza-arazoak** (% 15,3 hazi dira) eta **haurren eta nerabeen babesgabetasun-arazoak** (% 10,4).
- **2016. urtearekin alderatuta, laneratzeko zailtasunak eta arazo ekonomikoak dira kopuru absolutuetan gehien murriztu diren problematikak**. 2020an, udaleko gizarte-zerbitzuek 2016an baino 608 eta 382 pertsona gutxiago artatu dituzte, hurrenez hurren. Era berean, nabarmen murriztu dira bizikidetzaren desoreka-arazoak (% 19,9) eta gizarteratzeko zailtasunak (% 12,9).

⁸⁸ Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren 2020ko Memorian adierazten denez, telefono bidezko arreta-modalitatea martxan ipintzeaz gainera, udal-zerbitzuak irekita egon ziren berehalako larrialdiko arreta osagarria emateko. Txosten horretan ondorioztatzen denez, modu horretan bermatu zen esku-hartzeak aurrera segitzea, eta jarraipen estua egin zitzaizen erabiltzaileei, zaurgarritasun bereziko kasuak zehaztuz eta laguntzeko aukerak gaituz.

UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATURIKO FAMILIA SEME-ALABADUNAK**64. taula. 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren arreta jaso duten familien bilakaera. 2017-2020**


	2017	2018	2019	2020	Bilakaera 2017-2019	Bilakaera 2019-2020
Kopurua						
Guztira artatutako familiak	14.247	14.230	14.986	14.892	% 5,2	-% 0,6
< 18 urteko seme-alabak dituzten familia artatuak	4.333	4.347	4.449	4.330	% 2,7	-% 2,7
Artatutako pertsonak guztira	28.688	28.723	29.950	29.456	% 4,4	-% 1,6
< 18 urteko pertsona artatuak	7.954	7.970	8.135	7.835	% 2,3	-% 3,7
Biztanleria osoarekiko (%)						
Guztira artatutako familiak	% 13,7	% 13,5	% 14,2	% 14,0	% 3,9	-% 1,3
< 18 urteko seme-alabak dituzten familia artatuak	% 16,1	% 16,1	% 16,4	% 16,0	% 2,1	-% 2,8
Artatutako pertsonak guztira	% 11,6	% 11,5	% 11,9	% 11,6	% 2,4	-% 2,5
< 18 urteko pertsona artatuak	% 18,4	% 18,2	% 18,5	% 17,7	% 0,3	-% 4,1
Artatutako guztizkoarekiko (%)						
< 18 urteko seme-alabak dituzten familia artatuak	% 30,4	% 30,5	% 29,7	% 29,1	--	--
< 18 urteko pertsona artatuak	% 27,7	% 27,7	% 27,2	% 26,6	--	--

* Tasak familia-etxe guztien (Udal Errolda) eta udalerrian bizi diren pertsonen gainean kalkulatu dira (Etengabeko Erroldaren Estatistika).
Iturriak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala; EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

65. taula. 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren arreta jaso duten familien banaketaren bilakaera, arazo-motaren arabera. 2017-2020

	2017	2018	2019	2020	Bilakaera 2017-2019	Bilakaera 2019-2020
Arazo ekonomikoa	3.168	3.069	3.004	3.032	-% 5,2	% 0,9
Informazio falta	2.561	2.599	2.660	2.715	% 3,9	% 2,1
Laneratzeko zailtasunak	2.211	2.072	1.976	1.857	-% 10,6	-% 6,0
Bizikidetza-desorekak	1.235	1.191	1.165	1.104	-% 5,7	-% 5,2
Gizarteratzeko zailtasunak	1.059	1.021	1.073	1.008	% 1,3	-% 6,1
Haurren eta nerabeen babesgabetasuna	763	830	883	889	% 15,7	% 0,7
Osasuna	442	442	473	455	% 7,0	-% 3,8
Etxeko indarkeria eta genero-indarkeria	377	402	434	460	% 15,1	% 6,0
Etxebizitza-arazoa	341	371	427	461	% 25,2	% 8,0
Eskolatzeko zailtasunak	296	300	299	268	% 1,0	-% 10,4
Egokitze psikoafektiboa	322	350	334	339	% 3,7	% 1,5
Baliabide pertsonalen gabezia	234	240	244	254	% 4,3	% 4,1
Beste arazo batzuk	104	97	105	111	% 1,0	% 5,7
Arazoak guztira*	13.113	12.984	13.077	12.953	-% 0,3	-% 0,9
< 18 urteko seme-alabak dituzten familia artatuak	4.333	4.347	4.449	4.330	% 2,7	-% 2,7
Arazo-kopurua familia bakoitzeko	3,03	2,99	2,94	3,00		

*Batura 3.867 (2013) eta 4.343 (2016) familiakoa baino handiagoa da; izan ere, gerta daiteke familia berak zenbait arazo izatea.
Oharra: urdinez, aldi bakoitzean gehien ugartu diren arazoak gehitu dira, eta berdez, berriz, gehien murriztu direnak.
Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

70. grafikoa. 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren arreta jaso duten familien arazo nagusien prebalentziaren bilakaera*. 2013-2020

*18 urtetik beherako adingabeak dituzten familia-etxeen guztizkoaren gainean kalkulatu dira prebalentziak.
Iturriak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

11.2. Urtero, udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako familien % 15 berriak dira

Zein dira udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako seme-alaba adingabeak dituzten familien ezaugarri nagusiak? 2013tik 2020ra bitartean eskuragarri dagoen informazioa aztertu ondoren, ondorio hauek atera dira (66. taula eta 71. grafikoa):

- **Urtero, artatutako familien % 15 berriak dira.** 2017. urteaz geroztik, 0 eta 17 urte arteko seme-alabak dituzten familia guztien % 15 inguru dira udaleko gizarte-zerbitzuetan lehen aldiz artatutako familiak. Datu horiek ez datoz bat 2013an ematen zirenekin —urte hartan, ia laurden bat (% 23,6) espediente berriei zegozkien—, eta agerian uzten dute urtero artatutako familia gehienek arreta jasotzen jarraitzen dutela. Azken urterako (2020rako) bildutako informazioak pandemiaren inpaktua ere erakusten du; izan ere, 2019. urtearekin alderatuta, arretaren murrizketa —guztira % 2,7 familia gutxiagori eman zitzaion arreta— ez zen gertatu lehendik ere arreta jasotzen zuten familien artean, baizik eta berrietan.
- **Artatutako familien % 70 atzerritarrak dira.** Erreferentziako pertsona atzerritarra duten familiak dira nagusi, argi eta garbi. Udalaren zerbitzu sozialek artatutako seme-alabadun familia guztien artean, % 64k atzerriko nazionalitatea duen norbait du erreferentziako pertsona gisa, eta % 70ek atzerrian jaiotako norbait. Kontuan hartuta Gasteizen atzerriko nazionalitatea duten pertsonen proportzioa % 10,5ekoa dela biztanleria osoaren artean, datu horrek agerian uzten du egoera horrek zenbateraino dakarren zaugarritasun sozial eta ekonomiko handiagoa. Egia da 2013an erreferentziako pertsona atzerrian jaiotakoa zuten eta udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jaso zuten familien proportzioa % 62koa zela (gaur egun, % 70ekoa da); baina, egia da, orobat, proportzio hori oso gutxi aldatu dela azken 4 urteetan.
- **Artatutako familien erreferentziako pertsonaren adina asko aldatu ez bada ere, zaharrenen kopurua hazi egin da apur bat, eta gazteenena, berriz, txikitu.** 2016 eta 2020 artean, % 6 murriztu da 36 urte baino gutxiagoko erreferentziako pertsonak zituzten familien kopurua, eta 45 urtetik gorakoak zituztenena, aldiz, % 10 hazi. Hala ere, azken urteetan aldatu ez den gehiengo proportzioa 36 eta 45 urte bitarteko familiei dagokiena da, artatutako familia guztien % 44 inguru baitira.
- **Hiru familiatik batek jasotzen ditu gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLLak).** 2013-2016 aldian (2008an hasitako krisi ekonomikoaren urterik gogorrenekin bat etorriz), gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzen zuten familien kopurua % 33,6 handitu zen udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako seme-alabak zituzten familien guztizkoaren gainean. Orduetik ikusi dugu familia horien kopurua jaitsi egin dela zertxobait, ia % 5, alegia, 2017 eta 2019 artean. 2020ko datuek eta pandemiaren hasierak sortutako ondorioekin bat etortzeak eten egin dute joera hori; izan ere, 2019 eta 2020 artean berriz ere gora egin du kopuruak, eta, kasu honetan, % 3,4koa izan da urte arteko hazkundea.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuek artatu dituzten seme-alaba adingabedun familiek, lotutako babesgabetasun-arazorik ez dutenek —gehiengo dira, eta % 79ra iristen dira 2020an— arazo ekonomiko gehiago edo informazio falta handiagoa dute, babesgabetasun-arazorik ez dutenekin alderatuta (71. grafikoa). Erregistroaren ikuspegitik, behinik behin, haurren babesgabetasun-arazoak dituzten familiek gizarteratzeko zailtasun gehiago dituzte, arazo hori ez dutenek baino —babesgabetasun-arazoak dituzten familien % 46k eta halakorik ez duten familien % 27k dituzte gizarteratzeko zailtasunak—, bai eta genero-indarkeriaren⁸⁹ (% 24k eta % 9k, hurrenez hurren), eskolaratzearen (% 20k eta % 6k, hurrenez hurren) eta egokitze psikoafektiboaren alorretako zailtasunak ere (% 19k eta % 5k, hurrenez hurren).

⁸⁹ Udaleko gizarte-zerbitzuek emandako informazioaren arabera, Gasteizen etengabe hazi da genero-indarkeriaren ondorioz artatu diren emakumeen kopurua eta haien seme-alaba adingabeena azken urteotan: 2016 eta 2020 artean, egoera horietan inplikaturako haurren eta nerabeen kopurua 606 izatetik 739 izatera igaro da, eta Gizarte Politiken Sailean artatutako adingabe guztien % 9,4 dira.


ARRETA JASOTZEN DUTEN FAMILIA SEME-ALABADUNEN EZAUGARRIAK

66. taula. 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren arreta jaso duten familien bilakaera, hainbat ezaugarriren arabera. 2017-2020

	2017	2018	2019	2020	Bilakaera 2017-2019	Bilakaera 2019-2020
Familia berriak						
-Berriak	638	668	733	630	% 14,9	-% 14,1
-Gainerakoa	3.695	3.679	3.716	3.700	% 0,6	-% 0,4
Erreferentziako pertsonaren nazionalitatea						
-Espainiakoa	1.671	1.600	1.605	1.570	-% 3,9	-% 2,2
-Atzerritarra	2.662	2.747	2.844	2.760	% 6,8	-% 3,0
Erreferentziako pertsonaren jaiotza-herrialdea						
-Espainia	1.415	1.352	1.354	1.303	-% 4,3	-% 3,8
-Atzerritarra	2.918	2.995	3.095	3.027	% 6,1	-% 2,2
Erreferentziako pertsonaren adina						
<25 urte	273	313	277	211	% 1,5	-% 23,8
26-35 urte	1.043	1.005	1.001	958	-% 4,0	-% 4,3
36-45 urte	1.937	1.884	1.953	1.907	% 0,8	-% 2,4
>45 urte	1.080	1.145	1.218	1.254	% 12,8	% 3,0
GLLa jason dute						
Bai	1.447	1.524	1.381	1.428	-% 4,6	% 3,4
Ez	2.886	2.823	3.068	2.902	% 6,3	-% 5,4
Guztira	4.333	4.347	4.449	4.330	% 2,7	-% 2,7


Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

71. grafikoa. 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten eta Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren arreta jaso duten familien banaketaren bilakaera, hainbat ezaugarriren arabera (%). 2013-2020



Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

72. grafikoa. Babesgabetasun-arazoak dituzten eta ez dituzten 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien artean hautemandako arazoak (%). 2020



Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

11.3. Babesgabetasun arineko, neurritsuko edo larriko arazoak dituzten haur eta nerabeen kopurua % 40 areagotu da 2017 eta 2020 artean

2020. urtean, babesgabetasun-arazoren bat zuten 1.113 haur eta nerabe artatu zituzten, guztira, Udaleko gizarte-zerbitzuek; hau da, udaleko gizarte-zerbitzuen arretaren bat jasotzen duten 0 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabe guztien % 14,2. Horietatik ia heren bat (% 32,3) BALORA tresnan ezarritako larritasun-maila arinera iritsi ez arren (oraingoz behintzat), susmopean, ikertze-bidean edo, besterik gabe, zaurgarritasun-egoeran (baina arrisku-egoeran ez) dauden haurrak dira. Heren horretaz gain, % 16,6 babesgabetasun-maila arina duten neska-mutilak dira, % 39,6k maila neurritsukoak eta % 11,5 larrikoak⁹⁰.

Babesgabetasun-arazoagatik —arina, neurritsua, larria edo mailarik gabea— artatutako adingabe guztiak kontuan hartuta (1.113 pertsona, 2020an), ohartarazi behar da **guztien % 49 (569 neska-mutil) babesgabetasun neurritsu edo larritzat hartutako kasuei zegozkiela, eta babesgabetasun arineko edo mailarik gabeko kasuak, berriz, % 51 zirela.** Datu horiek —azken 5 urteotan ez dira aldatu kopuru erlatiboetan— erakusten dute udalaren esku-hartzearen zati handi bat babesgabetasun-prozesuaren faserik aurreratuenetan zentratzen dela oraindik, eta, horregatik, beharrezkoa dela detekzio goiztiarra sustatzen jarraitzea, adingabeak gehien kaltetzen dituzten egoerak saihesteko.

Azken aldiko bilakaeraren ikuspegitik, datuek erakusten dute **2020an**, COVID-19ak eragindako pandemia hasi zen urtean, **% 5,3 hazi zela babesgabetasun-arazoa duten haur eta nerabeen kopurua**, udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako eta babesgabetasun-arazorik gabeko haur eta nerabeen guztizko kopurua baino askoz gehiago —horien kopurua, hain zuzen, % 5 jaitsi zen—.

Bilakaeraren ikuspegi zabalago batetik ikus daitekeenez, **2017-2020 aldian, udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako adingabeen kopurua nahiko egonkor mantendu bada ere, ez da gauza bera gertatu babesgabetasun-arazo bat duten haur eta nerabeekin, haien kopuruak gora egin baitu etengabe 2013tik** (68. taula). Are gehiago, udaleko gizarte-zerbitzuen jarduera-datuek agerian uzten dute azken 4 urteetan egoera horien eragina —maila definitu gabeko pertsonak kontuan hartu gabe⁹¹— 0 eta 17 urte bitarteko 1.000 pertsonako 12,17 izatetik % 17,04 izatera igaro dela Gasteizen; hau da, % 40ko hazkundera izan dela, 2013-2016 bitarteko laurtekoan ikusitakoaren ia parekoa (% 39).

Azken laurtekoaren bilakaerari buruzko datuen arabera, babesgabetasunaren intzidentziaren igoerarik handienak maila arinetan eta neurritsuetan izan dira, % 81 eta % 33 igo baitira, hurrenez hurren (72. grafikoa). 2017 eta 2020 artean, babesgabetasun larriaren intzidentziak % 21 egin zuen gora, eta gradurik gabeko haurren kopuruak, berriz, % 8 behera.

⁹⁰ Zehaztu behar da udaleko gizarte-zerbitzuek babesgabetasun-arrisku handiko gisa balioetsi dituztela adingabe horiek, eta, beraz, babesgabetasun-maila horretan, Arabako Foru Aldundiko Adingabeen eta Familien Arloa arduratzen da haiek zaintzeaz. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu dira azterlan honetan, zeren eta, maila sozialean, adingabe eta nerabe horiei eta haien familiei arreta eskaintzen jarraitzen baitute Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuek.

⁹¹ Barne hartzen ditu kasu susmagarriak, ikertzen ari diren kasuak edo, arazoak izanik ere, ez dakartenak babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna, jaio aurreko arriskua eta halakorik.

HAUR KALTEBERAK ETA BABESGABETASUN-ARRISKUAN DAUDENAK**67. taula. Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailak 2013-2020 aldian artatutako adingabeen kopuruaren bilakaera**

	2013	2016	2017	2018	2019	2020	Bilakaera 2013-2016	Bilakaera 2017-2019	Bilakaera 2019-2020
Babesgabetasun-arazorik gabe	6.122	7.064	7.046	6.961	7.078	6.722	% 15,4	% 0,5	-% 5,0
Babesgabetasun-arazoekin	602	872	908	1.009	1.057	1.113	% 44,9	% 16,4	% 5,3
- Mailarik gabe	235	330	382	414	354	359	% 40,4	-% 7,3	% 1,4
- Babesgabetasun arina	46	111	100	119	187	185	% 141,3	% 87,0	-% 1,1
- Babesgabetasun neurritsua	231	315	323	353	386	441	% 36,4	% 19,5	% 14,2
- Babesgabetasun larria	90	116	103	123	130	128	% 28,9	% 26,2	-% 1,5
Guztira	6.724	7.936	7.954	7.970	8.135	7.835	% 18,0	% 2,3	-% 3,7


*Barne hartzen ditu kasu susmagarriak, ikertzen ari diren kasuak edo, arazoak izanik ere, ez dakartenak babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna, jaino aurreko arriskua eta halakorik.

Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

68. taula. Babesgabetasun-arazoak dituzten artatutako adingabeen banaketaren bilakaera, babesgabetasun-mailaren arabera (%). Gasteizko Udala. 2013-2020

	2013	2016	2017	2018	2019	2020
- Mailarik gabe	% 39,0	% 37,8	% 42,1	% 41,0	% 33,5	% 32,3
- Babesgabetasun arina	% 7,6	% 12,7	% 11,0	% 11,8	% 17,7	% 16,6
- Babesgabetasun neurritsua	% 38,4	% 36,1	% 35,6	% 35,0	% 36,5	% 39,6
- Babesgabetasun larria	% 15,0	% 13,3	% 11,3	% 12,2	% 12,3	% 11,5
Babesgabetasun-arazoak dituen guztizkoa	Guztira % 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0	% 100,0
	Guztizkoaren gaineko %-a <18 urte	% 9,0	% 11,0	% 11,4	% 12,7	% 13,0

Iturria: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala.

73. grafikoa. Babesgabetasun-arazoak dituzten artatutako adingabeen tasaren bilakaera*, babesgabetasun-mailaren arabera (%). Gasteizko Udala. 2013-2020

*Tasak Gasteizen bizi diren 0 eta 17 urte arteko 1.000 pertsonako kalkulatu dira.

Iturriak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala; EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

69. taula. Babesgabetasun-problematika izanik, arreta jasotzen duten adingabeen bilakaera, sexuaren arabera. Gasteizko Udala, 2016-2020

	2016			2020			2016-2020ko bilakaera (%)		
	Mutilak	Nesak	Guztira	Mutilak	Nesak	Guztira	Mutilak	Nesak	Guztira
Kopurua									
Mailarik gabe	182	148	330	184	175	359	% 1,1	% 18,2	% 8,8
Babesgabetasun arina	69	42	111	123	62	185	% 78,3	% 47,6	% 66,7
Babesgabetasun neurritsua	178	137	315	256	185	441	% 43,8	% 35,0	% 40,0
Babesgabetasun larria	64	52	116	74	54	128	% 15,6	% 3,8	% 10,3
Guztira	493	379	872	637	476	1.113	% 29,2	% 25,6	% 27,6
Tasa 1.000 biztanleko									
Mailarik gabe	8,36	7,20	7,80	8,07	8,16	8,11	-% 3,4	% 13,2	+% 4,0
Babesgabetasun arina	3,17	2,04	2,62	5,40	2,89	4,18	% 70,3	% 41,3	% 59,4
Babesgabetasun neurritsua	8,17	6,67	7,44	11,23	8,62	9,97	% 37,4	% 29,3	% 33,9
Babesgabetasun larria	2,94	2,53	2,74	3,25	2,52	2,89	% 10,5	-% 0,6	% 5,5
Guztira	22,64	18,45	20,60	27,94	22,19	25,15	% 23,4	% 20,3	% 22,1

Iturriak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala; EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

11.4. Babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeen % 57 mutilak dira, % 52k 12 urte edo gehiago dituzte eta % 63 bertakoak dira

Zein dira babesik gabe geratzeko arriskuan dauden haur eta nerabeen ezaugarri soziodemografiko nagusiak, eta zer arazo nagusi izaten dituzte aurrez aurre, oro har, egoera horrekin lotuta?

Babesgabetasun-arriskuan dauden haurren eta nerabeen ezaugarri soziodemografikoak aztertzean, ondorio nagusi hauek atera daitezke, sexuaren, adinaren edo jatorriaren arabera:

- **Babesgabetasun-arazoak dituzten mutilen tasa neskena baino handiagoa da.** Oro har, haur eta nerabe gizonezkoen babesgabetasun-arazoaren tasa handiagoa da neskena baino. Alde horiek 2016ko datuetan ez ezik 2020koetan ere ikusten dira; izan ere, 2016an mutilen tasa (% 22,64) ia 4,2 puntu handiagoa zen neskena (% 18,45) baino, eta 2020an, berriz, mutilen babesgabetasun-tasa (% 27,94) 5,8 puntu handiagoa zen neskena baino (% 22,19). Gaur egun, babesgabetasun-arazoak dituzten 0 eta 17 urte arteko pertsona guztien % 57 mutilak dira, eta % 43 neskek (70. taula). Bilakaerari begira, nesken eta mutilen babesgabetasun-tasa nahiko antzera areagotu da: 2016 eta 2020 artean, mutilen babesgabetasun-tasa % 23,4 hazi da, neskena baino apurtxo bat gehixeago (% 20,3).
- **Babesgabetasun-arazoak dituzten eta udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jaso duten haurren eta nerabeen erdiek baino gehixeagok 11 urte baino gehiago dituzte.** 2020an, babesgabetasun-arazoak zituzten haurren % 10ek 0 eta 5 urte bitarte zeuzkaten; % 38k, 6 eta 11 urte bitarte, eta % 52k 12 urte edo gehiago. Datu horiek kontuan hartuta eta oharturik, orobat, 2016 eta 2020 artean hain zuzen ere 12 eta 17 urte bitarteko taldea hazi dela gehien (% 36,6 eta 11 urte bitartekoen % 30,9aren eta 0 eta 5 urte artekoen % 10,8aren aldean), garbi dago arretaren zati handi bat neska-mutilik nagusienetara bideratzen dela oraindik ere, eta, beraz, oso beharrezkoa dela detekzio goiztiarra sustatzen jarraitzea (71. taula).
- **Babesgabetasun-arazoak dituzten haurren eta nerabeen % 63 bertakoak dira, baina babesgabetasun-tasa nabarmen handiagoa da atzerriko nazionalitatea duten haur eta nerabeen artean.** 2020an, babesgabetasun-arazoak zituzten 10 haur eta nerabetik 6k baino zertxobait gehiagok Espainiako nazionalitatea zuten (% 63), eta % 37k atzerriko nazionalitatea. Babesgabetasun-arazoak dituzten haurren eta nerabeen herena baino zertxobait gehiago soilik badira ere atzerritarrek, datu hori Gasteizen bizi diren haur eta nerabe atzerritarren kopuruarekin alderatzen badugu, tasa nabarmen handiagoa da (72,7koa, 0-17 urte bitarteko atzerriko nazionalitateko 1.000 pertsonako) bertako neska-mutilena baino (18,15ekoa, 0-17 urte bitarteko Espainiako nazionalitateko 1.000 pertsonako) (72. taula).

Detektatutako arazoei dagokienez (73. taulan ikusten denez), 2020an premia psikikoekiko arduragabekeriekin lotutakoak dira 5 ohikoenak (hiriko 1.000 haur eta nerabetik 9,04ri eragiten diete). Haien ondotik ageri dira, babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna (% 7,01), prestakuntza-premieko zabarkeria (% 6,21), gurasoen ezgaitasuna adingabearen jokabidea kontrolatzeko (% 4,70), eta premia fisikoekiko zabarkeria (% 3,57). Bilakaerari buruzko datuek erakusten dutenez, azken 5 urteetan ia ez da izan aldaketarik arazo ohikoenei dagokienez; hala ere, horien artean, gehien handitu direnak babesgabetasunarekiko urrakortasunarekin eta prestakuntza-premieko arduragabekeriarekin lotutakoak izan dira. Hain ohikoak ez diren arazoaren artean, hauek hazi dira gehien kopuru absolutuetan: gurasoen arteko gatazketan adingabeak instrumentalizatzearekin lotutako tratua psikikoak (% 77,1 igo dira 2016 eta 2020 artean), seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria-egoerak (% 36,8) eta, oro har, abusu-susmoarekin (% 39,3) edo sexu-abusuarekin (% 35,7) lotutako egoerak.

HAUR KALTEBERAK ETA BABESGABETASUN-ARRISKUAN DAUDENAK: EZAUGARRIAK

70. taula. Babesgabetasun-arazoak dituzten eta arreta jaso duten adingabeen bilakaera, adin-taldean arabera. Gasteizko Udala. 2016-2020

	2016				2020				2016-2020ko bilakaera (%)			
	0-5	6-11	12-17	Guzt.	0-5	6-11	12-17	Guzt.	0-5	6-11	12-17	Guzt.
Kopurua												
Mailarik gabe	65	127	138	330	53	156	150	359	-% 18,5	% 22,8	% 8,7	% 8,8
Babesgabetasun arina	14	45	52	111	12	66	107	185	-% 14,3	% 46,7	% 105,8	% 66,7
Babesgabetasun neurritsua	31	119	165	315	31	158	252	441	% 0,0	% 32,8	% 52,7	% 40,0
Babesgabetasun larria	10	36	70	116	11	48	69	128	% 10,0	% 33,3	-% 1,4	% 10,3
Guztira	120	327	425	872	107	428	578	1.113	-% 10,8	% 30,9	% 36,0	% 27,6
Tasa 1.000 biztanleko												
Mailarik gabe	4,25	8,89	10,83	7,80	3,75	9,88	10,49	8,11	-% 11,9	% 11,1	-% 3,2	+% 4,0
Babesgabetasun arina	0,92	3,15	4,08	2,62	0,85	4,18	7,48	4,18	-% 7,4	% 32,6	% 83,3	% 59,4
Babesgabetasun neurritsua	2,03	8,33	12,95	7,44	2,19	10,00	17,62	9,97	% 8,1	% 20,1	% 36,1	% 33,9
Babesgabetasun larria	0,65	2,52	5,49	2,74	0,78	3,04	4,82	2,89	% 18,9	% 20,6	-% 12,2	% 5,5
Guztira	7,85	22,89	33,35	20,60	7,56	27,10	40,41	25,15	-% 3,6	% 18,4	% 21,2	% 22,1

Iturriak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala; EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

71. taula. Babesgabetasun-arazoak dituzten eta arreta jaso duten adingabeen bilakaera, nazionalitatearen arabera. Gasteizko Udala. 2016-2020

	2016			2020			2016-2020ko bilakaera (%)		
	Nazionala	Atzerritarra	Guztira	Nazionala	Atzerritarra	Guztira	Nazionala	Atzerritarra	Guztira
Kopurua									
Mailarik gabe	203	127	330	200	159	359	-% 1,5	% 25,2	% 8,8
Babesgabetasun arina	85	26	111	123	62	185	% 44,7	% 138,5	% 66,7
Babesgabetasun neurritsua	215	100	315	290	151	441	% 34,9	% 51,0	% 40,0
Babesgabetasun larria	77	39	116	87	41	128	% 13,0	% 5,1	% 10,3
Guztira	580	292	872	700	413	1.113	% 20,7	% 41,4	% 27,6
Tasa 1.000 biztanleko									
Mailarik gabe	5,39	27,40	7,80	5,19	27,99	8,11	-% 3,7	% 2,1	+% 4,0
Babesgabetasun arina	2,26	5,61	2,62	3,19	10,91	4,18	% 41,4	% 94,6	% 59,4
Babesgabetasun neurritsua	5,71	21,57	7,44	7,52	26,58	9,97	% 31,8	% 23,2	% 33,9
Babesgabetasun larria	2,04	8,41	2,74	2,26	7,22	2,89	% 10,4	-% 14,2	% 5,5
Guztira	15,39	63,00	20,60	18,15	72,70	25,15	% 17,9	% 15,4	% 22,1

Iturriak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala; EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

72. taula. Babesgabetasun-arazoak dituzten eta arreta jaso duten adingabeen banaketaren bilakaera, hautemandako arazoaren arabera. Gasteizko Udala. 2016-2020

	Kopurua			Tasa 1.000 biztanleko		
	2016	2020	2016-20	2016	2020	2016-20
Premia psikikoekiko zabarkeria	340	400	% 17,6	8,03	9,04	% 12,5
Babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna	251	310	% 23,5	5,93	7,01	% 18,1
Prestakuntza-premiekiko zabarkeria	223	275	% 23,3	5,27	6,21	% 17,9
Gurasoen ezintasuna haur/nerabearen jokabidea kontrolatzeko	185	208	% 12,4	4,37	4,70	% 7,5
Premia fisikoekiko zabarkeria	138	158	% 14,5	3,26	3,57	% 9,5
Tratu txar psikikoak: instrumentalizaz. gurasoen arteko gatazketan	70	124	% 77,1	1,65	2,80	% 69,4
Tratu txar psikikoa: tratu txar emozionala	151	123	-% 18,5	3,57	2,78	-% 22,1
Segurtasun-premiekiko zabarkeria	124	121	-% 2,4	2,93	2,73	-% 6,7
Tratu txar psikikoa: bikotekidearen indarkeria-eraginpean egotea	93	119	% 28,0	2,20	2,69	% 22,4
Tratu txar fisikoa	57	74	% 29,8	1,35	1,67	% 24,2
Beste hainbat	35	40	% 14,3	0,83	0,90	% 9,3
Sexu-abusu posibleen adierazleak	28	39	% 39,3	0,66	0,88	% 33,2
Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria	19	26	% 36,8	0,45	0,59	% 30,9
Sexu-abusua	14	19	% 35,7	0,33	0,43	% 29,8
Adingabeen ustelkeria	16	18	% 12,5	0,38	0,41	% 7,6
Babesgabetasun larriaren aurrekariak	17	14	-% 17,6	0,40	0,32	-% 21,2

Iturriak: Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila. Gasteizko Udala; EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

11.5. Familiagandik banantzeko neurriak dituzten haurren eta nerabeen kopuruak behera egin du azken urteetan

Arabako Foru Aldundiak (babesgabetasun larriaren zantzuak ageri dituzten egoera guztietan eskumena duen administrazioak) familia-harrerari eta egoitza-harrerari buruz emandako bilakaeraren datuek erakusten dutenez, **azken 4 urteetan murriztu egin da familiagandik banantzeko neurriak dituzten haur eta nerabeen kopurua, bai eta foru-erakundeak gauzatutako tutoretzen kopurua ere.**

Hain zuzen ere, 73. taulak eta 74. grafikoak ematen dituzten datuak harturik eta [Dataraba](#) atarian eskuragarri dagoen informaziotik abiatuta, ondorio hau atera daiteke: funtsean, **2017tik aurrera beherakada nabarmena gertatu da urte bakoitzeko abenduaren 31n familia- edo egoitza-harreran dauden adingabeen kopuruan.** 2017 eta 2020 artean, Araban egoera horretako 339 haur eta nerabe izatetik 279 izatera igaro da (% 18ko murrizketa), eta Gasteizen 292tik 232ra —hau da, % 21 egin du behera—. Aurreikusitako 2 egoera horietatik, egoitza-harrerari dagozkionak murriztu dira gehien. Abenduaren 31n egoera horretan zeuden haur eta nerabeen kopurua % 21 txikitu da 2017-2020 aldian lurralde osoan, eta Gasteizen, aldiz, % 26. Murrizketa hori, ordea, ez da eraman plazzen eskaintzara⁹², 2017an 201 izatetik 2020an 266 izatera igaro baita.

Eskura dagoen informazioak agerian uzten du, halaber, **egoitza-harrerak lehentasuna duela familia-harrerarekin alderatuta.** 2020an, familia-harreran zeuden adingabeen proportzioa (harreran hartutako haur eta nerabe guztiekiko) % 36koa zen lurralde osoan, eta % 31koa Gasteizen. Datuak alderatuz gero, **Araba da familia-harrerara gutxien jotzen duen lurralde historikoa.** Eusko Jaurlaritzaren [Ikusmira-Haurren eta Nerabeen Behatokian](#) eskuragarri dauden datuen arabera, 2020rako tasa Araban (1,71koa, 0-17 urteko 1.000 pertsonako) txixixeagoa da Bizkaian baino (% 1,81ekoa, eta orotara 328 adingabe abenduaren 31n familia-harreran) eta askoz txikiagoa Gipuzkoakoa baino (% 2,65ekoa, eta guztira 329 adingabe familia-harreran abenduaren 31n).

Bilakaerari buruzko informaziotik ondoriozta daiteke, orobat, **nahiko konstante mantendu dela azken urte hauetan Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapeko haur eta nerabeen kopurua, urte bakoitzeko abenduaren 31n.** Arabaren kasuan, azken 4 urteetan 95 eta 112 artean ibili da, eta Gasteizen, oster, 63 eta 76 adingabe artean. **2020an, Foru Aldundiaren tutoretzapeko haur eta nerabeen Arabako tasa (% 5,34) oso antzekoa izan zen Bizkaikoarekin (% 5,62, eta 1.020 adingabe tutoretzapean abenduaren 31n) eta Gipuzkoakoarekin (% 5,23, eta 649 adingabe tutoretzapean 2020ko abenduaren 31n).**

⁹² 2017 eta 2020 artean, larrialdietako harrera-zentroetako egoitza-plazak 76 izatetik 29 izatera igaro dira; egoitzetako eta tutoretzapeko etxeetako plazak 108tik 143ra, eta emantzipazio-zentroetako plazak, azkenik, 17tik 44ra. Guztira, 65 plaza gehiago daude.


HAUR KALTEBERAK ETA BABESGABETASUN-ARRISKUAN DAUDENAK

73. taula. Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapean eta harrera-erregimenean dauden adingabeen kopuruaren bilakaera. Arabako Foru Aldundia. 2017-2019

	2017	2018	2019	2020	Bilakaera 2017-2020
Araba					
Tutoretzapeko adingabeak	319	334	351	312	-% 2
Egoitza-harreran dauden adingabeak	227	215	207	179	-% 21
Familia-harreran dauden adingabeak	112	105	95	100	-% 11
Gasteiz					
Tutoretzapeko adingabeak	275	d.g.	295	262	-% 5
Egoitza-harreran dauden adingabeak	216	d.g.	181	159	-% 26
Familia-harreran dauden adingabeak	76	d.g.	63	73	-% 4

Iturria: DATARABA. Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokia. Arabako Foru Aldundia. Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

74. grafikoa. Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapean eta harrera-erregimenean dauden adingabeen tasaren* bilakaera. Arabako Foru Aldundia. 2009-2019



*Arabaren eta Gasteizen bizi diren 0 eta 17 urte arteko 1.000 pertsonako kalkulaturako tasak.

Iturriak: DATARABA; EIN. Etengabeko Erroldaren Estatistika.

74. taula. Arabako Foru Aldundiaren tutoretzapeko adingabeen ezaugarriak. 2019

Sexua	Berriak		12/31n	
	Kop.	%	Kop.	%
Mutilak	88	% 73,3	206	% 66,0
Neskak	32	% 26,7	106	% 34,0
Adina				
0-5 urte	16	% 13,3	31	% 9,9
6-11 urte	16	% 13,3	69	% 22,1
12-17 urte	88	% 73,3	212	% 67,9
Guztira	120	% 100,0	312	% 100,0

76. taula. Abenduaren 31n egoitza-harreran zeuden adingabeen ezaugarriak. Araba. 2019

	Kop.	%
Sexua		
Mutilak	125	% 69,8
Neskak	54	% 30,2
Adina		
0-5 urte	7	% 3,9
6-11 urte	34	% 19,0
12-17 urte	127	% 70,9
18 urte edo gehiago	11	% 6,1
Jatorria		
Bertakoa	87	% 48,6
Atzerritarra	92	% 51,4
Guztira	179	% 100,0

Iturria: Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokia. 17. Estatistika Buletina. Arabako Foru Aldundia.

75. taula. Arriskuan eta babesgabatasun-egoeran dauden adingabeentzako zerbitzu nagusien estaldura abenduaren 31n. Araba. 2019

	Kop.	%
Familia banatzeko neurriak	279	
Egoitza-zerbitzuak	179	% 64,2
Familia-harrera	100	% 35,8
Familia zaintzeko neurriak	877	
Eguneko zerbitzua	122	% 13,9
Int. sozioedukatibo espezializatua	755	% 86,1
Guztira	1.156	% 100,0

77. taula. Abenduaren 31n familia-harreran zeuden adingabeen ezaugarriak. Araba. 2019

	Kop.	%
Sexua		
Mutilak	54	% 54,0
Neskak	46	% 46,0
Harrera-modalitatea		
Larrialdikoak (6 hilabetera arte)	1	% 1,0
Aldi baterakoa (2 urtera arte)	22	% 22,0
Iraunkorra	77	% 77,0
Harrera-mota		
Familia zabalean	64	% 64,0
Besteren familian [normala]	32	% 32,0
Besteren familian [espezializatua eta profesionalizatua]	4	+% 4,0
Guztira	100	% 100,0

11.6. Zaurgarritasun- eta babesgabetasun-egoeren eta haien arretaren inguruko zenbait erronka eta joera

Haur eta Nerabeentzako II. Udal Planaren (II. HANUP planaren) balorazioari eta COVID-19aren pandemiak eragindako agertoki berriaren definizioari buruz egindako inkestaren esparruan udal-teknikariak emandako informazioaren artean, jarraian, haur eta nerabeen arriskuari (berriak zein lehendik zeudenak) eta eskaintzen zaien arretari eta arreta hori hobetzeari buruz bildutako ekarpen nagusiak eskainiko dira.

A. Pandemiaren lehen hilabeteek haur eta nerabeei eta haien familiei eskainitako udaleko gizarte-zerbitzuetan izaniko inpaktuaren gaineko ekarpenak

- **Udal-teknikariak positibotzat jo dute pandemia-aldian zaurgarritasuneko eta babesgabetasun-arriskuko egoeretan emaniko arreta.** Udaleko Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saila osatzen duten zerbitzuetako teknikari gehien-gehienek ustean, udal-instantziek haur eta nerabeei eta haien familiei emandako erantzuna **azkarra, proaktiboa eta positiboa** izan zen pandemiaren lehen hilabeteetan. Emandako erantzunak azpimarratzen dute, zailtasunak zailtasun, kasurik gehienetan bermatu ahal izan zela esku hartzeko prozesuen jarraipena⁹³. Horretarako arrazoiak izan ziren, besteak beste, hainbat arreta-dispositibo egokitzea, jarduera berriak abian jartzea eta laguntza ekonomikoaren ordainketa aurreratzea.

Nolanahi ere, ez da baztertzeko pandemiaren lehen hilabeteetan arazo oso larriak ezkutuak geratuko zirela, normalean eskola-ingurunean detektatzen direnak, eta esku-hartze goiztiarrak jaso ezinik geratuko zirela. Era berean, iradoki da, esku-hartzea eten ez bazen ere, kasu batzuetan ez zela nahikoa izan eta atzerakada ere eragin ahal izan zuela: «*Arlo horietan jokabide- eta harreman-arazoak eta tankera horretako arriskuak dituzten adingabeekin jarduten dutenek adierazi dutenez, hilabete gutxi batzuetan galdu da urteetan eginiko lana*».

- **Pandemiaren ondorioek agerian utzi dituzte, halaber, zerbitzuen funtzionamenduan lehendik zeuden ahuleziak eta mugak.** Hala eta guztiz ere, ezin da esan udal-teknikarien ikuspegia autokonplazientziatzeko denik, haiek ere identifikatzen baitituzte arretaren zenbait ahulezia. Muga horiek baliabide material eta giza baliabide urriak izatearekin dute zerikusia, baina baita bestelako oztupoekin ere, hala nola «*ekintza guztiak moteldu dituzten eta erreakzionatzeko aukera eragotzi duten muga burokratikoak izatearekin*».
- **Kultur jarduerak eta haur eta nerabeen aisialdia, lehenbiziko uko egindakoaren artean.** Pandemiaren zehar gehien ahuldu diren arreta-eremuen artean, kultura eta aisialdia daude, zokoratuta geratu baitira. Hala, 2020ko apiriletik hainbat murrizketa ekonomiko izan zituen alor horrek, eta bertan behera geratu ziren haurren kulturara eta aisialdira bideratutako partida jakin batzuk. Erantzukizun osoa udalari egozterik ez dagoen arren, uste da administrazio publikoek ez zituztela aintzat hartu haurren eta nerabeen jolas- eta sozializazio-beharrak («*txakurrak ateratzen ziren kalera, baina haurrek ezin zuten*»). Era berean, zehaztu da murrizketa horiek ez zirela mugatu etxeko konfinamendu-aldira soilik, baizik eta haratago joan zirela, eta izan zutela eraginik irteeretan, jarduerak etetean, eskola-kirolean, oporretako eskaintza bertan behera uztean...

⁹³ Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Sailaren [2020ko Memorian](#) zehazten denez, Udalak honako jarduera hauek egin zituen zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-arriskuaren arretaren eremu espezifikoan: (1) «*Gizarte- eta hezkuntza-arloan arreta eskaintzeko talde bat aktibatu zen, eta telefono bidezko arretaren edo arreta telematikokoaren bidez, familien, umeen eta nerabeen gizarte, hezkuntza eta emozioen arloetako beharrei erantzutea izan zen helburua. Talde hartan parte hartu zuten Kale Heziketako Udal Programako, gizarte eta hezkuntza zentroetako, Laguntza eta garapen egokiturako programako eta Egokitzen programako hezitzaileak. Bestalde, askotariko materialak bidali ziren familiei laguntzeko eta babes emateko (hezkuntza-baliabideak, aisialdikoak, autozaintzarako jarraibideak eta familian emozioak lantzeko aholku eta dinamikak); (2) «*Babesgabetasun arin eta neurritsuetan daudenentzako familientzako laguntza- eta babes-baliabideek ere aktibo jarraitu zuten, egokituta (telefonoz eta bideokonferentzia bidez), familiei babes eskaini ahal izateko eta ume zein nerabeen oinarrizko ongizatea bermatzeko*».*

B. Haurren eta nerabeen zaugarritasun-egoerak larriagotzen dituzten arrisku emergente eta nagusiei buruzko ekarpenak

- **Etxebizitza-arazoak.** Oro har, adostasun zabala ageri da: etxebizitza-arazoak dira hirian baliabide ekonomiko gutxi dituzten familiek aurrez aurre duten arazo nagusi eta gero eta handiagoa. Horretarako arrazoi nagusien artean, hauek daude: alokairuko etxebizitzaren eskasia, haien prezio garestia eta, pertsona batzuen ustez, administrazio publiko eskudunen erantzun eskasa. Arazo horrek sortzen dituen ondorioen artean, berriz, hauek nabarmentzen dira: oinarritzko premia hori modu iraunkorrean asetzea lortzen ez duten familiek bizi duten ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna, eta, askotan, etxebizitza oso prekarioak eta desegokiak eskuratzea (oinarritzko zerbitzuetarako sarbide eskasa, pilaketa...).

Aurreko krisi-aldiaren ezaugarri izan ziren enplegu falta eta langabeziaren hazkundera, gaur egun, enpleguaren prekaritateak eta etxebizitza-arazoen ordeztu dute, eta horiek gailendu dira baliabide urriak dituzten familiek eta ardurapeko seme-alabek aurrez aurre dituzten arazoaren artean.

- **Bizitzeko eta baliabideak eskuratzeko baldintza desberdinak.** Bestalde, teknikari batzuek uste dute gero eta desparekotasun sozial handiagoak ageri direla, eta horrek zehaztasun handiz eta errotik eragiten diela haurrei eta nerabeei. Era berean, uste dute egoera ekonomiko oso muturrekoak egotea gizarte-arrakala sakontzen eta zaugarritasun-egoerak areagotzen ari dela.

Desberdintasuna agertzen den eremurik garrantzitsuenetako bat eskola da; ildo horretan, ia erabateko adostasuna ageri da eskola-segregazioaren inguruan. Berez hezkuntzaren esparruan kokatutako arazo nagusietako bat izan arren, gainerako guztietan ditu inplikazioak.

- **Teknologia eta haurrek eta nerabeek horri ematen dioten gero eta erabilera handiagoa arrisku gisa (arrisku gisa bakarrik?).** Kontsultan esku hartu duten udal-teknikari asko eta askoren iritzian, ia erabateko arrisku-eremua da komunikazio- eta entretenimendu-teknologia berrien erabilera gero eta handiagoa, pandemia-garaiaren ezarritako isolamendu eta distantzia sozialeko neurriek areagotua, eta oso udal-teknikari gutxi dira aukera- edo soluzio-esparrutzat ikusten dutenak.

Pandemiaren ondorioz aisialdirako eta aire zabaleko jardueretarako eta kiroleterako eskaintza murriztu izanak hainbat ondorio ekarri ditu ildo horretan, hala nola teknologia gehiago kontsumitzea, mendekotasuna izateko arrisku handiagoa eta eduki desegokiak helduen ikuskapenik gabe eskuratzeko denbora gehiago izatea.

Halaber, irizten diote sare sozialak gailendu zaizkiela berdinen arteko sozializazio-espazio tradizionalei (kalea, parkea eta abar), eta, horren ondorioz, harreman sozial ahulagoak eta, batzuetan, anonimoak izaten dituztela, gutzia ere aisialdi sedentario eta osasungaitz baten barruan.

Modu anibalente samarrean, teknologia berriak oso modu positiboan balioesten dira zenbait alorretan; esate baterako, enpleguan (telelana, erabiltzaileekiko eta profesionalen arteko komunikazio-kanal berriak) eta prestakuntzan (haur eta nerabe guztiek Internetarako konexioa duen ordenagailu edo tableta bat eduki ahal izatearen garrantzia). Alabaina, oso eginkizun urria (edo batere ez) aitortzen zaie, neska-mutilen soziabilitatean.

- **Arazo ezagunek irautea eta hain ezagunak ez diren beste arazo batzuk sortzea.** Orain arte identifikatutako arazo eta premiekin batera, aipatu ditugu beste zenbait ere, haur eta nerabe batzuek familietan nahiz familietatik kanpo dituzten arrisku-eremu nagusien mapa bat zirriborratzeko. Sakontzeko asmorik gabe, horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian.

Haur eta nerabe askok baliabide gehiagorekin edo gutxiagorekin aurre egin beharreko arrisku orokor hauek ageri dira:

- Dibertsitate funtzionala duten haurrak eta nerabeak.
- Pandemia-garaian nerabearora soziabilitate-muga handiekin iritsi diren neska-mutilak.
- Ikaskideen arteko tratu txarrak (*bullyinga*) jasaten dituzten haurrak eta nerabeak.
- Osasungarriak ez diren bizi-ohiturak dituzten haurrak eta nerabeak: *zabor*-janariaren abusua, jarduera fisikorik eta kirol-jarduerarik ez praktikatzea, ohitura sedentarioak...

Familia-eremuan, babesaren eta zainketen arloan, beste arrisku edo talde kaltebera batzuk ere identifikatzen dira; adibidez, hauek:

- Genero-indarkeria baliatzen duten gurasoekin harremanak dituzten haurrak eta nerabeak.
- Laguntza-sare eskasa eta lana eta zaintza bateragarri egiteko zailtasun ugari dituzten familietako haurrak.
- Esku-hartze intentsiboagoa eskatzen duten arazo eta/edo behar konplexuak dituzten haur eta nerabeak.
- Haurren babesgabetasun-arriskua handitzea osasun mentaleko arazoak dituzten familietan, izan arazo horiek helduengan, izan seme-alabengan.
- Babesgabetasun-tipologia batzuk areagotzea, hala nola zabarkeria.
- Haur eta nerabeen erreferente bakarrak erakundeak izatea, gurasorik ez izateagatik.

C. Eskaintako soluzioei buruzko ekarpenak

Hirugarren atal honetan, udal-teknikariek askotariko esparruetan identifikatutako arazo edo premia nagusien soluzioen eta aurre egiteko moduen inguruko ekarpenak laburbildu dira. Bistan denez, proposatutako 9 gai-eremuetako bakoitzean espazio bereizi bat eskaintzen bazen ere⁹⁴, alde batetik arazoak edo beharrak identifikatzeko eta bestetik izan zitzakeen soluzioak identifikatzeko, bigarren zati honetan kontsultatutako pertsonen egindako ekarpenak ez ziren izan hain zehatzak. Horrenbestez, epigrafe honek hedadura txikiagoa du.

- **Desberdintasunarekiko eta aniztasunarekiko arreta.** Gaur egungo gizarteetan nekez bereiz daitezke bi kontzeptu horiek, eta, ondorioz, prozesu paraleloak antolatu behar dira, aniztasuna ikusarazteko eta hari arreta emateko hainbat arlotan (generoa, kultura, sexu-orientazioa, etnia, familia...). Ondorioz, aitortu behar da gizarte-kategoria jakin batzuek gizarte-desparekotasuneko arrisku handiagoak edo txikiagoak dituztela, eta horiek guztiek badutela inpakturik pertsonen bizi-ziklo osoan.

Gure gizarte aniztasun gero eta handiagoaren esparruan, gero eta agerikoagoak dira haur eta nerabeen esperientziak, uste baitute jaiotzean sexuaren arabera esleitutako generoa ez datorrela bat haien identitatearekin edo haien genero-identitatea ez dela mugatzen gizon-emakume binomiora. Nortasun horiek oraindik ere aitortpen sozial eskasa dutenez, uste da hainbat hezkuntza- eta komunitate-gunetan bultzatu beharko litzatekeela haien normalizazioa.

⁹⁴ Proposatutako 9 gai-eremuak [III. eranskineko](#) galdera-sortaren 12. eta 13. galderetan eta dokumentu honetako 211. eta 212. orrialdeetan kontsulta daitezke.

Era berean, familia migratzaileen kopuruak gora egin duenez eta inguruabar hori gizarte-bazterkeria eta pobrezia jasateko arrisku argizat jotzen denez, **beharrezkotzat da atzerritar jatorriko biztanleen parte-hartzea eta gizarteratzea modu espezifikoan sustatzea.**

- **Hezkuntzaren esparruan**, eskola-segregazioarekin eta eten digitalarekin zeuden lotuta atzemandako arazo nagusiak, eta zenbait neurri proposatzen dira bi arazo horiek eragindako desparekotasunak murrizten saiatzeko. Horien artean eta arrakala digitalarekin loturik, haur eta nerabe guztiei teknologia berrietarako sarbidea ziurtatzera bideratutakoak aipatu behar dira, matrikulazio-zentroa edozein dela ere. Bestalde, ikastetxe jakin batzuetan identifikatutako eskola-segregazioaren arazoari dagokionez, bereizitako ikastetxeak baliabide gehiagorekin hornitzea proposatzen da, eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako matrikularen dibertsifikazio-politika aplikatzea, ikastetxe horien bereizketa murrizteko edo ezabatzeke.
- **Haurren eta nerabeen bizi-ohitura osasungarriagoak eta osasun fisiko, psikologiko eta emozionala sustatzeko orduan**, udal-teknikariek proposatzen dute esparru horietara bideraturiko udal-baliabideak areagotzea, pandemiaren ondorioek hondatu egin baitituzte haurren eta nerabeen osasuna eta ongizatea. Aipatutako neurrien artean, besteak beste, honako hauek proposatzen dira: aholkularitza psikologikoa eta hezkuntza emozionala indartzea, ohitura osasungarriak sustatzen dituzten programak sendotzea eta lankidetzan aritzea zailtasun ekonomikoak dituzten edo zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden neska-mutilei sarbidea errazten dieten kirol-erakundeekin.
- **Haurren eta nerabeen aisialdirako baliabideak ugaritzea, eskaintza zabaltzea eta teknologia berriak gune seguruago bihurtzea.** Pandemia honetan haur eta nerabeen artean gehien murriztu den eremuetako bat aire zabaleko aisialdia izan dela jakinik, estrategikotzat jotzen da harreman pertsonalak eta kirol-jarduerak sustatuko dituen aisialdiko tokiko eskaintza bat indartzea, ingurune komunitario eta sortzaile baten barruan, kontsumora bideratu gabe. Jarduera horien barruan beharrezkotzat jotzen da, halaber, bereziki kalteberak diren haur eta nerabeei aisialdiko eskaintza nahikoa eskaintzen jarraitzea. Bestalde, eta gero eta handiagoa denez komunikazio- eta entretenimendu-teknologia berrien erabilera, kontsultatutako udal-teknikariek erabaki dute haien erabilerari buruzko kanpainak egiten jarraitzea haur edo nerabeei zein haien familiei zuzendurik, guztiak ere arriskuen inguruan hezteko.
- **Garraioaren, mugikortasunaren eta hiri-ingurunearen arloari dagokionez**, nahiz eta ez den identifikatu beste eremu batzuetan bezalako arazo larririk, kontsultatutako teknikariek zenbait neurri iradoki dituzte **mugikortasuna seguruagoa, osasungarriagoa eta irisgarriagoa izan dadin**. Aipatzekoak dira, besteak beste, udalerrian bizikleta-bideak ugaritzea, superetxadi gehiago sortzea —edo etxadi-multzoak sortzea, horien barruan trafikoa murriztuz eta oinezkoentzako espazioa zabalduz—, gizarte-talde jakin batzuentzat (nerabeentzat, adibidez) aire zabaleko guneak prestatzea, eta hiri-garraioa hobetzea, hiriaren erdigunearen eta inguruko eremuen arteko joan-etorriak errazteko.
- **Haurren eta nerabeen zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-arriskuaren arretaren eremu espezifikoan** argi eta garbi agertzen dira bi neurri, eta beharrezkotzat jotzen da haietan eragitea:
 - **Babesgabetasuna hautemateko eragileak eta sareak zabaltzea, eta, oro har, sistemen eta gizarte-eragileen arteko lankidetzak estuagoa.**
 - **Detekzio goiztiarreko eta gurasotasun positiboko** programak eta neurriak indartzea. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da baliabide pertsonal gehiagorekin ez ezik, baliabide materialekin ere indartzea («*alerta-sistemak erraztuko dituzten tresnak izatea*»).

III. BLOKEA.

Ondorioak



12. kapitulua.

Laburpena eta gomendioak

Kapitulu honetan, Gasteizko haurren eta nerabeen premiei buruzko azterlan diagnostikotik ateratako ondorio nagusiak laburbildu dira, eta, horietan oinarrituta, zenbait gomendio jaso ditugu, Haur eta Nerabeentzako III. Udal Plana (III. HANUP plana) egiterakoan kontuan hartu ahal izateko.

Kapitulu hau osatzen duten 2 ataletatik lehenengoa laburpen-atal bat da, eta txosten honen bigarren blokea osatzen duten 8 kapituluen arabera antolatuta dago, xede gisa harturik hurrek eta nerabeek hirian duten egoera deskribatzea eta aztertzea.

Bigarren atalean, etorkizuneko planaren orientazioari begira eman daitezkeen gomendio nagusiak bildu dira, bai egindako diagnostikoa oinarri hartuta, bai II. HANUP planaren garapenetik eta azterlanean zehar sortutako haurren arloko udalaren esku-hartzerako oinarritzko orientazioetatik lortu ahal izan diren ikaskuntza nagusietatik abiatuta.

12.1. Laburpena

Hauek dira Gasteizko haurren eta nerabeen egoerari eta premiei buruz egindako azterketatik ateratako ondorio nagusiak, jorratutako gai-eremu bakoitzean:

- **la 44.300 haur eta nerabe bizi dira ikuspegi demografikotik dinamikoenetarikoa den euskal hiri honetan**

Gasteizek 253.996 biztanle ditu 2020an —orain arte erregistratutako kopururik handiena—, eta kilometro karratuko 919,3 biztanleko dentsitatea du —EAEko beste 2 hiriburuetakoa baino askoz ere txikiagoa—. **Haurrak eta nerabeak biztanleria osoaren % 17,4 dira; zehazki, hirian 0 eta 17 urte bitarteko 44.249 haur eta nerabe daude.**

Ikuspegi demografikotik erreparatuta, euskal hiririk dinamikoenetako bat da Gasteiz. Azken 5 urteetan (2016 eta 2020 artean), % 3,8koa izan da biztanleriaren hazkundera. Ildo horretan, esan daiteke **hazkunde iraunkor hori ez dela jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboaren (saldo begetatiboaren) ondorio**, baizik eta, neurri handi batean, **migrazio-saldo positiboak izatearena, are krisiaren aurreko aldi bakoitzeko handiagoak.**

Hain zuzen ere, 2008ko krisi ekonomikoaren hasieratik Gasteiz aldera joandako pertsonen urteko batez besteko kopuruak behera egin ondoren, joera hori aldatu egin da azkenaldian, eta, alde horretatik, 2019an jaso da erregistratutako kanpo-immigrazio gehien. Horrek, zalantzarik gabe, hirian bizi diren pertsona guztien kopurua ez jaitea ekarri du.

Azken 15 urteetan, 18 urtetik beherako haur eta nerabeen guztizko kopurua egonkor samar egon da, eta berreskuratu egin da 1990eko hamarkadaren erdialdeko pisu espezifikoa. Azken urteotan adingabeen kopuruak eta horiek biztanleria osoan duten pisu espezifikoak gora egin badute ere, **proiekzio demografikoetan oinarrituta, litekeena da datozen urteetan haur eta nerabeen kopuruak behera egitea**. Aurreikus daitekeen jaitsiera horren arrazoiak dira, batetik, bizi-itzaropenak pixkanaka gora egitea eta jaiotza-tasa handia izandako aldietan jaiotako belaunaldiak adin larriagoetara iristea eta, bestetik, jaiotza-tasak eta ugalkortasunak behera egitea eta amatasunerako batez besteko adina atzeratzea. Horrek lotura estua du lan-baldintzekin, baldintza ekonomikoekin eta familia eta lana bateragarri egitearekin.

Gasteizen bizi diren haur eta nerabeen % 13,3 Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo jaiotakoak dira. Alde batetik, **% 5,4 beste autonomia-erkidego batean jaio da**, batez ere, Gaztela eta Leonen, Madrilan, Valentziako Erkidegoan, Andaluzian eta Katalunian. Bestalde, **% 7,9 atzerrian jaiotakoak dira**. Beste herrialde batean jaio direnen ehunekoak ez da ia aldatu 2016az geroztik: % 7,5ean, 2010ean goia jo ondoren (% 10,2). Atzerrian jaiotako haur eta neraberik gehienak Amerikatik etorriak dira (% 46,1), eta bereziki Hego Amerikatik (% 36,4). Hala ere, **azpimarratu behar da Afrikatik eta, bereziki, Magrebetik datozenen pisu erlatiboa Gasteizen handiagoa dela** Bilbon eta Donostian baino.

Hiriko auzoen banaketari dagokionez, alderdi hauek aipatu behar dira: lehenik eta behin, **0 eta 17 urte bitarteko Gasteizko biztanleriaren erdia baino zertxobait gehiago hiriaren 31 auzoetatik 4tan bizi da**; zehazki, **Zabalganan, Arriaga-Lakuan, Salburuan eta Sansomendin**. Bestalde, 5 auzotan adingabeen garrantzi erlatiboa handiagoa da Gasteizko batezbestekoa baino; zehazki, Zabalgana, Aretxabaleta-Gardelegi, Salburua, Arriaga-Lakua eta Sansomendi auzoetan. Oro har, auzo horiek azalera handiagoa dute, familia-etxebizitza gehiago eta etxebizitza berrien eraikuntzarekin lotutako hazkunde mardula; horri esker, zalantzarik gabe, seme-alabak izateko adinean dauden edo seme-alabak dituzten familia gazteak etxez aldatu ahal izan dira. Azkenik, ezaugarri sozioekonomikoen ikuspegitik, aipatu behar da **0 eta 17 urte arteko haur eta nerabeen % 20 hiriko batez besteko familia-errenta baino % 15 eta % 28 artean txikiagoa duten auzoetan bizi direla**. Alde Zaharra, Zaramaga, Arana, Abetxuku, El Pilar, San Kristobal, Koroatzea, Judimendi eta Adurtza auzoak dira. Horiek, oro har, loturik daude etxebizitzaren katastro-balio apalagoarekin, familia-etxebizitzaren batez besteko azalera txikiagoarekin, hauteskunde-partaidetzako mailak batez bestekoaren azpitik egotearekin eta atzeritarren proportzio handiagoarekin.

▪ **Familiak: osaera, familia-harremanak eta arazo nagusiak**

Gasteizko 4 familia-etxetatik 1ek haur edo nerabe bat du gaur egun, hau da, 26.900 familia-etxe inguruk. Alde batetik, azpimarratu behar da azken 20 urteetan murriztu egin dela 0 eta 17 urte arteko pertsona batez gutxienez osatutako familia-etxeen pisu espezifikoa. Hain zuzen ere, **2001ean haur edo neraberik bat bizi zen familia-etxeen kopurua % 31koa zen, eta 2021ean, berriz, % 25era igaro da**. Familia-etxeen batez besteko tamainaren gutxitze progresiboak eta pertsona bakarreko familia-etxeen hazkundeak eragin dute beherakada hori, batez ere. Bestalde, **aniztasuna da gaur egungo familien ezaugarri nagusietako bat**. Izan ere, **inkesta egin zaien 4 haur eta nerabetik 1 ezohiko familia batean bizi da**; hau da, guraso bakarreko familia batean (% 9,8), gurasoak bananduta dauzkaten familia batean (% 8), familia berreraikian (% 4,3), familia zabalean (% 0,8), familia homoparental batean (% 0,5) edo beste mota bateko familia batean (% 0,5).

Familia-harremanei dagokienez, **haur eta nerabeen artean oso zabaldua dago gurasotasunaren ikuspegi positiboa**, batez ere tratu onari eta lotura afektibo goxoak ezartzeari dagokienez; hau da, haur eta nerabe gehienek sentitzen dute familiak ongi tratatzen dituela, maitasuna eta afektua jasotzen dituztela eta babesia sentitzen dutela. Hala ere, txikiagoa da familia-erabakietan beren iritzia kontuan hartzen direla uste dutenen proportzioa.

COVID-19ak eragindako pandemiaren eta 3 hilabete baino gehiago iraun zuen etxeko konfinamenduaren ondorioz, familiek ohikoa baino denbora gehiagoz bizi behar izan dute elkarrekin familia-etxean, eta horrek eragin zuzena izan du kideen arteko harremanetan. Hain justu ere, **haur eta nerabeen % 28,3k uste du familiarekiko harremanak okerrera egin duela pandemia-garaian**. Proportzio horrek, gainera, gora egiten du kontsultatutako haurren eta nerabeen adina handiagoa den izan ahala. Izan ere, 16 eta 18 urte bitarteko nerabeen % 33,8k uste du pandemiak inpaktu negatiboa izan duela familia-harremanetan.

Pandemiak izaniko inpaktuaz haratago, 2019ko Familien eta Familia-etxeen Inkestak emandako datuek adierazten dutenez, **COVID-19a baino lehen, enpleguaren prekaritatearekin, diru-sarrera nahikorik ezarekin eta seme-alaben etorkizunarekiko kezkarekin lotuta zeuden, hein handi batean, mendeko seme-alabak dituzten euskal familien artean prebalentziarik handiena zuten arazoak**. Horretaz gainera, azken urtean egindako inkesten emaitzen arabera, baliteke pandemiaren ondorioz arazo horiek larriagotu izana. Izan ere, Eustaten Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestaren bilakaera-datuek adierazten dute **2020an areagotu egin direla emakumeen arteko kontziliazio-arazoak, eta horrek esan nahi du pandemiaren lehen faseak eragin negatibo handia izan duela emakumeen kontziliazio-zailtasunetan, baina ez neurri berean gizonen artean**.

- **Arabako benetako pobrezia % 10,4tik % 7,3ra jaitsi da 2016 eta 2020 urteen artean, nahiz eta haren prebalentziak biztanleria orokorrarenaren ia bikoitza izaten jarraitzen duen**

2016an, Gasteizko haurren eta nerabeen egoerari buruzko azken diagnostikoan, Arabako lurralde historikoak EAEko beste 2 lurraldeek baino egoera txarragoa zuen. Gainera, aurreko diagnostiko horretan aipatzen zenez, 2008an hasitako krisi ekonomikoak Araban inpaktu handiagoa izan zuen Bizkaian eta Gipuzkoan baino, eta 2008-2016 aldian nabarmen igo zen lurralde horretan benetako pobrezia-tasa, % 4,1etik % 10,4ra, hain zuzen ere. Aldez aurreko diagnostiko horretatik abiatuta, positibotzat jo daitezke txosten honetan haurren eta nerabeen pobrezia-egoerei buruz aurkeztutako bilakaera-datuek.

Hain zuzen ere, **18 urtetik beherakoen artean benetako pobrezia-egoerak murriztu egin dira 2016-2020 aldian, bai Arabako lurralde historikoan, bai Gasteizen**. Zehazki, oinarrizko premiak behar bezala ase ezin dituztenen benetako egoerek Gasteizko 5.900 haur eta neraberik baino gehiagori eragiten diete (% 13,4) 2020an, hau da, 2016an baino ia 2.400 adingabe gutxiagori (% 19,6). Arabako joera positibo argi hori Euskal Autonomia Erkidego osoko haur-pobrezia apur bat gora egin duen testuinguru batean gertatu da. Horretaz gainera, egia da Gasteizen haur eta nerabeen benetako pobrezia-tasa Euskadi osokoaren gainetik dagoela oraindik; baina, egia da, orobat, Arabako hiriburuak bilakaera positiboa izan duela alor horretan, prebalentziarik handiena duen bigarren euskal eskualdea izatetik hirugarrena izatera igaro baita.

2018. eta 2020. urteen artean benetako pobrezia-aren intzidentziak zertxobait gora egin duela erakustez gain, desporekotasun-adierazleak nabarmen hazi direla islatzen dute 2020ko azken urteari buruzko datuek, eta hori ez dator bat 2014-2016 biurtekoaren ezaugarri izan zen murrizketa-dinamikarekin. Izan ere, 2020ko datuen arabera, desporekotasunak gora egin du 2018arekin alderatuta, bai adingabeen artean (% 2,6ko igoera), bai biztanleria osoaren artean (% 12,9ko igoera).

Pobrezia-egoerek haur eta nerabeen artean duten irismena aztertzerakoan, garrantzitsua da fenomeno hori osorik kontuan hartzea; izan ere, horri buruzko literatura zientifikoak agerian utzi duenez, bizitzako lehen urteetan sorturiko desporekotasun-egoerek pertsonen bizi-ziklo osoan zehar dituzte ondorioak. Alegia, belaunaldiz belaunaldi hasten da transmititzen pobrezia, eta, ondorioz, baita gizarte-bazterkeriako prozesuak ere. Ildo horretan, gabezia materialeko oinarrizko arazoak eta gizarte-desabantailako hainbat egoera pobrezia-egoerentarako hurbilketatzat har daitezke, jarraian ikusiko dugun moduan.

Lehenik eta behin, 2020ko Pobrezia-ari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak emandako datuek agerian uzten dute % 3,5etik % 4,1era igo dela gabezia-arazo oso larrien prebalentzia, Euskadi osoko neska-mutilen, artean azken 4 urteetan, eta horrek esan nahi du, datuak Gasteizera ekarrita, **16 urtetik beherako 1.500 haurrek baino gehiagok dituztela gabezia materialeko arazo oso larriak**. Bigarrenik, gabezia-egoera larriekin batera, badira gizarte-desabantaila handiko beste egoera batzuk ere, Euskadiko haur eta nerabeen % 4ri eta % 8ri eragiten dietenak. Zehazki, haur eta nerabeen % 7,4k ez du bigarren eskukoa ez den arropa berririk, % 6,6k ezin du ospakizun berezirik egin (urtebetetzeak, adibidez) eta % 4,4k ez du aire zabaleko aisialdirako ekipamendurik (hala nola bizikleta edo patinak). Oro har, **1 eta 15 urte arteko haurren % 11,6k muga horietako bat dute gutxienez, eta horrek esan nahi du hiriko 4.400 haur eta nerabe inguruk gabezia handiak dituztela** kopuru absolutuetan. Azkenik, horrelako egoerentara hurbiltzeko aukera ematen digute ikerketa honen esparruan haur eta nerabeei zuzendutako inkestaren emaitzek ere. Horiek erakusten dutenez, gutxiengoena da oinarrizkotzat jo daitezkeen ondasunen gabezia, hala nola eskola-materialena, egoera onean dauden oinetakoena edo etxeko wifi bidezko konexioarena, eta % 3ri baino gutxiagori eragiten dio. Hala ere, zabalduxeagoa dago kirola egiteko edo zaletasunak praktikatzeko materialik eza (% 8,1), telefono mugikor propiorik ez edukitzea (% 17) eta erabilera eskusiboko ordenagailurik ez izatea (% 32).

Pandemiaren eraginaz Gasteizko haur eta nerabeei azterlan honen esparruan egindako inkestaren emaitzek adierazten dutenez, **Gasteizko haur eta nerabeen % 18k uste du beren etxeko egoera ekonomikoak okerrera egin duela pandemiaren ondorioz**. Era berean, hiriko haur eta nerabeen % 22ren familia-etxean heldu bakarra (edo bat ere ez) ari da lanean, eta **% 23k aitortzen du beti edo sarritan arduratzen direla bere familiak duen diruaz**. Egia da adierazle horiek ezin direla zuzenean lotu pobrezia-egoerekin edo gabezia materialekin, baina aukera ematen du haurrek eta nerabeek bizi duten egoerari buruz duten pertzepziara hurbiltzeko.

Pobrezia-egoeren bilakaerarekin batera, bi aldi bereizi ikusten dira horiek murrizteko prestazio eta laguntza publikoen estaldurari dagokionez. Lehenbiziko aldiak, 2016 eta 2019 urteen artean, nabarmen murriztu da gizarte-larrialdietarako laguntzen eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren kopurua (% 10 eta % 16, hurrenez hurren), hobekuntza ekonomikoaren aldiarekin bat etorritik. Hala ere, bigarren aldi bat ere ikus daiteke: **2019tik 2020ra bitartean, Gasteizko seme-alabak dituzten familientzako gizarte-larrialdietako laguntzak (GLLak) eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBEa) % 6 eta % 10 handitu dira, hurrenez hurren, eta hautsi egin dute 2017tik ikusitako beheranzko joera**.

Pobrezian, prekaritatean eta gizarte-bazterkerian dauden **familien ikuspegiari oinarrituz**, identifikatutako arazo nagusietako bat hauxe da: **batez ere familia migratzaileek aurrez aurre izaten duten segurtasun falta, egoera ekonomikoari eta bizilekuari loturik**; zehazki, alokairuaren prezio handiak, lan-merkatu sartzeko oztopoak eta irregularitasun-egoerak. Familiek berek azaldu dutenez, **egoera horiek familia iritsi berriei eragiten dieten neurri handi batean, baina konstante bat da familia migratzaile askoren bizi-esperientzian, eta, gainera, etorkizunean areagotu egin daitezke pandemiaren ondorioz**. Halaber, haur eta nerabe migratzaileentzat, Gasteizera iristea «kultura-talka» handia eta «bat-bateko aldaketa» da, hizkuntza-arazoei larriagotua. Ildo horretan, parte hartzen duten familiek positiboki nabarmen dute adingabeen egokitzeko gaitasuna, eta ikastetxeen eta udal-zerbitzuen lan integratzailea azpimarratzen dute. Bestalde, hirugarren sektoreko erakundeek eta

kontsultatutako familien ustetan, dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen inklusio eraginkorrik eza da hirian aurre egin beharreko beste arazoetako bat. Ildo horretan, bat datoz esatean **inklusioaren kontzeptua diskurtso, mekanismo eta ekimen instituzionaletan jasota dagoela**, baina, eguneroko bizimodu errealean, gaineratzen dute **ez dela neurri berean aplikatzen** inklusioa dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen eta gainerako biztanleen arteko noranzko biko prozesu gisa, eta **gaur egun ikusezin izaten jarraitzen duela**. Horrek, haien aburuz, ondorio larriak ekar ditzake nerabezaro(aurre)an eta gaztaroan.

- **Hezkuntzaren arloko adierazle nagusiak onak dira, baina eskola-segregazioak jarraitu egiten du, eta desabantaila sozial eta ekonomikoa duten haur eta nerabeei eragiten die**

Eskuragarri dauden azken datu ofizialen arabera, 2019-2020 ikasturtean **42.954 ikasle zeuden matrikulatuta** Gasteizen: **% 53 sare publikoan eta % 50 D ereduan**. Bilakaeraren ikuspegitik, zenbait joera nabarmendu daitezke. Lehenik eta behin, 2006-2015 aldian hezkuntza-maila guztietan matrikulatutako ikasleen gorakada orokor eta jarraituaren ondoren, **azken urteetan moteldu egin da igoera hori**. Hain zuzen ere, **Haur Hezkuntzan hasi da nabaritzen jaiotza-tasaren murrizketa**, maila horretako ikasleen kopurua % 4,3 jaitsi baita 2015 eta 2019 artean. Bigarrenik, 2006-2007 ikasturteetik, Lehen Hezkuntzako mailetan **nabarmen egin du gora B eta bereziki D ereduetako matrikulazioak**. Hirugarrenik, **nabarmentzekoak dira DBHtik aurrera matrikulazioetan ageri diren genero- ezberdintasun handiak**: 10 neskatatik 7k Batxilergoa aukeratzen dute, eta, mutilen kasuan, ordea, erdiek baino zertxobait gehiagok. Hirugarrenik, **Gasteizek gora egin du atzerriko nazionalitatea duten ikasleen kopuruan**. Igoera hori txikiagoa bada ere Euskal Autonomia Erkidego osoan eta beste 2 euskal hiriburuetan baino, **ikastetxe publikoetan atzerriko nazionalitatea duten ikasleen kopuruaren ordezkari handiagoa fenomeno bereziki nabarmena da Gasteizen kasuan**.

Bestalde, **hezkuntzaren arloko adierazle nagusiak positibotzat jo daitezke, alderatutako kopurutan, eskolatzeari, hezkuntza-lorpenei edo eskola-uzteari dagokienez**. Lehenik eta behin, **Gasteizek eskolatze-tasa handia du Haur Hezkuntzan** (% 89,7 2 urterekin eta % 95,6 3 urterekin), eta **16 urteko ia biztanle guztiak hartzen ditu**. Euskadiko haurren eskolatze-tasak **Espainiakoak baino handiagoak dira, eta Europar Batasuneko batezbestekoaren gainetik daude**. Bigarrenik, **positibotzat jo daitezke hezkuntzako lorpenei eta eskola-uzteari buruzko datuak ere**. Hain zuzen ere, 12 urterekin, ikasleen % 86k Lehen Hezkuntza amaitua dute Gasteizen, Euskadi osoan baino apur bat gutxiagok (% 88), baina Estatuan baino gehiagok. Hirugarrenik, **eskola-uztearen tasa murriztu egin da pixkanaka: azken 20 urteetan erregistratutako txikiena izan da 2020an**.

Hezkuntzaren arloan hautemandako arazo nagusietako bat hau da: Gasteizko sare publiko eta pribatuetako ikasleek gero eta desparekotasun sozioekonomiko handiagoak dituzte, eta alde horiek eragina dute emaitza akademikoetan. Alde batetik, 2009az geroztik, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Estatusaren Indizea (ISEK) pixkanaka jaitsi egin da Arabako hiriburuko ikastetxe publikoetan, eta horrek esan nahi du areagotu egin direla jatorri sozioekonomikoko desparekotasunak sare publikoko eta itunpeko sareko ikasleen artean. Halaber, ebaluazio diagnostikoen emaitzek erakusten dute sare publiko edo pribatu itunduaren titulartasuna dela emaitza akademikoetan eraginik handiena duen aldagai nagusietako bat. **Beraz, ondoriozta daiteke Gasteizko ikasleen desparekotasun sozioekonomikoei eragina dutela hiriko ikasleek lortutako emaitza akademikoetan**.

Irakasteko eta ikasteko espazioa izateaz gainera, sozializatzeko eta elkartzeko gunea ere bada eskola. Hain zuzen ere, Gasteizko **haur eta nerabeek oso modu positiboan baloratzen dute ikaskideekin duten harremana**, eta iritzi positiboa dute, orobat, **ikastetxea bizilekutik gertu egotearekin eta, hein txikiagoan, etxean egiteko agintzen dieten zeregin-kopuruarekin ere**. Berdinen arteko harremanari dagokionez, azpimarratu behar da 2016an baino zertxobait txikiagoa izan dela Euskadiko Bigarren Hezkuntzako ikasleen arteko tratatu txarren indize orokorraren eragina, baina, nolana ere, ez da ahaztu behar **eskola-jazarpenak Lehen Hezkuntzako 1.400 ikasleri eta Bigarren Hezkuntzako 1.500 ikasleri eragiten diela guztira**.

Pandemiaren ondorioz azken hilabeteetan bizi izan den egoerari dagokionez, nabarmentzekoa da ikasle askok eta askok egoera txarrei aurre egiteko duten aparteko gaitasuna. Hala ere, **% 10en ustez, COVID-19arekin okerrera egin du ikaskideen arteko edo irakasleekiko harremanak, eta % 23,1ek uste du errendimendu akademikoak behera egin duela**, batez ere ikaslerik zaharrenean eta desgaitasunen bat dutenen artean. Pandemiaren ondoriozko hezkuntza-arloko zailtasunez gainera, kontsultatutako eragileek nabarmendu dute **oztopoak ageri direla dibertsitate funtzionala duten ikasleak gizartean eta hezkuntzan txertatzeko**. Ildo horretan, hezkuntza-eredu inklusiboak bultzatzearen garrantzia azpimarratu dute, eredu horietan beharrezkoak diren baliabide materialak bermatzeko eta, hezkuntza-espazioen barruan, alderdi akademikoei ez ezik harreman- eta sozializazio-beharrei eta arazoei ere erantzuteko, batez ere nerabezaroan.

- **Positiboa da haur eta nerabeek beren osasun-egoerari eta bizitzarekiko gogobetetasunari buruzko pertzepzioa, baina pandemiaren inpaktuak izan du eraginik**

Gasteizko haur eta nerabeek oso modu positiboan balioesten dute beren osasun-egoera orokorra eta bizitzarekiko gogobetetze-maila. Izan ere, 10 haur eta nerabetik 9k uste dute haien osasuna ona edo bikaina dela, eta Oitik 10era bitarteko eskala batean 7,33ko batezbestekoarekin puntuatzen dute bizitzarekiko gogobetetze-maila (eskala horretan, izan litekeen bizimodurik kaskarra da 0, eta 10, berriz, onena).

Ikuspegi ebolutibotik erreparatuta, interpretatu behar da pertzepziook positiboak direla, baina litekeena dela apalagoak izatea pandemiaren ondorioz. Izan ere, haurren eta nerabeen bizi-gogobetetasunak okerrera egin du 2017arekin alderatuta, eta, beraz, esan daiteke azken urtean bizi izandako egoeraren inpaktuak izan duela eraginik. Hain zuzen, **haurren eta nerabeen % 25 eta % 30 inguruk gogoaldarte eskasa, suminkortasuna edo urduritasuna izan dute gutxienez astean behin azken 6 hilabeteetan**. Halaber, **10 haur eta nerabetik 2k uste dute osasun fisikoak okerrera egin duela, eta % 35,2k aldartea okerragoa dutela pandemiaren aurretik baino**. Horretaz gainera, badira aldi horretan haurren eta nerabeen artean kezka eragin duten beste egoera batzuk ere. Zehazki, **10 haur eta nerabetatik 6k adierazi dute azken 30 egunetan nahiko edo oso kezkatuta egon direla familiako norbait, lagun bat edo gertuko norbait COVID-19arekin kutsatu edo hil ote daitekeen**, baita pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko falta den denborarekin ere.

Pandemiaren eraginaz haratago, zenbait alderdi nabarmendu behar dira adingabeen bizimoduarekin eta osasunarekin eta ongizatearekin lotutako arriskuei dagokienez. Lehenik eta behin, elikadura- eta nutrizio-ohiturei dagokienez, **datu ebolutiboek adierazten dute Euskadiko haurren obesitate-tasak gora egin duela pixkanaka, baina, aldi berean, elikadura-ohiturek hobera egin dutela; horien artean, murriztu egin dira gozoak, azukrea duten freskagarriak eta aperitiboak**. Bigarrenik, **Arabako gazterik gehienek jarduera fisiko osasungarria egiten dute, eta, hain zuzen ere, ariketa fisikoa eta kirola, taldean zein bakarka, haurren eta nerabeen jarduera gustukoenetakoak dira aisialdian**. Hirugarrenik, drogen eta adikzioen kontsumoari loturik, azpimarratzekoa da azken urteotan egindako lana, bizi-ohitura osasungarrien, prebentzioaren eta droga-kontsumoaren arriskuei buruzko kontzientziazioaren arloan. Hala eta guztiz ere, **nerabeekin eta gazteekin lotura handia duten zenbait kontsumo problematiko ageri dira oraindik**, hala nola kaleko alkohol-kontsumoa, mozkorraldiak edo kalamu-kontsumoa. Laugarrenik, **harreman sexoafektiboan eta arriskua ekar dezaketen jokabide sexualen eremuan, modu positiboan aipatu behar da antisorgailuen**

erabileraren hedapena, eta aipamen positiboa merezi du, orobat, nabarmen murriztu izanak Arabako emakume nerabeen haurdunaldia borondatez eteteen (HBE-en) tasa eta hiriburuko nerabeen erditzeen kopurua. Bestalde, aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeen gabezia handiak eta ikusezintasuna nabarmentzen dira sexu-hezkuntzaren arloan.

Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen azken datuen arabera, **2020aren amaieran, Araban 18 urtetik beherakoen ia % 1,5ek** (854 haur eta nerabek) **% 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortua zuen, eta % 1,02k aitortutako mendetasun-maila** (597 haur eta nerabek). Desgaitasunaren eremuan lan egiten duten erakundeek eta aniztasun funtzionala duten adingabeak dituzten familiek identifikatutako arazo nagusien artean ageri da ez edukitzea koordinaziorik espezialisten artean, ez izatea informaziorik familientzat eta ez eskaintzea laguntza psikologikorik zaintzaileei. Horretaz gainera, aipatu dute, besteak beste, beharrezkoa dela osasun-arloko profesionalak prestatzea eta sentsibilizatzea, haurren eta nerabeen egoerari buruz informatzeko eta osasun-sistema publikoaren barruan arreta goiztiarreko baliabideen eta laguntzen zuzkidura hobetzeko.

Azkenik, **indarkeria-egoerak eta legearekiko gatazkak adingabeen zati oso txiki bati eragiten dioten kasuak dira.** Orokortuak ez izan arren, datuen bilakaerak agerian uzten du, lehenik, behera egin duela bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuen kopuruak, bigarrenik, egonkorak direla emakume nerabeen sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko datuak eta, hirugarrenik eta azkenik, gero eta gehiago direla etxeko edo familia barruko indarkeria-kasuak. Era berean, Araban epai irmoz zigortutako adingabeen tasak ez du gora egin azken 2 urteetan, baina Euskadi osokoa baino handiagoa da. Aipatu behar da, halaber, **auzoko, ikastetxeko edo etxeko indarkeria-egoeren eraginpean maiz edo erregularitasunez egoteak Gasteizko haur eta nerabeen % 7 eta % 16 ingururi eragiten diela.**

- **Aisialdiarekiko gogobetetzeak behera egin du, eta etxeak, norberarena nahiz adiskideren batena izan, tokia kendu dio kaleari, aisialdiaz gozatzeko gehien aukeratzen den tokien artean**

COVID-19ak eragindako pandemiak eragin nabarmena izan du haurren eta nerabeen aisialdian eta denbora librean. Inkesta egin den unean (2021eko apiriletik eta ekainera bitartean), pandemiaren laugarren olatua gertatu da, eta txertaketa-prozesua bizkortzen hasi da; halere, murrizketa handiak dauden, oraindik ere, eremu publiko orokorrean eta ikastetxeetan. Azken buruan, egoera asko aldatu da azken 4 urteotan, eta, zalantzarik gabe, Gasteizko haur eta nerabeek aisialdiaz gozatzeari buruz lortutako erantzun askotan ikusten da hori.

2021ean, hauek dira Gasteizko haur eta nerabeek gustukoak dituzten **aisialdiko 5 jarduerak** —hau da, inkesta egin den unean gehien eta gusturen praktikatzen dituztenak—: **lagunekin aurrez aurre denbora pasatzea** (% 61,5), **musika entzutea** (% 58), **telesailak eta filmak ikustea** (% 49,2), **taldean kirola egitea** (% 40,2) eta **sare sozialak erabiltzea** (% 38,6). Egia esan, 2017an identifikatu ziren ia jarduera berak dira; baina, pandemiaren ondorioz, **lehentasuna eman zaie kaleko espazio publikoa edo zenbait instalazio kolektibo behar ez dituzten jarduerari.**

Alde handiak ikusten dira aisiaren eta denbora librearen lehenetsunean dagokienez, batez ere generoaren eta adinaren arabera. Neskek, argi eta garbi, nahiago dute musika entzun, telesailak eta filmak ikusi, sare sozialak erabili eta lagunekin txateatu; mutilen artean, berriz, ohikoagoa da sareko bideo-jokoetan aritzea eta taldean kirola egitea. Adinari erreparatuta, berriz, urteak bete ahala gustukoagoak bihurtzen diren jarduerak batzuk nabarmendu behar dira: lagunekin denbora pasatzea (aurrez aurre), musika entzutea eta sare sozialak erabiltzea. Era berean, **aipatzekoak dira jarduerarik gustukoeneren (lagunekin denbora aurrez aurre pasatzearen) kasuan sumatzen diren aldeak jatorriari eta desgaitasunen bat izateari loturik —horrek gizarte-bazterkeriako arazoak egon litezkeela iradokitzen du—**

Bilakaeraren ikuspegitik, 2021eko emaitzek ere hainbat aldaketa iradokitzen dituzte, Gasteizko haur eta nerabeek aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzeko adierazten dituzten espazioei dagokienez. Aldaketa horien artean deigarriena 2017an kanpoko aisialdiaren (kalekoaren) eta etxeko aisialdiaren artean ikusten zen erlazioaren alterazioarekin dago lotuta. **2017. urtearekin alderatuta, gehiago gozaten da etxeko aisialdiarekin —2017an % 61,9 izatetik 2021ean % 73,3 izatera pasa da—, aire zabaleko aisialdiaren kaltetan —2017an % 77,2k aipatzen dute, eta 2021ean % 73,3k—.**

Oro har, nerabeek gehiago gozaten dute kalean txikienean baino, eta haurrek baino hein txikiagoan jotzen dute etxeko aisialdira edo hezkuntza-inguruneko aisialdira. Alde horiek estatistikoki adierazgarriak dira.

Haur eta neraberik gehienek lagunak eta familiaren artean banatzen dute aisialdia, neurri handi batean adinaren arabera zehazten den nolabaiteko orekaren barruan. Oro har, argi eta garbi ikusten da lagunekin igarotako aisiak gora egiten duela adinarekin, eta familiarekiko aisiak, berriz, behera.

Haur eta neraberik gehienek adierazi dute lagunekin igarotzen dutela denbora liberik gehiena (% 75,3k). Hala ere, eta beste aukera batzuk alde batera utzita, haurren eta nerabeen laurden batek (% 24,7k) aisialdia ez du partekatzen lagunekin nagusiki, baizik eta familiarekin eta/edo bakarrik. Hain zuzen ere, haurren eta nerabeen % 14,3k familiarekin soilik partekatzen dute aisialdia, eta % 5,3k, ostera, bakarrik. Aisia-denbora gehientsuena familiarekin bakarrik igarotzen duten pertsonen artean, bereziki nabarmentzen dira atzerritar jatorriko haur eta nerabeak (% 20,4, bertakoen % 12arekin alderatuta), eta aisialdia bakarrik igarotzen dutenen artean, berriz, nabarmentzekoak dira desgaitasunen bat duten haur eta nerabeak (% 11,5, desgaitasunik ez dutenen % 4,4arekin alderatuta).

Orain arte azaldutako inkestaren emaitzek agerian uzten dute, besteak beste, pandemiak eragin nabarmena izan duela haurren eta nerabeen aisialdian, eta, bereziki, nolabaiteko aldaketa eragin duela kaleko aisialdia apur bat alboratu eta etxeko aisialdirantz igarotzeko bidean —eta, beraz, aisialdi isolatuagoa ekarri duela—.

Oro har, 2021ean aisialdiarekiko asebetetze-maila nahiko altua bada ere —haur eta nerabeen % 48,9k adierazi du oso pozik dagoela eta % 42k, berriz, nahiko pozik—, datu horiek, duela 4 urte jasotakoekin alderatuta, erakusten dute nolabaiteko narriadura gertatu dela esparru horretan. Bildutako informazioaren arabera, halaber, aisialdiarekiko gogobetetasuna oro har txikitzearekin batera, **murriztu egin da familiarekin nahiz lagunekin partekatutako aisialdiaren gozamena ere.** 2017an, familiaren aisialdiaz asko gozaten zutela adierazi zuten haurren eta nerabeen proportzioa ia % 56koa zen, eta 2021ean, berriz, % 43ra jaitsi da. Lagunekin aurrez aurre partekatutako denboraren kasuan, asko gozaten zutela adierazi zutenen proportzioa % 76,7koa zen, eta gaur egun, berriz, % 61,6koa da.

Aldagai soziodemografikoen arabera banakaturiko emaitzek erakusten dute eremu horretan desparekotasun nabarmenak daudela generoaren, adinaren, jatorriaren eta desgaitasunaren arabera. Oro har, **aisialdiarekiko gogobetetze-maila handixeagoa da mutilen artean nesken artean baino**. Bestalde, adinari dagokionez, **15 urtetik gorako nerabeek aisialdiarekiko asebetetze falta handiagoa adierazi dute**. Adin horretan, bestalde, **txikiagoek baino askoz ere gozamen handiagoa jasotzen dute bakarkako aisialdian, eta gutxiago gozaten dute familia-aisiarekin loturiko jardueretan**.

Azkenik, berriz ere haurren jatorria eta desgaitasunak aipatu behar dira, aisialdiarekin eta gozamenarekin lotura estua duten aldagaien artean ageri dira eta. Azterlan honetatik ondoriozta daitekeenez, atzerritar jatorriko pertsonak eta desgaitasuna dutenak ez daude gainerakoak bezain pozik aisialdiarekin. Lehenengo kasuan, gainera, haur eta nerabe atzerritarrek gutxiago gozaten dute lagun arteko eta aurrez aurreko aisialdian emaniko denboran, atzerritarrak ez direnen aldean. Bigarren taldearen kasuan, desgaitasunen bat duten pertsonak ere gutxiago gozaten dute familian emandako aisialdi-denborarekin.

Haur eta nerabeei gauza dezente bururaten zaizkie, pandemian zehar beren aisialdia eta lagunena hobetzeko. Aipatzen dituzten proposamenetako zenbait **COVID-19ari aurre egiteko uneren batean ezarritako osasun publikoko murrizketa eta neurrien eremuko planteamendu zehatzei dagozkie**; baina, hainbat eremutan inplikazioak dituzten neurri espezifikoak dira horietako asko. **Proposamenok, funtsean, gai hauetara bideratuta daude: espazio irekietan eta naturan jarduera gehiago egitea; kultura- eta entretenimendu-eskaintza zabaltzea, murrizketekin bateragarri eginez; komunikazio- eta entretenimendu-teknologiaren erabilera eta abusua; berdinen artean soziazitate handiagoa nahi izatea (denbora gehiagoan eta pertsona gehiagorekin); hain murriztailea izango ez den kirol-jarduera baten irrika, eta, halaber, familia- eta etxe-eremuko aisialdi «seguruko» proposamenak.**

Pandemia amaituta balego hiriko aisialdi-denbora hobetzen lagunduko luketen neurrien artean ageri dira, adibidez: kirol-jarduerak antolatzea —% 76,5en ustez, jarduera horrek asko edo nahikoa hobetuko luke aisialdiaz gozatzeko modua—; beste auzo, ikastetxe nahiz herrialde batzuetako pertsonak edo bestelako zaletasunak dituztenak ezagutzeko aukera ematen duten jarduerak antolatzea (% 70,6ren ustez); haurrek nahi dituzten jarduerak antola ditzan eskatzea Udalari (% 65,8ren ustez), eta, azkenik, haur guztiek parte hartzeko moduko jarduerak antolatzea, irisgarritasun fisiko, kognitibo edo ekonomikoaren ikuspegitik (% 65,8).

- **Gaitasun subjektibo handia dago haurrek eta nerabeek hiriko gaietan parte hartzeari dagokionez, baina nahiko zabalduta dago haien iritziak gutxi entzutearen eta aintzat hartzearen inguruko pertzepzioa**

Haur eta neraberik gehienek modu positiboan baloratzen dituzte bizi diren hiri-inguruneko espazioak eta instalazioak, nahiz eta alde nabarmenak ageri diren auzoen artean. Baloraziorik onena jaso duten alderdien artean, berdeguneak eta lorategiak, osasun-zentroak eta garraio publikoa nabarmentzen dira, eta, baloraziorik txarrena jaso dutenen artean, berriz, bidegorriak eta kirol-instalazioak. Oro har, hiriaren iparraldeak eta mendebaldeak batezbestekoa baino balorazio positiboagoa lortu dute, eta, aldiz, ekialdean eta erdialdean dauden auzoetako zerbitzuek eta instalazioek lortu dute baloraziorik kaskarrena.

Segurtasuna, garbitasuna, irisgarritasun unibertsala eta ingurumen-arazoak dira Gasteizko haur eta nerabeek garrantzitsuentzat jotzen dituzten inguruneko alderdiak, eta, aldiz, edertasuna eta auzokideekiko harremana dira garrantzi gutxien eman zaien dimentsioak. Garrantzirik handiena izan duten dimentsioak, era berean, hobetzeko modukoak ere badira, baina alderantziko hurrenkeran. Izan ere, haur eta nerabeen erdiek baino gehiagok uste dute **ingurumenarekin, irisgarritasun unibertsalarekin, garbitasunarekin eta, neurri txikiagoan, segurtasunarekin lotutako alderdiek eskatzen dutela hobekuntzarik handiena**.

Gaitasun subjektibo handia dago hurrek eta nerabeek hiriko gaietan duten parte-hartzearen inguruan, eta, gainera, gora egin du azken 4 urteetan. Haur eta nerabe gehienek uste dute hiria hobetzen lagun dezaketela, eta 10etik 8 gai sentitzen dira hiriaren esparruan dituzten interesak defendatzeko. Parte hartzeko gaitasun handi hori ez dator bat, ordea, **haur eta nerabeen iritziak gutxi entzutearen eta aintzat hartzearen inguruan hedatuta dagoen pertzepzioarekin**. Udalak bultzatu ditu hainbat modu haur eta nerabeek parte hartzeko modua izan dezaten, baina esan daiteke ez dela lortu ahalegin hori haur eta nerabe guztiengana iristea. Ildo horretan, parte hartzeko programa eta jarduera horiei buruzko ezagutza urria dute hiriko haur eta nerabeek, eta tokiko planean jasotako ekintzetan nolabaiteko inplikazioa duten udal-teknikariek berresten dute, hain justu, alderdi hori.

Haurren eta nerabeen eskubideen arloan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeek positibotzat jo duten alderdietako bat da Haur eta Nerabeen Elkargoan parte hartzea ez dagoela lotuta hezkuntza-eremuarekin soilik, eta, ildo horretan, komenigarritzat jotzen dute sarbideak indartzea, horrelako jardueretan parte hartzeko aukera zabaltzeko. Era berean, beharrezkotzat jotzen da partaidetza-gune espezifikoak indartzea, alde batetik, nerabeei zuzendurik eta, bestetik, dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeekin pentsaturik.

- **Udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien kopurua egonkor samarra izan da azken 4 urteotan, baina ugaritu egin dira babesgabetasun-arazoak dituztenak**

2017tik 2020ra bitartean, **nahiko egonkor mantendu da 0 eta 17 urte bitarteko seme-alabak dituzten eta udaleko gizarte-zerbitzuen arreta jaso duten familien kopurua** (4.400 inguru), izan oinarritzko gizarte-zerbitzuena, izan Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuarena eta Gizarte Inklusioaren Zerbitzuarena. **Datu horiek oso bestelakoak dira aurreko diagnostikoan emandakoekin; izan ere, asko ugaritu dira ardurapean seme-alabak dituzten eta udal-arreta jaso duten familiak.**

2020an, seme-alaba adingabeak dituzten familientzako arreta % 2,7 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta. Udaleko gizarte-zerbitzu guztiak aktibo egon ziren arren —krisiaren hasieran, lanaren zati bat telefono bidez egin zuten, larrialdietan izan ezik—, 2020ko arreta-datuek agerian utzi dute % 2,7 murriztu dela seme-alaba adingabeak dituzten familientzako arreta. Nolanahi ere, murrizketa oso txikia izan arren, **zenbateko hori ez dator bat guztira artatutako familien kopuruarekin, zeina % 0,6 bakarrik murriztu baitzen 2019tik 2020ra bitartean.**

Hauek dira seme-alaba adingabeak dituzten eta udaleko gizarte-zerbitzuetara jo duten familien arazo eta zailtasun nagusiak, ordenan: **ekonomikoak, informaziorik eza eta laneratzeko zailtasunak**. Arazo eta zailtasun horiek seme-alaba adingabeak dituzten artatutako familien % 70i, % 63ri eta % 43ri eragiten zieten, hurrenez hurren. Neurri txikiagoan bada ere, ardurapean adingabeak dituzten familien % 20 eta % 25 baitaude haien eraginpean, honako hauek leudeke: bizikidetzeta-desorekako arazoak (% 25), gizarteratzeko zailtasunak (% 23) eta haurren eta nerabeen babesgabetasun-arazoak (% 21).

Bilakaeraren ikuspegitik, 2016-2020 aldia aukeratuta ikusten dugu **kopuru erlatiboetan gehien handitu diren arazoan artean hauek ageri direla: etxebizitza-arazoak** (% 15,3 hazi dira) eta **haurren eta nerabeen babesgabetasun-arazoak** (% 10,4). Aldiz, **2016. urtearekin alderatuta, laneratzeko zailtasunak eta arazo ekonomikoak dira kopuru absolutuetan gehien murriztu diren problematikak.**

2020. urtean, babesgabetasun-arazoren bat zuten 1.113 haur eta nerabe artatu zituzten, guztira, udaleko gizarte-zerbitzuek; hau da, udaleko gizarte-zerbitzuen arretaren bat jaso duten 0 eta 17 urte bitarteko haur eta nerabe guztien % 14,2. Babesgabetasun-arazoengatik —arina, neurritsua, larria edo mailarik gabea— artatutako adingabe guztiak kontuan hartuta (1.113 pertsona 2020an), ohartarazi behar da **guztien % 49 (569 neska eta mutil) babesgabetasun neurritsu edo larritzat hartutako kasuei zegozkiela, eta babesgabetasun arineko edo mailarik gabeko kasuak, berriz, % 51 zirela.** Datu horiek —azken 5 urteetan ez dira nabarmen aldatu kopuru erlatiboetan— iradokitzen dute udalaren esku-hartzearen zati handi bat babesgabetasun-prozesuaren faserik aurreratuenetan zentratzen dela oraindik, eta, horregatik, beharrezkoa dela detekzio goiztiarra sustatzen jarraitzea, adingabeei kalterik handienak eragiten dizkieten egoerak saihesteko.

Azkenaldiko bilakaeraren ikuspegitik, bilakaerari buruzko datuek agerian utzi dute **2020an**, COVID-19ak eragindako pandemia hasi zen urtean, **% 5,3 hazi zela babesgabetasun-arazoak dituzten haur eta nerabeen kopurua**, udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako eta babesgabetasun-arazorik gabeko haur eta nerabeen guztizko kopurua baino askoz gehiago —horien kopurua, % 5 jaitsi zen—.

Bilakaeraren ikuspegi zabalago batetik ikus daitekeenez, **2017-2020** aldian, **udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako adingabeen kopurua nahiko egonkor mantendu bada ere, ez da gauza bera gertatu babesgabetasun-arazoren bat duten haur eta nerabeekin, haien kopuruak gora egin baitu etengabe 2013tik.** Azken 4 urteko aldiaren bilakaerari buruzko datuen arabera, halaber, babesgabetasunaren intzidentziaren igoerarik handienak maila arinekoetan eta neurritsukoetan izan dira, % 81 eta % 33 igo baitziren, hurrenez hurren. 2017 eta 2020 artean, babesgabetasun larriaren intzidentziak % 21 egin zuen gora, eta gradurik gabeko haurren kopuruak, berriz, % 8 behera.

Profilarri dagokionez, babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeen % 57 mutilak dira, % 52k 12 urte edo gehiago dituzte eta **babesgabetasun-arazoak dituzten haurren eta nerabeen % 63 bertakoak dira, nahiz eta babesgabetasun-tasa nabarmen handiagoa izan atzerriko nazionalitatea duten haur eta nerabeen artean.**

Arabako Foru Aldundiak (babesgabetasun larriaren zantzuak ageri dituzten egoera guztietan eskumena duen administrazioak) familia-harrerari eta egoitza-harrerari buruz emandako bilakaeraren datuek erakusten dutenez, **azken 4 urteetan murriztu egin da familiagandik banantzeko neurriak dituzten haur eta nerabeen kopurua, bai eta foru-erakundeak gauzatutako tutoretzen kopurua ere.**

12.2. Hurrengo HANUP planerako gomendioak eta orientabideak

Bizitzaren hainbat esparrutan Gasteizko haurren eta nerabeen egoera ezagutzea ez ezik, azterlan honen helburuak ziren, orobat, oraindik indarrean dagoen II. HANUP planaren funtzionamenduaren eta emaitzen hasierako balorazioa egitea eta etorkizuneko planak aurrez aurre izango dituen erroka nagusiak identifikatzea, horretarako hainbat gomendio edo jarduera-ildo proposatuz.

Bi gai horietako lehenengoari dagokionez, azterlan honen hirugarren kapituluak II. HANUP planaren hainbat alderdi baloratzen ditu, bertan aktiboki parte hartzen duten udal-teknikarien ikuspegitik. Balorazio horren xehetasunak kapitulu horretan kontsulta badaitezke ere, emaitzetatik ondorioztatzen da **udal-teknikari gehienek oso modu positiboan balioesten dutela bai II. HANUP planean erabili zen lanketa-prozesua, bai hura bultzatzeko eta jarraitzeko sortutako koordinazio-dispositiboa, bai planean aurreikusitako ekintzek 2020ra bitartean izaniko betetze-maila**. Dena den, egoera hori ilundu egin zuen **pandemiak**, eta, udal-teknikari gehienek aburuz, oztopoa izan da —eta ez nolana hiko—, planaren indarraldiaren amaieran bertan aurreikusitako ekintzak behar bezala gauzatzeari dagokionez. Puntu horretan, iritziak dibertsifikatu egin dira: batzuek pandemia eta horrekin lotutako murrizketak (edukiera-mugak, mugikortasuna, distantzia soziala, etxeratze-agindua) jo dituzte oztopo nagusitzat; beste batzuek, berriz, kezka ikusten dute aurreikusitako ekintzak gauzatzeko aurrekontu nahikorik ez duen balizko agertoki bat.

Ikuspegi orokorrako batetik, II. HANUP planaren garapenean inplikaturako udal-teknikarien ustez, **plan horren alderdi positiboan edo indargunean artean daude**, besteak beste, herritarren eta udal-zerbitzu eta -sailen artean izaniko parte-hartze eta inplikazio handia, planaren sendotasun tekniko, plana bultzatzeko arduraren duen talde teknikoaren kaudimena eta ekintzak koordinatzeko eta jarraitzeko baterako lana. Bestalde, alderdi negatiboan (eta, beraz, etorkizuneko plangintza bati begira hobetu daitezkeen) artean aipatu dituzte, besteak beste, sartutako **ekintzen kopurua handiegia dela, beste udal-plan batzuekiko artikulazio-mugak ageri direla, berariazko funtzionamendu-arazoak agertu direla Sailen arteko Koordinazio Organoaren esparruan** eta, oso bereziki, pandemiaren ondorioz sortutako egoeraren ondorioz ekintza batzuek **aurrekontu-arazoak** izan dituztela —eta gehiago izatea ere espero da—.

Bildutako informazioak, jakina, ez du ahalbidetzen pandemiari eta haren inpaktuei egozte planaren alderdi negatibo guztiak edo ekintza batzuk egin ez izana; hala ere, ezin da alde batera utzi krisi horren eragina indarraldiaren erdian baino gehiagoan (2018-2022) luzatuko dela, eta, beraz, haren ondorioak agerikoagoak izango direla II. HANUP planaren indarraldia amaitzean egitea aurreikusten den azken balorazio-txostena egindakoan. Horixe izango da, halaber, pandemiak haur-politiketarako ekarri duen erroka garrantzitsua (ez bakarria, baina bai kontuan hartzekoa) baloratzeko unea, eta orduan aztertuko da, orobat, zenbateraino aplikatu den haur eta nerabeak eraginkortasunez kontuan hartzen dituen ikuspegia udal-administrazioak hartutako neurrietan.

Hasieran aipatuenez, diagnostikoa egiteaz gainera, oinarrizko gomendio batzuk ere jasotzen ditu txosten honek, aurreko orrialdeetan egindako aurkikuntzetatik eta azterketatik abiatuta, hurrengo planaren edukia planifikatzeko. Hauek dira gomendioak:

- **Seme-alaben hazkuntzan eta hezkuntzan gurasoen inplikazioa sustatzen jarraitzea.** Gasteiz udalerrriak esperientzia zabala du familietan oinarritutako esku-hartzeen eremuan, eta, zehazki, 2019tik aurrera, [gurasotasun positiboko udal-programa](#) bat du, herritar guztiei zuzendua eta 2018-2022 aldian aplikatzekoa. Jakinaenez, programa horiek familia-portaeretan eragin nahi dute. Ildo horretan, gizarte-zaurgarritasuneko egoerak jasaten dituzten haurrentzat onuragarriak diren ekintzak erraztea eta sustatzea dute xede, eta, batez ere, bizitzako lehen urteetan gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan oinarritutako programetan lortutako emaitzak frogatzea. Azken urteetan ez da nabarmen aldatu desabantaila sozioekonomikoko egoeran dauden familien kopurua (gurasotasunean eragina izan dezaketen faktore estresagarriak eta tentsio-sortzaileak dituztenak, hala nola pilaketa eta beste etxebizitza-arazo batzuk, oinarrizko premiak betetzeko baliabide nahikorik ez izatea, laguntza-sare sozialik ez izatea...). Familia horiek, gainera, ziurgabetasun handiko egoeran egon dira, pandemiaren eraginez. Horrela, bada, inoiz baino premiazkoagoa da programa eta esku-hartze horiekin jarraitzea eta, kasuaren arabera, indartzea.

- **Ahaleginak egitea hurrek eta nerabeek hirian erabakiak hartzeko prozesuetan gehiago parte har dezaten.** Haur eta nerabeen partaidetzarako Lagunkide programa 2006an ipini zen abian, eta, harrezkero, Gasteizko Udalak konpromiso handia erakutsi du hurrek hiriko gaietan parte hartzearekin. Azken urteotan, eta haur eta nerabeek parte hartzeko [Aktiba\(tu\)](#) programaren barruan —askotariko jarduerak eta proiektuak biltzen ditu programa horrek—, Haur eta Nerabeen Elkargoaren sorrera izan da mugarri nagusia, eta parte-hartze iraunkorreko organo gisa eratu da 8 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeentzat. Hala eta guztiz ere, pentsa daiteke oraindik ere badirela hobekuntza-guneak prozesu horretan. Gune horietako bat ekimen horiei buruzko ezagutza eta dibulgazioa izan liteke, % 25ek baino gutxiagok ezagutzen baitituzte Aktiba(tu) edo Haur eta Nerabeentzako Elkargunea. Bestalde, hiriko haur eta nerabeen proportzio handi batek gai publikoetan parte hartzeko gaitasun eta ahalmen handia izanik ere, proportzio handi batek pentsatzen jarraitzen du, batez ere nerabeen artean, ez dituztela kontuan hartzen. Egokia dirudi nerabeek hirian duten parte-hartzeari buruzko hausnarketa-gune bat irekitzea, bai adin-tarte horretarako elkargune espezifiko bat sortuz (14 urtetik aurrera gazteen elkargunean sartuta daude), bai parte hartzeko beste formula batzuk artikulatuz.
- **Dibertsitate funtzionala duten haur eta nerabeen gizarteratzean aurrera egitea.** Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen 2020rako datuen arabera, Arabako lurralde historikoan 17 urte arteko haur eta nerabeen % 1,46k gutxienez % 33ko desgaitasun-maila aitortua du, eta, datuak hiriburura eramanda, 658 neska-mutil inguru lirateke Gasteizen. Dibertsitate funtzionala duten haurrak eta nerabeak, gainerako haurrak bezalaxe, ez dira talde homogeneousoa, ezta gizarte-bizitzako eremu guztietan gizarteratzeko dituzten oztipoen aniztasunari dagokionez ere. Beraz, horiei arreta emateak erantzun berezia eskatzen du. 2021ean, galdera oso soil bat txertatu da Gasteizko haur eta nerabeei zuzendutako galde-sortan, ohiko jarduera jakin batzuetan desgaitasunen bat edo mugaren bat izateari buruz. Galdera horri emaniko erantzunek aurkikuntza garrantzitsuak ekarri dituzte. Lortutako emaitzen artean, kezka ikus daitezke hainbat alderdi: proportzio handiagoa dago bizi-gogobetetasun txikiagoa eta osasun-egoera okerragoa duten haur eta nerabeen talde horretan; indarkeria-egoeren pertzepzio handiagoa da inguruan; aisia-denbora laburragoa ematen dute lagunekin eta denbora gehiago bakarrik, eta, oro har, asebetetze-maila txikiagoa dute gainerako haur eta nerabeekin alderatuta. Horregatik, beharrezkoa dirudi, kontsultatutako familiek eta erakundeek adierazi duten bezala, aniztasun funtzionala duten haur eta nerabeen gizarteratzea errazteko neurriak edo jarduerak garatzea, kulturean, aisialdian edo eskolan, besteak beste.
- **Haurren zaurgarritasun- eta babesgabetasun-egoeren detekzio eta arreta goiztiarra indartzea.** Azken urteotan, udaleko gizarte-zerbitzuek artatutako adingabeen kopurua egonkor samar mantendu den arren, ez da gauza bera gertatu babesgabetasun-arazoak dituzten haur eta nerabeekin; izan ere, haien kopuruak gora egin du etengabe 2013tik, eta 2020an ere ez du egin behera. Berez pentsatzekoa den arren kasuen detekzioa ona izaten ari dela —ikuspegi konparatutik erreparatuta, babesgabetasun-arrisku arina eta neurritsua duten adingabeen tasa oso antzekoa da Bilbon (% 1,42koa izan da Gasteizen 2020an, eta Bilbon⁹⁵, berriz, % 1,46koa izan zen 2019an) eta nabarmen handiagoa Donostian⁹⁶ (% 2,63koa)—, oraindik ere oso nabarmena da babesgabetasun neurritsua dutenen proportzioa, babesgabetasun arina dutenen aldean (% 70ekoa izan zen 2020an, eta 2013an eta 2017an % 83koa eta % 76koa, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, eta urtero babesgabetasun-mailarik gabeko ia 400 haur eta nerabe ere artatzen diren arren —horietan sartzen dira kasu susmagarriak, ikertzen ari direnak eta, zaurgarritasun-arazoak bai baina babesgabetasun-arazorik ez dutenak—, beharrezkoa da detekzioa indartzea, eta, horretarako, ezinbestekoa dirudi langileak zuzkitzea, udal-teknikariek adierazten duten bezala.

⁹⁵ Bilboko Udala (2019). Gizarte Ekintza Saila. [2019ko memoria](#). 101. or.

⁹⁶ Donostiako Udala (2020). [Gizarte Ongizateko memoria: 2020. urtea](#). 37. or.

- **Haurren eta nerabeen ezaugarri den aniztasuna ikusaraztea.** Gure gizarteek gero eta aniztasun sozial handiagoa dute, eta, horregatik, bizitza publikoko eremu guztietan txertatu behar da ezaugarri hori. Hainbat eratako aniztasunaz ari gara: funtzionala, familiakoa, jatorriari dagokiona eta/edo kulturala, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta abar. Eta, biztanleria osoari eragiten dion prozesua bada ere, oso garrantzitsua da haurtzaroan eta nerabezaroan aitortzea eta ikusaraztea, esperientzia balioesteko modu gisa. Beharrezkoa da balio horiek haurtzaroan finkatzea, gure hirietan gizarte-kohesioa indartzeko eta, hartara, azken urteotan aurreiritzietan eta gorrotoan oinarrituta hedatzen ari diren jarrera eta jokabide diskriminatzaileak indargabetzeko. Aniztasuna bistaratzeak berekin dakar, halaber, hainbat esparrutan (eskolan, gizarte-zerbitzuetan, aisialdian...) haurrei eta nerabeei eta haien familiei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza hobetzea.
- **Hiriko kultura- eta aisialdi-eskaintza inklusiboa ugartzea, koronabirusak sortutako egoera berrira egokituz.** Aisia izan da Gasteizko haur eta nerabeen bizitzan pandemiak eraginik handiena izan duen esparruetako bat. Hala adierazten dute azterlan honen emaitzetako batzuek; izan ere, 2017an egindakoarekin alderatuta, erakusten dute murriztu egin dela aisialdiarekiko gogobetetasuna; etxeak tokia hartu diola kaleari aisialdiaz gozatzeko espazioen artean, eta, pandemiaren ondorioz, haur eta nerabeen zati jakin batek denbora gehiago igarotzen duela etxe barruan eta pantailen aurrean, eta gutxiago kalean edo aire zabalean lagunekin kirola egiten. Kontsultatutako haur eta nerabeek aisialdia hobetzeko eta gozatzeko eginiko proposamen ugariak ikusirik, beharrezkoa da haiei entzutea; ezinbestekoa da haien iritziak kontuan hartzea eta, ahal bada, espazio publikoa eta kalekoa berreskuratzea ahalbidetuko duten proposamen irudimentsuak garatzea, adin batzuk eta besteak aintzakotzat hartuta eta unean-unean eskatzen diren segurtasun-baldintzak betez. Pandemiaren hilabeterik latzenen ondoren aisialdi komunitarioa berreskuratzeak berekin ekarri behar du, halaber, kultura- eta aisialdi-eskaintza inklusiboa indartzea, haur guztientzat aukerak sustatzeko, edozein izanik ere haien jatorri sozioekonomikoa. Alde horretatik, gero eta handiagoa da ebidentzia zientifikoa: eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdi hezigarrikoak eta entretenimendukoak sustatzeak ondorio positiboak ditu, eta talderik behartsuenek onura handia ateratzen diote, sarbidea errazten zaienean.
- **Hirian eskola-segregazioaren arazoari aurre egiten aurrera egitea, ekitatea bermatzeko.** Adostasun handia dago, oro har, teknikarien, erakundeen eta familien artean, gehienek baitiote Gasteizko eskola-segregazioa dela hezkuntzaren arloko arazo nagusietakoa. Egia esan, haur guztien aukera-berdintasuna ahalbidetzeko asmo jatorretik urrun, eskola-sistemak ez ditu ezabatzen jatorrizko desparekotasunak, eta batzuetan errepikatu edo larriagotu egiten ditu. Diagnostiko honetan eskaintzen diren emaitzen artean, aipatzekoak dira hauek: titulartasun publikoko ikastetxeetan atzerritar jatorriko ikasleen banaketa desberdina —eta EAEko beste hiriburuetakoa baino handiagoa—, Gasteizko sare publiko eta pribatuetakoa ikasleen artean dagoen gero eta arrakala sozioekonomiko handiagoa eta, egoera horrekin batera, sare bakoitzeko ikasleei egindako proba diagnostikoen emaitzetan ikusitako aldeak. Hala ere, hori ez da arazo berria, ezta identifikatu gabeko auzia ere; izan ere, Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak mozio bat onartu zuen 2016an, zeinaren bidez Udal Gobernuari eskatzen baitzitzaion jar zezala abian lan-prozesu bat, inplikaturako hezkuntza- eta gizarte-erakundeekin, hiriko eskola-bereizketaren arazoari aurre egiteko. Halaber, arazo hori berrikiago ere jorratu du Gasteizko Udalak Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarearen esparruan, 2018-2020 aldian, [Hiri Hezitzailea eta eskola-segregazioa](#) izeneko sare tematikoaren pean. Hain zuzen ere, dokumentu horrek zenbait orientabide ematen ditu, udalerriek eskola-segregazioa murrizteko duten zereginari buruz —kontuan harturik ez dutela hezkuntza-eskumenik—, eta, ezinbestean, autonomia-erkidegoko administrazioarekin koordinaturako esku-hartzea behar du.

- **Hautzaroaren eta nerabezaroaren ikuspegitik baloraziorik okerrena jaso duten hiri-inguruneko alderdiak aintzat hartzea.** Gasteizko hurrek eta nerabeek *hiri-erosotasun* handia dutela sumatzen dute, edo, bestela esanda, nahiko gogobetetasun eta ongizate handia dute hiria osatzen duten elementu eta ekipamenduekin. Baloraziorik onena jasotzen duten alderdien artean, berdeguneak eta lorategiak, osasun-zentroak eta garraio publikoa nabarmentzen dira; balorazio txarrena jaso dutenen artean, berriz, bidegorriak eta kirol-instalazioak. Oro har, desparekotasun soziodemografiko gutxi dago hiri-ingurunearen pertzepzioan, baina nabarmentzekoa da nerabeek balorazio kaskarragoa egin dutela bidegorriei eta jolasteko eta denbora pasatzeko espazioei buruz. Oro har, hiriaren iparraldean eta mendebaldean daude bizilagunen baloraziorik onenak jaso dituzten elementuak, eta, aldiz, ekialdeko eta erdialdeko auzoetan daude puntu gutxien lortu duten zerbitzuak eta instalazioak. Haur eta nerabe gehienek uste dute, orobat, Gasteizen badela hobetzeko aukerarik ingurumen-arazoei eta irisgarritasun unibertsalari dagokienez. Adin guztietarako hiri irisgarria erakitzeak izan behar du hautzaroaren adiskide den hiri baten helburu garbia, eta, beraz, arrazoizkoa dirudi haur eta nerabeen ikuspegia txertatzea hirigintza-plangintzan eta mugikortasunaren antolamenduan.
- **Hautzaroan eta nerabezaroan osasun fisikoa eta mentala sustatzea eta ohitura osasungarriak hartzea.** Ikerketa honen emaitzek erakusten dute hiriko haur eta nerabeek pertzepzio positiboa dutela beren osasun-egoerari eta bizitzarekiko gogobetetasunari buruz, baina ez 2017an egindako diagnostikoan jasotakoa bezain ona. Hurbilketa oso probakoa izanik ere, zantzu batzuen arabera, arreta berezia jarri beharko litzaioke haurren eta nerabeen osasun mentalari. Haurren eta nerabeen % 25 eta % 30 inguruk dio gogo-aldarte baxua, suminkortasuna edo urduritasuna izan dituztela gutxienez astean behin azken 6 hilabeteetan; 10etik 2k uste dute osasun fisikoak okerrera egin duela eta % 35,2k uste dute beren aldartea pandemiaren aurretik baino okerragoa dela. Hautzaroan, osasunerako eskubideaz gozatzea estu-estu lotuta dago ohitura osasungarriak sustatzearekin. Ohitura horiek eragina izan beharko lukete zenbait alderditan, betiere desparekotasun sozial eta ekonomikoetan oinarritutako ikuspegia aintzakotzat harturik; esate baterako, arrisku nagusiak prebenitzean, elikadurari, ariketa fisikoari, drogen kontsumoari eta mendekotasuna eragin dezaketen beste jokabide batzuei dagokienez, eta komunikazioaren teknologia berrien erabileran eta entretenimenduan.

13. kapitulua.

Erreferentzia bibliografikoak

- ABELLÁN, A.; ACEITUNO, P.; ALLENDE, A.; DE ANDRÉS, A.; y BARTUMEUS, F. (2020): [Una visión global de la pandemia COVID-19: Qué sabemos y qué estamos investigando desde el CSIC. Informe elaborado desde la Plataforma Temática Interdisciplinar Salud Global/Global Health de CSIC](#), Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC).
- AGENCIA ESPAÑOLA DE SEGURIDAD ALIMENTARIA Y NUTRICIÓN (2019) [ALADINO 2019. Estudio de Vigilancia del Crecimiento, Alimentación, Actividad Física, Desarrollo Infantil y Obesidad en España](#), Ministerio de Consumo.
- ALTO COMISIONADO CONTRA LA POBREZA INFANTIL (2020): [Pobreza infantil y desigualdad educativa en España. Informe Diciembre 2020](#), Gobierno de España.
- ALTO COMISIONADO CONTRA LA POBREZA INFANTIL. (2020): [La transmisión intergeneracional de la desigualdad en España](#), Gobierno de España.
- ASAMBLEA GENERAL DE LAS NACIONES UNIDAS (1959): [Declaración de los Derechos del Niño](#)
- ASOCIACIÓN DE ENSEÑANTES CON GITANOS (2021): [Impacto del COVID-19 en los Centros Educativos con alumnado gitano](#).
- BAINES, S.; CSOBA, J.; SIPOS, F.; y BASSI, A. (2020): «Social investment in welfare: A sub-national perspective» in BAINES, S.; BASSI, A.; CSOBA, J.; y SIPOS, F. (eds.) *Implementing innovative social investment. Strategic lessons from Europe*, Policy Press, University of Bristol.
- BALLUERKA, N.; GÓMEZ, J.; HIDALGO, M.D.; GOROSTIAGA, A.; ESPADA, J.P.; PADILLA, J.L.; y SANTED, M.A. (2020): [Las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y el confinamiento. Informe de investigación](#), Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco.
- BALSELLS BAION, M.A.; CORTADA CORTIJO, N.; y FERNÁNDEZ RODRÍGO, L. (2021): «Els drets dels infants i adolescents sota l'estat d'alarma derivat del COVID-19» en [La COVID-19 i les desigualtats socials. Reflexions interdisciplinàries](#), Universitat de Lleida, Càtedra Obra Social «La Caixa» d'Estudis sobre Desigualtats Socials.
- BORKOWSKI, A.; SANTIAGO ORTIZ CORREA, J.; BUNDY, D.A.P.; BURBANO, C.; HAYASHI, C.; LLOYD-EVANS, E.; NEITZEL, J.; y REUGE, N. (2021): [COVID-19: Missing more than a classroom](#), UNICEF
- BRAZENDALE, K.; BEETS, M.W.; y WEAVER, R.G. (2017): «Understanding differences between summer vs. School obesogenic behaviours of children: The structured days hypothesis», *The International Journal of Behavioral Nutrition and Physical Activity*, 14(100).
- BRENNAN, C.S. (2020): [Disability rights during the pandemic. A global report on findings of the COVID-19 Disability Rights Monitor](#), COVID-19 Disability Rights Monitor.

- CANTÓ, O.; y AYALA, L. (2021): «Pobreza infantil y prestaciones monetarias» en ESPINOSA, M.A.; y PÉREZ, S. (coords.) [La infancia vulnerable en España: Riesgos y respuestas políticas ante la crisis de la Covid-19](#), UNICEF Comité Español, Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia.
- CARDONA LLORENS, J. (2021): «Lo que debemos proteger no son los niños, sino sus derechos» en ESPINOSA, M.A.; y PÉREZ, S. (coords.) [La infancia vulnerable en España: Riesgos y respuestas políticas ante la crisis de la Covid-19](#), UNICEF Comité Español, Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia.
- CEAR EUSKADI (2020): *Diagnóstico cualitativo del impacto del confinamiento por COVID-19 en menores solicitantes de asilo en el Programa de CEA[R] en Vitoria-Gasteiz y propuestas*, Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi.
- COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (2005): [Objetivos Estratégicos 2005-2009. Europa 2010: Una Asociación para la Renovación, Prosperidad, Solidaridad y Seguridad](#), Comunicación del Presidente de común acuerdo con la Vicepresidenta Sra. Wallström.
- COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS CCE (2006): [Comunicación de la Comisión. Hacia una Estrategia Europea de la Unión Europea sobre los Derechos de la Infancia](#).
- COMISIÓN EUROPEA (2013): [Invertir en la infancia: Romper el ciclo de las desventajas](#).
- CONGRESO DE LOS DIPUTADOS (2020): [Dictamen Comisión para la reconstrucción social y económica](#).
- CONSEJO DE EUROPA (2021): [Estrategia del Consejo de Europa para los derechos de los niños y las niñas \(2016-2021\). Derechos humanos de los niños](#).
- CONSEJO DE GOBIERNO (2020): [Proyecto de Ley Vasca de Juventud](#).
- DEEMING, C.; y SMYTH, P. (eds.) (2017): *Reframing global social policy: Social investment for sustainable and inclusive growth*, The Policy Press.
- DEPARTAMENTO DE SALUD DEL GOBIERNO VASCO; y SIIS SERVICIO DE INVESTIGACIÓN E INFORMACIÓN SOCIAL (2020): [El impacto de la COVID-19 y sus consecuencias en el ámbito de las adicciones en Euskadi](#), Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco.
- DÍAZ RODRÍGUEZ, M. (2021): «Situación de la infancia y el reto de la Covid-19» en ESPINOSA, M.A.; y PÉREZ, S. (coords.) [La infancia vulnerable en España: Riesgos y respuestas políticas ante la crisis de la Covid-19](#), UNICEF Comité Español ; Huygens Editorial.
- DOMINGO I COLL, J.; y LAPRESTA REY, C. (2021): «Immigració i COVID-19» en [La COVID-19 i les desigualtats socials. Reflexions interdisciplinàries](#), Universitat de Lleida, Càtedra Obra Social «La Caixa» d'Estudis sobre Desigualtats Socials.
- DOMÍNGUEZ ÁLVAREZ, B.; LÓPEZ-ROMERO, L.; GÓMEZ-FRAGUELA, J.A.; y ROMERO, E. (2020): «[Emotion regulation skills in children during the COVID-19 pandemic: Influences on specific parenting and child adjustment](#)». *Revista de Psicología Clínica con Niños y Adolescentes*, 7(3), 81-87.
- EDE FUNDAZIOA (2020) [Violencia hacia niñas, niños y adolescentes en la CAPV. Diagnóstico, retos y orientaciones](#), Eusko Jaurlaritzza-Gobierno Vasco.
- EQUIPO DE ESTUDIOS DE CÁRITAS ESPAÑOLA (2020): [Un impacto sostenido tras el confinamiento. La realidad de las familias acompañadas por Cáritas en septiembre de 2020](#), Cáritas Española.
- EQUIPO DE ESTUDIOS DE CÁRITAS ESPAÑOLA (2021a): [El primer impacto en las familias acompañadas por Cáritas](#), Observatorio de la Realidad Social de Cáritas Española.
- EQUIPO DE ESTUDIOS DE CÁRITAS ESPAÑOLA (2021b): [Un año acumulando crisis. La realidad de las familias acompañadas por Cáritas en enero de 2021](#), Observatorio de la Realidad Social de Cáritas Española.
- ERADES, N.; y MORALES, A. (2020): «[Impacto psicológico del confinamiento por la COVID-19 en niños españoles: Un estudio transversal](#)». *Revista de Psicología Clínica con Niños y Adolescentes*, 7(3), 27-34.
- ESPADA, J.P.; ORGILÉS, M.; PIQUERAS, J.A.; y MORALES, A. (2020): «[Las buenas prácticas en la atención psicológica infanto-juvenil ante el COVID-19](#)», *Clínica y Salud. Investigación empírica en psicología*, 31(2), 109-113.

- ESPINOSA BAYAL, M.A.; y PÉREZ MORENO, S. (2021): [La infancia vulnerable en España: Riesgos y respuestas políticas ante la crisis de la Covid-19](#), Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia (IUNDIA), Huygens Editorial.
- ESPINOSA, M.A. (2020): [«Covid-19, educación y derechos de la infancia en España»](#), *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social*, 9(3e), 245-258.
- EUROPEAN COMMISSION (2013): [Towards social investment for growth and cohesion—Including implementing the European Social Fund 2014-2020](#).
- FUENTES LARA, C. (2021): «Infancia, vulnerabilidad extrema y COVID-19. El caso de la infancia migrante» en ESPINOSA, M.A.; y PÉREZ, S. (coords.) [La infancia vulnerable en España: Riesgos y respuestas políticas ante la crisis de la Covid-19](#), Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia (IUNDIA) Huygens Editorial.
- MINISTERIO DE GRACIA Y JUSTICIA (1889): [«Real Decreto, de 24 de julio de 1889 por el que se publica el Código Civil»](#), *Gaceta de Madrid*, núm. 206, de 25 de julio.
- GAITÁN, L.; PECHTELIDIS, Y.; TOMÁS, C.; y FERNANDES, N. (eds.) (2020): *Children's lives in Southern Europe. Contemporary Challenges and risks*. Southern European Societies series, Edward Elgar Publishing.
- GÓMEZ-BECERRA, I.; FLUJAS, J.M.; ANDRÉS, M.; SÁNCHEZ-LÓPEZ, P.; y FERNÁNDEZ-TORRES, M. (2020): [«Evolución del estado psicológico y el miedo en la infancia y adolescencia durante el confinamiento por la COVID-19»](#), *Revista de Psicología Clínica con Niños y Adolescentes*, 7(3), 11-18.
- GONZÁLEZ-RÁBAGO, Y.; y CABEZAS-RODRÍGUEZ, A. (2021): [«Social inequalities in health determinants in spanish children during the COVID-19 lockdown»](#), *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18(8), 577-589.
- HEMERIJCK, A. (2017): «Social investment and its critics» in HEMERIJCK, A. (ed.), [The uses of social investment](#), Oxford University Press.
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA (2019): *Encuesta de Condiciones de Vida*.
- INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA (ISEI-IVEI) (2019): [Maltrato entre iguales. Bullying 2018. Informe ejecutivo 2019](#).
- INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA (ISEI-IVEI) (2021): *Diagnóstico del Sistema Educativo Vasco*, Departamento de Educación del Gobierno Vasco.
- INZA, A. (2012): [«La estrategia de la inversión social como nuevo paradigma»](#) en MADRIGAL BARRÓN, P.; y CARRILLO PASCUAL, E. (coords.), *Nuevos tiempos, nuevos retos, nuevas sociologías*, ACMS.
- KVIST, J. (2013): «The post-crisis European social model: Developing or dismantling social investments?», *Journal of International and Comparative Social Policy*, 29(1), 91-107.
- LACOMBA-TREJO, L.; VALERO-MORENO, S.; POSTIGO-ZEGARRA, S.; PÉREZ-MARÍN, M.; y MONTOYA-CASTILLA, I. (2020): [«Ajuste familiar durante la pandemia de la COVID-19: Un estudio de diadas»](#), *Revista de Psicología Clínica con Niños y Adolescentes*, 7(3), 66-72.
- MARÍ-KLOSE, P. (2019): *La infancia que queremos. Una agenda para erradicar la pobreza infantil*, Los Libros de la Catarata.
- MINISTERIO DE LA PRESIDENCIA, RELACIONES CON LAS CORTES Y MEMORIA DEMOCRÁTICA (2020): [Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19](#), *Boletín Oficial del Estado*, 67.
- MINISTERIO DE SANIDAD, CONSUMO Y BIENESTAR SOCIAL (2019): [Estudio cualitativo sobre salud sexual en jóvenes 2019](#).
- MORAN, T.; TAKOW, C.; CANIL, C.; y BARANGER, A. (2020): [Impact of COVID-19 on autistic people and their families across Europe](#), Autism Europe.
- MORENO, C. (2020): [Estudio Health Behaviour in School-aged Children \(HBSC-2018\): informe técnico de los resultados obtenidos por el Estudio Health Behaviour in School-aged Children \(HBSC\) 2018 en País Vasco](#), Ministerio de Sanidad.
- MORENO, D. (2020): [El rol de los gobiernos locales en la lucha contra la pobreza infantil en el contexto de la emergencia de la COVID-19](#), UNICEF España, Alto Comisionado para la Lucha contra la Pobreza Infantil, Federación Española de Municipios y Provincias.

- MORGÜL, E.; KALLITSOGLU, A.; y ESSAU, C.A. (2020): [«Psychological effects of the COVID-19 lockdown on children and families in the UK»](#), *Revista de Psicología Clínica con Niños y Adolescentes*, 7(3), 42-48.
- NACIONES UNIDAS (1989): *Convención sobre los Derechos del Niño*. Asamblea General de las Naciones Unidas.
- OECD (2021): [Supporting young people's mental health through the COVID-19 crisis](#). Tackling coronavirus (COVID-19).
- ONU MUJERES (2020): [COVID-19 y la economía de los cuidados: Acciones inmediatas y transformación estructural para una recuperación con perspectiva de género](#).
- ÓRGANO ESTADÍSTICO ESPECÍFICO DEL DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES (2021): [Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales 2020](#). Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco.
- ORGILÉS, M.; MORALES, A.; DELVECCIO, E.; MAZZESCI, M.; y ESPADA, J.P. (2020): [«Immediate psychological effects of the COVID-19 quarantine in youth from Italy and Spain»](#), *Frontiers in Psychology*, vol. 11, art. 579038.
- PALOMINO, J.C.; RODRÍGUEZ, J.G.; y SEBASTIAN, R. (2020): «Wage inequality and poverty effects of lockdown and social distancing in Europe», *European Economic Review*, 129.
- PÉREZ MORENO, S.; y BÁRCENA MARTÍN, E. (2021): «El rostro infantil de la pobreza en España: Un problema estructural que se recrudece» en ESPINOSA, M.A. y PÉREZ, S. (coords.) [La infancia vulnerable en España: Riesgos y respuestas políticas ante la crisis de la Covid-19](#), UNICEF Comité Español, Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia.
- PETERMAN, A. et al. (2020): [Pandemics and violence against women and children, Working Paper 528](#), Centre for Global Development.
- PICORNELL-LUCAS, A. (2016): «El enfoque de derechos de la infancia como paradigma comunitario: Especial atención a la participación infanto-juvenil» en PICORNELL-LUCAS ET PASTOR SELLER (coords.) *Políticas de inclusión social de la infancia y la adolescencia. Una perspectiva internacional*, Editorial Grupo 5.
- PICORNELL-LUCAS, A. (2020): «ODS, COVID-19 y la protección social de niños y adolescentes: La experiencia europea» en DE SOUSA CONSERVA, M.; LUIZ PEREIRA DA SILVA, E.; y MENEZES, H. (orgs.) [Desarrollo sustentable, territorios e políticas públicas](#), Universidade Federal da Paraíba.
- REY MARTÍNEZ, F. (2021): «Desigualdades en el sistema educativo» en ESPINOSA, M.A.; y PÉREZ, S. (coords.) [La infancia vulnerable en España: Riesgos y respuestas políticas ante la crisis de la Covid-19](#), UNICEF Comité Español, Instituto Universitario UAM-UNICEF de Necesidades y Derechos de la Infancia y la Adolescencia.
- RUJAS, J.; y FEITO, R. (2021): [«La educación en tiempos de pandemia: Una situación excepcional y cambiante»](#), *Revista de Sociología de la Educación*, 14(1), 4-13.
- SAVE THE CHILDREN (2020): [Infancia en reconstrucción. Medidas para luchar contra la desigualdad en la nueva normalidad](#).
- SAVE THE CHILDREN. (2021a): [Aniversario COVID-19: ¿qué nos cuentan las familias? Análisis de la situación de los hogares vulnerables afectados por la crisis económica y social de la pandemia](#).
- SAVE THE CHILDREN (2021b): [Aniversario COVID-19: ¿Qué nos cuentan las familias? Análisis de la situación de los hogares vulnerables afectados por la crisis económica y social de la pandemia, las medidas adoptadas y las propuestas de Save the Children en Euskadi](#).
- SIIS SERVICIO DE INVESTIGACIÓN E INFORMACIÓN SOCIAL (2017): [Estudio diagnóstico de la situación de la infancia y la adolescencia en Vitoria-Gasteiz](#), Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
- SIIS SERVICIO DE INVESTIGACIÓN E INFORMACIÓN SOCIAL (2020): [El impacto de la pandemia COVID-19 en las personas con discapacidad](#), Real Patronato sobre Discapacidad.
- SOCIEDAD DE NACIONES (1924): *Declaración de Ginebra*.
- TAMARIT, A.; DE LA BARRERA, U.; MÓNACO, E.; SCHOEPS, K.; y MONTOYA-CASTILLA, I. (2020): [«Psychological impact of COVID-19 pandemic in Spanish adolescents: Risk and protective factors of emotional symptoms»](#), *Revista de Psicología Clínica con Niños y Adolescentes*, 7(3), 73-80.
- THIN, D. (2020): «La scolarisation de l'espace familial au quotidien» en BONNÉRY, S.; y DOUAT, E. (dirs.) *L'éducation aux temps du coronavirus*, La Dispute.

- ULDRY, M.; y LEENKNECHT, A.S. (2021): [European Human Rights Report issue 5—2021. Impact of COVID-19 on persons with disabilities](#), European Disability Forum. European Union's Rights, Equality and Citizenship Programme.
- UNICEF (2012): [Ocultos a plena luz. Un análisis estadístico de la violencia contra los niños](#).
- UNICEF (2019): [Seis acciones para que los gobiernos locales garanticen los derechos de la infancia migrante y refugiada](#).
- UNICEF (2020a): [Beyond masks. Societal impacts of COVID-19 and accelerated solutions for children and adolescents](#).
- UNICEF (2020b): [Impacto de la crisis por COVID-19 sobre los niños y niñas más vulnerables. Reimaginar la reconstrucción en clave de derechos de infancia](#), UNICEF Comité español.
- UNICEF ESPAÑA (2020): [Salud mental e infancia en el escenario de la COVID-19: Propuestas de UNICEF España](#).
- UNITED NATIONS (2020): [Policy Brief: The Impact of COVID-19 on children](#).
- VALERO ALZAGA, E.; MARTÍN, U.; DOMÍNGUEZ-RODRÍGUEZ, A.; y GRUPO CONFISALUD (2020): [«COVID-19 y salud infantil: El confinamiento y su impacto según profesionales de la infancia»](#), *Revista Española de Salud Pública*, 94, 7.
- WANG, G.; ZHANG, Y.; ZHAO, J.; y JIANG, F. (2020): [«Mitigate the effects of home confinement on children during the COVID-19 outbreak»](#), *The Lancet*, 395(10228), 945-947.
- ZALAKAIN, J. (2014): [«Políticas de apoyo a las familias en Europa: nuevos contextos y nuevas orientaciones»](#), *Zerbitzuan*, n. 56.
- ZALAKAIN, J.; y BARRAGUÉ, B. (2017): *Repensar las políticas sociales: Predistribución e inversión social*, Editorial Grupo 5.

I. ERANSKINA

Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haurrei eta nerabeei zuzendutako inkestaren laginaren ezaugarri nagusiak

LAGINAREN EZAUGARRI NAGUSIAK**78. taula. Ikasle-taldeen banaketa, ikasturtearen, hizkuntza-ereduaren eta sarearen arabera. 2020-2021 ikasturtea**

	Eredua	Lehen Hezkuntza (5. eta 6. mailak)	DBH (1. eta 2. mailak)	DBH (3. eta 4. mailak)	Batxilergoa (1. eta 2. mailak)	Irakaskuntza profesionalak*	Guztira
Publikoa	A/B	72	83	91	47	32	325
	D	15	23	22	26	1	87
Itundua	A/B	32	25	31	8	35	131
	D	104	91	90	48	3	336
Guztira		223	222	234	129	71	879

*Erdi-mailako Lanbide Heziketako lehen maila eta Oinarrizko Lanbide Heziketako 1. maila biltzen ditu.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila. Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemaren estatistikak. 2010-2021 ikasturterako matrikula-datuak.

79. taula. Lagin teorikoa. Ikasle-taldeen banaketa, ikasturtearen, hizkuntza-ereduaren eta sarearen arabera. 2020-2021 ikasturtea

	Eredua	Lehen Hezkuntza (5. eta 6. mailak)	DBH (1. eta 2. mailak)	DBH (3. eta 4. mailak)	Batxilergoa (1. eta 2. mailak)	Irakaskuntza profesionalak*	Guztira
Publikoa	A/B	2	0	2	2	2	8
	D	6	4	4	2	0	16
Itundua	A/B	4	4	4	2	4	18
	D	2	2	0	2	0	6
Guztira		14	10	10	8	6	48

80. taula. Benetako lagina. Onlineko galde-sortari erantzun zioten ikasle-taldeen eta ikasle-kopuruaren banaketa, ikasturtearen, hizkuntza-ereduaren eta sarearen arabera. 2020-2021 ikasturtea

	Eredua	Lehen Hezkuntza (5. eta 6. mailak)	DBH (1. eta 2. mailak)	DBH (3. eta 4. mailak)	Batxilergoa (1. eta 2. mailak)	Irakaskuntza profesionalak*	Guztira
Taldeak							
Publikoa	A/B	5	0	2	2	3	12
	D	6	4	4	2		16
Itundua	A/B	4	10	4	2	2	22
	D	2	0	0	0	0	2
Guztira		17	14	10	6	5	52
Ikasleak							
Publikoa	A/B	61	0	38	31	41	171
	D	161	79	77	42	0	359
Itundua	A/B	97	242	73	57	36	505
	D	54	0	0	0	5	59
Guztira		373	321	188	130	82	1.094

81. taula. Ikasleen benetako banaketaren eta lagin-banaketa aldakuntza, hizkuntza-ereduaren eta sarearen arabera. 2020-2021 ikasturtea

Sarea	Eredua	Benetako banaketa		Laginaren banaketa haztatu gabea		Laginaren banaketa haztatua	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Publikoa	A/B	2.601	% 12,6	171	% 15,6	142	% 13,0
	D	7.134	% 34,7	359	% 32,8	376	% 34,4
	Guztira	9.735	% 47,3	530	% 48,4	518	% 47,3
Pribatua	A/B	8.553	% 41,6	505	% 46,2	556	% 50,8
	D	2.288	% 11,1	59	% 5,4	21	% 1,9
	Guztira	10.841	% 52,7	564	% 51,6	576	% 52,7
Guztira	A/B	11.154	% 54,2	676	% 61,8	698	% 63,8
	D	9.422	% 45,8	418	% 38,2	396	% 36,2
	Guztira	20.576	% 100,0	1.094	% 100,0	1.094	% 100,0

82. taula. Ikasleen banaketa errealairen eta laginaren aldakuntza, ikasturtearen arabera. 2020-2021 ikasturtea

Ikasturtea	Benetako banaketa		Laginaren banaketa haztatu gabea		Laginaren banaketa haztatua	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Lehen Hezkuntza (5. eta 6. mailak)	5.263	% 25,6	373	% 34,1	280	% 25,6
DBH (1. eta 2. mailak)	5.451	% 26,5	321	% 29,3	328	+% 30,0
DBH (3. eta 4. mailak)	4.733	% 23,0	188	% 17,2	214	% 19,5
Batxilergoa (1. eta 2. mailak)	3.636	% 17,7	130	% 11,9	193	% 17,7
Irakaskuntza profesionalak*	1.493	% 7,3	82	% 7,5	79	% 7,3
Guztira	20.576	% 100,0	1.094	% 100,0	1.094	% 100,0

II. ERANSKINA

Gasteizko Lehen Hezkuntzako (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeei zuzendutako inkestaren galde-sorta

Vitoria-Gasteizko Haur eta Nerabeen egoera 2021

Zergatik galdetzen dugu?

Vitoria-Gasteizko udaletxeak lanean dihardu hiriko haur eta nerabeen egoera zertan den ezagutzeko, hau da, zein diren dituzten arazoak, nola sentitzen diren, zein iritzi duten interesgarriztat hartzen dituzten gaien inguruan, etab. Informazio hori aintzat hartuta, udaletxeak III. Haur eta Nerabeen Udal Plana jarri nahi du abian, adingabeko biztanleen eta euren familien ongizate eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Galdetegi hau anonimoa da, eta ikastetxeko inork ez ditu zure erantzunak irakurriko.

Zure ikuspuntua oso garrantzitsua da udalaren jarduna hobetzeko. Mesedez, lagundu iezaguzu ondorengo galdera hauei erantzunez.

Mila esker parte hartzeagatik.



1. Vitoria-Gasteizko zein auzoan bizi zara?			
1	Abetxuko	17	Judimendi
2	Adurtza	18	Lovaina
3	Ali	19	Mendizorrotza
4	Anglo-Vasco	20	Salburua
5	Arana	21	San Cristóbal
6	Aranbizkarra	22	San Martin
7	Arantzabela	23	Sansomendi
8	Aretxabaleta-Gardelegi	24	Santa Lucia
9	Ariznabarra	25	Santiago
10	Arriaga-Lakua	26	Txagorritxu
11	Casco Viejo	27	Zabalgana
12	Coronación	28	Zaramaga
13	Desamparados	29	Zona Rural Este
14	El Pilar	30	Zona Rural Noroeste
15	Ensanche	31	Zona Rural Suroeste
16	Gazalbide	32	Vivo fuera de Vitoria-Gasteiz

2. Zein da zure ikastetxearen izena?	
<input style="width: 100%; height: 20px;" type="text"/>	

3. Zein mailatan zaude?			
1	Lehen Hezkuntzako 5. Maila	7	Batxillergoko 1. maila
2	Lehen Hezkuntzako 6. Maila	8	Batxillergoko 2. maila
3	DBHko 1. Maila	9	Erdi mailako Heziketa Zikloa 1. maila
4	DBHko 2. Maila	10	Erdi mailako Heziketa Zikloa 2. maila
5	DBHko 3. Maila	11	Oinarrizko Lanbide Heziketa 1. maila
6	DBHko 4. Maila	12	Oinarrizko Lanbide Heziketa 2. maila

4. Generoari dagokionean, hauetatik zeinek deskribatzen zaitu hobekien?	
1	Neska
2	Mutila
3	Aurreko bi aukeretako batek ere ez nau ordezkaten

5. Zenbat urte dituzu?	
<input style="width: 100%; height: 20px;" type="text"/>	

6. Non jaio zinen?	
1	Euskadin
2	Beste autonomia erkidego batean
3	Beste herrialde batean, zeinetan? → <input style="width: 80%; height: 20px;" type="text"/>

7. Zein hizkuntza erabiltzen duzue etxean? Hizkuntza bat baino gehiago hitz eginez gero, aukera bat baino gehiago adierazi dezakezu.	
1	Euskera
2	Gaztelania
3	Ingelesa
4	Arabiera
5	Beste hizkuntza bat/batzuk, zein/zeintzuk? → <input style="width: 80%; height: 20px;" type="text"/>

8. Familia guztiak ezberdinak dira (adibidez, denak ez dira bizi euren aita eta amarekin, batzuetan, guraso bakarrekin edota bi familitan bizi dira). Anai-arrebak dituzun ala ez alde batera utzita, nolakoa da zure familia?	
1	Nire aita eta amarekin bizi naiz
2	Amarekin bizi naiz denboraren zati batean, eta aitarekin bestean (zaintza partekatua)
3	Nire ama eta bere bikotekidearekin bizi naiz
4	Nire aita eta bere bikotekidearekin bizi naiz
5	Nire bi amekin bizi naiz
6	Nire bi aitekin bizi naiz
7	Nire amarekin bizi naiz
8	Nire aitarekin bizi naiz
9	Nire aiton-amonekin bizi naiz
10	Nire harrera-familiarekin bizi naiz
11	Adingabekoentzako zentro batean bizi naiz
12	Beste egoera bat, zein? <div style="border: 1px solid black; height: 100px; width: 100%; margin-top: 5px;"></div>

9. Non jaio zen zure ama? Bi ama edo bi aita izanez gero, erantzun galdera honi eta hurrengoari bietako edozeini erreferentzia eginez.	
1	Euskadin
2	Beste autonomia erkidego batean
3	Beste herrialde batean, zeinetan? → <input style="width: 200px;" type="text"/>
9	Ez dakit

10. Non jaio zen zure aita?	
1	Euskadin
2	Beste autonomia erkidego batean
3	Beste herrialde batean, zeinetan? → <input style="width: 200px;" type="text"/>
9	Ez dakit

11. Zurekin bizi diren pertsonetatik zenbatek daukate ordaindutako lan bat?	
0	Ezta batek
1	Batek
2	Bik
3	Bik baino gehiagok
9	Ez dakit

12. Zein maiztasunarekin kezkatzen zara zure familiak duen diruagatik?	
1	Inoiz
2	Batzuetan
3	Askotan
4	Beti

13. Zenbateraino zaude ados honako baieztapen hauekin

	Gutziz ados	Gehienbat ados	Gehienbat desados	Gutziz desados
1.Nire familiaren partetik maitasuna jasotzen dut: maitatua sentitzen naiz	1	2	3	4
2.Nire familian, eguneroko jarduerak (adibidez, otorduak, garbitasuna, lotara joateko ordua) ondo antolatuta daude	1	2	3	4
3.Nire familiak ikasketetan eta gauza berriak ikasterako orduan laguntzen dit	1	2	3	4
4.Nire familiak entzuten dit	1	2	3	4
5.Nire familiaren erabakietan nire iritzia kontuan hartzen direla sentitzen dut	1	2	3	4
6.Nire familiak ondo tratatzen nauela sentitzen dut	1	2	3	4
7.Nire familiarekiko harremanak hobera egin du covid-19ren pandemian zehar	1	2	3	4

Hurrengo galderak aisialdiaren ingurukoak dira, hau da, ikasketa eta betebeharretatik haratago, denbora librean egitea gustatzen zaizkizun gauzen inguruan.

Covid-19ren pandemiak eta ondorioz ezarritako neurri murriztaileek, oro har, gure ohitura eta bizitzak aldatu dituzte, eta horregatik, beharrezkoa da horiek kontuan izatea erantzuterako orduan.

14. Une honetan, non pasatzen duzu hoberen zure aisialdi denboran? Gehienez, 3 aukera adierazi

1	Kalean (parkeak, plazak, aire zabaleko kirol-kantxak, etab.)
2	Nire etxean
3	Nire lagunen etxean
4	Nire ikastetxean, ikaskideekin eta jolasaldietan
5	Kirol-instalazioetan (kiroldegian, igerilekuan, kantxetan, etab.)
6	Lagunekin gazte-lokal batean
7	Kultur etxeetan (liburutegietan, antzokian, museoetan, etab.)
8	Zinema
9	Merkataritza-guneetan
10	Gizarte-etxeetan
11	Beste leku batzuetan, zeinetan? →

15. Norekin pasatzen duzu denbora librearen parte handiena? Gehienez, bi erantzun adierazi.

1	Lagunekin, aurrez aurre
2	Lagunekin, baina ez aurrez aurre (Internet bidez)
3	Familiarekin
4	Bakarrik

16. Zenbat disfrutatzen duzu aisialdian...?				
	Asko	Nahikoa	Gutxi	Ezer ez
1.... zure familiarekin	1	2	3	4
2.... zure lagunekin, aurrez aurre	1	2	3	4
3.... zure lagunekin, internet bidez	1	2	3	4
4.... bakarrik	1	2	3	4

17. Une honetan, zer jarduera mota egitea gustatzen zaizu gehien aisialdian? <u>Bost aukera adierazi, gehienez</u>	
1	Komikiak, eleberriak, poesia eta abar irakurtzea
2	Ariketa edo kirola bakarrik egitea
3	Ariketa edo kirola taldean egitea
4	Eskulanak edo arte-jarduerak egitea (pintura, musika, dantza, antzerkia, etab.)
5	Nire lagunekin denbora pasa jarduerak egiten edo, besterik gabe, elkarrekin egoten
6	Mendira joan, paseatu
7	Musika entzutea
8	Telesailak, pelikulak edo telebista-programak ikustea
9	Sare sozialak erabiltzea (Facebook, Twitter, Instagram, etab.)
10	Lagunekin txateatzea (Whatsapp, Telegram, Hangouts, etab.)
11	Youtuber, instagramer, streamer eta antzerakoak jarraitu
12	Bideoak sortzea eta sare sozialetara igotzea, beste pertsona batzuekin partekatzeko (YouTube, TikTok, etab.)
13	Banakako bideojokoetan jolastea, nik bakarrik
14	Sareko bideo-jokoetan jolastea, lagunekin edo beste pertsona ezezagun batzuekin jolasteko aukera ematen didatenak
15	Prentsako albisteak irakurtzea, irratia entzutea, albistegiak ikustea
16	Hizkuntzak ikasi
17	Ezer ez egitea edo atsedean hartzea (gauetan lo egiteaz gain)
18	Beste ekintza batzuk, zeintzuk?

18. Pandemia aurreko egoerarekin alderatuta, zein maiztasunarekin egiten dituzu jarduera hauek une honetan?			
	Lehen baino gutxiago	Lehen bezala	Lehen baino gehiago
1. Nire lagunekin geratu kalera ateratzeko	1	2	3
2. Kirola edo ariketa fisikoa egin aire librean	1	2	3
3. Edozein pantailaren aurrean denbora igaro (mugikorra, tableta, ordenagailua, kontsola, telebista)	1	2	3
4. Bideojokoetan jolastu	1	2	3
5. Sare sozialak erabili	1	2	3
6. Familiarekin etxean denbora pasa (jolasean, gauza entretenigarriak egiten)	1	2	3
7. Familiarekin etxetik kanpo denbora pasa (txangoak, ibilaldiak)	1	2	3

19. Une honetan, zenbateraino zaude pozik aisialdian egiten dituzun jarduerekin?	
1	Oso pozik
2	Nahiko pozik
3	Ez oso pozik
4	Batere pozik ez

20. Pandemia-egoera kontuan hartuta, bururatzen al zaizu zure eta zure lagunen aisialdia hobetzeko egin daitekeen zerbait?	

21. Pandemia amaitzean, eta berriro aisialdiaz nahi genukeen bezala gozatzeko aukera dugunean, zure ustez, zenbat hobetuko lukete zure aisialdia hurrengo ekintzek?				
	Asko	Nahikoa	Gutxi	Ezer ez
1. Auzoetan jarduera gehiago antolatzea	1	2	3	4
2. Musika, antzerkia, dantza, pintura eta antzerako jarduera gehiago antolatzea.	1	2	3	4
3. Kirol arloko jarduera gehiago antolatzea	1	2	3	4
4. Guztiok (mugikortasun mugatua, behar bereziak, zailtasun ekonomikoak, etab.) parte hartzeko moduko jarduerak antolatzea.	1	2	3	4
5. Bestelako jendea ezagutzeko aukera ematen duten jarduerak antolatzea (beste auzo batzuetakoak, beste ikastetxe batzuetakoak, beste herrialde batzuetakoak, beste zaletasun batzuekin, etab.)	1	2	3	4
6. Udalak antolatzen dituen jarduerari buruzko informazio gehiago izatea	1	2	3	4
7. Udalari gehien gustatzen zaizkigun jarduerak proposatu ahal izatea	1	2	3	4

Hirian, ikastetxean, auzoan edo etxean egunerokotasunean bizi dituzun egoerei buruz egingo dizkizugu hurrengo galderak.

22. Zer maiztasunekin gertatzen dira egoera hauek zure inguruan?

	Beti	Normalean	Noizbait	Inoiz
1. Nire ikastetxean mehatxuak, umiliazioak, irainak, eraso fisikoak edo ziber-jazarpena gertatzen dira ikasleen artean	1	2	3	4
2. Nire auzoan mehatxuak, umiliazioak, irainak, eraso fisikoak edo ziber-jazarpena gertatzen dira haur edo nerabeen artean	1	2	3	4
3. Gurasoek oihu egiten didate eta gaizki tratatzen nautela sentitzen dut	1	2	3	4

23. Nola baloratzen dituzu zure ikastetxearen ondorengo alderdi hauek?

	Oso gaizki	Gaizki	Erdip urdi	Ondo	Oso ondo
1. Zentroko segurtasuna	1	2	3	4	5
2. Nire irakasleekin harremana	1	2	3	4	5
3. Laguntza behar dudanean irakasleek ematen didaten erantzuna	1	2	3	4	5
4. Nire gelakideekin harremana	1	2	3	4	5
5. Ikastetxeko instalazioak (eraikina, jolastokia, ikasgelak, etab.)	1	2	3	4	5
6. Baliabide informatikoak (ordenagailuak, pantailak, etab.)	1	2	3	4	5
7. Etxean egiteko bidaltzen dizkidaten zereginen kopurua					
8. Bizi naizen lekuarekiko hurbiltasuna	1	2	3	4	5

Orain, zure osasunarekin eta zeure buruarekin sentitzen zaren moduarekin lotutako beste galdera batzuekin jarraituko dugu.

24. Zure osasuna, oro har, honakoa dela esango zenuke:

1	Bikaina
2	Ona
3	Erdipurdikoa
4	Txarra

25. Azken 6 hilabetetan, zure adineko pertsonak normalean egiten dituzten jarduerak egiteko mugatu zaituen desgaitasun, gaixotasun edo osasun-arazo kroniko edo epe-luzeko bat daukazu?

1	Bai, eta modu larrian mugatu egin nau
2	Bai, eta mugatu egin nau, baina ez modu larrian
3	Ez daukat

26. Azken 6 hilabeteetan zer maiztasunekin izan duzu honakorik?

	Gutxitan edo inoiz ez	la hilero	la astero	Astean behin	la egunero
1. Buruko mina	1	2	3	4	5
2. Tripako mina	1	2	3	4	5
3. Bizkarreko mina	1	2	3	4	5
4. Aldarte baxua	1	2	3	4	5
5. Humore txarra edo suminkortasuna	1	2	3	4	5
6. Urduritasuna	1	2	3	4	5
7. Lo egiteko zailtasunak	1	2	3	4	5

27. Ondorengo gauzetatik, zeintzuk dituzu eta zeintzuk ez?

	Bai	Ez
1. Telefono mugikor propioa	1	2
2. Interneterako konexioa etxean WiFi bidez	1	2
3. Nik bakarrik erabiltzen dudan ordenagailu bat (mahai gainekoa edo eramangarria)	1	2
4. Egoera onean dauden bi oinetako pare	1	2
5. Eskolarako behar duzun materiala edo gauzak	1	2
6. Kirola egiteko edo zaletasunak praktikatzeko behar duzun materiala edo gauzak	1	2

28. Esaiguzu, zure kasuan, esaldi hauek egiazkoak diren ala ez:

	Bai	Ez
1. Tabakoa probatu dut	1	2
2. Alkohola edan dut kalean	1	2
3. Mozkortu egin naiz	1	2
4. Kalamua (haxixa, marihuana) probatu dut	1	2
5. Apostu egin dut ausazko jokoren batean	1	2
6. Mutil-laguna edo neska-laguna dut	1	2
7. Sexu-harremanak izan ditut	1	2

29. Orokorrean, non kokatzen duzu zure bizitza? Erantzun aurretik, pentsatu eskailera batean, non lehenak bizitzarik txarrena adierazi nahi duen, eta azken eskailerak berriz, bizitzarik onena. Non zaudela esango zenuke? Adierazi beherago ageri den laukian zure egoera hobekien islatzen duen zenbakia.

<input type="checkbox"/>	10	Ahalik eta bizitzarik onena
<input type="checkbox"/>	9	
<input type="checkbox"/>	8	
<input type="checkbox"/>	7	
<input type="checkbox"/>	6	
<input type="checkbox"/>	5	
<input type="checkbox"/>	4	
<input type="checkbox"/>	3	
<input type="checkbox"/>	2	
<input type="checkbox"/>	1	
<input type="checkbox"/>	0	Ahalik eta bizitzarik txarrena

Jarraian, parte-hartzeari lotutako zenbait gairi helduko diegu.

30. Haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko Vitoria-Gasteizen garatzen diren programa edo jarduera hauetakoren baten inguruan zerbait entzun duzu edo ezagutzen dituzu?

	Ezagutzen dut	Zeozertentzuz entzun dut	Ez dut inondik ere ezagutzen
1. Hurrek eta nerabeek parte hartzeko udal programa: AKTIBA(TU)	1	2	3
2. Haur eta Nerabeentzako Elkargunea	1	2	3

31. Ados al zaude ondorengo baieztapenekin?

	Bai	Ez
1. Haur eta nerabeek hiria hobetzen lagun dezakegu	1	2
2. Hiriko haur eta nerabeoi interesatzen zaiguna defendatzeko gai sentitzen naiz	1	2
3. Erabakiak hartzen dituzten pertsonak kontuan hartzen gaituztela uste dut	1	2

32. Zure ustez, hurrengo ekintzek zenbateraino hobetuko lukete hiri-mailako partaidetza zure partetik?

	Asko	Nahikoa	Gutxi	Ezer ez
1. Gure eskubideak hobeto ezagutzea	1	2	3	4
2. Nola parte hartu ikastea	1	2	3	4
3. Eragiten diguten arazoak konpontzeko dugun gaitasuna hobetzea	1	2	3	4
4. Seguru sentitzeko guneak sortzea, gure iritziak askatasunez adierazteko	1	2	3	4
5. Gure iritziak kontuan hartu eta horiei erantzuna ematea	1	2	3	4
6. Non eta nola parte hartu jakiteko informazioa jasotzea	1	2	3	4

33. Zein garrantzi daukate zuretzat ondorengo alderdiek zure auzoan?

	Garrantzi handia	Garrantzi txikia	Inolako garrantzirik ez
1.Lasaitasuna	1	2	3
2.Segurtasuna	1	2	3
3.Edertasuna	1	2	3
4.Garbiketa	1	2	3
5.Mugikortasuna eta trafikoa	1	2	3
6.Kutsadura eta beste ingurumen-arazo batzuk	1	2	3
7.Bizilagunekiko harremana (adibidez, elkar agurtzea, auzoko pertsonekin hitz egiteko gelditzea, etab.)	1	2	3
8.Pertsona guztientzako irisgarritasuna (adibidez, gurpil-aulkiak edo makuluak erabiltzen dituzten pertsonen mugikortasuna ahalbidetzen duten arrapalak, atsedeen hartzeko eserlekuak)	1	2	3

34. Zure auzoari begira, alderdi hauetatik zeintzuk hobetu litezke?

	Hobetu daitekeela uste dut	Ongi dago
1.Lasaitasuna	1	2
2.Segurtasuna	1	2
3.Edertasuna	1	2
4.Garbiketa	1	2
5.Mugikortasuna eta trafikoa	1	2
6. Kutsadura eta beste ingurumen-arazo batzuk		
7.Bizilagunekiko harremana (adibidez, elkar agurtzea, auzoko pertsonekin hitz egiteko gelditzea, etab.)	1	2
8.Pertsona guztientzako irisgarritasuna (adibidez, gurpil-aulkiak edo makuluak erabiltzen dituzten pertsonen mugikortasuna ahalbidetzen duten arrapalak, atsedeen hartzeko eserlekuak)	1	2

35. Nola baloratzen duzu zure auzoko instalazio hauetako bakoitza?

	Oso ondo	Ondo	Erdip urdi	Gaizki	Oso gaizki
1.Berdeguneak eta lorategiak	1	2	3	4	5
2.Kirol-instalazioak (kantxak, kiroldegia, etab.)	1	2	3	4	5
3.Jolasteko eta denbora pasatzeko espazioak (jolasguneak dituzten parkeak, esertzeko eserlekuak, etab.)	1	2	3	4	5
4.Dendak, supermerkatuak, jatetxeak, farmaziak, etab.	1	2	3	4	5
5.Garraio publikoa (autobus-geltokiak, tranbia)	1	2	3	4	5
6.Bidegorriak	1	2	3	4	5
7.Ikastetxeak	1	2	3	4	5
8.Gizarte-etxeak	1	2	3	4	5
9.Osasun-zentroa	1	2	3	4	5

36. Normalean, nola joaten zara ikastetxera? Aukera bakarra adierazi, ohikoena dena iruditzen zaizuna.	
1	Oinez
2	Bizikletaz edo patinetez
3	Eskolako autobusean
4	Garraio publikoan (autobusa, tranbia)
5	Autoan edo motorrean

Amaitzeko, galdera batzuk proposatzen dizkizugu, covid-19ren pandemia-egoerak zure ongizatean eta bizi-baldintzetan dituen ondorioei buruzkoak.

37. Zure ustez, zer zentzutuan aldatu da zure bizitza covid-19ren egoeratik?					
	Asko hobetu da	Pixka bat hobetu da	Ez da aldatu	Pixka bat okertu da	Asko okertu da
1. Nire osasun fisikoa	1	2	3	4	5
2. Nire aldartea	1	2	3	4	5
3. Lagunekin dudan harremana	1	2	3	4	5
4. Gelakideekin dudan harremana	1	2	3	4	5
5. Nire errendimendua eskolan	1	2	3	4	5
6. Irakasleekiko harremana	1	2	3	4	5
7. Bizi naizen pertsonetikiko harremana	1	2	3	4	5
8. Etxeko egoera ekonomikoa	1	2	3	4	5

38. Azken 30 egunetan, covid-19rekin lotutako ondorengo arazoiekiko <u>zein izan da zure kezka-maila?</u>				
	Ezer ez	Gutxi	Nahikoa	Asko
1. Covid-19rekin nire burua kutsatzeko aukera	1	2	3	4
2. Covid-19agatik beste pertsona bat kutsatzeko aukera	1	2	3	4
3. Nire familiako norbait, lagun bat edo hurbileko norbait covid-19gatik kutsatzeko aukerak	1	2	3	4
4. Nire familiako norbait, lagun bat edo hurbileko norbait covid-19gatik hiltzeko aukerak	1	2	3	4
5. Covid-19ren aurreko egoerara itzultzeko geratzen den denbora	1	2	3	4
6. Datozen hilabeteetan zer gertatuko den ez jakitea (etorkizunarekiko ziurgabetasuna)	1	2	3	4

39. Covid-19 pandemiaren aurrean hartu diren neurrien aurrean, adierazi zenbateraino zauden ados honako baieztapen hauetako bakoitzarekin

	Gehienbat ados	Ez ados, ez desados	Gehienbat desados
1. Nire ustez, hirian hartutako neurriek covid-19ren hedapena murrizten lagundu dute	1	2	3
2. Vitoria-Gasteizeko haur eta nerabeak covid-19tik babesteko neurri nahikoak hartu direla uste dut	1	2	3
3. Pandemiak iraun bitartean hartu diren gomendio eta neurri guztiak bete ditut	1	2	3
4. Nire ustez, ikastetxean covid-19ren aurkako neurriak betetzen ari dira (ikasgelak aireztatzea, tenperatura hartzea sartzean, distantzia fisikoa).	1	2	3
5. Uste dut norbera babesteko neurriak hartzea (maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, distantzia mantentzea, etab.) lagungarria izan daitekeela pertsonen osasuna babesteko	1	2	3

40. Etxean konfinatu aurreko unean, allá por marzo del año pasado, ¿pasa den urteko martxoan, zure egoera zein zen pentsatuta, non zeundela sentitzen duzu? Erantzun aurretik, pentsatu eskailera batean, non lehenak bizitzarik txarrena adierazi nahi duen, eta azken eskailerak berriz, bizitzarik onena. Non zeundela esango zenuke momentu horretan? Adierazi beheerago ageri den laukian zure egoera hobekien islatzen duen zenbakia.

<input type="checkbox"/>	10	Ahalik eta bizitzarik onena
<input type="checkbox"/>	9	
<input type="checkbox"/>	8	
<input type="checkbox"/>	7	
<input type="checkbox"/>	6	
<input type="checkbox"/>	5	
<input type="checkbox"/>	4	
<input type="checkbox"/>	3	
<input type="checkbox"/>	2	
<input type="checkbox"/>	1	
<input type="checkbox"/>	0	Ahalik eta bizitzarik txarrena

41. Gehien gustatzen zitzaizkizun gauzetatik, zeintzuk dira pandemiaren ondorioz orain egin ezin dituzunak eta gehien faltan botatzen dituzunak?

Mila esker erantzuteagatik

III. ERANSKINA

Udal-teknikariei zuzendutako galde-sorta, II. HANUP planaren balorazioari eta COVID-19aren pandemiak ekarritako agertoki berriari buruz

II. PLINA eta Vitoria-Gasteizko Haur eta Nerabeen egoera testuinguru berri baten aurrean

Vitoria-Gasteizko udalak haur eta nerabeen eta haien familien egoeraren 2021. urteko azterketa-diagnostikoa abian jarri du, SIIS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin batera. Galdetegi hau azterlan horren prozesuaren barruan kokatzen da.

Galdetegia Haur eta Nerabeen Udal Planean jasotako ekintzetan nolabaiteko inplikazioa duten udal-teknikariei zuzenduta dago, eta honako helburu hauek ditu:

- II. PLINArekin (2018-2022) zerikusia duten hainbat alderdiri buruz duzuen balorazioa ezagutzea.
- Hautzaroaren eta nerabezaroaren egoera ezagutzea, bizitza-sozial eta komunitarioari lotutako hainbat arlotan eta, bereziki, covid-19ak eragindako egoera berriari dagokionez.

Galdetegiak 18 galdera ditu, eta erantzuteko gutxi gorabeherako denbora 15 minutukoa da.

Galdetegiari erantzuteko epea apirilaren 9an bukatzen da.

Zalantzarik baduzu, jarri gurekin harremanetan hurrengo helbide elektronikoaren bidez: documentacion@siis.net

Eskerrik asko.

Lehenengo atala: Vitoria-Gasteizko Haur eta Nerabeen II. Udal Planaren balorazioa (2018-2022)

Galdetegiaren lehenengo atal honetan 11 galdera kuantitatibo eta kualitatibo daude, indarrean dagoen Haurren eta Nerabeen II. Udal Planarekin lotutako hainbat alderdiri buruzkoak.

1. Zein da Vitoria-Gasteizko Haur eta Nerabeen II. Udal Planari buruz duzun ezagutza-maila?

1	Asko
2	Nahiko
3	Gutxi
4	Batere ez

2. Parte hartu al zenuen, nolabait, II. PLINA egiteko prozesuan, bai 2017an egin zen diagnostikoan (hiriko haurren eta nerabeen egoerari buruz) edota PLINAREN dokumentua egiteko fasean?

1	Bai
2	Ez

3. Zein da zure balorazioa II. PLINA egiteko prozesuari buruz? Prozesuan parte hartu ez bazenuen ere, galdera honi erantzun diezaiokezu, betiere Plana egiteko jarraitu ziren urratsen berri baldin baduzu

1	Oso ona	→ joan 5. galderara
2	Nahiko ona	→ joan 5. galderara
3	Hala-holakoa	→ joan 4. galderara
4	Nahiko txarra	→ joan 4. galderara
5	Oso txarra	→ joan 4. galderara
9	Ez daukat informazio nahikorik balorazioa egiteko → joan 5. galderara	

3. Zeintzuk dira II. PLINA egiteko prozesuan gutxien gustatu zitzaizkizun alderdiak edo, zure ustez, etorkizuneko Planari begira hobetu daitezkeenak?

4. Parte hartu al duzu inoiz Haur eta Nerabeen arloko Udal Koordinaziorako Organo Teknikoan edo, oro har, II. PLINAN jasotako ekintzaren bat aurrera eramateko koordinazio-bileraren batean?

1	Bai
2	Ez

6. Zein da zure balorazioa II. PLINAREN koordinazio- eta dinamizazio-prozesuari buruz? Koordinazio-ekintzetan parte hartu ez baduzu ere, galdera honi erantzun diezaiokezu, betiere honen inguruko informazio nahikorik baldin baduzu

1	Oso ona	→ joan 8. galderara
2	Nahiko ona	→ joan 8. galderara
3	Hala-holakoa	→ joan 7. galderara
4	Nahiko txarra	→ joan 7. galderara
5	Oso txarra	→ joan 7. galderara
9	Ez daukat informazio nahikorik balorazioa egiteko → joan 7. galderara	

5. Zure ustez, zeintzuk dira hobetu daitezkeen arloak?

--

6. Zein da zure ezagutza-maila, zure jardura betetzen duzun erakundearen (sailaren, zerbitzuaren, erakunde autonomoaren edo udal-enpresaren) ardurapean dauden II. PLINAREN ekintzei buruz?

1	Asko
2	Nahiko
3	Gutxi
4	Batere ez

7. Balora ezazu, oro har, zure jardura betetzen duzun erakundearen (sailaren, etab.) ardurapean dauden II.PLINAREN ekintzen betetze-maila, 2018tik 2020ra bitarteko aldia soilik kontuan izanda. Balorazioa egiteko, 0tik 10era bitarteko eskala erabili, non 0ak "ez da batere bete" eta 10ak, "erabat bete da" adierazten duten

0 Ez da batere bete	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 Erabat bete da	99 Ez dakit
------------------------	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----------------------	----------------

8. Ekintza horietan eta Planaren indarraldi osoan (2018-2022) pentsatuta, uste duzu COVID-19ak eragindako pandemia-egoera oztopo bat izango dela, II.PLINAn aurreikusitako ekintzak behar bezala burutzeko?

1	Bai, oso oztopo handia
2	Bai, oztopo nahiko handia
3	Bai, baina oztopo txiki bat
4	Ez, ez da oztopo izango
9	Ez dakit

9. Zure ustez eta PLINARI buruz duzun ezagutzan oinarrituta, zeintzuk dira Planaren indarguneak edo hobekien baloratuko zenituzkeen alderdiak?

<i>Alderdi positiboak</i>	<i>Alderdi negatiboak</i>

Bigarren atala: Gaur egungo egoeraren diagnostikoa eta pandemiak eragindako testuinguru berriaren definizioa

Jarraian, Vitoria-Gasteizko haur eta nerabeen arazo eta behar nagusiei eta udal honek arazo eta behar hauei emandako erantzunari buruzko galdera batzuk egingo dizkizugu.

10. Zeintzuk dira, zure ustez, haur eta nerabeek eta hauen familiek une honetan dituzten behar, arazo edo zailtasun nagusiak? (kontuan izan gabe behar, arazo edo zailtasun horiei heltzea udalaren eskumena den edo ez)

Erantzuteko orduan, egungo pandemia-egoerak sortu edo areagotu dituen arazoak ez ezik, kontuan izan aurretik zeuden eta pandemia-egoerak eragin ez dien bestelako arazoak ere.

Erantzuna errazteko, hainbat gai-multzo proposatzen dizkizugu. Irizpide tekniko bat eskaini dezakezun gai-multzoei bakarrik erantzun.

Aldaketa demografikoak (immigrazioa, zahartzaroa...)	
Familia (aniztasuna, genero-rolak, gurasotasuna, gatazka, etab.)	
Hezkuntza (eskolatzea, eskolako bizikidetzak, eskola bertan behera uztea, segregazioa, etab.)	
Osasuna eta ongizate emozionala (ohiturak, elikadura, arrisku-jokabideak, etab.)	
Bizimoduak (aisialdia eta denbora librearen kontsumoa, teknologia berrien erabilera, etab.)	
Ingurunea eta mugikortasuna (segurtasuna, garraioak, hiri-plangintza, ingurumena, etab.)	
Parte-hartzea eta gizarte-eskubideak	
Egoera sozioekonomikoa, beharrak eta etxebizitza	
Zauggarritasuna eta babesgabatasun-arriskua	
Beste eremu batzuk	

11. Aurreko galderan eman duzun erantzunari jarraituz, eta kontuan izanda zure jarduera betetzen duzun erakundearen (sailaren, zerbitzuaren, erakunde autonomoaren edo udal-entresaren) jarduera arloa, zure ustez, nola ekin dakieke arazo edo behar horiei?

Erantzuteko orduan, kontuan izan aurreko galderan proposatu ditugun gai-multzo berdinak.

Aldaketa demografikoak (immigrazioa, zahartzaroa...)	
Familia (aniztasuna, genero-rolak, gurasotasuna, gatazka, etab.)	
Hezkuntza (eskolatzea, eskolako bizikidetzak, eskola bertan behera uztea, segregazioa, etab.)	
Osasuna eta ongizate emozionala (ohiturak, elikadura, arrisku-jokabideak, etab.)	
Bizimoduak (aisialdia eta denbora libre, kontsumoa, teknologia berrien erabilera, etab.)	
Ingurunea eta mugikortasuna (segurtasuna, garraioak, hiri-plangintza, ingurumena, etab.)	
Parte-hartzea eta gizarte-eskubideak	
Egoera sozioekonomikoa, beharrak eta etxebizitza	
Zaugarritasuna eta babesgabetasun-arriskua	
Beste eremu batzuk	

12. Zure ustez, COVID-19aren krisiak zein haur eta nerabe-taldetan izan du (edo izango du) inpaktu negatibo handiena?

13. Nola baloratzen duzu zure zerbitzuak (edo dagokion erakundeak) etxean konfinamendu egoeran egon ginen hilabeteetan emandako erantzuna (2020ko martxoa eta maiatza bitartean)? Zer indargune eta zer muga ikusi dituzu? Zure ustez, antzeko egoeraren bat berriro gertatuko balitz, hobeto prestatuta egongo zinatekete?

- 14. Etxean konfinatuta egon ginen hilabetei dagokionez, zure ustez, normalean ematen diren udal-zerbitzu gehienak partzialki edo erabateko jarduerarik gabe egoteak eragina izan al zuen zenbait haur, nerabe eta familien ongizatean? (erantzun zuk lan egiten duzun zerbitzuagatik bakarrik)**

- 15. Gaur egun, zure ustez, zeintzuk dira pandemia-egoeraren ondorioak zure lan arloaren barruan haur eta nerabeei zuzenduta dauden zerbitzuen edo programen funtzionamendu egokian?**

- 16. Zure ustez, COVID-19ak eragindako pandemiak eta egoera horrek dakartzan ondorioek eragotzi egin dute (edo egingo dute) zure jarduera betetzen duzun erakundearen (sailaren, zerbitzuaren, erakunde autonomoaren, edo udal-enpresaren) ardura diren PLINAREN ekintzak betetzea?**

Baietz erantzun baldin baduzu, adierazi, mesedez, zure ustez, nola bidera litekeen Plana, geratzen den indarraldirako.

Galdetegiaren amaiera

Eskerrik asko parte hartzeagatik